

KLASIKOAK, S.A. lukro-asmorik gabeko elkarateak argitaratu du obra hau, elkaratearen sustatzaile eta partaideak honako erakunde hauek izanik:

Fundación BBVA

•

Bilbao Bizkaia Kutxa — BBK

•

Gipuzkoa Donostia Kutxa — KUTXA

•

Caja VITAL Kutxa

•

Euskal Herriko Unibertsitatea — UPV/EHU

•

Deustuko Unibertsitatea



PRAGMATISMOA



WILLIAM JAMES

# Pragmatismoa



Jatorrizko izenburua:  
*Pragmatism*  
Euskaratzailea: Alberto Gabikagojeaskoa  
Berrikuslea: Andoni Ibarra  
Hitzaurregilea: Christopher Hookway

Lehen argitalpena: 2001eko azaroan

© Itzulpenarena: Alberto Gabikagojeaskoa  
© Klasikoak, 2001.  
Begoñako Andra Mari, 16 • 48006 Bilbo  
Tel.: 94 • 416 14 89 / Fax: 94 • 416 63 48  
klasikoak@klasikoak.com  
www.klasikoak.com

Erabat debekaturik dago, Copyright-titularren idatzizko baimenik gabe, legeek ezarritako zigorraren pean, zatika edo osorik obra hau birsortzea edozein bitartekoz edo prozeduraz, erreprografia eta trataera informatikoa barne direla, baita beronen aleak alokapen edo mailegutza publikoaren bidez banatzea ere.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia 2001-VII-11

ISBN: 84-88303-26-2  
Lege gordailua: BI.-2062-01

Fotokonposaketa: L&A Diseinua  
Begoñako Andra Mari, 10 • 48006 Bilbo

Inprimaketa: Gestingraf L. B. A.  
Ibarsusi Bidea, 3 • 48004 Bilbo

Diseinua eta Maketa: A.I.C.  
Infante Don Juan Etorbidea, 26 • 20008 Donostia

# HITZAURREA

*Pragmatism* liburuaren edukia William Jamesek 1906aren amaieran eta 1907aren hasieran, —hil baino hiru urte lehenago— New Yorkeko Columbia Universityn emandako zazpi hitzaldi dira. Estilo herritar eta bizian idatziak, «mugimendu pragmatistaren» karakterizazio orokor bat eskaini nahi dute. Hitzaurrean berak dioen bezala, Jamesek burura datorkion bezalako pragmatismoaren deskripzioa agintzen du, «trazu handika jardun eta eztabaidako xehetasunak ekidinez». Honek gehitu egiten du liburuaren erakargarritasuna: Jamesek bere gogo bizia eta ideia hauen garrantzi eta zirrararen sen grinatsua bizitasunez helarazten dizkio irakurleari. Era berean, areagotu egiten du liburu honi filosofikoki ihardesteko zailtasuna: Jamesek nahita dihardu argudioak doitasunez azaltzeko edo posizioak zehazki formulatzeko ardurarik gabe. Horregatik, ez da harritzekoa irakurle batzuek —adibidez, Bertrand Russell eta G.E. Moorek— haren baiepen zirraragarrien eta arduragabekoenetako batzuen aurrean egonarri gutxiko ezeztapenez erreakzionatzea. Jamesen

iritziak haren lehenengo kritikariek uste zuten baino askoz sofistikatuagoak dira, eta ez hain nabarmenak, hurrik eman ere, eta orain haiek ulertu zuten baino hobeto ulertzen hasiak gara nora garamatzaten haren ideiek. Saiatuko naiz hitzaldiok garrantzitsu zerk egiten dituen azaltzen eta pentsamendu garaikiderako duten inportantziari buruz zerbait esaten.

«*Pragmatism*» hemeretzigarren mendearen bigarren zatian agertu zen filosofiari egindako ekarri nabariki amerikarra da. Pragmatismoaren urre-aroaren hasierako kideak William James bera, beronen laguna zen Charles Sanders Peirce eta, geroxeago, John Dewey izan ziren. 1930eko hamarkadaren ostean, beherakada handia egin zuen filosofia amerikarrean pragmatismoak izandako garrantziak; Amerikako bizitza filosofikoan filosofia analitikoak gaina hartu zuenean, James eta beste pragmatistak gutxi irakurriak ziren eta uste zen euron lanak historikoa beste interesik ez zuela. Hala ere, mendea amaierara heltzean, pragmatismoa berriz tinkotu zen: Hilary Putnam eta Richard Rorty bezalako pertsona ospetsu askoren eraginez, Jamesek eta beste pragmatistek gure problema filosofikoetara egindako ekarria garrantzitsutzat hartu zen berriro. Baliteke mugimenduaren «izaera nabariki amerikarra» izatea Russell eta Moore bezalako pentsalariak pragmatismoa serio ez hartzera eraman zituena: tradizio intelektualik gabeko eta etsai-ingurune potentzial batean bizirauteko premia praktikotan engaiatuta zegoen herrialde gazte baten adierazpide filosofiko modura ikusten zuten. Ikusiko dugun moduan, pertzepzio hau okerra da: pragmatismoa sustraiak bai Europan eta bai Estatu Batuetan zeuzkan tradizio intelektual batetik etorria zen, eta gure dilema intelektualen eta behar emozionalen ulermen sofistikatu batean zetzan.

«Mugimendu pragmatistak» ia berrogei urte zituen aipaturiko hitzaldiak eman zirenean. James eta Charles Sanders Peirce, bere pragmatista kidea, bat zetozen esatean mugimen-



du hau 1871n Cambridge Massachusettsko «Klub Metafisiko» batean sortu zela. Peirce eta James gogotsu zebiltzan horrela-ko eztabaidetan, biongan eragin handia zuen beste filosofo bat, Chauncey Wright, ere zebilen bezalaxe. Abokatuak ere baziren tartean, hala nola, Nicholas St John Green eta Oliver Wendell Holmes. Eztabaidaturiko gaietako asko Peirceren logikari buruzko idazlanetan (1870eko hamarkadan) eta Jamesen *Principles of Psychology* liburu handian bukatu zen lanean (1890) agertu ziren. Hala ere, Jamesek «pragmatismo» hitza aipaturiko batzarretan erabili zela uste zuen arren, han zebiltzanen idazlan publikatuetan ez eskuizkribuetan ez dago horren arrastorik, harik eta Jamesek 1898an «*Philosophic conceptions and practical realities*» (Ikusmolde filosofikoak eta errealitate praktikoak) izeneko hitzaldi batean erabili zuen arte. Jamesen idazlanen indarrari eta nortasunari zor zaien ordaina da 1906 aldera termino hori ikusmolde filosofiko garrantzitsua izatea hitzaldi hauetan hartu zuen tratamenduari esker. Garai hartan itzal handiko pragmatistak zeuden Britainia Handian, Frantzia eta Italian, baita Estatu Batuetan ere.

Jamesen liburuaren azpitituluak, «*A New Name for some Old Ways of Thinking*» (Izen berri bat zenbait pentsamolde zaharrentzat), erakusten du ezen, Pragmatismoa Estatu Batuetan formulatu bazen ere, beraren doktrina nagusiak beste tradizio filosofiko batzuetatik zirela ezagunak. Peircek pragmatismoaren aitzindaritzat zeuzkan Spinoza, Berkeley eta Kant: Jamesek bere *Pragmatismen* eskaintzan dio berak «gogo irekitasun pragmatikoa» John Stuart Mill filosofo utilitarista ingelesarengandik ikasi zuela. Hitzaurrean, aldiz, haxe seinatzen du:

«Filosofian beti izan diren zenbait joerak beren izate kolektiboaren eta elkarrekin konbinaturik duten eginkizunaren kontzientzia hartu dute denek batera; eta hau hainbeste herrialdetan eta hain ikuspegi ezberdinetatik gertatu da, non bat ez datozen planteamendu asko sortu baitira».

Zenbait ideia ezagun eta zahar, uste du antza hark, elkar-tu ziren, problema filosofikoei buruz pentsatzeko eta euroi erantzuteko era berri bat gauza zedin. Berauek konbinatzeko modua nabariki amerikarra izan bazen ere, ideiak eurak ez ziren horrelakoak. Hitzaldien xedea zera da: pragmatismoa zehazki zer den munduari esatea —eta Jamesen kide pragmatistei gogoraraztea.

Liburuaren edukia aztertzen hasi aurretik, komeni da nonbait ere Jamesek pragmatismoaren garapenera ekarri zituen ezaugarri pertsonalez eta oinarri intelektualaz zerbait jakitea. 1842an jaio zen New Englandeko handikien familia batean. Haren aita, Henry James, izaera nabarmeneko intelektual bat izan zen, Swedenbergen idazlan mistikoen eragina nabari zitzaiena. Seme alabak bultzada intelektual handiaz hezitakoak ziren eta, ondorioz, depresiorako joera gelditu zitzairen. Williamen anaia, Henry, nobelagile famatu bat zen, eta ahizparen, Aliceren, egunkariak lorpen literario handizat hartuak izan ziren, bera hil eta gero argitaratu zirenean. Harvarden estudiatu ondoren, Williamek lehenbizi artista izan nahi zuen. Pintore izateko talenturik ez zuela konturatu zenean, Harvardera eta bizimodu akademikora itzuli zen. Medizina, psikologia eta filosofiako irakasle izan zen hurrenez hurren. *The Principles of Psychology* testuliburu klasiko bat zen jakintzagai honetan eta, ikusiko dugun moduan, Jamesek han aldezten zituen iritzi eta kontzeptuen zerrenda funtsezko oinarria zen haren pragmatismoarentzat. Arte ederrekiko ukan zuen engaiamenduak eta bere depresioarekin jardun beharrak ideiek eta teoriak gure ongizatea areagotu ahal izateko, guri hobeto bizitzen lagundu ahal izateko, dituzten era ezberdinen ikuspegi «pluralista» aberats batez hornitu zuten. Hau agerikoa da batez ere sinesmen erlijiosoaren izaerari buruzko idazlane-tan, hala nola, *The Will to Believe* eta *The Varieties of Religious Experience* lanetan eta *Pragmatismen* atal ospetsuenean (edo ezagunenean), egiari buruzko informe berezian.

Ongi legoke «pragmatismoaren» definizio bat emanaz hastea. *Tradizio* filosofiko baten izena denez, ez dago hori egiterik: pragmatista ezberdinek ezberdinki deskribatzen dituzte beren jarrerak eta puntu ezberdinak nabarmentzen dituzte. Beraietako gehienentzat filosofia egiteko modu bat da, problema filosofikoetara hurbiltzeko era bat, eta lehenengo hiru hitzaldiak hainbat eratarai saiatzen dira Jamesek bere pragmatismorako funtsezkotzat hartzen duena atzematen. Horixe ulertzen ahaleginduz hasiko gara.

## II

Pragmatismoa, hartara, problema filosofikoetara hurbiltzeko era bat da, filosofian aurrera egiteko bide bat. Bigarren hitzaldiraino ez gara heltzen metodo hau zer den jakitera, zeren James bere garaikideek aurre egin beharreko dilema intelektual nagusiak deskribatuz hasten baita; gero pragmatismoa gomendatzen du, bere garaiko beharrian filosofikoei erantzuteko bide moduan.

Ez da harritzekoa hemeretzigarren mendearen amaierako dilema filosofikoa honako bi hauen arteko gatazka bezala ikusi izana, alegia, alde batetik, natur zientziek, bereziki fisikak eta biologia eboluzionistak iradokitako geure buruaren eta munduaren ikuspegiaren, eta, bestetik, sinesmen erlijiosoaren, moralaren eta etorkizunari optimismoz aurre egin beharriaren eskakizunen artekoa. Ikerketa zientifiko serio eta arduratsuak lege deterministek gobernatutako mundu fisikoaren zati garelako dioskue. Baina behin hau onartuz gero, aise ondoriozta daiteke ez garelako askatasunez jarduteko eta geure bizitzeko zentzua emateko gai: kontrolatu ezin ditugun indar fisikoaren biktima garelako. Pesimismorako bide alternatibo bat dago. Filosofo askok, kanpoko munduari edo teoria zientifikoei buruzko gure iritzi edo sinesteen alde ditugun frogez hausnarketa egitean, konklusio eszeptiko haxe ateratu dute: geure inguruari buruzko

ezagutzarik lortzerik ez dugula edo gure uste zientifikoak oinarririk gabekoak direla. Ekidin genezake, hartara, askatasunik ez daukagulako konklusio etsigarria, baina ezagumenik ez daukagulako iritzi era berean etsigarrira helduz gero soilik. Zintzotasun intelektualak ere zenbait konklusio ateratzera eraman gaitzake, hala nola, baloreak, balore moralak ere barne, errealak ez direla edo sinesmen erlijiosoak ez duela inondiko oinarririk. James bera, gazte zela, determinismoaren eta Darwinen hautespen bidezko eboluzioaren teoriaren inplikazioen inguruko pentsamenduen eraginez, etsipenak jota ibili zen luzaro. Unibertsoak ez du inolako xederik erakusten, itxuraz zarrastel hutsa da garatzeko duen moduan eta ez digu eskaintzen zoriontasuna lortuko edo geure bizitza behar bezala antolatu ahal izanen dugun bermerik.

Mundu-ikuskera zientifikoa pesimista da itxuraz, eta, zientziaren arrakastak metodo esperimentalen mende daudenez, arrakasta horiek iradokitzen dute sentsumenen bidez soilik har daitekeela ezagutza: enpirismoa da zientziaren ezagutzaren teoria. Baina enpirismoak arazo handiak ditu erlijio eta moralaren eremuetan ezagutza justifikatzeko. W.K. Cliffordek, zeinaren «sinesmenaren etika» gaiari buruzko lanak zirikatu zuen James «*The will to believe*» idaztera, aldarrikatu zuen ebidentzia egokirik eduki gabe zerbait sinestean, oker jokatzen dugula beti, eta erantzunbehar intelektualak erlijioari buruz agnostizismoa galdatzen duela. Honek ez zien eragozten beste filosofo batzuei jarrera baikorragoa hartzea, askatasunez jokatzeiko gai garela defendatzea eta sinesmen erlijiosoaren eta arau moralen objektibotasuna defendatzea. Ohi duten bezala, epistemologia razionalista onartzen dute, ondoko hauek baieztiz: gure arrazoimen hutsa funtsezko egiak atzemateko gai dela eta zientziak azaleko edo bigarren mailako ezagutzak baino ezin eskaini dituela. Jamesek gogoko zuen honako ideia hau, alegia, ez diogula jarraitu behar Cliffordi ongi bizitzeko behar ditugun sinesteak kenduko dizkigun agnostizismo mota

horren onarpenean, eta, aldi berean, uste zuen razionalismo mota gehienek intelektualki arduragabeak diren metodoak zerabiltzatela. Zerbait sinesteak hobeto sentiarazten gaituelako besterik gabe gauza hori sinestea ameskerian erortzea edo dela dirudi, eta hark uste zuen «printzipio razionalak» ahotan darabiltzan jende askok ezer gutxi esan zezakeela printzipiook zer diren eta berauen ezagutza nola hartzen dugun azaltzeko.

Dilema hau deskribatzeko era bat ardura (enpiriko) intelektualaren eta ongi bizitzeko ahalbidea ematen diguten iritzien (iritzi razionalisten) arteko gatazka moduan planteatzea da. Lehenengo hitzaldian, Jamesek iradokitzen du jendeak bi horien artean egiten duen aukera norberaren *izaeraren* mende dagoela: «gogo bortitzekoa» enpirismoari atxikiko zaio eta ondorio pesimistarekin biziko da; eta «gogo samurrekoa» optimismoz eta esanguraz beterik bizitzeko behar den sinesmen erlijioso eta moralari atxikiko zaio. Kasu horretan, ez dago aukera handirik argudio filosofikoez erabakitzeko zein ikuspegi den egokia: izaera diferente horiek dituen jendea dagoen bitartean, jende horren arteko gatazkak pentsamendu filosofikoan nagusi izaten segituko du.

Jamesek enpirista izan nahi zuen, baina era berean sinismen erlijiosoaren onurak, bere ekintza-askatasunarekiko konfiantza eta moralitatea ere atxiki nahi zituen. Pragmatismoa, hartara, «bitarteko» filosofia da: beronen helburua honako hau erakustea da: gogo samurrekoak bilatzen dituen onurak nola eskuratu, geure zintzotasun intelektualari uko egin gabe. Jamesen esperantza zera da, behin guk ikuspegi pragmatista hartuz gero, gatazkaren itxura desagertu egingen dela, eta iraultza zientifikoaz geroztik filosofoak obsesionatu dituzten problemak atzean utzi ahal izanen direla. Badirudi pentsatzen duela pragmatismoaren originaltasuna zera erakustean datzala, alegia, «ideia zahar» horiek nola konbina daitezkeen, gu aro honetako funtsezko dilema filosofikoa gainditzeko gai egiteko moduan.

Helburu hau argi ageri da jada bere «*The will to believe*» artikuluan. Clifforden kontra, baietsi zuen batzuetan razionala dela ebidentzia egokirik aurkitzen ez diogunean ere zerbait sinestea, nahiz eta hau oso zirkunstantzia berezietan bakarrik egin dezakegun. Demagun norbaitek maite nazan irrika bizian nagoela eta hori nola lortu jakin nahi dudala. Baldin, ebidentzia txikian oinarrituta, maiteko nautela uste badut, horrek gertagarriago bihurtzen du haiek ni maitatzea: ni lasai eta konfiantzaz egonen nahiz haiekin elkartzean eta honek maitagarriago egingen nau. Agian sineste hau razionala da, nahiz eta inportantea den gero gertakarien aurrean egiaztatu ahal izatea: sinesteari eusteko arrazoi praktikoa daukagu haren ebidentzia ukan *aurretik*, baina ez ebidentziatik eta esperientziatik erabat aparte dagoelako. Sinesmen erlijiosoaren kasuan —iradokitzen zuen— egon daiteke hari eusteko ebidentzia enpirikoa, baina jada Jainkoarengan sinesten duena bakarrik ohartuko litzateke horretaz. Berriro ere, enpirismoa arriskuan jarri gabe, agian razionala izan daiteke ebidentzia ukan aurretik sinestea, arduratsuak eta agnostikoak izateak guretzat oso garrantzitsuak diren gauzak galtzera eroanen gaituenean. Horrek bide bat eskaintzen digu enpirismoaren ondorio ezkorrak ekiditeko, razionalismo «gogo samurreko» eta arduragabeen erori gabe. Pragmatismoa askoz urrunago doa bide honetan behera.

Nola egiten du hori? Bigarren hitzaldian azaltzen den bezala, Jamesek «Pragmatismo» hitza *esan-nahiaren* printzipio bat identifikatzeko erabiltzen zuen: hitz hori, nahimenaren askatasunaren jabe garela edo zientzietan ezagutza geureganatzen dugula baiesten dugunean edo sinismen erlijiosoa aitortzen dugunean zer esan nahi dugun argi edukitzeko erabil daiteke. Gogoratu problema: ekintza-askatasuna edukitzea arrunt garrantzitsua da gure ongizaterako, baina hori gatazkan dago gure teoria zientifiko onenekin. Hartara, erantzunbehar intelektualak aske garela sinestea abandonatzeko eskatzen digu. Jamesen estrategia, ikusiko dugun moduan, ekintza-askatasu-

na diogunean zer esan nahi dugun galdetzea da. Haren pragmatismoak galdera honi erantzuteko bide berezi bat eskaintzen du, zera aztertzen duena, alegia, askatasuna edukitzea zehazki zergatik den hain inportantea termino praktikoetan. Askatasuna zer den hobeto ulertzeko modua emateaz gain, ezabatu egiten du gure problema: behin askatasuna zer den ulertzen dugunean, ohartzen gara hura edukitzea *ez* dagoela aipaturiko iritzizientifikoekin gatazkan. Askatasuna trakeski ulertu izanak eraman gaitu horretan problema zegoela uste izatera; eta pragmatismoak bide bat eskaintzen digu askatasunaren ulermen traketisa gainditzeko. Teknika honen aplikaziorik inportanteena *egia*ren kontzeptua da. Behin «egia» pragmatikoki ulertuz gero ikusi ahal izanen dugu sinismen erlijiosoa eta baloreei buruzko usteak edo sinesteak egiazkoak izan daitezkeela eta egiaaren bermea duten sinesteetara hel gaitezkeela.

### III: Pragmatismoa

Bigarren hitzaldia pragmatismoa zer den azaltzen saiatzen da. Jamesek *metodo* gisa deskribatzen du, «bestela amai-gabeak liratekeen eztabaidak ebazteko metodo» gisa. Metodoa baiessen honexetan datza: «Serioa denean eztabaida, tesi bat edo bestea zuzena izatetik eratorritako diferentzia praktikoren bat seinalatzeko gai izan behar genuke». Diferentzia hori aurkitzerik ez badago, «antzua» da eztabaida. Eta aurkitu ahal izanez gero, horrek eztabaida zertaz den ikusteko gai egiten gaitu.

Hau ulertzeko, «diferentzia praktikoa» esamoldeaz zer esan nahi duen galdetu behar dugu. 1878 artikuluan, «*How to Make Our Ideas Clear*» (Nola argitu geure ideiak) saiakeran, Peircek azaltzen duen pragmatismoaren bertsioa eztabaidatzen duenean, Jamesek objekturen bati buruz daukagun ikusmoldearen efektu praktikoak «beronengandik espero behar ditugun sentipenak» eta «prestatu behar ditugun erreakzioak» direla esanez deskribatzen ditu. Peirceren beraren adibideetako batek

lagun lezake hori ulertzen: zerbait *gogortzat* jotzen dugunean, aurreratzen ari gara hura urratzeko asmoz egindako ekintzek nekez eramanen gaituztela haren azala urratu egin dela ikustera. Peircek gero «laborategiko» filosofi modura deskribatu zuen, eta bat dator Jamesek onetsitako Ostwalden baiespen batekin, zera dioenarekin, alegia, kimikako eztabaidak galdera bat eginez ebazten direla, zehazki «ea zein gertakari esperimental konkretu zitekeen diferentea iritzi bat edo bestea zuzena izatearen eraginez» galdetuz. Hau ados dago Jamesek baiesten duenarekin, alegia, ikuspuntu enpirista dela hau eta azpia jaten diela a priori, zientifikoaren kontrakoa denez, metafisikari eta zientziari, bata bestetik askoz hurbilago ipinita. Baina —eta honek bitarteko funtzioa islatzen du— enpirismoa «sekula inoiz onartu den baino era erradikalagoan eta onargarriagoan» aurkezten du, lehenagoko enpirismo era askoren bekatuetatik aldentuz.

Hau nola egiten duen ez du oso ongi argitzen. Hala ere, geroago hitzaldian azpimarratzen dira Jamesen «enpirismo» mota konkretua berezi bihurtzeko garrantzitsu diruditen zenbait puntu. Lehenik, berak onartzen duen bezala, Jamesek ez du azaltzen, azaldu, zer hartzen den «ondorio praktikotzat», eta irakurle gehienek hark enpirista tradizionalak eta «laborategiko» filosofoek baino «ondorio praktikoen» sorta anitzagoa kontuan hartzen duen inpresioa jasotzen dute. Hau oso garbi ateratzen da pragmatismoa argitzeko aurkezten dituen adibide praktikoetatik eta beherago aztertuko ditugu eurotako batzuk.

Bigarrenik, Jamesek pragmatismoa bere *Psycholgytik* ezaguna den baiespen batekin, zehazki kontzeptuak eta teoriak lehenengo eta behin tresnak direla dioenarekin, lotzen du. Hau pragmatismoaren eta razionalismoaren artean egiten duen alderaketan ikusten dugu. Gertakari partikularrei aurre egiten eta esperientzia partikularrak jasaten ditugun bezalaxe, kategoria abstraktuak formulatzen ditugu, partikular horiek sailkatu eta azaltzeko gai egiten gaituztenak. Jamesek kategoria abs-



traktu horiek materia, arrazoi, Jainko, energi ... gisa aipatzen ditu. Razionalistek uste dute kategorია eta kontzeptu horiek intuizio intelektual moduko baten bidez atzeman ditzakegula: horien atzematea argiagօ eta ziurragօa dugu topatzen ditugun partikular mordo nahasgarriaren atzematea baino. Pragmatistek, ordea, kategorია abstraktu horiek (baita teoria zientifikoak ere) esperientzia partikularrak eratzeko gai egiten gaituzten neurrian esan-nahia hartzen duten tresnatzat dituzte. Razionalistek uste dute partikularrak ideia argiagօ eta abstraktu horiekin lotuz ulertzen ditugula; pragmatistek, aldiz, uste dute abstrakzioak ulertzen ditugula, esperientzian nola islatzen diren ulertzen dugulako, ondorio praktikoak nola dauzkaten ulertzen dugulako soilik. Honek pragmatismoaren haragoko karakterizazio batera garamatza: pragmatismoa «orientazio jarrera» bat da: *Lehenengo gauza, printzipio, «kategoria» eta ustezko beharretatik begirada alderatu, eta azken gauza, fruitu, ondorio, eta gertakarietarantz begiratzeko jarrera*. Baiespen honetako eskakizunek pragmatismoa «antintelektualismo» era bat dela ikusten laguntzen digute, baina badirudi James ahalegintsu dabilela ondorio praktikoak zer diren guri zehazki esatea ekidin nahian.

Honek guztiak iradokitzen digu Jamesen pragmatismoak inplikatzten duen guztia ikusteko bide bakarra hark pragmatismoa aplikatzten duenean zer jazotzen den ikustea dela. Behin ikusten dugunean problema filosofiko berezi batzuk zer itxura duten eurentara espiritu pragmatistaz hurbiltzean, orduan askoz hobeto ulertuko dugu zer inplikatzten duen «orientazio jarrera» honek.

Liburuaren gainerakoa pragmatismoa praktikan argitze-ko erabiltzen da. Argibiderik aipagarrienak II. hitzaldiko azken hirurena eta VI. hitzaldi osoa betetzen du. *Egiaren* kontzeptuaren argitzapen pragmatista bat da. Egia esan, adibide hau beste batzuk baino funtsezkoagoa da pragmatismoarentzat. Jamesek onartzen du «pragmatismo» hitza metafisikan erabil-

tzeko metodo gisa edo jarrera edo orientazio gisa ez eze, egia-  
ren ikuspegi berezi baten izen modura ere erabiltzen dela. Hori  
ez da harritzekoa. Egia bera filosofikoki kontzeptu kezka-  
garria da, pragmatismoak argitzea espero dezakeguna —espero  
izatekoa da gogo bortitzekoak eta gogo samurrekoak egia-  
inplikatzan duenaren ikuspegi ezberdinak edukitzea. Lehenengoak egiazko proposizioek gertakari enpirikoekin bat  
etorri behar dutela esanen du indarrez, eta esperientziak gerta-  
kari horiek identifikatzeko modu bat luzatzen digula. Gogo  
samurreko pentsalari batzuek, idealismo filosofikoa dutelarik  
maiz gogoko, gartsu esanen dute proposizio bat, batez beste  
onargarri den sinesteen sistema baten koherentzia laguntzen  
duen heinean, egiazkoa dela. *Egiari* buruz gauzak argi eduki-  
tzea inportantea da zalantzarik gabe.

Hala ere, Jamesek dioenean pragmatismoa egia-  
ren teo-  
ria bat *dela*, beste zer edo zer du buruan. Nik zerbait uste edo  
sinesten dudanean, egiazkoa dela uste dut; proposizio batek  
txunditzen nauenean, egiazkoa den jakin nahi izaten dut.  
Horrela Jainkoa existitzen dela —edo hautamena daukadala—  
dioen proposizioaz esan nahi dudanaren argitzapena beste hau  
izan liteke ongi asko, alegia, Jainkoa existitzen dela edo ekin-  
tza aserako gai naizela egia izateko nire ustez behar denaren  
argitzapena. Era berean, zerbait egiazkoa dela diodanean zer  
esan nahi duan argitzea, zerbait egiazkoa dela egiazkoa izate-  
ko zer behar den argitzea izan liteke. Horrela *egiazkoa* ez da  
era pragmatikoan argi edo iker dezakegun besteen moduko  
kontzeptu bat. Aitzitik, pragmatismoaren aplikazio oro, diru-  
dienez, *egia* izan litekeenaren esan-nahia ulertzeko ahalegina  
da. Horregatik, teknika *egia* ulertzeari aplikatzea erarik onena  
da *pragmatismoak beste aplikazioetan ere inplikatzan duena*  
hobeto atzemateko eta esan-nahirako zer nolako efektu prakti-  
koak diren garrantzitsuak ikusteko. Efektu praktikoa ideia  
baten esan-nahirako garrantzitsua izan daiteke, pentsa geneza-  
ke, baldin, eta soilik baldin, ideia-  
ren egia-  
rako inportantea

bada. Kasu horretan ez da harritzekoa Jamesek egia eztabaidatzea hitzaldietan: II. hitzaldian atariko eztabaida baten ostean, egia areago eztabaidatzeko darabil VI. hitzaldi osoa. Eta 1909an argitaratu zuen *Pragmatismen* jarraipenak *The meaning of Truth* zuen izena: lehenagoko liburuak jaso zituzten oker ulertuei eta kritika sumingarriei erantzuteko idatziriko artikulu bilduma bat zen.

## IV: Egia

Arestian ikusi dugun moduan, espero behar genuke Jamesen egiari buruzko eztabaidak guri honako hau ulertzen laguntzea, hots, zer nolako «efektu praktikoak» diren garrantzitsuak baiespen mota ezberdinak uler ditzagun. Noiz esaten dugu sineste bat —edo asertzio bat, edo teoria bat, edo egiazkotzat edo faltsutzat jotzen dugun beste edozer— egia dela? II. hitzaldiko egiari buruzko eztabaidak puntu inportante bi planteatzen ditu. Ideiak eta teoriak tresnak badira, orduan uste izan daiteke egiazkoak direla, xedetzat duten funtzioa behar bezala betetzen badute. Ideia zientifikoak «gure esperientziaren beste zati batzuekin erlazio onargarria lortzen laguntzen diguten hein berean dira egiazkoak». Ideia bat egiazkoa da esperientziaren alde batetik besterako ibilbidean gidatzen gaituenean, «horretarako gauzak behar bezala lotuz, seguru lan eginez, sinplifikatuz, lana aurreztuz». Honainokoa bat dator Jamesen pragmatismoaren «laborategiko» irakurketarekin: efektu praktikoak esperientziak dira. Bigarren puntuak antzerako garrantzia du. Egiaren ausia, «iritzi zahar» seguru multzo bat dauka-gula, esperientzia berri harrigarri samarren batek haiek atezuan jartzen dituenean eta iritzi zaharrotatik espero genuenarekin gatazkan jartzen denean sortzen da. Proposizio edo teoria berri bat *egiazkoa* dela diogu, esperientzia berri harrigarriarentzat lekua topatzea lortzen duenean, aldi berean gure ziurtasun zaharrak ahalik gutxien hondatuta. Kontserbado-

rismo epistemologiko moduko bat, daukagunari eusten segitzeko desira bat, baina aldi berean esperientzia berriaren zentzua ulertuta, funtsezko elementu gisa agertzen da Jamesen giza ezagutzaren hazkundeari buruzko ikuspegiari, baina baita egia-aren ideia-aren ulerkuntzan inplikaturata ere.

Honaino hau ez da ideia enpirista tradizionaletatik oso ezberdina. Hitzaldiaren azken-azkenean, Jamesek galdetzen du ea zer suposatzen duen ideia erlijiosoak egiazkoak izateak, eta hementxe aurkitzen dugu James «ondorio praktikoen» ideia liberalizatzen. Sorpresarik gabe aurkitzen dugu esaten ideia erlijiosoak, bizitza konkreturako balio izanez gero, pragmatismoarentzat egiazkoak izanen direla (beste ideia baliotsu batzuekin gatazkan sartzen ez diren neurrian). Baina ondorio praktikoko onuragarriok zein izan litezkeen pentsatzean, ikusten dugu «ongizate erlijiosoak» ere, hau da, gaizki finitua «baliogabeturik» dagoen sentipena, ondorio horien artean dela. Horrek esan nahi du dena ongi aterako den konfiantza ukan genezakeela eta munduko gaiztakerien erantzukizunaren zama ez dugula geure bizkarrean sekula gehiago ukanen. Badirudi sinesmen erlijiosoaren berrespena gu ongi sentiaraztean datzala, eta ez esperientziaren geroko ibilbideari buruz aurrean arrakastatsuak eskaintzean. Hauxe da filosofoak 1907az geroztik hainbestean harritu dituen Jamesen filosofiaren alderdia: badirudi ontzat ematen duela ameskeria. Sinesmen horri eustea guretzako *ona* izan baliteke ere, horrek ez du garrantzirik sinismen hori benetan *egiazkoa* den ebatzeko.

Jamesek objektzio hau zeharo errefusatzeko du, analisi pragmatistak azal dezakeen egia oker ulertzean baitatza haren ustez: pragmatismoarentzat «egiazkoa, sineste kontuan ona dela erakusten duen orori ezartzen zaion izena da». Jainkoarengan sinestea guretzat ona izateak, esate baterako, garrantzi zuzena du sineste hori egiazkoa den ebatzeko. Geroagoko idazkietan, egiazkoa sineste kontuan «komenigarria dena» dela esan ondoren, jarraitzen du esanez «zein-nahi

eremutan» dela komenigarria dena. Ez da harritzekoa hainbeste pentsalari haserre jartzea «ameskeria ontzat emate» horrek: minbizia duen emakumearentzat eta bere lagunentzat hobe da minbizia duela ukatzea, zerengatik, orduan, itxuraz, egia baita ez duela gaixotasun hori! James guk edonola eroso sentitzeko lagungarritzat ditugun ondorio absurdu horiek bazterrerara uzten saiatu zen, seinalatuz ezen beren alde batzuei zegokienez onak ziren sinesteak azpia janda zeukatela beste alde batzuetan. Esan zuen sineste on bat egiazkoa dela, «sineste horrek bide-nabar beste bizitza-onura handiagoren batekin talka egin ezean». Ongi sentiaraz nintzake gaixo dagoen lagun bat sendatuko dela pentsatzeak; baina sineste hori egiazkoa ez bada, ebidentziak gezurtatu egin lezake eta, orduan, damuaren ausi-kiak jota gera naiteke adiskidearen azken egunetan hari laguntzeko behar adina ez eginagatik. Geroago azpimarratu zuen moduan, egiazkoa sinestea epe luzera eta oro har on duguna da. Eta sineste mota asko eta askori dagokienez, egia honexetan datza, hots, esperientziarekin bat etortzean, gu aurrean baliotsu eta arrakastadunak egiteko gaitzean, guri geure bidea aurkitzeko tresnak eskaintzean.

Honaino esandakoa laburbilduko dugu orain. Sinesteak, usteak eta teoriak tresnak dira, eta funtzionatzen duten neurrian dira egiazkoak, beren eginkizuna betetzen duten neurrian. Eginkizun hau, kasurik gehienetan, gu geure esperientzia sensorialarekin erlazio onargarrian jartzea da. Geure bideak aurkitzen laguntzen digute, baita geure ekintzak arrakastaz planifikatzeko gaitzen gaituzten aurrean zuzenak egiten ere. Baina arestian ikusi ditugun adibideek erakusten dute Jamesek egiaren edo sineste arrakastatsuen ikusmolde zabalgia duela, ikusmolde enpirista tradizionala baino. Hala ere, hain zabala dirudi, non ez duen hartzen egiazko proposizioak errealitatearekin bat datoze edo berau kopiatu egiten dutela dioen zentzunezko ustea. Jamesek ez du kezka hau asko aipatzen II. hitzaldian; baina ikus dezakegu aitortzen duela problema, VI. hitzaldia gehienbat horixe eztabaidatzeko darabil eta.

## V: Nahimenaren askatasuna

Hirugarren hitzaldia Jamesek bere pragmatismoak sako-  
nak eta erantzun ezinezkoak ziruditen problema filosofikoak  
alde batera uzteko ahalbidea ematen diola azaltzeko darabil  
gehienbat. Hautamenari buruzko eztabaidan argitzen du nola  
hurbiltzen den pragmatista horrelako gai metafisikoetara eta  
nola sortzen dituen berenez interesgarriak diren galderak.  
Gogo samurrekoak, irakurlea oroituko da, «hautamenaren  
aldeko» peto-petoak dira eta giza askatasuna beraientzat «giza-  
kiari eransten zaion printzipio bat, ahalmen edo bertute positi-  
bo bat da, misterioski duintasuna areagotzen diona». Eta uste  
dute gogo bortitzeko enpiristak seguruenik gure duintasuna  
ukatzen eta gizakia beheratzen duten deterministak direla, esa-  
nez guk «ezer ezin dugula sortu»: guk «iragandako kosmosa-  
ren bultzada etorkizunari transmititu baino ez dugula egiten».  
Gaia sakona da, funtsezko arazo bat planteatzen duelako, ale-  
gia, ea gizakiok beste kreaturetatik bereizten gaituen «duinta-  
sun» berezi hori daukagunentz. Baina zergatik du garrantzia  
duintasun horrek? Erantzunik ohikoenak *errua* edo «erantzu-  
kizuna» aipatzen du: nire ekintzak nire neure historiak eta uni-  
bertsoaren historiak determinaturik badaude ni jaio aurretik,  
zelan eduki nazake ni inork indar horiek egitera behartu nau-  
ten ekintzen erantzuletzat. Baina, deterministen erantzun tipi-  
koa aipatuz, baldin nire egintzak nire balioak eta neure hezie-  
raren bidez hartu dudan izaera islatzen ez duten aukera libreak  
badira, maila bereko zentzugabekeria dela dirudi ni horien  
erantzuletzat edukitzea. Jamesek bere lehenengo hitzaldian  
deskribatzen dituen beste debate metafisikoetan gertatzen den  
bezala, arazoa duintasunetik planteatze honek amairik gabeko  
debate filosofikoa agintzen du, inor beteko ez duena.

Horregatik, James den pragmatistak galdetzen du ea zer-  
gatik kezkatzen garen nahimenaren askatasunagatik: zertarako  
balio digu kontzeptu honek geure bizitzetan? Duintasun eta  
erantzukizunarekiko obsesio hau, indartsu dio, lotsagarria da.

Gorespen eta erruaren inguruko galderak gizarte erakunde ezberdinak hobeto antolatzearekin daude lotuta: ez dute gai metafisiko sakonik sortarazten. Jamesek iradokitzen du hautamena inportantea dela, gauzak hobe daitezkeen esperantza baikorra ematen digulako: etorkizunak ez du nahitaez iragana bikoiztu beharrik. Azpiratu ahal ditut neure bizioak, lor dezaket neure bekatuen barkamena. «Hobekuntzari eusten dio, posibletzat bederen». Behin pragmatistak argi uzten duenean gorespen eta erruaren inguruko arazoak gaietatik bana daitezkeela, landua dugu geure iragana eta geure izaera gaindi genezakeela baikortasunez ikusteko lurra; behin bi horiek, dirudie-nez, elkarrekin lotzen dituen «duintasunaren» nozioa bertan behera uzten dugunean, galdera ez da jada ihardetsi ezinezkoa. Erruaren inguruko gaia gizarte antolaketen inguruko gai bihurtzen da; eta bigarren gaia, Jamesek «erlijiosoa» deitzen duena, den bezala ikusten da: etorkizunari espiritu baikorrez begiratzeari eskatzen digu, eta ez da begi-bistakoa, ez gutxiagorik, determinismo zientifikoak edo ikerketa arduratsuaren emaitzek zalantzan jarri behar dutenik honako hau oihukatzeko dugun gogoia: «Jainkoa bere zeruan dugu: dena doa ongi munda-n».

III. hitzaldiaren amaieran, Jamesek ikaskizuna ateratzen du adibide horietatik. Pragmatismoak lekuz aldatzen du «filosofiaren grabitate-zentroa». Filosofia tradizionalak ardura handia erakusten zuen printzipio eta oinarriekiko: hautamen metafisikoa bilatzen genuen, duintasunari, baita, adibidez, erantzukizunari dagozkion *printzipioei* ere loturik doana. Aitzitik, dio hark, «gu aurrera begira, gertakariei eurei so, jartzen gara»: auzirik inportanteenak hauexek dira, alegia, «zer gertatuko zaio mundu honi?; zer biziari luzera?» Hori ulertzeko, nahikoa da gogoratzea ideiak, kontzeptuak eta teoriak *tresnak* direla, geure esperientziarekin erlazio onargarrian jartzen gaituzten neurrian balioetsi behar direnak. Badira gaiak goresp-ena eta errua banatzeko gizarte antolaketa onargarrienen

inguruan; badira gaiak etorkizunari eta beronek eskaintzen dituen ahalbideei buruzko jarreraren inguruan, baita bizitza baikor eta hobegarri baterako behar diren jarreraren inguruan ere. Sineste «erlijiosoak», hautamena kasu, optimismo hori elikatzeke balio dutelako defendatzen dira; gorespena eta errua egozteko praktikak, berriz, ongi bizitzen laguntzen digutelako. Hartara bizkar ematen diogu jarrera erlijiosoek eta gure erantzukizun azturek oinarri *metafisikoa* —hau da, gure duintasunaren iturriari edo Jainkoaren izaerari buruzko printzipio eta gertakariak osaturiko oinarria— eduki behar duten ideiari. Pragmatismoaren dohain bat aipaturiko herentzia intelektualari bizkar emateko gai izan gaitezen laguntzean datza. Hautamenean dugun sinestea egiazkoa da gure bizitzak hobetzen laguntzen duelako; eta beraren esangura zer egiten duen erakutsiz azaltzen dugu.

## VI: Pluralismoa eta erlijioa

Liburuan datozen gainerako hitzaldiek filosofiaren berrantolaketa horrexen bila aztertzen du gaia. VI. hitzaldiak, pragmatismoa eta humanismoaz ari dena berau, deitoratu egiten ditu «munduaren igarkizunari emandako hitz bakarreko erantzun handi guztiak, hala nola, Jainkoa, Bata, Arrazoimena, Legea, Espiritua, Materia ...» eta zalantzan jartzen du batzuk onartzen dutena, hots, «Denean, zientzian, artean, moral eta erlijioan, sistema batek zuzena izan *behar* duela eta beste *guztiek* okerrekoak». Pragmatismoaren alde «humanista» «pluralismoan» ageri da: razionalistek «*aurretiaz eta oso-osorik egindako (ready-made)* mundua» ikusten dute, gizakiaren egitekoa haren «kopia» kognitibo zehatza lortzea izanik; James, ordea, «beti eginez doan» mundu batez mintzo da. Mundu «xaflakor» bat daukagu aurrean, gu bertan bizi garen eta berrari buruz pentsatzen ari garen bitartean garatzen ari dena, geure behar eta interesen arabera forma ematen diogularik. Atal



honetan Jamesen hizkuntzarik kriptikoen eta zeharkako aipamenez beterikoen aurkitzen dugu. Humanismoari buruz eta guk hau «egia bihurtzeari» buruz darabilen solasa iluna da, irakurlea haserretzeraino nonbait, eta Jamesen lan onenean topatzen ditugun adibide biziki landuen falta nabari zaio.

«Pluralismo» hau gairik zailenetarikoa da Jamesen lanean, baita filosofo garaikideentzat haren ekarria erakargarri bihurtu zuena ere. Baina zer da pluralismo hau? Eta zer dakarkio haren erlijioari buruzko ikuspegi pragmatistari? Monistek «mundua bat dela» uste dute; pluralistek ukatu egiten dute hori. Baina honek ez du oso garbi uzten auzia. IV. hitzaldiak argi uzten duen moduan, inork ukatu ezin dituen erak daude slogan monista ulertzeko: munduaren zati ezberdinak erlazio kausaleko egitura konplexuetan daude; etenik gabe joan gaitetzeke bidaian munduaren alde batetik bestera; ez dago munduko alderik, besteetatik zeharo isolaturik dagoenik, gu bertara bidaian joan ezin izateko moduan. Baina monista filosofikoek hori baino batasun handiagoaren bila dabiltza. Gauzak motatan sailkatzen ditugu: katuak eta txakurrak, ibaiak eta lakuak, planetak eta izarrak, etab. Zentzunak berez hartzen du egiaztat munduan gainjarritako gauza mota ezberdin asko daudela, mota hauek inportanteagoak edo ez hain inportanteak bihurtzen direlarik gure behar eta interesen arabera. Ikuspegi monistetako batek dio badela funtsezko sailkapen bat, gauzak *erreal*ki duten izaeraren arabera sailkatzen dituen. Beharbada funtsezko *mota* bakar bat dago munduan: zientifiko errealistek esan liezagukete funtsezko partikulak daudela munduan; beste metafisikariek, ordea, *substantziak* edo *izakiak* daudela. Beste monismo era bat sortzen da, unibertsoak *osotasun* gisa duen xedeaz edo esan-nahiaz galdetzen dugunean —jendea mota ezberdineko gauzetatik bereizteari buruz hainbat galdera egin beharrean. Monistak *zernahiren* istorio bakar bat, erabat orokorra edo abstraktua, bilatzen du: bere barruan edozer hartzen duen eta edozer esprika lezakeen istorioa, unibertsoaren isto-

rioa kontatzen diguna eta guk bertan daukagun lekua ulertze-ko gai egiten gaituena.

James harritu egin zuen filosofian eta moralari eta erlijioari buruzko pentsaera askotan irudi monista honek duen rolak. Bere pluralismoak monismoa arbuiatzera darama: gorai-patu nahi du gure sailkapenen eta gure behar kognitibo eta emozionalen askotarikotasuna, baita euroi erantzuteko ahalbi-dea ematen diguten sineste, kontzeptu eta teorien askotarikotasuna ere. Garrantzitsuagoa dena, sinesmen erlijiosoa ez da sistema oso honi batuta eusten dioten printzipioen berri ematen digun gehiegizko istorioaren giltzarria; ez da istorio zientifikoaren lehiakide bat, ez eta gauzen txosten zientifikoa egiteko lekua aurkitzen duen egitura metafisiko bat ere. Pentsatzeko era bat da, beste era batzuen artean, tresna kognitibo eta emozional sorta bat, tresnok behar zehatzei erantzuten dietelarik eta ongi bizitzen laguntzen diguten heinean balioets daitezke-elarik. Azken hitzaldian esaten zaigu ezen, «printzipio pragmatistetan oinarrituta, Jainkoaren hipotesiak egokiro funtzionatzen baldin badu hitzaren zentzurik zabalenean, egiazkoa dela». Eta, ondorioztatzen du, *funtzionatu egiten* du: «pragmatismoa har daiteke erlijiosotzat, erlijioa, motari dagokionez, pluralista edo behintzat meliorista izan daitekeela onartuz gero». Baikortasunez ikusten badugu gure idealak bete daitezkeela geure bizitzan aurrera egin ahala, orduan baikorrak gara munduaren salbamenarekiko. Erlijioa, hartara, etorkizunari begira optimismo mota berezi bat edukitzean datza: fundamentalismo erlijiosoarekin, adibidez, loturiko sineste dogmatikoek ez dute lekurik aipaturiko erlijioaren ikuspegiaren barruan. Eta sekta edo «erlijio» ezberdinen arteko doktrina-diferentziak guztiena den «esperientzia» erlijiosoaren jarraibide komunak alde batera uztera bultzatzen duten azaleko ezau-garri legez agertzen dira. Iritzi hauek zabalago eta zehatzago azaltzen dira beste hitzaldi sorta batean, *Varieties of Religious Experience* izenekoan.

## VII: Harrera eta eragina

Gorago esan bezala, Jamesen egiari buruzko ikuspegiaren aurrean lehenengo erreakzioa haserrea izan zen. G. E. Moore eta Bertrand Russellek haren ideia bat, alegia, sinestea edo ustea, beroni eustea komenigarri edo on dugunean, egiazkoa dela zioena hartu eta faltsuak baina baliagarriak ziren uste edo sinesteen adibideak topatu zituzten, baita egiazkoak eta hondagarriak ziren usteenak ere. Bere erlojua ongi zebilela oker uste izatearren trena galdu zuenaren adibidea jarri zuen Moorek. Gero trena istripu batean hondatuz gero, gertatzen da haren ustea baliagarria izan dela, baina hau ez da nahikoa uste hori egiazkoa izan dadin. Eta Russellek nabarmentzen zuen Jamesek ez zuela jakin bi galdera, nabariki ezberdinak zirenak, bata bestetik bereizten, hauexek hara: «Aita Santuak beti hutsezinak izan al ziren?» eta «Onak al dira Aita Santuak hutsezinak direla sinestearen ondorioak?» Russell eta Moorek Jamesen jarrerari buruz arrazoia bazuten, arazoak zituen honen jarrerak; baina aitortu behar da ez zuela hark ardura modurik hartu, oker ulertuei zirrikiturik zabalik uzten ez ziela segurtatzeko. Jamesek biziki gogoko zuen egia geuk *egiten* dugula, eta egia aldagarria dela eta behin egiazkoa izandakoak denborarekin egia gal zezakeela esatea, baiespenok, hitzez hitz hartuta, inolako egiantzik ez zuten kasuetan. Honek esan nahi du «egiaren teoria pragmatista» aise bihurtu zela karikatura egitera bultzatzen zuen ikuspegi, testuliburuetan kritikaerraza zelako soilik eztabaidatzen zen ikuspegi. (Ohartarazi behar nuke, hemen, Russellek Jamesen idazlanak hagitz serioски hartzen jarraitu zuela, batez ere «enpirismo erradikala» deitzen zuen doktrina multzoa).

Jamesen hitzaldien irakurketa arretatsuak agerian jar-tzen du arestian esandakoa ez dela zuzena. Aitortu izan zaion baino arta handiagoz deskribatu du uste edo sineste batek ona izateko eduki behar duena. Izan ere, gure inguruko gauzei buruzko usterik gehienak, auresan arrakastatsuetara garama-

tzatenean, uste horiek esperientzien testa gainditu eta arrakas-taz egiazta daitezkeenean dira onak. Jamesen pluralismoak uste edo sineste ezberdinak era diferentean funtzionatzen dute-la inplikatzan du; helburu diferenteei erantzuteko diseinaturi-ko «tresnak» dira. Sineste erlijiosoak ez dute «funtzionatzen» gure inguruko gauzei buruzko uste arruntak edo iritzi zientifi-koak bezala. Egiazkoak ona dena uste edo sineste eran atze-maten duela dioen slogana testuinguru horrexetan ulertu behar da: oro har, sinesteen ontasunari buruz sistematikoa den ezer gutxi esan daiteke. Onenean ere, mota konkretuko usteen egia-rako zer den garrantzizkoa azter dezakegu. Izan ere, Richard Rortyk *Consequences of Pragmatism* izeneko bere liburuan pragmatismoan zer zen bereizia deskribatu zuenean, zioen Jamesengandik ikasi beharreko ikasgaia zera zela, egiak ez duela zerikusirik guk teoria bat behar izatearekin. Mota ezber-din askotako egiak daude, baina ez dago ezer, «egiaren esen-tzia» gisa identifika dezakegunik. Mooreren eta Rusellen hutsa James teoria horixe asmatu nahian zebilela uste izatea izan zen.

Hitzaldiotako gai gailen biak —pragmatismoaren karak-terizazio orokorretik at— Jamesen egiari buruzko baiespenak eta pluralismoaren defentsa dira. Orain ikus dezakegu zein her-tsiki erlazonaturik dauden horiek biak. Pluralismoak gure interes kognitiboen askotarikotasuna nabarmentzen du: usteak edo sinesteak helburu ezberdinen zerbitzuan daude, era dife-renteetan dihardute. Eta egiaren kontuak aterata, esan behar da uste edo sineste bat egiazkoa dela diogunean, uste horrek fun-tzionatzea, interes kognitibo egokien zerbitzuan jokatzeta espe-ro dugula. Helburu horien askotarikotasuna kontuan hartuta, ez da harritzekoa Jamesen ahaleginak egia zer den esateko, maiz, lanbrotsuak eta oker ulertzeko modukoak izatea. Ez da erraz ikusten nola joka zezakeen zehaztasun handiagoz.

Hilary Putnamek antzeko oharra egin zituen Jamesen garrantzia agerian jartzean. Putnamek nabarmentzen du enun-

tziatu mota ezberdinak «komenigarritasun» edo «ontasun» mota ezberdinei dagozkiela, eta seinalatzen du Jamesek esplitutuki ukatzen duela jendea *zoriontsu* egiteak uste edo sineste baten egiari ezer ekar diezaiokeenik. Eta aitortzen du honek ezinezko bihurtzen duela haren jarrera «hitz bitan» laburbiltzea. Beste honek ere harritzen du, alegia, Jamesek agertu zuen monismoaren errefusapen «pluralista» hark berak «errealismo metafisikoa» errealismo mota pragmatista gizatarragoarekin ordezkatzeko egindako ahaleginaren antzekoa izateak.

Hitzaldi hauek erronka filosofikoen eta sakontze filosofikoen iturri aberatsak dira. Eta ikus dezakegu erakargarriak direla berauetan agertzen den monismoaren errefusapena begiko duten eta gure usteak ebaluatu orduan balioen eta interesen rola areagotu beharraz kezkatutik dauden filosofo garaikide-entzat.

Christopher Hookway



# Bibliografia

## Irakurketa gomendagarriak:

### ***Jamesen beste lan batzuk.***

James beste idazlan batzuetan bere pragmatismorako oso garrantzitsuak diren gaiez ari da, irakurleari bere iritzia ulertzen laguntzeko moduan. Idazlan batzuek autoreak bere iritzien azpian dituen suposizio psikologikoak azaltzen dituzte, beste batzuek objektzioei erantzuten diete eta besteek 1907ko hitzaldietan zirrimarratu besterik egiten ez dituen ideiak garatzen dituzte. Gehienak edizio ezberdinetan ditugu eskuragarri eta lan guztiak *The Works of William James, published by Harvard University Press*-en ditugu. Lehenengo argitalpenen datak ematen dira behean.

*The Principles of Psychology* (1890)

Ezagutza psikologikoaren azterketa sakon honek Jamesen pragmatismoaren atzean dauden kontzeptuen eta sinesteen ikuspegiak aldeztatu ditu.

*The Will to Believe and Other Essays in Popular Philosophy* (1897)

Izenburua ematen dion saiakerak sinesteak «oinarri grinatsuetan» eta frogan euskarri gabe eratzearen razionaltasuna defendatzen du, ho-

rrela jokatzearen ondorio praktikoak «garrantzizkoak» direnean eta ebidentzia lortzen errez ez dagoenean.

*The Meaning of Truth: A Sequel to Pragmatism* (1909)

*Pragmatism* liburuari egindako kritikei erantzuteko artikulu bilduma bat. Gehienak pragmatismoari buruz duen ikuspegia argitzeko, oker ulertu eta objektzioen kontra bere burua defendatzeko idatziak dira.

*The Varieties of Religious Experience: A Study in Human Nature* (1902)

Hitzaldi sorta inportante honek Jamesek sinismen erlijiosoari buruz duen ikuspegi meliorista garatzen du, azpimarratuz erlijio ezberdinen arteko doktrina-diferentziak ez direla guztiek onartzen dituzten etorkizunarekiko jarrerak bezain esanguratsuak.

### ***Beste zenbaitzuen liburuak***

Graham Bird, *William James*, Routledge (1986)

Jamesen filosofiaren gai nagusi gehienei buruzko ezbaidak analitiko arduratsua.

Richard Gale, *The Divided Self of William James*, Cambridge University Press (1999)

Jamesen filosofiaren azterketa bat, ikuspegi analitikotik egina eta zera argudiatzen duena: haren idazlan pragmatistak tentsioan daudela erlijioari eta metafisikari buruz dituen idazlanetan aurkituriko halako joera «mistiko» batekin.

Eleen Suckiel, *The Pragmatic Philosophy of William James*, University of Notre Dame Press, 1983

Jamesen pentsamenduaren zenbait alderdiren eztabaida argi eta oso zentzuzkoa, haren pragmatismoa eta egiaren teoria nabarmentzen dituen, beraren beste idazkiekin duen erlazioa arakatzen duen bitartean.

Gerald E. Myers, *William James: His Life and Thought*, Yale University Press, 1986

Jamesen pentsamenduaren alderdi guztien eztabaida zorrotz, eragin handiko eta oso zehaztua.

Ruth Anna Putnam, (ed) *The Cambridge Companion to William James*, Cambridge University Press, 1997

Pragmatismo ikasle gailenek egin-dako artikuluen bilduma. Hilary Putnamek idatzitako Jamesen egiaren teoriari buruzko eztabaida bat ere badauka.

Hilary Putnam eta Ruth Anna Putnam, «William James's Ideas», Putnam, *Realism with a Human Face*-n

T. L. S. Sprigge, *James and Bradley*, Open Court.

Jamesen pentsamendura hurbilpen original bat, pragmatismoaren eta

beronen kritikari eta kontrario idealisten arteko erlazioa bereziki aztertzen duena.

Doris Olin (ed) *Pragmatism in focus*, Routledge, 1992

Liburu honek, alde batetik, Jamesen hitzaldien ingelesezko testua dauka eta, bestetik, hitzaldioi buruzko sei iruzkin, eurok kritikatu eta azalduz. G. E. Moore eta Bertrand Russellen artikulua ere badakartza, haren egiaren teoria kritikatzten dutenak. Txosten horientzat jatorrizko erreferentziak hauexek dira:

G. E. Moore, «Professor James's «Pragmatism», *Proceedings of the Aristotelian Society*, 8. lib., 1907-8, 33-77.

Bertrand Russell, «William James's conception of truth», Bertrand Russellen *Philosophical Essays*-en, Allen and Unwin, 1966

Badira, halaber, hainbat liburu, pragmatismoaz oro har ari direnak eta Jamesen bertsioa Peirce eta Deweyen bertsioekin erkatzen dituztenak.

Howard Mounce, *The Two Pragmatisms*, Routledge, 1997

E. C. Moore, *American Pragmatism: Peirce, James and Dewey*, Columbia University Press, 1961

John Smith, *Purpose and Thought*, University of Chicago Press, 1984

Israel Scheffler, *Four Pragmatists*, Routledge, 1986.

H. S. Thayer, *Meaning and Action*, Hackett, 1981



John Stuart Millen oroimenez,  
berarengandik ikasi bainuen lehenbizi  
gogo irekitasun pragmatikoa,  
nire irudimenak gogoko duelarik hura  
gure buruzagi gisa irudikatzea, egun bizi balitz.



# EGILEAREN HITZAURREA

Ondoko hitzaldiak Bostongo Lowell Institute-n, 1906ko azaroan eta abenduan, eta 1907ko urtarrilean New Yorkeko Columbia University-n eman ziren. Esan ziren modu-moduan daude inprimaturik, gehigarririk ez oharrik gabe. Badirudi mugimendu pragmatista deritzona —ez dut gogoko izena, baina agian beranduegi da aldatzeko— bat-batean airetik jaitsi zaigula. Filosofian beti izan diren zenbait joerak beren izate kolektiboaren eta elkarrekin konbinaturik duten eginkizunaren kontzientzia hartu dute denek batera; eta hau hainbeste herrialdetan eta hain ikuspegi ezberdinetatik gertatu da, non bat ez datozen planteamendu asko sortu baitira. Irudia bateratzen ahalegindu naiz, begietara datorkidan moduan, trazu handika jardun eta eztabaidako xehetasunak ekidinez. Alferreko eztabaida asko ekidin zitekeen, uste dut, baldin gurekiko kritiko direnek guk geure mezua egokiro helarazi arte zain egon nahi izan balute.

Nire hitzaldiek irakurleren batengan gaiarekiko interesa sortarazten badute, ziur gehiago irakurri nahi izanen duela. Horregatik zenbait erreferentzia emanen dizkiot.

Amerikan, John Deweyren *Studies of Logical Theory* lana funtsezkoa da. Irakur, halaber, Deweyren artikuluak *Philosophical Review*-n, XV. lib. 113 eta 465 orr., *Mind*-en, XV. lib., 293 orr. eta *Journal of Philosophy*-n, IV. lib., 197 orr.

Hasteko, agian planteamendurik onenak F.C.S Schillerrek *Studies in Humanism* lanean egiten dituenak dira, bereziki I, V, VI, VII, XVIII eta XIX. saiakeretan. Oharretan aurreko bere saiakerak eta gaiaren inguruko literatura polemikoa aipatzen dira bete-betean.

Ikus halaber: J. Milhauden *Le Rationnel*, 1898, eta Le Royren artikulu bikainak *Revue de Metaphysique*-n, 7, 8 eta 9 lib. Orobat, Blondelen eta De Sailyren artikuluak *Annales de Philosophie Chrétienne*-n, 4. saila, 2 eta 3 lib. Papinik liburu bat iragarri du pragmatismoari buruz, frantsesez, laster batean argitaratuko dena.

Oker-ulertu bat bederen ekiditeko, esan behar dut ez dagoela lotura logikorik, pragmatismoaren —nik ulertzen dudana moduan— eta oraintsu «enpirismo erradikala» izenarekin aurkeztu dudana doktrina baten artean. Azken honek, izan ere, bere-bereak dituen oinarriak dauzka. Zeharo arbuia daiteke doktrina hau eta, hala ere, pragmatista izan.

Harvard University, 1907ko apirila.

# LEHENENGO HITZALDIA

## GAUR EGUNGO DILEMA FILOSOFIAN

*Heretics* deritzon bere saiakeren bilduma miresgarriaren hitzaurrean, Chesterton jaunak honako hau idazten du: «Badira batzuk —eta ni neu ere euretako bat nauzue—, uste dutenak gizakiak daukan gauzarik praktikoen eta inportantee-na unibertsoari buruz duen ikuskera dela. Guk uste dugu ostatuko ugazabandarearentzat inportantea dela ostalierrak zenbat irabazten duen jakitea apopilo hartu aurretik, baina hori baino inportanteagoa dela haren filosofia zein den jakitea. Guk uste dugu jeneral batentzat, etsaiaren aurka borrokan hasi aurretik, inportantea dela etsaiak zenbat diren jakitea, baina inportanteagoa etsaiaren filosofia zein den jakitea. Auzia ez da ea kosmosaren teoriak eraginik duen arazo horien baitan, baizik ea epe luzera beste ezerk duen eraginik berorietan».

Bat nator Chesterton jaunarekin horretan. Ziur dakit zuok, jaun-andreok, nork bere filosofia daukazuela eta daukaguzen gauzarik garrantzitsuen eta interesgarriena filosofiak zuetariko bakoitzaren mundu ezberdineko perspektiba finkatzeko duen modua dela. Zuek gauza bera uste duzue nitaz. Eta, hala ere, aitortu beharra dut nolabaiteko beldurra sentitzen dudala hastera noan lanketak eskatzen duen ausardiaren aurre-

an. Zeren gutariko bakoitzarentzat hain garrantzitsua den filosofia ez da arazo tekniko bat, baizik bizitzak egiaz eta sakonki esan nahi duenaren sentipen biziago edo motelagoa. Liburuetan filosofia aldez baino ez da erdiesten; kosmosaren bultzada eta energia guztia hauteman eta sentitzeko norberak daukan era da filosofia. Ez daukat suposatu beharrik zuek kosmosaren aztertzaile zaretenik, eskola-zentzuan bederen, baina, hala ere, hemen nago ni neurri ez txikian teknikoki planteatu beharrekoa den filosofia batekiko interesa zuengan sortarazi nahian. Nik neuk sakonetik sinesten dudan joera garaikide batekiko sinpatia sortarazi nahi dut zuen baitan, eta, zuek ikasleak izan gabe ere, irakasle baten moduan hitz egin beharko dizuet. Edozein delarik ere irakasle batek sinesten duen unibertsoa, diskurtso luzeari bide emateko modukoa izan behar du unibertso horrek. Bi esalditan defini daitekeen unibertsoak ez du baliagarritasunik irakaslearen endelguarentzat. Nola eman sinespidea horrelako gauza merkeari! Gela honexetan entzun izan ditut nik lagunak eta irakaskideak filosofia era herritarrean azaltzen saiatuz mintzo zirela; baina astun eta tekniko bihurtu ziren hasi eta lasterrera eta emaitzak aldez baino ez ziren adoregarriak izan. Nire eginkizunak, beraz, ausardia eskatzen du. Pragmatismoaren sortzaileak berak ere ikastaro bat eman zuen oraintsu Lowell Institute-n, bere hitzaldietarako Pragmatismoa izenburutzat hartuta hark ere: nolako argi-distirak hain ilunbe beltzaren erdian! Gutariko inork ere, iruditzen zait, ez zuen hark esandako *guztia* ulertu, baina, hala ere, hemen nabil ni antz-antzeko abentura batean sartuta.

Arrisku honetan sartzen naiz aipatu ditudan hitzaldiek jendearengan *tirakada* ukan zutelako: nahikoa entzuleria handia erakarri zuten. Aitortu beharra dago gauza sakonez mintzatzen entzuteak lilura berezia sortarazten digula, nahiz eta gaiok ez guk ez eztabaidan dihardutenek ere ez ulertu. Gai problematikoaren aurrean zirgit eginda geratzen gara, mugagabetasunaren presentzia sentitzen dugu. Edozein erretzaile-areto-

tan zenbait gai sakoni buruz eztabaida sortzen bada, adibidez, hautamenaz edo Jainkoaren orojakintzaz edo ongiaz eta gaizkiaz, belarriak tente ikusiko dituzue han dauden guztiak. Filosofiaren konklusioek ukitu bizi eragingarria dute guztiongan eta filosofiako argudiorik arraroenek ere gure zorrotasun eta erretasun-sena lausengatzen dute.

Nik neuk, filosofian gartsuki sinesten dudanez eta filosofoontzat egunsenti berri bat zabaltzen ari dela ere sinesten dudanez, halako bultzada bat sentitzen dut barnean, *per fas aut nefas*, egoerari buruz jakingarri batzuk zuei helaraztera nakarrena.

Filosofia giza bilaketarik gorena eta arruntena da aldi berean. Zirrikiturik hertsienetan lan egiten du, baina ikuspegi-rik zabalenak ere irekitzen ditu. «Ez du jaten ematen», esan ohi den moduan, baina adorea ekar lezake gure arimetara; eta, nahiz eta haren adierazmoldeak, haren zalantzak eta galdekizunak, ihesbideak eta dialektikak higuinargi gertatu maiz jende arruntari, gutariko inor ez ginateke moldatuko filosofiak munduko perspektibetara igortzen dituen aldizkako argi-distira urrunak barik. Argiztatze hauek bederen, eta lagun dakartzaten iluntasunaren eta misterioaren arteko kontraste efektuek, profesionala baino areagokoa den interesaz hornitzen dute filosofiak dioena.

Filosofiaren historia, hein handian, giza izaeren arteko talka da. Nire kide batzuek baieztapen honi agian desegokia iritziko dioten arren, aintzat hartu beharko dut talka hau, eta filosofoen artean dauden diferentzia asko beronen bidez azaldu. Filosofoa, nolana hiko izaera duelarik ere, filosofatzen ari denean, bere izaera lurpean gordetzen saiatzen da. Izaera konbentzionalki onarturik dagoen arrazoia ez denez, filosofoak arrazoi inbertsonalak baino ez ditu erabiltzen bere ondorioak ateratzeko. Hala ere, izaerak eragin handiagoa du filosofoaren, premisarik objektiboenek baino. Izaerak, filosofoaren baitan, frogak alde batera edo bestera pisatzea eragiten du eta

unibertsoaren ikuspegi sentiberagoa edo hotzagoa edukitzea dakarkio, gertakari (*fact*) batek edo printzipio batek eginen lukeen bezalaxe. *Konfiantza* du bere izaeran. Bere izaerari doakion unibertsoa nahi duenez, zinez doakion unibertsoaren irudikapenean sinesten du. Berearen aurkako izaera dutenak munduaren izaerarekin sintonian ez daudela sentitzen du eta bere barruan uste du ezgaiak direla eta «ez daudela filosofian», dialektikan bera baino trebeagoak izan arren.

Hala ere, eztabaida foroan, bere izaeran soilik oinarrituta, ez du alegatzerik besteei baino bereizmen edo autoritate handiagoa. Gure eztabaida filosofikoetan, hartara, halako zintzotasun falta bat sortzen da: gure premisarik indartsuena ez da egundo ahomentatzen. Ziur nago hitzaldi hauetan, arau hori hautsi eta aipatuko bagenu, horrek gauzak argitzen asko lagunduko ligukeela; eta, beraz, aske sentitzen naiz halaxe egiteko.

Honetan, jakina, ezaugarri positibo nabarmenez jantzita-ko gizonez mintzo naiz, idiosinkrasia erradikaleko gizonez, filosofiar beren zigilua eta irudia ezarri eta beronen historian agertzen direnez. Platon, Locke, Hegel, Spencer dira mota horretako pentsalari izaera indartsudunak. Gutariko gehienok ez daukagu, jakina, izaera intelektual oso definiturik, elkarren aurkako osagaien nahaste bat gara, berauetako bakoitza proportzio nahiko txikian daukagularik. Ez dakigu ongi gai abstraktuen artean zein hobesten dugun; beraiei buruz hitz egiten zaigu eta modari jarraituz edo gure inguruan gailenen ageriden edozein filosofoaren iritziak geure eginez amaitzen dugu. Baina orain arte filosofian *garrantzia* izan duena gauzak norberak *ikustea*, zuzenean norbere erara ikustea, eta gauzak ikusteko gurearen aurkako erez deskonforme egotea izan da. Ez dago arrazoirik uste izateko izaera indartsua dutenen ikuskera sendo honek ez duela gizakiaren sinesteen historian kontatuko.

Hau guztia esatean buruan daukadan izaerazko diferentzia literaturan, artean, politikan, eta gizalegez jarduteko moduetan garrantzia izan duen diferentzia bat da. Moduetan



pertsona formalistak eta axolarik gabeko informalak aurkitzen ditugu. Politikan, autoritarioak eta anarkistak. Literaturan, garbizale edo akademizistak eta errealistak. Artean, klasikoak eta erromantikoak.

Diferentzia hauek ohikoak ditugu; bada, filosofian ere antzeko kontraste bat daukagu, «razionalista» eta «enpirista» hitzekin adierazten dena. «Enpirista» hitzak gertakari-zale esan nahi du gertakarien desberdintasun gordin guztian, «razionalista» terminoak, ordea, printzipio abstraktu eta eternele atxikia esan nahi duen artean. Inor ezin da ordu betez ere bizi bietarikoak gabe, gertakariak eta printzipioak gabe eta, beraz, aldea enfasi kontua da gehiago ere. Hala ere, elkarrenganako antipatiarik zorrotzenak sortarazten ditu enfasia alde batean edo bestean jartzen dutenen artean, eta egiaztatuko dugu arras baliagarri dela unibertsoa ulertzeko moduetan dagoen kontrastea, izaera «enpirista» eta izaera «razionalista» hitzak erabiliz adieraztea. Terminook sinple eta trinko bihurtzen dute kontrastea.

Termino hauek aplikatzen ohi dizkiegun pertsonen artean dagoena baino sinpleago eta nabariago bihurtu ere, zeren giza naturan mota guztietako permutazio eta konbinazioak baitira posible; eta ni orain hasten banaiz razionalistez eta enpiristez ari naizenean buruan daukadana zehatzago definitzen izenburu hauei bigarren mailako kalifikatzaileak gehituz, nire jokabidea neurri bateraino arbitrariotzat jotzeko eskatzen dizuet. Naturak oso maiz —baina inola ere ez uniforneki— eskaintzen dituen konbinazio motak hautetsiko ditut, gero pragmatismoaren ezaugarriak bilatzeko lagungarri izan ditzadan soilik. Historian zehar, «intelektualismo» eta «sentsazionalismo» terminoak «razionalismoaren» eta «enpirismoaren» sinonimo gisa erabilia aurkitzen ditugu. Badirudi naturak, oso maiz, intelektualismoarekin halako joera idealista eta optimista bat konbinatzen duela. Enpiristak, aldiz, materialistak izan ohi dira gehienetan eta

euren optimismoak nabarmenki zalantzatsu eta baldintzapekoa izatera jotzen du. Razionalismoa beti da monista. Osotasunetatik eta unibertsaletatik abiatzen da eta garrantzia handia ematen dio gauzen batasunari. Enpirismoaren abiapuntua, ordea, osagaiak dira eta osoa bildumatzat hartzen dute, horregatik ez deritzote gaizki euren buruari pluralistak deitzeari. Razionalismoak normalean enpirismoa baino erlijiosoagotzat dauka bere burua; baina horretaz asko dago esateko, eta orain hori aipatu besterik ez dut eginen. Hori egia da, izan, razionalista konkretua sentimendudun gizakia deritzona denean eta enpirista konkretua praktikoa izateaz harrotzen denean. Kasu horretan razionalista hautamenaren alde egonen da normalean eta enpirista fatalista izanen da —terminoak euren zentzurik herritar arruntenean darabiltzat—. Razionalistak, azkenez, izaera dogmatikoa agertuko du bere baieztapenetan, enpirista, ordea, eszeptikoagoa eta eztabaidarra irekiagoa datekeen artean.

Zutabe bitan jarriko ditut nolakotasun horiek. Uste dut era praktikoan bereizi ahal izanen dituzuela adierazi nahi ditudan bi buru-izaera motak, bi zutabe egin eta izenburu batean «gogo samurrekoa» eta bestean «gogo bortitzekoa» ipinita.

## GOGO SAMURREKOA

Razionalista (printzipioez diharduena)

Intelektualista

Idealista

Baikorra

Erlijiosoa

Hautamenaren aldekoa

Monista

Dogmatikoa

## GOGO BORTITZEKOA

Enpirista (gertakariez diharduena)

Sentsazionalista

Materialista

Ezkorra

Erljiogabea

Fatalista

Pluralista

Eszeptikoa

Utz dezagun geroxeagorako ikustea ea elkarren kontrastean idatzi ditudan multzo biok koherenteak diren ala ez. Geroxeago ekinen diot honi gehiago; baina une honetan behar dugunerako nahikoa da munduan gogo samurreko eta gogo bortitzeko jendea izatea, mota bakoitzarentzat arestian zerrendatu ditudan ezaugarriekin. Segur aski guztiok ezagutzen dituzue mota bakoitzeko ale nabarmenen bat eta badakizue alde batean dagoenak zer pentsatzen duen beste aldean dagoenari buruz eta alderantziz. Iritzi eskasa dute nonbait elkarri buruz. Beraien antagonismoa, gizabanako gisa izaera biziak ukan dituzten heinean, aro guztietan zehar garaiko giro filosofikoaren osagai izan da. Egun ere giro filosofikoaren osagai da antagonismoa. Bortitzak sentimental eta biguntzat ditu samurrak. Samurrak baldar, bihozgabe eta kirtentzat ditu bortitzak. Elkarrekiko erreakzioak turista bostondarrak Cripple Creekeko herritarrekin nahasten direnean sortzen direnen oso antzekoak dira. Mota bakoitzekoak uste du bestea bera baino beheragokoa dela: kasu batean mespretxua olgetarekin nahasten da, bestean beldur tanta bat daraman artean.

Orain, filosofian, seinalatu dudan moduan, gutariko gutxi gara bostondar kolono heldu berriak, eta gutxi, baita ere, Mendi Harritsuetako tipo gogorak. Gutariko gehienok alde bateko eta besteko gauza onak eduki nahi ditugu. Gertakariak, jakina, onak dira: eman diezagutela gertakari pilo bat. Baina printzipioak ere onak dira: eman diezagutela printzipio pilo bat. Mundua, dudarik ez, bat da era batera begiratzen badiozu, baina, zalantzarik gabe, anitza da beste era batera begiratzen badiozu. Bat eta asko, biak da: nolabaiteko monismo anitza onar genezake. Dena dago nahitaez determinaturik, eta hala ere gure nahimena aske da noski; egiazko filosofia, beraz, determinismo hautamenduna da. Zatien txartasuna ukaezina da, baina osoa ezin da txarra izan: beraz, ezkortasun praktikoa optimismo metafisikoarekin konbina daiteke. Eta horrela hurrenez hurren. Jende arrunta, filosofian ezikasía, inoiz ez da

erradikala izaten, ez dio bere sistemari jarraitzen eta sistema horren sektore onargarri batean nahiz bestean ibiltzen da, sortuz doazkion beharretara moldatzeko moduan.

Baina gutariko batzuk ez gara ezikasi hutsak filosofian. Atleta amateurrek deitzea merezi dugu, eta molestatu egiten gaitu geure kredoa hainbeste segurtasun falta eta zalantza-balantzarekin ibiltzeak. Ezin izaten dugu kontzientzia intelektual onean iraun, alde bateko eta besteko gauza bateragaitzak nahasten jardunez gero.

Eta orain planteatu nahi dizuedan lehen puntu benetan garrantzitsura heltzen gara. Inoiz ez da izan gaur egun den adina jende enpirismorako hain joera irmoarekin. Gure seme-alabak, esan liteke, zientzialari jaiotzen dira ia. Baina gertakarietako daukagun atxikimenduak ez du deuseztatu gure erlijio-tasuna. Atxikimendu hori berori ere erlijiosoa da ia. Gure izaera zientifikoa eraspentsua da. Baina, adibidez, horrelako norbait izan dadila gainera filosofo amateurra, ezikasi arruntak egiten duen bezala sistemaren nahasi-mahasi bat egin nahi ez duena. Zer egoeratan aurkituko da 1906. urte bedekinkatu honetan? Gertakariak nahi ditu, zientzia gura du; baina erlijioa ere nahi du. Baina amateurra denez, eta ez bere kabuzko filosofi sortzailea, azterlanean diharduten adituen eta profesionalen orientabidea bilatuko du. Zuetariko asko, gehienok beharbada, era horretako amateurrek zarete.

Orain, bada, zer nolako filosofi motak topatzen dituzue zeuen barruko premiei erantzuteko? Filosofia enpiriko bat topatuko duzue, behar bezain erlijiosoa ez dena, baita filosofia erlijioso bat ere, zuen helburuetarako behar bezain enpirikoa ez dena. Gertakariak aintzat hartuagoak diren aldera begiratzaren baduzue, gogo bortitzeakoaren programa osoa abian eta «zientzia eta erlijioaren arteko gatazka» leherketa bizian ikusiko duzue. Alde horretan, edo behin Haeckelen Mendi Harritsuetako bortiztasun hura ikusiko duzue, bere monismo materialista edo eter-jainkoa planteatzen nahiz zuen Jainkoa

«ornodun gaseoso» trufaka definitzen; edo behin Spencer ikusiko duzue, munduaren historia materiaren eta higiduraren birbanaketatzat jotzen eta erlijioa kortesia guztiaz jokoz kanpo jartzen, hau da, existitzen utzita, baina zientziaren tenplu barruan inoiz ez agertzeko baldintzapean.

Azken ehun eta berrogeita hamar urteetan bazirudien zientziaren aurreramenduak unibertso materialaren handitzea eta gizakiaren garrantzia txikitzea suposatzen zuela. Eraitza, esan genezake, sentimendu naturalista eta positibista haztea izan da. Gizakia naturarekiko lege-emailea barik, lege-jasotzailea da. Natura da irmo dagoena eta gizakia moldatu beharra duena. Jaso dezala egia, denik gogorrena izanda ere, eta jar dadila beraren mendean! Berezkotasun eta adore erromantikoak joanak dira, ikuspegia materialista eta abailgarria da. Idealak fisiologiaren azpiekoizkin inerte bihurtzen dira; goikoa beheragokoaz azaltzen da, eta «besterik ez» eransteke kasu bat legez erabiltzen da, hau da, beheragoko mailako beste zerbait «besterik ez» bezala. Labur esanda, unibertso materialista bat daukagu, non gogo bortitzeakoak bakarrik aurkitzen diren etxean bezala.

Orain, beste aldera, erlijiosora kontsolamendu bila joan eta gogo samurrekoen filosofiaren aholkua hartu nahi baduzue, zer topatzen duzue?

Gure garai eta belaunaldiko filosofia erlijiosoa, ingelesdunon artean, bi mota nagusikoa da. Bata erradikalagoa, erasokorragoa da; besteak astiro-astiro erretiradan doala ematen du gehiago. Filosofia erlijiosoaren alde erradikalagoa aipatzean Anglo-Hegeldar eskolaren idealismo transzendentala deritzona esan nahi dut, Green, Caird-ar anaiak, Bosanquet eta Royce bezalakoek filosofia. Filosofia honek eragin handia izan du gure ministro protestante ikasien artean. Filosofia panteista da eta, dudarik gabe, dagoeneko kamustu du nahikoa protestantismoan tradizionala izan den teismoaren sorbatza.

Teismo horrek iraun dirau, hala ere. Eliza katolikoko apaiztegietan oraindik hertsitasunez irakasten den teismo eskolastiko dogmatikoaren ondorengo zuzena da, hartatik bata bestearen ondoko amore-ematez etorria. Luzaroan gure artean eskola eskoziarreko filosofia esaten zitzaion, eta beronetaz ari naiz diodanean badirudiela astiro-astiro erretiradan doala. Alde batetik, Hegeliarren eta «Absolutuaren» beste filosofoen eta, bestetik, zientzialari eboluzionista eta agnostikoen intrusioen artean harrapatuta, mota honetako filosofia ekarri digutenak, James

Martineau, Bowne Irakaslea, Ladd Irakaslea eta beste, nahikoa estuturik sentitu bide dira. Izan ere, filosofia hau nahi den zintzoen eta garbiena izanen da, baina ez da izaeraz erradikala. Eklektikoa da, denen gainera *modus vivendi* bat bilatzen duen konpromiso mordo batez osatua. Onartzen ditu darwinismoaren gertakariak, burmuin-fisiologiaren gertakariak, baina ez du erakusten eginkortasunik ez garrik eurekiko. Tonu erasokor eta garailerik ez dauka. *Prestigioa* falta zaio, beraz; absolutismoak, ordea, *prestigioa* dauka, bere tankera erradikalagatik.

Sistema bi horietatik bat aukeratu behar duzue, gogo samurrekoen eskolara joz gero. Eta nik uste dudana moduan gertakari-zaleak bazarete, razionalismoaren eta intelektualismoaren sugaren lorratza aurkituko duzue bereizlerrotik alde honetara dagoen guztiaren gainean. Ihes egiten diozue, egia da, gizartean nagusi den enpirismoaren lagun doan materialismoari; baina ihes hori bizitzako alde konkretuekin lotura galtzeaz ordaindu beharko duzue. Filosoforik absolutu-zaleenak hain goi mailako abstrakzioan bizi dira, non behera jaisteko ahaleginik ere ez baitute sekula egiten. Eskaintzen diguten adimen absolutuak, gure unibertsoa pentsatuz eraikitzen duenak, kontrakorik erakusten ez digutenez gero, unibertso hau eraiki duen bezala, milioi baten artean beste edozein eraiki zezakeen. Ezinen duzue inolako gertakari partikular errealik ondoriozta-

tu beronen noziotik. Gauzen egoera ororekin bateragarria da, dena delakoa izan egia hemen behean. Eta Jainko teista printzipio antzua da ia. Berak kreaturiko mundura jo beharra dago, bere izaera errearen zantzuren bat atzemateko, izan ere mundu mota hau behin betiko kreatu duen jainko motakoa baita. Pentsalari teisten Jainkoa Absolutua bizi den bezalakoxe altuera garbiki abstraktuetan bizi da. Absolutismoak halako suhartasun eta dinamismo bat dauka; ohiko teismoa, ordea, gezagoa da; baina biak dira urrunekoak eta hutsalak. *Zuek* nahi duzuen filosofia, berriz, zuen abstrakzio intelektualerako ahalmenak erabiltzeko balioko duena soilik barik, giza bizitza finituen mundu erreala honekin loturaren bat izanen duena da.

*Zuek* biak konbinatuko dituen sistema nahi duzue, alegia, alde batetik, gertakarietako leialtasun zientifikoa eta berauek aintzat hartzeko gogo, egokitzen eta moldaketa espiritua, labor esanda, baina orobat, bestetik, antzinako konfiantza giza baloreetako eta hortik datorren berezotasuna, dela erlijiosoa dela erromantikoa. Eta dilema horrexen aurrean zaudete: zeuen *quaesitum*aren alde biak erremediorik gabe bereiz aurkitzen dituzue. Enpirismoa gizagabetasun eta erlijioabetasunarekin lotuta topatzen duzue, edo bestela filosofia razionalista bat, erlijiosoa dei daitekeena bai, baina inolako lotura zehatzik ez duena gertakari konkretuekin ez pozatsekabeekin.

Ez dakit ziur zuetariko zenbat bizi zareten aurreko gaitzespen hau guztiz ulertzeko bezain hurbil filosofiatik, eta, horregatik, gehiago ekinen diot gertakarietan zinez sinesten duzuenok hain indartsu atzera botatzen zaituzten sistema razionalista guztien irrealtasunari.

Gustatuko litzaidake duela urte pare bat edo ikasle batek entregatu zidan tesi baten lehen bi orrialdeak gordeta edukitzea. Izan ere, hain argi adierazten zuen orain azaldu nahi dizuedana, non damu dudan orain zuei ezin irakurria. Mutil gazte hau, Mendebaldeko unibertsitatearen batean gra-

duatua, hasi zen esaten berak ziurtzat jo izan zuela beti ezen, filosofiako ikasgela batera sartzean, kalean utzitakotik erabat bestelako unibertso batekin harremanetan hasi beharra zegoela. Suposatzen da —zioen— mundu bi horiek hain zerikusi urria dutela bata bestearekin, non ez dagoen burua aldi berean bietan edukitzerik. Kaleari dagokion esperientzia pertsonal eta konkretuen mundua iruditu ahal den baino anitzagoa da, katramilatua, lokaztua, gozagaitza eta zalantzazkoa gainera. Filosofia irakasleak dakarkizun mundua sinplea, garbia eta noblea da. Hemen ez dago bizitza errealeko kontraesanik. Mundu honen arkitektura klasikoa da. Arrazoiaren printzipioek trazatua du profila; eta premia logikoek zimendatuak, atalak. Araztasuna eta duintasuna adierazten ditu batik bat. Marmolezko tenplua dirudi muino goiengan diz-diz.

Izatez, mundu erreal honen deskripzio bat barik, beronen gainean eraikitako gehigarri bat da, santutegi klasiko bat, non fantasia razionalistak aterpea topa lezakeen gertakari hutsek erakusten duten izaera jasanezinki nahasi eta gotikotik babesteko. Ez da gure unibertso konkretuaren *azalpena*, zeharo bestelako zerbait da, honen ordezkio bat, beronentzako erremedio bat, ihesbide bat.

Sistema honen izaerak, hemen izaera hitza erabiltzerik badago, inolako zerikusirik ez du mundu konkretuko existentziaren izaerarekin. *Fintasuna* da gure filosofia intelektualisten ezaugarria. Ezin hobeto erantzuten diote adimenak hain indartsu desiratzen duen kontenplagai finduaren irrikari. Baina beha ezazue, otoi, seriotasunez, eta ikus gertakari konkretuen unibertso eskerga hori alde guztietatik, gertakariotan ageri den nahasi-mahasi izugarria, baita ezusteko eta ankerkeriak eta basakeria ere, eta esan gero niri ea «fina» den hitzetik hortzera nahitaez ateratzen zaizuen adjektibo deskriptibo bakarra.

Fintasunak bere lekua dauka gauzetan, bai horixe. Baina fintasuna besterik ez darion filosofiak ez du inoiz konforme



utziko izaera enpirista duenaren gogo. Artifizialtasunaren monumentua emanen du gehiago. Eta horrexegatik aurkitzen ditugu metafisikari bizkarra eman nahiago dioten zientziagizonak, metafisika klaustroan sartutako eta mamuz beterikotzat baitaukate, baita jende praktikoa ere, filosofiaren hautsak astindu eta natura basatiaren deiari jarraitzen diona.

Benetan ere belaxka samarra den zerbait dago sistema puru baina irreal batek gogo razionalista baten baitan ezartzen duen asebetetasunean. Leibniz gogo razionalista bat izan zen, razionalista gehienek erakuts dezaketena baino gertakarien ardura handiagoa zeukana. Hala ere, azalkeria haragi eginda ikusi nahi baduzue, hark xarmangarriro idatzitako *Théodicée* irakurtzea baino ez daukazue, bertan Jainkoak gizakia tratatzeko daukan era justifikatzen eta bizi garen mundu hau litezkeen guztietatik onena dela frogatzen saiatzen baita. Utz iezadazue diodanaren erakusgarri bat harenetik aipatzen.

Bere filosofia optimistaren aurkako oztopoen artean, besteak beste, betikotasun guztirako kondenatuak zenbat diren aztertzea otu zitzaion Leibnizi. Teologiatik harturiko premisa moduan onartzen du ezen, gizakien kasuan, salbatuak baino askoz gehiago direla kondenatuak, eta, ondoren, honelaxe argudiatzeari ekiten dio:

«Gaizkiak ez du ia garrantzirik ongiaren aldean, baldin Jainkoaren Hiriaren egiazko handitasuna gogoan hartzen badugu. Coelius Secundus Curiok liburutxo bat idatzi du, *De amplitudine regni coelestis*, duela gutxi berrargitaratu dena. Baina ez du ulertu, hurrik eman ere, zeruetako erreinuaren hedadura. Antzinakoek Jainkoaren lanen ideia kaskarrak zituzten... Uste zuten gure lurak baino ez zituela bizilagunak, eta are gure antipoden ideiak berak durduzatu egiten zituen. Munduaren gainerako guztia zenbait globo distiratsuk eta kristalezko esfera gutxi batzuek osatzen zutelakoan zeuden. Baina gaur egun, unibertsoak mugak dituela onartu nahiz ukatu, bertan kontatu ezin ahala globo daudela baieztatu behar dugu,

gurea bezain handiak edo handiagoak, gureak adina eskubide dutenak bizilagun arrazoidunak edukitzeko, nahiz eta honek ez duen esan nahi denak gizakiak izan behar dutenik. Gu bizi garen lurra gure eguzkiaren sei satellite nagusietariko bat baino ez da. Eta izar finko guztiak eguzkiak direnez gero, ez dago zail ulertzen zein leku txikia duen gure lurra ikus daitezkeen gauzen artean, eguzkiotako bakar baten satellitea besterik ez da eta. Orain, eguzki horietan guztietan *badaiteke* kreatura zoriontsuak besterik ez bizi izatea; eta ezerk ez gaitu behartzen sinestera kondenatuak asko eta asko direla; *adibide eta lagin batzuek aski dira ongiak gaizkitik ateratzen duen baliagarritasuna* ikusteko. Areago, toki guztietan izarrak daudela suposatzeke arrazoirik ez dagoenez gero, ez ote dago leku handi bat izarren eskualdez haraindi? Eta leku mugagabe hori, eskualde horren inguruan, ... zoriontasunez eta loriaz beterik egon daiteke... Zer pentsatuko dugu, hau gogoan dugula, gure Lurraz eta bertoko biztanleez? Ez ote litzateke bihurtuko puntu fisiko bat baino paregabeki txikiago, zeren gure Lurra ez baita puntutxo bat besterik izar finkoen distantziarekin alderatuta? Hartara, guk ezagutzen dugun Unibertsoaren zatia ia-ia ezerezean galduta gelditzen denez gero, ezagutzen ez dugun baina, hala ere, onartu beharra daukagun zatiarekin alderatuta, eta ezagutzen ditugun gaitzak oro ia-ezerez horren baitan daudenez gero, orduan badaiteke gaitz horiek guztiak ia-ezerez izatea Unibertoak bere barruan dauzkan onen aldean».

Beste alde batean Leibnizek dio:

«Bada justizia mota bat, xede ez duena ez gaizkilearen emendatzea, ez besteentzat etsenplu izatea, ezta egindako gaitza edo kaltea kitatzea ere. Justizia mota hau egokitasun hutsean oinarritzen da, gaiztakeria baten medeapenean halako poztasun bat edo aurkitzen duen egokitasunean. Sozinetarrek eta Hobbesek eragozpenak jarri zizkieten justizia zehatzaile honi, mendekuzkoa baita, izan, eta Jainkoak abagune askotan bereztat gorde duena... Gauzen egokitasunean oinarritzen da beti;

eta pozik uzten du ez bakarrik alde kaltetu edo iraindua, baizik beronen berri duten pertsona zuhur guztiak, musika ederrak edo arkitektura obra on batek buruz jantzia dena pozik uzten duen antzera. Horrexegatik segitzen dute kondenatuen oinaze-ek, inor bekatutik aldentzeko balio ez izan arren, eta segitzen dute dohatsuen sariek, inor onbidean finkatzen ez duten arren. Kondenatuek beren bekatu berriengatik zigor berriak berenganatzen dituzte eta dohatsuek pozkari berriak onbidean etengabe aurrera doazelako. Egokitasunean oinarritzen dira gertakari biok, ... zeren Jainkoak hobeazintasun harmoniatsuz egin ditu gauza guztiak, esan dudan moduan».

Leibnizek errealitatea ahulki atzematen zuela hain da gauza nabaria, non ez daukadan komentariorik egin beharrik. Bistan dago arima kondenatuen esperientziaren irudi errealistarik inoiz ez zela haren adimenaren atarira gerturatu ere. Ezta ere ez zaio inoiz bururatu ezen, zenbat eta gehiago izan Jainkoak betiko egokitasunaren mesedetan jaurtitzen dituen «arima galduen» generoko «laginak», orduan eta injustizia handiagoaren gainean oinarritua izanen dela dohatsuen loria. Ariketa literario hotz bat da hark eskaintzen diguna, atsegina, baina infernuko suak ere berotuko ez lukeena.

Eta ez diezadala inork esan filosofatze razionalistaren azalekotasuna agerian jartzeko ileordeen garai ganorabakora joan behar izan dudala. Gaur egungo razionalismoa ordukoa bezain azalekoa da adimen gertakari-zaleentzat. Unibertso erreala alderik alde zabalik dago; baina razionalismoak sistemak eraikitzen ditu, eta sistemek itxita egon beharra dute. Bizimodu praktikoa bizi diren gizakientzat, hobeazintasuna urrun dagoen zerbait da, eta burutzeko prozesuan dagoena beti. Baina razionalistarentzat, hori finituaren eta erlatiboaren irudipena besterik ez da; gauzen oinarri absolutua betitik buruturik dagoen perfektzioa da.

Egungo filosofia erlijiosoaren optimismo funsgabe eta azalekoaren kontrako adibide on bat Morrison I. Swift idazle

anarkista adoretzuaren argitalpen baten aurkitzen dut. Swift jaunaren anarkismoa nirea baino apur bat harago doa; baina aitor dut arras gogoko dudala, eta badakit zuetariko batzuek ere gogo-gogoko izanen duzuela, gaur egun modan dauden optimismo idealisten inguruan hark agertzen duen deskontentua. *Human Submission* opuskulua egunkariaren gertaera-orrietako ebakinekin hasten du (suizidioak, goseak hilak, eta antzekoak) gure erregimen zibilizatuaren adibide gisara. Esate baterako:

«Lana topatzeko esperantza hutsalaz hiriaren alde batetik bestera elurtzan zehar nekez eta pekez ibili eta etxeratzean bere emaztea eta sei seme-alabak jatekorik gabe eta hiriaren ekialde muturreko auzo batean zuten etxetik, errenta ez ordaintzearen, alde egiteko aginduekin aurkitu ondoren, John Corcoran denda-enpleguak bere buruaz beste egin du gaur azido fenikoa edanda. Corcoranek bere lanpostua galdu zuen duela hiru aste, gaixotu egin zelako, eta gaixoaldian, soldatarik gabe, aurrezpen guztiak xahutu zituen. Atzo lana aurkitu zuen palaz elurra kentzen diharduen udal talde batean, baina makalegi zegoen gaixotasunaren ondorioz, eta zenbait ordutan palarekin saiatu ondoren lana uztera behartu zuten. Gero lanbilaketa gogaikarriari ekin zion berriro. Zeharo etsita, Corcoran etxera itzuli zen eta bere emaztea eta seme-alabak jatekorik gabe eta etxetik alde egiteko agindua atean itsatsita zutela topatu zituen. Biharamun goizean pozoia edan zuen».

«Horrelako beste kasu askoren ebakinak ditut aurrean —jarraitzen du Swiftek—; entziklopedia bat ere bete liteke horretarikoekin. Gutxi hauexek aipatzen ditut Unibertsoaren interpretazio gisa. ‘Kontziente gara Jainkoak berak egindako munduan duen presentziaz’, dio idazle batek oraintsuko ingeles aldizkari batean. [Ordenamendu mundutarrean gaizkiak duen presentzia bera da ordenamendu eternalaren perfektzioaren baldintza, idazten du Royce irakasleak (*The World and the Individual*, II, 385)]. ‘Absolutua aberastu egiten dute berak

besarkatzen duen disonantzia orok eta desberdintasun guztiak', dio F.H. Bradleyk (*Appearance and Reality*, 204). Pertsona dohakabe hauek unibertsoa aberastu egiten dutela dio, hori duk filosofia! Baina Royce eta Bradley irakasleak eta pentsalari xalo eta garbi andanak Errealitatea eta Absolutua zer den argitzen eta gaizkiari eta oinazeari azalpen konbentzigarria aurkitzen ari diren bitartean, horiexek dira guk unibertso guztian ezagutzen ditugun izaki guztien artean unibertsoaren izaeraren kontzientzia garatua duten bakarrak. Horiexek esperimentatzen dutena *da* Errealitatea. Esperientzia horrek unibertsoaren alderdi absolutu bat ematen digu. Gure ezagutza eremuan esperientzia *edukitzeko*, errealitatea *zer den esateko*, gaituenak direnen esperientzia pertsonala da. Orain, zer da azken batean pertsona horien esperientziari *buruz pentsatzea*, norberak beraiek sentitzen duten bezalaxe zuzenean sentitzearekin alderaturik? Filosofoak itzalekin ari dira, baina bizi eta sentitzen dutenek egia dakite. Eta gizateriaren adimena, ez filosofoen eta ugazaba klasearen adimena, baizik isilean pentsatzen eta sentitzen dutenen masa handiarena, konklusio bereira heltzen ari da. Unibertsoa juzgatzen ari dira, orain arte erlijioaren hierofanteei bakarrik uzten zitzaiena eginez, eta *berauek* juzgatzen ikasten ere ari dira ...

«Bere seme-alabak hil eta gero bere buruaz beste egin duen Clevelandeko langilearen kasua [aipaturiko pasadizoetako bat] mundu moderno honetako eta unibertso honetako gertakari elemental eta izugarrietariko bat da. Hau ezin dute bigundu ez txikiagotu Jainkoari, Maitasunari eta Izakiari buruzko tratatu guztiek ere, alferrekoak baitira euren hutsaltasun monumentalean. Mundu honetako bizitzaren elementu sinple eta menderaezinetako bat da hau, milioika urtetako abaguneen eta hogeitaz mende kristautasunaren ondoren. Gertakari horiek mundu moralean, atomoak eta azpiatomoak mundu fisikoan direna dira: primarioak, suntsiezinak. Eta gizakiari deia-darka ari zaio iruzur bat: gertaera hauetan esperientzia kon-

tziente ororen faktore ziurra ikusten ez duen filosofiaren iruzurra. Gertakari hauek era eztaba daezinean frogatzen dute erlijioaren baliogabetasuna. Gizakiak ez dio emanen erlijioari bi mila mende edo hogeiki mende gehiago, erlijioak bere burua proban jar dezan eta giza denbora alferrik gal dezan. Erlijioaren denbora igaro da, bukatu zaio probaldia, bere historiak akabatu du. Gizateriak ez du arorik ez eternitaterik sinesgarritasuna galdu duten sistemak probatzen erabiltzeko».<sup>1</sup>

Horixe da adimen enpirista batek razionalisten balantzearen aurrean daukan erreakzio erabatekoa, hots: «Ez, eskerrik asko». «Erljioa», dio Swift jaunak, «gauza errealak ostendu zaizkion sonanbulu baten modukoa da». Eta berdina da —tentsio karga txikiagoko sentimenduekin beharbada— edozein filosofia-zalek, filosofia irakasleengana bere izatearen beharrian guzti-guztiei erantzun ahal izateko bitartekoen bila doanean, ematen duen berediktua ere. Idazle enpiristek materialismoa eskaintzen diote, razionalistek erlijiosoa den zerbait; baina erlijio horrentzat «gauza errealak ostendu egiten dira». Eta, hartara, filosofoon epaile bihurtzen da. Samurrak nahiz bortitzak garela, akas dun aurkitzen gaitu. Ezin ditugu destainaz hartu haren berediktuak, zeren, azken batean, berarena baita adimen bereziki perfektua, eskakizun gehien dituen adimena, luzera ekidinezinak diren kritika eta desadostasunak planteatzen dituen adimena.

Puntu honetan nire irtenbidea agertzen hasi da. Eskakizun biei erantzun diezaiekeen izen arraroko filosofia bat eskaintzen dut: pragmatismoa. Erlijiosoa izan daiteke razionalismoa bezala, baina, aldi berean, enpirismoak bezala lotura hertsia dauka gertakariekin. Espero dut gai izanen naitela zuetariko askori filosofia honekiko neuk daukadan aldeko iritzia helarazteko. Hala ere, neure ordua amaitzear nagoenez, ez naiz orain hasiko pragmatismoa sakonetik aztertzen. Erlojuak hurrengo kanpaia jotzen duenean hasiko naiz horretan. Orain nahiago dut esan dudanera bihurtzea apur batez.

Zuetariko batzuk filosofo profesionalak bazarete, eta badakit batzuk bazaretela, nire hitzaldia, dudarik gabe, gordin aurkituko zenuten, maila barkagaitzean aurkitu ere, edo hobeto esanda, maila sinestezinean. Gogo samurrekoak eta gogo bortitzekoak, zein bereizketa basatia! Eta, oro har, filosofia intelektueltasun eta mehetasun finez eta xehetasunez beterik dagoenean eta bere mugen barruan litezkeen konbinazio eta iragapen guztiak lor daitezkeenean, zeinen karikatura zakarra egitea eta gauzarik gorenak euren adierazpen baxuenera nolatan murriztea den gauza horien gatazka eremua elkarren etsai diren izaera biren arteko liskar astrapalatsua balitz bezala irudikatzea! Haur-ikuspegi azalekoagorik! Nolako ergelkeria den sistema razionalisten abstraktutasuna krimentzat hartzea eta sistemok euren burua gertakarien munduaren luzapen gisa baino gehiago santutegi eta ihesleku gisa eskaintzen dutelako gaitzestea. Ez al dira, bada, gure teoria guztiak erremedioak eta iheslekuak hain zuzen? Eta filosofiak erlijiosoa izan behar badu, nola izan daiteke errealitatearen gainazalaren laztasunetik ihes egiteko leku besterik? Zer hoberik egin lezake gu geure abere sentsumenetatik (*senses*) gora jaso eta geure adimenentzat beste leku bat, nobleagoa, erakutsi errealitate orori eusten dion eta endelguak sumatzen duen printzipio idealen armazoi handi horretan. Nolatan izan daitezke printzipioak eta ikuspegi orokorrak eskema abstraktuak besterik? Koloniako katedrala paperean egindako arkitekto-planik gabe eraikia izan al zen? Fintasuna nazkagarria da ala? Lakartasun konkretua al da egiazko gauza bakarra?

Sinets iezadazue, akusazioaren indar guztia sentitzen dut. Izan ere, eman dudan irudia izugarriro gainsinplifikatua eta lakarra da. Baina, abstrakzio guztiek bezala, bere erabilgarritasuna duela erakuts dezake. Filosofoek unibertsoaren bizitza abstrakzioz planteatu baldin badezakete, ezin dira kexatu norbaitek filosofiaren beraren bizitzari abstrakziozko tratamendua emateaz. Izatez, nik eman dudan irudia, latza eta eske-

matikoa izan arren, literalki egiazkoa da. Izaerek, euren irrika eta arbuioekin, determinatu egiten dituzte gizakiak euren filosofietan orain, eta gero ere eginen dituzte. Sistemen xehetasunak banan-banan arrazoi daitezke, eta, aztertzailea sistema batean lanean ari denean, zuhaitz bakoitzak oihana ahantzaraz diezaioke. Baina behin lana amaituz gero, adimenak bere laburpen-ekintza nagusia burutzen du beti, eta berehala sistema hantxe agertuko da norberaren aurrean gauza bizidun bat legez, gure oroimena jazartzen duen indibidualtasun-ukitu horrekin, lagun edo etsairen bat hiltzen zaigunean haren fantasmak bezala.

Walt Whitman ez da «liburu hau ukitzen duenak gizon bat ukitzen du» idatzi ahal izan zuen bakarra. Filosofo handi guztien liburuak dira beste hainbat gizaki bezalakoxeak. Euretako bakoitzean halako funtsezko usain pertsonal bat —tipikoa baina deskribagaitza— hautematea gure heziera filosofiko burutuaren fruiturik ederrena da. Sistemak Jainkoaren unibertso handiaren irudikapena izan nahi du. Izatez dena —eta zeinen nabarmenki!—, orde, gizabanakoren baten usain pertsonala zein biziki berezia den agerian jaritzen duen egitura da. Behin termino hauetara ekarrita (eta filosofia guztiak halaxe gelditzen dira ikasteak kritiko bilakaturiko adimenetan), sistemekin ditugun harremanak kontentu edo deskontentuzko giza erreakzio informal eta instintuzko bilakatzen dira. Oso erabateko bihurtzen gara arbuiazen edo onartzen dugunarekiko, norbait gure ederra lortu nahian datorkigunean bezain erabateko; geure berediktuak laudorio edo mespretxuzko adjektibo soilez adierazten ditugu. Unibertsoaren izaera osoa, geuk sentitzen dugun moduan, eskaintzen zaigun filosofiaren usainaren kontra neurtzen dugu, eta horretarako berba bat nahikoa dugu.

*«Statt der lebendigen Natur —diogu— da Gott die Menschen schuf hinein».* Hauxe da nahasi-mahasi lainotsua, hauxe gauza zurrin eta lotua, hauxe artifizialtasun korapila-



tsua, hauxe produktu akademiko lizundua, hauxe gaixo-ames-  
gaiztoa! Kanpora horrelakoa! Kanpora horrelako guztiak! Ez  
da posible! Ez da posible!

Filosofo bati buruz azken batean ateratzen dugun inpre-  
sioa beraren sistemaren xehetasunen inguruan egiten dugun  
lanak ematen digu, dudarik gabe; baina erreakzionatu azken  
batean ateratzen dugun inpresioarekiko erreakzionatzen dugu.  
Trebezia filosofian gure erreakzio laburbiltzaileen doitasune-  
tik neurtzen da, adituak horrelako objektu konplexuak atzema-  
teko zuzenean erabiltzen dituen epiteto zolietatik. Baina trebe-  
zia handirik ez da behar epitetoa sortzeko. Inork gutxiak du  
bere-bere filosofia erabat artikulatua, baina mundu guztiak  
dauka unibertsoaren osotasunaz bere ideia partikularra eta,  
halaber, ezagutzen dituen sistemek horrekin doi-doi lotzeko  
duten desegokitasunaz. Hau da, sistema horiek ez dute hartzen  
edo besarkatzen *euren* mundua. Bat txukunegia da, bestea  
pedanteegia, hirugarrena salgai-hondarren artean eskainitako  
iritzia da, laugarrena bigunegia, bosgarrena artifizialegia, edo  
beste edozer. Edonola ere, haiek eta guk jakin badakigu filo-  
safia horiek desegokiak eta gozakaitzak direla, eta ez dutela  
inolako «zerbitzurik» eskaintzen. Ziur nago entzule zaituzte-  
dan askorentzat Platon, Locke, Spinoza, Mill, Caird, Hegel —  
zuhurtziarren ez dut hemengorik aipatzen—, izen horiek labur  
geldituriko beste hainbat era bitxi eta pertsonalen gomutaga-  
rriak baino asko gehiago ez direla. Absurdu nabaria litzateke  
unibertsoa ulertzeko era horiek egiazkoak izatea.

Filosofook ontzat hartu behar dugu zuek horrelako sen-  
timenduak edukitzea. Azken batean, berriz diot, horiexek iza-  
nen dira gure filosofia guztiak juzgatuko dituztenak.  
Azkenean nagusi ateratzen den gauzei begiratzeko era izanen  
da erabat *miresgarriena* adimenen jardun normalerako.

Hitz bat gehiago, ezinbestez eskema abstraktuak izan  
beharreko filosofiei buruz hain zuzen. Eskemak eta eskemak  
daude, *lodiera* duten eraikinen eskemak, proiektugileak

dimentsio kubikoz asmatuak, eta paperean asmaturiko eskema planoak, erregelaz eta konpasez egindakoak. Mehe eta hezur-rruts geratzen dira hauek harri eta mortairuz eraikitzen direnean ere, eta eskemek iradokitzen dute jada emaitza hau. Eskema berez urria da, egiatan, baina ez du ezinbestez zerbait urria iradokitzen. Ohiko filosofia razionalistek *iradokitzen dutenaren* urritasun esentzialak sortarazten du enpiristetan arbuio-keinua. Herbert Spencerren sistema hari-harira dator honetan. Razionalistek akats andana izugarria ikusten diote: haren maisu-izaera lehorra, haren tonu monotonoa, argudioetan baliabide merkeetarako duen joera, mekanikan, are hastapenetan, prestakuntzarik gabea izatea eta, oro har, bere funtsezko ideia guztien lanbrotasuna eta bere sistema zurrun guztia, kilokolo dabiltzan aldamio brintzatuen gainean eraikita balego bezala ageri dena. Eta, hala ere, Ingalaterrarik erdik Westminster Abadian lur eman nahi dio.

Zergatik? Zergatik erakartzen du Spencerrek horrenbeste mirespena, razionalistek ikusten dizkioten ahuldade guztiak gorabehera? Zergatik makaltasun hori ikusten duen hainbeste jende eskolatuk —zuek eta nik ere agian— nahi dute hura Westminster Abadian ikusi, hala ere? Bada, haren bihotza filosofikoki *behar den tokian* ikusten dugulako. Baliteke haren printzipioak hezur eta azal besterik ez izatea, baina, edonola ere, haren liburuak mundu konkretu honen armazoiaren formara moldatzen saiatzen dira. Gertakarien hotsak durundi egiten du haren kapitulu guztietan, etengabe ari da gertakariak ahomentatzen, nabarmendu egiten ditu gertakariak, euren aldera begira jartzen da; eta hau nahikoa da. Hori guztia zuzentzat du adimen enpiristak.

Hurrengo hitzaldian jorratzen hastekotan naizen filosofia pragmatikoak harreman maitekorra du gertakariekin; baina, Spencerren filosofia ez bezala, ez da eraikuntza erlijioso positiboak kale gorrian jartzetik hasten ez horretan amaitzen, hauek ere maitasunez hartzen baititu.

Espero dut eroanen zaituztedala eskatzen duzuen bitarteko pentsamolde hori aurkitzera.



# BIGARREN HITZALDIA

## PRAGMATISMOAK ZER ESAN NAHI DUEN

Duela zenbait urte, taldeko mendi-irteera batean nintze-la, paseada bat ematera joan nintzen bakarrik, eta lagunengana itzultzean eztabaida metafisiko bero batean nahasita aurki nituen. Eztabaidaren *corpusa* urtxintxa bat zen, hau da, zuhaitz-enbor baten alde batean zintzilik suposatzen zen urtxintxa bizia, aurrez aurreko aldean gizaki bat zuen artean. Giza lekuko honek urtxintxa ikusi nahi du, eta horretarako zuhaitzaren inguruan azkar ibiltzen hasten da; baina arinen ibilita ere, urtxintxa hura bezain azkar dabil kontrako norabidean, eta gizakiaren eta bien artean beti zuhaitza edukitzea lortzen du, eta, hartara, gizakiak ezin dio une batean ere begia bota. Hemendik sorturiko problema metafisikoa hauxe da: *Ba ote dabil gizakia urtxintxaren inguruan, ala ez?* Zuhaitzaren inguruan, dudarik ez, badabil, eta urtxintxa zuhaitzean dago; baina ba al dabil urtxintxaren inguruan? Basoko lasaitasun mugagabea, eztabaida gogaikarri bihurtzeraino luzatu zen. Nor bere aldera joana zen eta irmo eusten zion bere iritziori; eta alde batean bestean bezainbat jende zegoen. Alde bietakoak, ni agertzean, ni euren aldera eramaten saiatu ziren, gehiengo aitzakia izateko. Kontraesan batekin topo egiten duzun guztian bereizketa egin behar duzula dioen esaera eskolastikoa aintzat hartu-

ta, berehala bilatu eta topatu nuen bat, hauxe hara: «Zein taldek duen arrazoi» esan nuen «hori ‘urtxintxaren inguruan’ ibiltzeaz *praktikoki esan nahi duzuenaren* mende dago. Esan nahi baduzue urtxintxaren iparretik ekialdera, gero hegora, hurren mendebaldera eta gero berriz iparrera pasatzen dela, orduan gizakia, dudarik gabe, badabil haren inguruan, hurrenez hurren puntu horietan dagoenez gero. Baina baldin, aitzitik, esan nahi baduzue lehenik haren aurrean dagoela, gero haren eskuinean, hurren atzean, jarraian ezkerrean eta azkenez berriro haren aurrean, argi dago gizakia ez dabilela urtxintxaren inguruan, zeren hark egiten dituen mugimendu konpentsatzaileen bidez beti baitauka sabelaldea gizakiari begira eta bizkaraldea kanpora begira. Bereizketa hau eginda, ez dago jada eztabaidan segitzeko motiborik. Alde biok zaudete zuzen eta alde biok zaudete oker, ‘inguruan ibili’ aditza praktikan era batera ala bestera nola hartzen duzuen».

Nahiz eta eztabaidatzaile beroenetariko batek edo beste, nire iritzia ihesbidetzat joz, sofismarik ez eskolastikoen mehekeriarik ez zutela nahi esan bazuten ere, baizik «inguruan» hizkuntza garbian den bezalaxe ulertu behar zela, ematen zuen gehienek pentsatzen zutela bereizketak balio izan zuela eztabaida baretzeko.

Garrantzirik gabeko pasadizo hau hona badakart, orain *metodo pragmatiko* legeaz aztertu nahi dudaren adibide bereziki sinplea delako da. Metodo pragmatikoa, lehenengo eta behin, bestela amaigabeak lirakekeen eztabaidak ebazteko metodoa da. Mundua bat al da, ala asko? Determinatua ala librea? Materiala ala espirituala? Galdera sail honetan erantzun bakoitza munduari dagokiona nahiz ez dagokiona izan daiteke, eta nozio horiei buruzko eztabaidek ez dute amairik. Metodo pragmatikoa kasu horietan nozio bakoitza beraren ondorio praktikoak zehatzuz interpretatzen saiatzen da. Zer alde ekarriko luke praktikan norbaitentzat egiazkoa nozio hau eta ez bestea izateak? Inolako alderik zehazterik ez badago,

orduan alternatibak praktikan berdinak dira eta eztabaida alferrekoa da erabat. Serioa denean eztabaida, alde bat edo bestea zuzen egoteak diferentzia praktikoren bat dakarrela agerian jartzeko gai izan behar genuke.

Idea honen historiari begirada bat emateak are hobeto erakutsiko dizue pragmatismoaren esan-nahia. Terminoa pragmatismo grekozko hitzetik eratorria da, ekintza esan nahi duelarik, eta bertatik datoz gure «praktika» eta «praktiko» hitzak. Charles Peirce jaunak sartu zuen lehenbizi filosofian 1878an. Urte horretako urtarrileko *Popular Science Monthly*n argitaraturiko «How to Make Our Ideas Clear» saiakeran<sup>1</sup>, Peirce jaunak, gure sinesteak izatez ekintzarako arauak direla seinaltatu ondoren, esan zuen ezen, pentsamendu baten esan-nahia argitzeko, pentsamendu hori sortzeko zein portaera den egokia zehaztea besterik ez dugula behar: portaera hori izanen da guretzat pentsamenduaren esan-nahi bakarra. Eta gure pentsamendu-bereizketa guztien, meheen ere, sustraian dagoen gertakari nabaria zera da, alegia, eurotako bat bera ere ez dela praktikako diferentzian datzana besterik izateko bezain zorrotza. Objektu bati buruz ditugun pentsamenduetan argitasun betea erdiesteko, beraz, objektuak mota praktikoko zein efektu bururagarri eduki ditzakeen kontuan hartzea baino ez daukagu, hau da, zer nolako sentipenak eragin liezazkigukeen eta nolako erreakzioak prestatu behar ditugun. Efektu horiez, berehalakoez edo urrunekoez, daukagun buruera objektuaz daukagun buruera guztia da, buruera horrek esangura errealik badu.

Horixe da Peirceren printzipioa, pragmatismoaren printzipioa. Printzipio honetaz inor ere ohartu gabe egon gara hoguei urtez, harik eta nik neuk, Kaliforniako Unibertsitatean Howison Irakaslearen filosofia-elkartearentzako hitzaldi batean, berriro atera eta bereziki erlijioari aplikatu nion arte. Data hartan (1898) heldua zen jada garaia pragmatismoa onartzeko. «Pragmatismo» hitza laster hedatu zen, eta gaur egun filosofia

aldizkarien orrialdeak betetzen ditu. Alde guztietan entzuten dugu «mugimendu pragmatikoaz» mintzatzen, batzuetan begiramenduz, beste batzuetan mespretxuz, bakanki argiro ulertuta. Bistan da terminoa orain arte talde-izenik hartu gabeko joera mordo bati aplikatzen zaiela eta hitzaren erabilera «finkatu» dela jada.

Peirceren printzipioaren garrantzia ulertzeko, printzipio hori kasu konkretuetara aplikatzen ohituta egon behar da bat. Duela zenbait urte jakin nuen Ostwaldek, Leipzigeke kimikari ospetsuak, zientziaren filosofiari buruz eman zituen hitzaldietan pragmatismoaren printzipioa erabat zehazki erabili zuela, nahiz eta izen horrekin ez erabili.

«Errealitate guztiek dute eragina gure praktikan» idatzi zidan «eta eragin horrexetan datza beraien esan-nahia guretzat. Klaseetan honelaxe planteatu ohi dizkiet galderak ikasleei: zer alderditan litzateke diferentea mundua, alternatiba hau edo bestea balitz egiazkoa? Diferente izan daiteken ezer aurkitu ezin badut, orduan alternatibak ez du zentzurik».

Hau da, elkarren kontrako ikuspegiek praktikan gauza bera esan nahi dute, eta guretzat, esan-nahi praktikotik kanpo, ez dago esan-nahirik. Ostwaldek, argitaraturik daukan hitzaldi batean, esan nahi duenaren adibide hauxe jartzen du. Kimikariak luzaz ari izan dira eztabaidan «tautomeroak» deritzen gorputz batzuen barne egiturari buruz. Gorputzonen propietateek koherenteak dirudite hala euren barruan hidrogeno atomo ezegonkor bat dagoela kulunkari dioen nozioarekin nola gorputz biren nahaste ezegonkorrak direla dioenarekin. Amorratua izan da eztabaida, baina ez da ezer ebatzi. «Ez zen sekula hasiko» dio Ostwaldek «elkarren kontra ari zirenek euren buruari galdetu izan baliote ea zein gertakari esperimental konkretu zatekeen ezberdina, ikuspegi bata edo bestea zuzena izanez gero. Zeren orduan ikusiko zen agian ezin zela hortik gertakarizko diferentziarik sortu, eta sesioa guztiz irreala zela, adibide batez esateko, antzina, oreka legamiaz jaikitze-



ari buruz teorizatzean, fenomenoaren egiazko kausa alde batekoek iratxo on baten eta besteak iratxo gaizto baten ekintza zela defendatu izan balute bezain irrealak». <sup>2</sup>

Harrigarri gertatzen da ikustea eztabaida filosofiko askoren esan-nahia nola ezabatzen den, ondoren konkreturen bat zehazteko proba xumearen aurrean jartzen diren une berean. Ezin *da* leku batean diferentziarik izan, beste leku batera diferentzia *ekartzen* ez duenik: ez dago egia abstraktuen arteko diferentziarik, gertakari konkretuen arteko diferentzian eta norbaitengan, nolabait, nonbait eta noizbait ezarritako gertakarien ondorengo portaeretan agertuko ez denik. Filosofiaren eginkizun guztiak haxe aurkitzea behar luke izan: munduaren ikuskera hau ala bestea egiazkoa izateak zuentzat eta niretzat zer alde edo diferentzia zehazki ekarriko duen, gure bizitzako une zehatzetan.

Metodo pragmatikoak ez dauka ezer berririk. Sokrates jarraitzaile izan zuen, eta Aristotelesek metodikoki erabili zuen. Locke, Berkeley eta Humek egiaari ekarpen inportanteak egin zizkieten beronen bidez. Shadworth Hodgsonek berriro ere dio errealitateak ez direla ezagutuak izateko behar diren terminoak adierazten dutena besterik. Baina pragmatismoaren aurreko hauek zati batez baino ez zuten erabili metodo hau: aitzindariak baino ez ziren. Gure garaira arte ez da noranahi zabaldu pragmatismoa; baina daukan eginkizun unibertsalaz kontziente bihurtu da orain, eta xede bat konkistatzea erabaki du. Nik sinesten dut xede horretan, eta neure sinespidea zuei helaraztera helduko naizela espero dut.

Pragmatismoak filosofian oso jarrera ohikoa ordezkatzeko du, jarrera enpirista; baina, ene ikusiz, orain arte izan duena baino era erradikalagoan eta ez hain aurkagarrian ordezkatzeko du. Pragmatista batek bizkarra ematen dio, erabakitsu eta behin betiko, filosofo profesionalek oso maite dituzten ohi-tura erroetuei. Berdin aldentzen da abstrakzioetik eta ezaskitasunetik, hitzezko aterabideetatik, *a priori*ko arrazoi gauzaeztane-

tatik, printzipio aldaezinetatik, sistema itxietatik eta usteko absolutuetatik eta hastapenetatik. Konkretutasunera eta egokitasunera bideratzen da, gertakarietara, ekintzara eta ahalera. Honek izaera enpiristaren nagusitasuna esan nahi du, eta izaera razionalista zintzoki bazter uztea. Aire zabala eta naturaren ahalbideak esan nahi ditu, eta, halaber, dogmaren, artifizialtasunaren eta egia oso-osoa norberak edukitzearen uste faltsuaren aurkako jarrera.

Aldi berean, ez du emaitza berezirik bilatzen. Metodo bat besterik ez da. Baina metodo honen garaipen orokorrak aldaketa handia ekarriko luke aurreko hitzaldian filosofiaren «izaera» deitu dudan horretan. Izaera ultrarrazionalistako irakasleak kanpoan utziko lirатеke, gortesauak errepublikan edo apaiz ultramontanoak protestanteen lurraldeetan kanpoan uzten dituzten moduan. Zientzia eta metafisika asko elkarretaratuko lirатеke eta elkarren eskutik lan egingen lukete.

Metafisikak, eskuarki, oso ikerketa mota primitiboa erabili izan du. Badakizue gizakiek irrikaz bilatu izan dutela legez kanpoko magia, eta magian *berbek* beti izan dutela garrantzi handia. Botere baten izena edo hura lortzeko gai den enkantamendu formula badaukazu, kontrolatu ahal izanen duzu espiritua, jeinua, edo deabrua, edo dena delako boterea. Salomonek espiritu guztien izenak zekitzan; eta beraien izenak zeuzkalarik, bere nahiaren pean zeuzkan guztiak. Antzera batean, adimen naturalari unibertsoa halako enigma bat bezala agertu izan zaio beti, zeinaren gakoa berba edo izen argitzaile edo indar-ekarleren baten forman bilatu behar den. Izen horrek unibertsoaren «*hastapena*» izendatzen du eta haren jabe izatea nolabait unibertsoaren jabe izatea da. «Jainkoa», «Materia», «Arrazoimena», «Absolutua», «Energia» dira gako-izen horietako batzuk. Atsedean har zenezake, horiek dauzkazunean. Heldu zara zeure bilaketa metafisikoaren azken muturrera.

Baina metodo pragmatikoari jarraitzen badiogu, berba horiek gure bilaketa zarratzen ikusterik ez daukagu. Hitz

bakoitzetik daukan benetako balio praktikoa atera behar dugu; geure esperientziaren korrante barruan sartu eta lanean ipini behar dugu. Orduan soluzio gisa baino gehiago, lan gehiago egiteko programa gisa agertzen da, edo zehatzago, munduan diren errealitateak *aldatu* ahal izateko dauden moduen adierazpide gisa.

*Teoriak, hartara, tresna bilakatzen dira, eta ez dira enigmai buruzko erantzunak, geratzeko eta atsedean hartzeko aukera eskaintzen digutenak.* Ez gara teorioren gainean etzaten, aurrea egiten dugu eta, noizbehinka, natura berregiten dugu euren laguntzaz. Pragmatismoak zalutu egiten ditu gure teoria guztiak, zurminda kentzen die eta lanean ipintzen ditu banan-banan. Funtsean ezer berririk ez denez gero, bat dator antzina-ko joera filosofiko askorekin. Bat dator, adibidez, nominalismoarekin beti partikularrera jo behar delako iritzian; utilitarismoarekin, alderdi praktikoak nabarmentzeko premian; positibismoarekin, hitzezko soluzioekiko, alferreko galderekiko eta abstrakzio metafisikoeziko erakusten duen mespretxuan.

Joera hauek guztiak, dakusazuen bezala, *anti-intelektualistak* dira. Pragmatismoak oso ongi armaturik eta borrokalari dihardu razionalismoaren aurka, xede eta metodo gisa jardun ere. Baina, hasieran bederen, ez du bilatzen emaitza zehatzik. Ez du dogmarik ez doktrinarik, bere metodoa salbu. Papini pragmatista italiar gazteak ongi esan duen moduan, pragmatismoa gure teoria guztien erdian jartzen da, hotel batean korridorea bezala. Bertatik kontatu ezin ahala gelalara dago sarbidea. Batean, liburu ateo bat idazten ari den bat topa daiteke; hurrengoan, belaunikaturik errezuan beste bat, fedea eta indarra eskatzen; hirugarrenean kimikari bat gorputz baten propietateak ikertzen. Laugarrenean, metafisika idealistako sistema bat oldozten bat, eta bosgarrenean, metafisikaren ezintasuna frogatzen beste bat. Baina guztiena da korridorea, eta denek iragan behar dute bertatik, nor bere gelara sartu edo irteteko bide erabilgarri bat ukan nahi izanez gero.

Emaizta partikularrik ez, baina orientabidea aurkitzeko jarrera bat soilik suposatzen du metodo pragmatikoak. *Lehenengo errealitateetatik, printzipioetatik, «kategorietatik» eta ustezko beharretatik begiak aldentu eta azken errealitatei, fruituei, ondorioei eta gertakariei begira paratzeko jarrera.*

Ez da makala metodo pragmatikoori! Metodoa azaltzen baino gehiago goraiatzaren ari izan naizela erranen duzue agian; baina berehala azalduko dizuet behar bezain zabal, ohiko zenbait arazotan nola funtzionatzen duen agertuz. Egia da pragmatismo hitza zentzu zabalagoan ere erabili izan dela, *egiaren teoria* bat bezala ulertuta alegia. Teoria honen planteamenduari hitzaldi oso bat emateko asmoa dut, aurretik bidea prestatu ondoren; eta, hargatik, orain labur ariko naiz. Baina labur esaten denari jarraitzea ez da erraz izaten eta, horregatik, ordu laurden batez arreta areagotzea eskatzen dizuet. Ezer ilun geratzen bada, hurrengo hitzaldietan argitu ahal izango dudalakoa nago.

Gure garaian arrakastarik handienaz landuriko filosofia-ren adar bat indukziozko logika deritzona da, gure zientziak zer nolako baldintzetan garatu diren aztertzen duena. Gai honi buruz idazten ari direnak adostasun bakana erakusten hasi dira naturaren legeak eta gertakari elementuek —matematikariek, fisikariek eta kimikariek formulatzen dituztenean— daukaten esan-nahiari buruz. Lehenbiziko erregulartasun matematiko, logiko eta naturalak, lehenengo *legeak* alegia, aurkitu zirenean, hortik zetorren argitasun, edertasun eta sinplifikazioek hain pozez gainezka jarri zuten jendea, non benetan ere Ahalguztidunaren betiereko pentsamenduak dezifratu zituztela pentsatu zuten. Haren adimenean ere silogismoak trumoiak eta argi-distiraka ibili ziren. Hark ere sekzio konikoak, karratuak, erroak eta ratioak bururatu zituen, eta Euklidesek bezalaxe egin zuen geometria. Keplerren legeak egin zituen, planetek bete zitzaten; erortzen diren gorputzen abiadura denborarekiko proportzioz gehi zedin egin zuen; sinuen legea egin zuen

argiak errefraktatzean men egin ziezaion; landare eta animalien klaseak, ordenak, familiak eta generoak ezarri zituen eta euren arteko aldeak markatu. Gauza guztien arketipoak pentsatu zituen eta euren bariazioak banatu; eta sorkari harrigarri hauetako edozein berraurkitzen dugunean haren adimenaren asmoak berak atzematen ditugu.

Baina zientzia garatu ahala, gero eta indar handiagoa hartuz joan da gure legerik gehienak, denak agian, hurbilpenak baino ez direlako ideia. Areago, legeak eurak kontatu ezin adina izatera heldu dira; eta beraien aurkako hainbeste formulazio proposatu dira zientziaren adar guztietan, non ikertzaileek ohitu egin baitira zera dioen ideiara, alegia, ezin teoria ere ez dela errealitatearen transkripzio erabatekoa, baina euretako edozein izan daitekeela baliagarri ikuspunturen batetik. Teorien zeregin nagusia gertakari zaharrak laburbildu eta gu gertakari berrietara eroatea dela. Giza egikerako hizkuntza mota bat dira, norbaitek esan duen bezala kontzeptuzko taktigrafia bat, naturari buruzko informeak egiteko erabiltzen duguna; eta hizkuntzek, edonork dakien moduan, adierazteko aukera asko eta dialekto asko onartzen dituzte beren baitan.

Hartara, giza arbitrariotasunak banandu egin du jainko-premia logika zientifikotik. Sigwart, Mach, Ostwald, Pearson, Milhaud, Poincaré, Duhem, Ruysen ahomentatzen baditut, zuen arteko ikastunek laster identifikatuko dute zein joeraz ari naizen, eta izen gehiago etorriko zaizkie burura.

Logika zientifikoko korrante honen buruan Schiller eta Dewey jaunak ageri dira, egiak nonahi zer esan nahi duen adierazteko azalpen pragmatikoa emanez. Nonahi, diote irakasle hauek, «egiak» gure ideietan eta sinesteetan zientzian esan nahi duen gauza bera esan nahi du. Beraien esanez, hauxe besterik ez du esan nahi: *ideiak (berenez gure esperientziaren zati baino ez direnak) gure esperientziaren beste zati batzuekin erlazio konformagarria lortzen, eurak laburbiltzen eta euren artean, fenomeno partikularren segida amaigabeari jarraitzen*

ibili beharrean, laburbide kontzeptualetatik ibiltzen *laguntzen diguten hein berean bihurtzen direla egiazko*. Arrelepo, halaxe esatearren, eroan gintzakeen edozein ideia, gure esperientziaren alde batetik bestera beti ere hoberako eroan gintzakeen edozein ideia, horretarako gauzak behar bezala lotuz, seguru lan eginez, sinplifikatuz, lana aurreztuz, horrelako ideia — diot— egiazkoa da horrexegatik guztiagatik hain zuzen, egiazkoa ondorio horiexetarako, egiazkoa *instrumentalki*. Horixe da hainbesteko arrakastaz Chicagon irakatsitako egiaren ikuspegi «instrumentala», gure ideietako egia «funtzionatzeko» duten ahalmenean datzala dioen ikuspegia, Oxforden hainbesteko distiraz aldarrikatua.

Dewey, Schiller eta euron gogaideek, egia ororen ikusmolde orokor hau berenganatzeko, geologoen, biologoen eta filologoen jarraibideari segitu besterik ez dute egin. Beste zientzia hauen eraiketan aurrerapen emankorra beti izan da honako hau: egiazki behagarria den prozesu xume bat jardunean ari dela hartu —eguraldiak eragindako erosioa, kasu, edo gurasoaren tipotik aldenduriko aldagaia, edo dialektoz aldatzea hitz eta ahoskera berriak sartuz— eta gero prozesu hori orokortzea, garai guztietara aplikatzea eta emaitza handiak ekartzea lortuz aro guztietan izandako efektuak batuta.

Schiller eta Deweyk gero orokortzeko partikularrean aukeratu zuten prozesua edozein pertsonak *iritzi berrietara* pasatzeko erabili ohi duena da. Prozesu hau beti da berdina. Gizabanakoak jada badu iritzi mordo bat, baina iritziok teinkateinka ipiniko dituen esperientzia berri batekin topo egiten du. Baten batek kontraesanean jartzen ditu iritziok edo hark berak, gogoeta une batean, elkarrekiko kontraesanean daudela deskubritzen du; edo beraiekin bateragarri ez diren gertakarien berri heltzen zaio; edo haiek jada ase ezin dituzten desirak sortzen zaizkio. Honen emaitza, azken batean, ordura arte adimenak ukan ez duen barne ezinegon bat da, eta berak ihes egin nahi dio alde z aurreko iritzi mordoa aldatuz. Iritziotatik ahalik

gehienak salbatzen saiatzen da, zeren sineste kontuan arras kontserbadoreak baikara guztiok. Hartara, poliki-poliki lehenengo iritzi hau eta gero bestea aldatzen saiatzen da (zeren eurentako bakoitza oso era ezberdinean defenda daiteke aldaketatik), harik eta azkenean ideia berriren bat sortu arte, lehengo ideia mordoaren artean txerta dezakeena berauentzako okerrik txikienarekin, hau da, lehengo ideien eta esperientzia berriaren artean bitarteko izan eta alde biok ahalik era emankorren eta egokienean elkartuko dituen ideiaren bat.

Idea berri hori orduan egiazkotzat hartzen da. Lehengo ideia mordoa mantentzen du aldaketarik txikienarekin, haiek berrikuntza onartzeko behar bezainbat doi-doi bortxatuz, baina berrikuntza hori kasuak uzten duen heinean era ohikoenetan bururatuz. Muturreko azalpen *outrée* bat, gure aurreikusmolde guztiak hautsiko lituzkeena, ez da inoiz onartuko berrikuntza baten egiazko azalpen gisa. Inguruan ekin eta ekin azterka ibili beharko dugu hain aldrebesa ez datekeen zerbait aurkitu arte. Gizabanakoaren sinesteetan izandako iraultzarik bortitzenak haren ordenamendu zaharretik gehiena zutik uzten du. Denbora eta espazioa, kausa eta efektua, natura eta historia, baita norberaren biografia ere, ukigabe irauten duten zerak dira. Egia berria bitartekoa da beti, iragapenen leungarria. Iritzi zaharrak gertakari berriarekin uztartzen ditu halatan, non inarrospenetik ahalik gutxien eta segidatik ahalik gehien agertzen den. Edozein teoria «maximoen eta minimoen arazo» hau ebazten daukan arrakastaren heinean daukagu egiazkotzat. Baina arazo hau ebazteko gai izatea hurbilpen kontua da. Teoria batek arazoa oro har beste batek baino hobeto konpon-tzen duela esaten dugu; baina honek gure gusturako hobeto esan nahi du, eta nork bere gustua neurtzeko era ezberdina dauka. Maila bateraino, beraz, dena da hemen plastikoa.

Orain egia zaharrek zer funtzio betetzen duten atzema-ten jar zaitezten nahi dut. Horretaz ez ohartzea da, izan ere, pragmatismoaren aurka jaurtitzen diren kritika injustu askoren

iturburua. Egia horien eragina erabat erabakigarria da. Eurekiko leialtasuna da printzipio nagusia, eta kasu gehienetan printzipio bakarra, zeren gure aurreikusmoldeen berratonketa serioa eskatzen duten hain fenomeno berri horiek tratatzeko erarik erabilien-erabiliena itsuarena egitea baita, edo haien aldeko lekukotasuna dakarren jendea irainez hartzea.

Zuek, dudarik ez, egiaren garapen honen adibideak nahi dituzue, eta, egia esanda, eragozpen bakarra euron gehiegizko ugaritasuna da. Egia berrien adibiderik sinpleena, jakina, gure esperientziari gertakari mota berriak edo lehengo motako gertakari partikularrak kopuruz gehitze soila da, lehengo sinestee-tan aldaketarik inplikatzeko ez duen gehiketa berau. Eguna egu-nari darraio, eta eurotan guganaturiko edukiak gehituz doaz besterik gabe. Eduki berriak eurak ez dira egiazkoak, *badatoz* eta *badira* besterik ez. Egia *eurei buruz dioguna* da, eta etorri direla diogunean, egia formula gehigarri sinpleaz betetzen da.

Baina maiz eguneko edukiak berratonketara behartzen gaituzte. Orain tribuna honetan txilio bizian eta zoroarenak egiten hasiko banintz, zuetariko askok seguru asko nire filoso-fiaren ustezko balioari buruz duzuen iritzia berraztertzen hasi beharra izanen zenukete. Lehengo batean «radioa» heldu zen eguneko edukien artera, eta une batez bazirudien naturaren ordena osoaz ditugun ideiak ezeztatzen zituela, ordena hori energiaren kontserbazioa deritzonarekin identifikatzen zenez gero. Radioa bere barne-almazenetik etengabe energia bota-tzen ikuste hutsak aipaturiko kontserbazioa hauts eginda uzten zuela zirudien. Zer pentsatu? Radioaren baitatik erradiazioak atomoen barruan aurretik zegoen energia susmagabe «poten-tzial» baten ihesa besterik ez balira, kontserbazio printzipioa salbu legoke. «Helioa» erradiazioaren efektu gisa aurkitu iza-nak sineste horretarako bidea zabaldu zuen. Eta, horregatik, Ramsayren ikuspegia egiazkotzat hartzen da eskuarki, zeren, energiak ditugun iritzi zaharrak hedatzen baditu ere, aldaketa-rik txikiena eragiten die euren izaeran.



Ez dut adibide gehiago ekartzen ibili beharrik. Gizabanakoak bere esperientziako gauza berria erreserban dituen sinesteetara asimilatzeko daukan desira asetzen duen hein berean balio du «egiazkotzat» iritzi berriak. Iritzi horrek, beraz, egia zaharrean euskarritu behar du eta, aldi berean, gertakari berria atzeman; eta hori zenbateraino lortu duen zehaztea, arestian esan dudan moduan, gizabanakoaren balorazio kontua da. Orduan, egia zaharra egia berriren baten eransketaz hazten denean, hori arrazoi subjektiboen eraginez gertatzen da. Prozesuan sartuta gaude eta arrazoei men egiten diegu. Ideia berri batek zenbat eta hobeto ase gure premia bikoitz hori, orduan eta egiazkoagoa da. Egiazkoa izatea lortzen du, egiazkotzat sailkatua izatea, jarduteko duen eragatik; egia-multzo zaharrean txertatzen da eta multzo hau zuhaitza hazten den antzera liber geruza berri baten eraginaren bidez hazten da.

Orain Dewey eta Schillerrek oharpen hau orokortu eta egiaren alde zaharrenei aplikatzen diete. Haiek ere noizbait plastikoak izan ziren. Haiek ere egiazkotzat egon ziren giza arrazoiengatik. Haiek ere bitartekoak izan ziren eurak baino lehenagoko egien eta une hartan oharpen berriak zirenen artean. Egia objektibo garbia, esperientziako lehenagoko egiak berriagoekin uztartzean giza gozamina emateko funtzioak ezelako zereginik eduki gabe ezarri dena, ez dugu inon topatuko. Gauzei egiazkoak deitzeko ditugun arrazoiak dira egiazkoak *izateko* duten arrazoa, zeren «egiazkoa izatea» uztarketa-funtzio horixe betetzea baino ez baita.

Giza sugearen arrastoa, hartara, nonahi dago. Egia loka-bea, hortxe, besterik gabe, *topatzen* dugun egia, giza premieta-  
ra moldatzerik ez dagoen egia, hitz batean, egia zuzentezina existitzen da, dudarik ez, oso maiz existitu ere, edo hala suposatzen joera razionalistadun pentsatzaileek; baina zuhaitz biziaren bihotz hila besterik ez da, eta hura izateak ez du esan nahi haxe besterik: egiak ere bere paleontologia eta bere «preskripzioa» dituela eta urte askotako zerbitzu luzearen era-

ginez zurrundu egin daitekeela, baita zaharraren zaharrez harri bihurtu ere gizakien ikusirako. Baina gaur egun ideia logikoak eta matematikoak izan duten eraldaketak, fisikaren eremua ere inbaditzen duela dirudienak, argi utzi du zeinen egiatan diren plastikoak ideiarik zaharrenak. Antzinako formulak printzipio asko zabalagoen adierazpen gisa berrinterpretatzen dira, euren egungo forma eta planteamenduan gure asabek inoiz antzik eman ere ez zieten printzipioak berauek.

Schiller jaunak egari buruzko ikuskera honi guztiari «humanismoa» deitzen dio; baina doktrina honentzat «pragmatismoa» ere indarra hartuz datorren izena da, eta neuk ere hitzaldi hauetan izen horixe erabiliko dut.

Hauxe litzateke, beraz, pragmatismoaren eremua: lehenik metodo bat, bigarrenik egia zer esan-nahi daukan azaltzen duen teoria genetiko bat. Eta bi horiexek izanzen ditugu aztergai.

Egiaren teoriari buruz esan dudanari zuetariko gehienok, ziur nago, ilun eta entzulea pozik ez uzteko modukoa iritziko zenioten laburratik. Geroago ahaleginduko naiz hori konpontzen. «Zentzunari» (*common sense*) buruzko hitzaldi batean, zaharraren zaharrez harrituriko, harri bihurturiko egiaz mintzo naizenean zer esan nahi dudan azaltzen saiatuko naiz. Beste hitzaldi batean, luze eta zabal azalduko dut gure pentsamenduak egiazkoak, beren bitartekari funtzioa betetzen duten heinean direlako ideia. Hirugarren batean, agerian jartzen saiatuko naiz zein zaila den Egiaren garapenean faktore subjektiboak objektiboetatik bereizten. Baliteke hitzaldi hauetan zuek niri guztiz ez jarraitzea; eta jarraituta ere, nirekin denean bat ez etortzea. Baina ziur nago seriotzat ukanen nauzuela bederen, eta nire ahalegina errespetuz aintzat hartuko duzuela.

Beharbada harritu eginen zaituzte jakiteak Schiller eta Dewey jaunen teoriak mespretxu eta trufa zaparrada jaso dutela. Razionalismo guztia atera zaie kontra. Schiller jauna, bereziki, astinaldi bat behar duen eskola-mutiko bat legeztatu dute. Ez nuke hau ahomentatuko, izaera pragmatistaren aurrez

aurre jarri dudan izaera razionalistari buruz nahikoa argitzapen eskaintzen digulako ez balitz. Pragmatismoa deseroso dago gertakarietatik urrun. Razionalismoa abstrakzioen aurrean soilik dago eroso. Egiez pluralean, berauen baliagarritasun eta kontentagarritasunaz, «funtzionamenduan» duten arrakastaz eta abarrez ari den diskurtso pragmatista honek adimen razionalista tipikoari halako bigarren mailako akasdun egia-artikulu landugabe bat iradokitzen dio. Horrelako egiak ez dira benetako egiak. Horrelako probak subjektibo hutsak dira. Berauen aurrez aurre egia objektiboak zerbait ez-erabilgarria, goren, oso landua, apartekoa, ohoragarria, behar du izan. Egia objektiboak gure pentsamenduen eta errealtate era berean objektiboaren arteko egokitzapen absolutua behar du izan. Egiak guk inolako baldintzarik gabe pentsatu *behar* duguna behar du izan. Guk *eduki dauzkagun* pentsatzeko era baldintzatuak garrantzirik gabekoak eta psikologiaren aztergai dira. Auzi honetan guztian, behera psikologia eta gora logika!

Zeinen kontraste aparta adimen mota bi horien artean dagoena! Pragmatista gertakariei eta gauza konkretuei lotzen zaie, egia kasu partikularretan funtzionatzen behatzen du, eta orokortu egiten du. Pragmatistarentzat, egia esperientziako edozertariko balore zehatzak sailkatzeko klase-izen bilakatzen da. Razionalistarentzat, egia abstrakzio hutsa da, bere izena entzute hutsaz bere mendean jarri beharrean jartzen gaituena. Pragmatista egiaren mendean *zergatik* jarri behar dugun zehatz-mehatz agertzen saiatzen den artean, razionalista ez da gai bere abstrakzioaren iturri diren gertakari konkretuak eza-gutzeko. Egia *ukatzeaz* akusatzen gaitu, guk jendeak egiari zergatik jarraitzen dion eta zergatik beti jarraitu behar liokeen zehatz-mehatz adierazten saiatu besterik egin ez dugunean. Ultrarrazionalista tipikoa ikara bizian jartzen da konkretutasunaren aurrean; baldintza beretan nahiago du, dudarik gabe, zurbila eta mamu-antzekoa dena. Bi unibertso eskainiko bali-tzaizkio aukeran, eskema biluzia hautatuko luke beti, errealtita-

tearen sastrakadi aberatsa albora utzita. Askoz garbiago, argiago eta nobleagoa da, izan ere.

Espero dut, hitzaldiotan aurrera egin ahala, eurotan defendatzen den pragmatismoaren konkretutasunari eta gertakariekiko hurbiltasunari iritziko diezuela azkenean beronen ezaugarriak estimagarrienak. Pragmatismoak zientzia senideen etsenpluari jarraitu besterik ez dio egiten, behatu gabea behaturikoaren bidez interpretatuz. Zaharra eta berria harmoniaz elkartzen ditu. Gure adimenen eta errealtatearen arteko «egokitzapenaren» erlazio erabat hutsaren nozio estatikoa (hau zer den geroago planteatuko dugu) gure geure pentsamendu partikularren eta hauek berauen funtzioak eta erabilpenak betetzeko dituzten beste esperientzia batzuen unibertso esker-garen arteko harreman aberats (edonork zehazki segi eta uler dezakeena) bihurtzen du pragmatismoak.

Baina diodana ez ote da nahikoa oraingoz? Diodanaren justifikazioa gerorako utzi behar dut. Orain, ordea, hitz batzuk gehitu nahi ditut hobetoxeago azaltzeko azken saioan proposatu nuen, alegia, pragmatismoa bide on bat izan daitekeela pentsatzeko modu enpiristak gizakien eskakizun erlijiosoekin harmonizatzeke.

Gogoratuko duzuenez, lehen ere esan dut izaera gertakari-zale bortitza duten pertsonen errezeluz begiratzen zaiela, gaur egun modan dagoen filosofia idealistak sinpatia gutxi dielako gertakariei. Filosofia hau, izan ere, sobera intelektualista da. Modatik pasatako teismoa nahikoa eskasa zen, Jainkoa «atributu» ulertezin eta absurduz osaturiko gorengo monarkatzat hartuta; baina, plan edo xede baten argudioari indartsu zetxekion heinean, bazeukan nolabaiteko lotura errealtate konkretuekin. Baina, darwinismoak «zientifikoei» plana edo xedea burutik kendu zietenaz geroztik, teismoak galdu egin du euskarri hori; eta gure irudimen garaikidearentzat gomendaturiko jainkotasun mota, ezein izatekotan, gauzen *barruan* eta ez gainean diharduen jainkotasun mota inmanente

eta panteista da. Erlijio filosofikoaren aldekoak gaur egun esperantza handiagoz bideratzen dira panteismo idealistarantz, teismo dualista zaharrera baino, nahiz eta azken honek oraindik ere defendatzaile jantziak ukan.

Baina, lehenengo hitzaldian nioen bezala, gertakari-zaleek edo joera enpirikodunek zail daukate panteismoaren marka berenganatzen. Izan ere, marka hori absolutista da, hautsa gutxietsi eta logikaren gainean eraikitzen dena. Ez du inolako harremanik konkretutasunarekin. Adimen Absolutua, Jainkoa ordezkatzeko duena, gertakariaren nolanahiko xehetasun guztien auresupostu razionala dela baieztatzen du, eta ezaxolarik gorenenean gelditzen dela gure munduko gertakari partikularrak errealki direnarekiko. Direnak direla, Absolutuak sortuko ditu. Esoporen fabulako lehoi gaixoaren kasuan bezala, oinatz guztiak haren gordelekura doaz, baina *nulla vestigia retrorsum*. Partikularren mundura berriro jaisterik ez dago Absolutuaren laguntzaz, ez eta haren izaeraren ideiatik norbere bizitzarako inportantea datekeen xehetasun-ondoriorik deduzitzerik ere. Ematen digu, eman, Berarekin, eta bere pentsatzeko era eternalerako, guztia ongi doan segurtasuna; baina hortik aurrera geure burua mundu honetako geure baliabideez era finituan salba dezagun uzten du.

Bego nigandik urrun pentsamolde honi maiestatea edo espiritu mota txit errespetagarri bati ongizate erlijiosoa ekartzeko duen gaitasuna ukatzea. Baina giza ikuspegitik inork ere ezin du esan bi akats bederen ez dituenik: urruntasuna eta abstraktutasuna. Izaera razionalista deitzen ausartu naizenaren ekoizpena da ororen gainetik. Mespretxatu egiten ditu enpirismoaren premiak. Mundu errealaaren aberastasun guztia eskema margul batez ordeztzen du. Txukuna da, noblea da zentzu txarrean, noblea izatea zerbitzu apala eskaintzeko ezgai izatearen zentzuan. Izerdiz eta zikinez beteriko mundu honetan, iruditzen zait gauzen ikuspegi bat «noblea» izateak ikuspegi horren egiaren kontrako presuntzioa eta deskalifika-

zio filosofikoa inplikatu behar lituzkeela. Ilunpeetako printzea izan daiteke aitoren semea, esana zaigun moduan; baina dena delakoa dela zero-lurretako Jainkoa, aitoren semea bederen ziur ez dela. Haren otsein-zerbitzuak giza zidorretako hautsetan behar dira, zeruetan haren duintasuna behar den baino gehiago.

Orain, pragmatismoa gertakariei emana den arren, ez du enpirismo arruntak bere lanean izan ohi duen joera materialista bera. Areago, ez du inolako eragozpenik abstrakzioak egiteko, beti ere beraien laguntzaz gauza konkretuen artean behar bezala aritzea eta nora edo hara benetan joatea lortuz gero. Gure adimenak eta esperientziak elkarrekin lanean ateratako konklusioez bestez interesaturik ez dagoenez, pragmatismoak ez du *a priori*ko aurreiritzirik teologiaren kontra. *Ideia teologikoek bizitza konkreturako balio dutela frogatuz gero, pragmatismoarentzat egiazkoak izanen dira, hau da, onak izanen dira neurri horretan. Zer nolako beste neurritan izan daitezkeen egiazkoak, hori aintzat hartu beharreko beste egiekin duten loturaren mende dago erabat.*

Absolutuaz, idealismo transzendentalaz, esan berri dudana kasu argigarria da. Lehenik, maiestatea eratziki diot, eta espiritu mota batekoak direnei ongizate erlijiosoa ekartze-ko gaitasuna duela esan dut; eta gero urruntasunaz eta antzutasunaz akusatu dut. Baina ongizate hori dakarren heinean, ziur ez dena antzua; badu balio neurri hori, funtzio konkretu bat betetzen du. Pragmatista naizenez, nik neuk ere egiazkotzat ukan beharra dut Absolutua «neurri horretan», eta horrelaxe egiten dut ezbairik gabe.

Baina zer esan nahi du kasu honetan *egiazkoa neurri horretan* esamoldeak? Honi erantzuteko, metodo pragmatikoa aplikatu besterik ez daukagu. Zer esan nahi dute Absolutuarengan sinesten dutenek euren sinesteak ongizatea dakarkiela diotenean? Esan nahi dute Absolutuarengan gaizki finitua jada «baliogabeturik» dagoenez gero, iragankorra

potentzialki betierekoa balitz bezala har dezakegula nahi dugun guztian, ziur egonik konfiantza jarri ahal dugula haren emaitzetan, eta, bekaturik gabe, baita geure beldurra ahortzi eta geure erantzukizun finituaren ardura kendu ere. Hitz batean, esan nahi dute noizik noizera opor moralak hartzeko eta munduari bere erara ibiltzen uzteko eskubidea daukagula, beronen arazoak gureak baino esku hobeetan daudela eta gure kontua ez direla sumatuz.

Unibertsoa sistema bat da, non bera osatzen duten kide banakoek beren kezkek laxa dezaketen lantzean behin, non «ez hadi kezka» bezalako jarrera oso ongi datorkien gizakiei eta opor moralak egokiak diren. Hau, oker ez banago, Absolutua ezagutzeko erlazio gisa daukagun eremuaren zati bat behintzat bada; hau hura egiazkoa izateak geure esperientzia partikularretara dakarkigun alde itzela da, hau Absolutuak, pragmatikoki interpretatzen denean, duen balio efektiboa da. Hemendik aurrera, idealismo absolutuaren alde dagoen filosofi irakurle ezikasi arrunta ez da ausartzen bere pentsamoldeak zorrozten. Absolutuaz horraxeari balia daiteke eta hori balio handiko du. Min hartzen du, beraz, norbait Absolutuaz sinesgabeki mintzatzen entzutean; eta ez ditu haren kritikak aintzat hartzen, bere jarraibide ez den pentsamoldearen alderdiei dagozkionak direlako.

Absolutuak horixe, eta horixe bakarrik, esan nahi badu, nork uka dezake haren egia? Hori ukatzea gizakiek inoiz ez dutela atsedenik hartu behar eta oporrak hartzea inoiz ez dagoela ongi baieztatzen hisiatzea da.

Ongi konturatzen naiz zein harrigarri gertatuko zaizuen zuetariko batzuei niri entzutea ideia bat, gure bizitzetarako ideia horretan sinestea onuragarri den heinean dela «egiazkoa». *Ona* dela, ordea, dakarkigun onuragatik, gustura onartuko zenukete. Guk ideia baten laguntzaz egiten duguna ona bada, onartuko didazue ona dela *neurri horretan*, gu, ideia hori edukitzeagatik, hobeak garelako. Baina, erranen duzue, ideiak

arrazoi horregatik «egiazkoak» direla esatea ez ote da «egia» hitza gaizki erabiltzea?

Honi osoro erantzutea ezinezko da nire azalpenaren une honetan. Une honetan Schiller eta Dewey jaunerik eta nik neuk defendaturiko egiaren doktrinaren erdi-erdiko puntua ukitzen ari gara, seigarren hitzaldira heldu arte zehaztasunez jorratu ezin dudana. Utz iezadazue orain esaten egia *ontasunaren espezie bat* dela, eta ez, eskuarki suposatu ohi den bezala, ontasunetik ezberdina den eta harekin koordinaturik dagoen kategoria bat. *Egiazkoa, sineste kontuan ona dela eta, gainera, arrazoi zehatz seinalagarriengatik ona dela erakusten duen orori ezartzen zaion izena da.* Onartu behar duzue, onartu, egiazko ideietan bizitzarako *inolako* onurarik ez balego, edo ideia horiek ezagutzeak benetako desabantaila baino ez balekar, ideia faltsuak onuragarri bakarrak izanik, orduan egia jainkotiarra eta preziatua, baita bilatu beharrekoa ere, delako ideia komunak ez zukeen hartu duen indarra hartuko eta ez zatekeen dogma bihurtuko. Horrelako mundu batean gure eginbeharra gehiago ere egiatik *ihes egitea* litzateke. Baina mundu honetan janari batzuk, gustu onekoak ez eze, gure hortz-hagin, urdail eta ehunentzat onak diren bezala, halaxe zenbait ideia, pentsamenduan erabiltzeko edo gustuko ditugun beste ideia batzuk euskarritzeko onak ez eze, bizitzako gatazka praktikoetarako lagungarriak ere badira. Guretzat hobe litzatekeen bizitzaren bat bizitzeko modurik bagenu, eta ideien bat balego, guk sinetsiz gero, bizitza hori bizitzen lagunduko ligukeena, orduan *hobe genuke* ideia horretan sinestea, beti ere *berorretan sinesteak, jakina, bidenabar beste biztza-onura handiagoren batekin talka egin ezean.*

«Sinestea hobe litzaigukeena!». Honek egiaren definizio baten antz handia dauka. Beste hau esatetik hurbil-hurbil dago: «sinetsi behar duguna», eta definizio *horretan* ez dut uste zuetariko inork ezer arrarorik aurkituko duenik. Ez al dugu sinetsi behar sinestea *hobe litzaigukeena*? Eduki ote



dezakegu beti aparte eta bereiz guretzat hobe dena eta guretzat egiazkoa dena?

Pragmatismoak ezetz dio, eta ni erabat ados nator berarekin. Eta segur aski zeuek ere bat zatozte enuntziatu abstraktuarekin bederen, nahiz eta aldi berean susmatu ezen, baldin praktikoki gure bizitza pertsonalerako ona den guztian sinetsiko bagenu, mundu honetako gai-arazoez mota orotako fantasiei eta etorkizun den munduaz orotariko sineskeria sentimentalei amore emanda bukatuko genukeela. Zuen susmoa kasu honetan ongi oinarritua da, eta gauza nabaria da abstraktua denetik konkretura pasatzean zailtasunez betetzen zaigula egoera.

Arestian esan dut sinestea hobe duguna dela egia, beti ere *horretan sinesteak bidenabar beste bizitza-onura handiagoren batekin talka egin ezean*. Orain, bizitza errealean zein bizitza-onurarekin talka egiteko arriskua dute gure sineste partikularrek? Zein onurarekin egin dezake talka, *beste sineste* batzuek ekarritako bizitza-onurekin ez bada, hauek haiekin bateraezin ageri direnean? Bestela esanda, gure edozein egia-*ren* areriorik handiena gure beste egia*k* izan daitezke. Egiek, beti, autokontserbazioko instintu premiatsua eta beraiek ezeztatzen dituen zernahi akabatzeko irrika dituzte beren baitan. Egiten didan onean oinarriturik Absolutuarengan dudan sinesteak nire beste sineste guztien erronkari egin behar dio aurre. Demagun sineste hori egiazkoa dela, opor moralak ematen dizkidan heinean. Hala ere, nik hori bururatzen dudan bezala bururatuta —eta utz iezadazue orain, horrela esatearren, konfidentzialki eta niri neuri soilik dagokidanez mintzo nadin— talka egiten du horrek nire beste egia batzuekin, zeintzuen onurei inondik ere uko egin nahi ez diedan sineste hori dela eta. Gainera, gertatzen da sineste hori ni etsai nauen logika klase batekin dagoela lotuta, onartezinak diren hainbat paradoxa metafisikotan lazkatzen nauela, etab., etab. Eta bizitzan nahikoa zailtasun dudanez, horrelakofunts gabetasun intelektualik gehitu gabe ere, nik neuk uko egiten diot Absolutuari.

Opor moralak besterik gabe *hartz*en *ditut*, edo bestela, filosofo profesional gisa, oporrok beste printzipioren baten bidez justifikatzen saiatzen naiz.

Absolutuaz daukadan nozioa opor-emateko duen balio hutsera murriztu ahal baneza, ezinen luke beste ezein egia-ekin talka egin. Baina ez dugu gure hipotesiak horrela hain aise murrizteko ahalik. Beste alderdi supernumerario batzuk dauz-  
kate beren baitan eta horiexek dira talka egiten dutenak. Nik Absolutuarengan ez sinesteak beste alderdi supernumerario horietan ez sinestea esan nahi du, zeren nik oso-osoan sinesten baitut oporrak hartzearen bidez kotasunean.

Honen bidez hobeto ikusten duzue zer esan nahi nuen pragmatismoari bitartekari eta abenikogile deitu diodanean eta, Papiniri hitza mailegatuta, gure teoriak «zalutu» egiten dituela esan dudanean. Pragmatismoak, izan ere, ez du inolako aurreiritzirik, ez dogma bide-zarratzailerik, ez arau zurrunik frogatzat balio lezakeenari buruz. Pragmatismoa erabat adei-tsua da. Edozein hipotesi hartuko du ongi, edozein froga aint-zat hartuko. Horregatik, erlijioaren eremuan abantaila handia du, bai joera antiteologikoa duen enpirismo positibistaren aldean, eta bai pentsamenduaren eremuan urrunekoa, noblea, sinplea eta abstraktua denaz soilik interesatzen den razionalis-mo erlijiosoaren aldean.

Hitz batean, pragmatismoak zabaldu egiten du Jainkoa bilatzeko eremua. Razionalismoa logikoa eta zerutarra denari lotzen zaio; enpirismoa kanpoko sentsumenei lotzen zaie. Pragmatismoa prest dago edozer onartzeko, logikari nahiz sen-tsumenei jarraitzeko eta esperientziarik apalen eta pertsonale-nak aintzat hartzeko. Esperientzia mistikoak ere aintzat hartu-ko ditu, baldin ondorio praktikoak badituzte. Gertakari parti-kularrik zikinenean bizi den Jainkoa ere onartuko du, baldin gertakari horrek hura topatzeko leku egokia dela badirudi.

Pragmatismoak zerbait egia izan daitekeen probatzat onartzen duen bakarra zera da, alegia, zerbait horrek gu bide-

ratzeko ongien funtzionatzea, bizitzaren alderdi bakoitzera ongien egokitzea eta esperientziaren galdapen multzo osoarekin konbinatzea, ezer kanpo utzi gabe. Ideia teologikoek hori eginez gero, Jainkoaren nozioak, zehazki, hori egiten duela erakutsiz gero, nola uka lezake pragmatismoak Jainkoaren existentzia? Ez lioke inolako zentzurik aurkituko pragmatikoki hain abantailatsua litzatekeen nozio bat «ez-egiazkotzat» hartzeari. Zein beste egia motarik izan liteke pragmatistarentzat, errealitate konketuarekin bat etortze hori guztia ez bada?

Azken hitzaldian pragmatismoak erlijioarekin dituen harremanak ukituko ditut berriro. Baina dagoeneko ere ikusten duzue zein demokratikoa den. Pragmatismoaren erek hain anitz eta malguak, haren baliabideak hain aberats eta amaigabeak eta haren konklusioak hain adiskidetsuak dira, nola diren natura amarenak.



# HIRUGARREN HITZALDIA

## ZENBAIT ARAZO METAFISIKO

### PRAGMATIKOKIIKUSITA

Metodo pragmatikoa ulerterrazago gerta dakizuen, berau arazo partikularretara aplikatuta gertatzen diren adibide batzuk aurkeztuko dizkizuet. Lehorrenetik hasiko naiz, eta lehenbizi aztertuko dudana *Substantziaren* arazoa da. Mundu guztiak darabil substantzia eta atributuaren arteko bereizpen zaharra, izan ere, giza lengoaiaren egituraren muin-muinean subjektu eta predikatu gramatikaren arteko diferentzian baitago gordea, erlikia bat bailitzan. Hona hemen klarion zati bat. Beronen moduak, atributuak, propietateak, akzidenteak edo afekzioak —erabili nahi duzuen hitza— hauexek dira: zuritasuna, hauskortasuna, forma zilindrikoa, uretan disolbaezintasuna, etab, etab. Baina atributu horiek aldean daramatzana honexen besteko *klariona* da, eta, horregatik, atributuok datxezkion substantzia esaten zaio. Era berean, mahai honen atributuak «zur» substantziari datxezkio, nire berokiarenak «artile» substantziari, etab. Klarionak, zurak eta artileak, berriz, aldeak alde, propietate komunak dituzte, neurri horretan lehenagoko beste substantzia baten, *materiaren*, moduak direlako, zeinaren atributuak espazioa betetzea eta zeharkaezintasuna diren. Antzera batean gure pentsamendu eta sentimenduak substantziak ditugun gure *arimen* afekzio edo pro-

pietateak dira; baina hauek ere ez dira erabateko substantziak berenez, substantzia sakonago baten, «espirituaren», moduak baitira.

Orain, laster ikusten da guk klarionaz *ezagutzen dugun* guztia bere zurtasuna, hauskortasuna, etab. dela; zuraz *ezagutzen* dugun guztia bere erregarritasuna eta egitura zuntzua dela. Substantzia oro, beraz, atributu multzo batekiko erlazioz eza-gutzen dugu, eta atributu horiexek dira haien balio efektibo guztia gure esperientzia errealerako. Substantziak, kasu bakoitzean, *atributuen* bidez agertzen dira; eta hauekiko harremana moztuko balitzaigu, sekula ez genuke susmatu ere egingen substantziaren existentzia. Eta Jainkoak guri atributuak aldatu gabeko ordenan bidaltzen segituko balu eta une batean, mirakuloski, berauei eusten ari zaien substantzia deuseztatuko balu, ez genuke sekula ere hautemanen une hori, gure esperientziak ezertan ere ez lirakekeelako aldatuko. Horren arabera, nominalisten iritziz substantzia sasi-ideia da, izenak gauza bihurtzeko aspaldi-aspaldiko giza trikimailuak sortua. Fenomenoak talde-etan datoz: klarion-taldea, zur-taldea, etab.; eta talde bakoitzak bere izena du. Izen hau guk fenomeno taldearen euskarritzat hartzen dugu. Gaurkoa bezalako termometro baxua, adibidez, «klima» deritzon zerbaitetik datorrela ulertu ohi da. Izatez, klima egun talde bati ematen zaion izena da; baina egunaren *atzean* balego bezala hartzen da, eta eskuarki izenak izakiak bailiran jartzen ditugu, izendatzen dituzten gertakarien atzean. Baina gauzen propietate fenomenikoak —nominalistek diote— ez datxezkie, atxiki, izenei, eta izenei ez bada, ezeri ere ez datxezkio. Propietate horiek, areago, *elkarri itsasten* edo *ko-itsasten* zaizkie, eta guretzat helezina den substantziaren nozioa, gure ustez kohesio hori gauzatzen duena berorren euskarri izanik mosaiko bateko piezei eusten dien zementua balitz bezala, bertan behera utzi beharra dago. Kohesio hutsaren gertaera da, gehiagokorik gabe, substantziaren nozioak adierazten duena. Gertaera honen ostean ez dago ezer.

Eskolastikotasunak substantziaren nozioa zentzunetik hartu du eta oso tekniko eta artikulatu bihurtu. Ezer gutxik luke guretzat, hala ematen du bederen, ondorio pragmatiko gutxiagorik substantziek baino, berauekin inolako harremanik ez daukagunez gero. Hala eta guztiz ere, eskolastikotasunak kasu batean frogatuta utzi du substantziaren ideia garrantzia, ideia hori pragmatikoki erabiliz. Eukaristiako misterioari buruzko zenbait eztabaidari nagokie. Gai honetan badirudi substantziak balio pragmatiko garrantzitsua agertu duela. Jaunaren afarian hostiaren akzidenteak aldatu ez direnez eta, hala ere, Kristoren gorputz bihurtu denez gero, aldaketak substantzian soilik gertatu behar izan du ezinbestez. Ogi-substantzia handik kendu eta haren lekuan, mirakuluz, jainko-substantzia jarri behar izan da, zuzenean sentigarri diren propietateak ezertan aldatu gabe. Baina, hauek aldatu ez arren, diferentzia itzela gertatu da, zeren, zer gertatuko eta, sakramentua hartzen dugunok orain jainko-substantziaz beraz elikatzen garela. Substantzia-nozioa bizitzara sartzen da, beraz, eragin itzelarekin sartu ere, substantziak beren akzidenteetatik bereiz daitezkeela eta gero truka daitezkeela onartuz gero.

Hauxe da nik ezagutzen dudana substantzia-ideiaren lehen aplikazio pragmatikoa, eta argi dago beste arrazoi batzuetan oinarrituta «presentzia errealean» jada sinesten dutenak bakarrik hartuko dutela seriooki.

*Substantzia materiala* hain ondorio eraginkorrez kritikatzen zuen Berkeleyk, non haren izenak distira ukan baitu ondoko filosofia guztian zehar. Berkeleyk materiaren nozioari eman zion tratamendua oso ezaguna da eta ez du aipatzea baino asko gehiagorik behar. Guk ezagutzen dugun kanpoko mundua ukatzetik urrun, Berkeleyk berretsi egin zuen. Berkelyren ustez, guretzat hurbilezina den substantzia material baten nozio eskolastikoa, substantzia materiala kanpoko munduaren *atzean* dagoen zerbait, hura baino sakonago eta hari eusteko beharrezko definitzen zuena, zen kanpoko mundua beste ezerk

baino eragingarritasun handiagoz irrealitate bihurtzen zuena. Substantzia hori ezeztatu, zioen hark, eta mundu sentigarria Jainkoak, guk uler dezakegun eta hurbil gakizkiokeen Jainkoak, zuzenean bidaltzen digula sinetsiz gero, haren jainko-autoritateaz berretsi eta euskarritzen dugu mundu hori. Berkeleyk «materiari» egin zion kritika, beraz, erabat pragmatikoa izan zen. Materia guk kolore, irudi, gogortasun eta antzekoez ditugun sentipenen bidez ezagutzen dugu. Eurok dira hitzaren *balio efektiboa*. Materiak benetan existituz dakarri-  
gun diferentzia guk sentipen horiek geureganatzea da; eta ez existitzeaz, gu haiek gabe egotea. Sentipen horiexek dira, beraz, haren esan-nahi bakarra. Berkeleyk ez du ukatzen materia; materia zertan datzan diosku hark, besterik ez. Egiazko izena da, sentipenei dagokienez hain zuzen.

Lockek, eta geroago Humek, antzeko kritika pragmatikoa egin zioten *substantzia espiritualaren* nozioari. Lockek «identitate pertsonalari» buruz zeukan ikuspuntua besterik ez dut hemen aipatuko. Hark, dudarik gabe, nozio hau bere balio pragmatikora ekartzen du esperientzia terminoetan. Nozio horrek —dio hark— «kontzientzia» edukitzea esan nahi du, hau da, bizitzako une batean guk beste une batzuk gogoratzea eta denak historia pertsonal beraren zati gisa sentitzea. Razionalismoak, gure bizitzako jarraikitasun praktikoa esplikatzeko, gure arima-substantziaren batasuna erabili izan du. Baina Lockek dio: demagun Jainkoak kontzientzia kentzen digula; zer irabaziko genuke *guk*, hala ere arima-printzipioa edukita? Demagun Jainkoak kontzientzia bera arima ezberdinei lotzen diela, ezer galduko al genuke *guk* horregatik, *geure buruez* ohartun ginatekeen heinean? Lockeren garaian arima, beste ezer baino lehen, saria edo zigorra merezi zuen zerbait zen. Ikusi nola Lockek, gaia ikuspuntu horretatik aztertuz, eremu pragmatikoan mantentzen duen auzia:

«Demagun» —zioen hark— «norbaitek uste duela bera behiala Nestorren edo Thersitesen *arima* izan zena dela. Ba ote



luke uste izaterik haien ekintzak bereak dituela, inoiz existitu izan den beste edozein gizonen ekintzak baino gehiago? Baina, Nestorren ekintzaren batez *kontziente* izatera helduko balitz, orduan hura izan zen pertsona bera dela sentituko luke... Identitate pertsonal honexetan oinarritzen da sari-zigorren zuzenbide eta justizia guztia. Arrazoizko dirudi pentsatzea inori ezin zaiola ezarri, inola ere ezagutzen ez duen baina bere kontzientziaren akusazio edo desenkusaren arabera sententzia jasoko duen zerbaiten erantzukizuna. Demagun gizon batek beste bizitza batean egindakoagatik zigorra jasotzen duela oraingoan, nahiz eta haren ezelako kontzientziarik eduki ez: zer alde dago zigor honen eta dohakabe kreatua izatearen artean?».

Gure identitate pertsonala, beraz, Lockerentzat, pragmatikoki definigarri diren zenbait partikularretan soilik datza. Gertakari egiaztagarri horiez gain, identitate hori printzipio espiritual bati datzekion ala ez planteatzea espekulazio kuxkuxeroa besterik ez da. Lockek, besteekin konpontzekoa izanik, pasiboki jasan zuen gure kontzientziaren atzean arima substantzial bat zegoelako sinestea. Baina Humek, haren ondorengoak, eta geroagoko psikologo enpirista gehienek ukatu egiten dute arima, gure barne-bizitzan lotura egiaztagarrientzako izen gisa izan ezik. Arimarekin esperientziaren korrontera jaisten dira berriro, eta diru xehetan kanbiatzen dute, hau da, «ideiata» eta euron arteko lotura berezitan. Berkeleyk materiaz duen ikuspegiaz esan dudana bezala, arima ona edo «egiazkoa» ondorio *horiexetarako* da, baina ez gehiagorako.

Bidezko da substantzia materiala aipatzeak «materialismoaren» doktrina iradokitzea, baina materialismo filosofikoak ez du nahitaez inplikutzen «materia» printzipio metafisiko gisa sinestea. Batek uka dezake materia zentzu horretan, Berkeleyk bezain indartsu ukatu ere; bat fenomenalista izan daiteke, Huxley bezala, eta hala ere, materialista izan zentzu zabalagoan, hau da, goragoko fenomenoak beheagokoen bidez esplicitatuz eta munduaren zoria beronen elementu eta

indar itsuenen esku utziz. Hitzaren zentzu zabalago honetan dago materialismoa espiritualismoaren edo teismoaren kontra. Natura fisikoaren legeek darabiltzate gauzak, dio materialismoak. Gertakarien, berauen baldintza fisiologikoen, ezagutza zuzen eta osoa leukakeenak giza jeinuaren ekoizpen gorenak ere kalkula litzake, natura, idealistek argudiatzen duten bezala, geure adimenean soilik dagoen ala ez aparte utzita. Gure adimenek, edozein kasutan ere, zer nolako natura den aztertu beharko dute eta fisikaren lege itsuek eraginda diharduen zerbait bezala jaso. Horixe da naturalismoa deitzea hobeto letorkion gaur egungo materialismoaren traza. Beronen kontra «teismoa» dago, edo zentzu zabalean «espiritualismoa» esan dakiokena. Espiritualismoak dio adimenak gauzen testigantza eta erregistroa egin ez ezik, ibilian eta jardunean darabiltzala gauzak, hartara mundua bere elementu beherenek barik gorenek gidatzen dutelarik.

Maiz planteatzen den bezala, auzi hau ez da hobespen estetikoaren arteko gatazka bat baino asko gehiago. Materia landugabea, latza, zakarra, lokaztua da; espiritua purua, jaso noblea da; eta unibertsoaren duintasunari gehiago dagokionez gero goragoko ageri denari lehentasuna ematea, espiritua deklaratu behar da printzipio arautzaile. Razionalismoaren akats nagusia printzipio abstraktuak xedetzat hartzea da, gure endelguak aho-zabalik mirespenik handienaz kontenplatu beharrekotzat. Espiritualismoa, aurkeztu ohi den bezala, baliteke mota bateko abstrakzioarekiko mirespen egoera eta beste mota batekoarekiko herra egoera besterik ez izatea. Gogoan dut irakasle espiritualista baliozko bat: materialismoa aipatzen zuenean, «lokatz-filosofia» deitzen zion, eta horretara errefusatutzat ematen zuen.

Horrelako espiritualismo bati erantzun erraz bat eman dakioken, eta Spencer jaunak eman egiten dio. Bere *Psikologiaren* lehenengo liburukiaren amaierako zenbait orrialde dotore asko idatzitan agertzen digu hain zolitasun

amaigabea duen «materiak» —zientzia modernoak bere azalpenetan postulatzeko dituen bezalako higidura azkarrak, iruditu ahal izateko baino azkarrago eta finagoak, dituenak— ez duela inolako zakartasun itxurarik. Agertzen du, halaber, espiritua-  
ren ideia bera dela, orain arte hilkorrok taxutu dugun moduan bederen, zakarregia naturaren gertakarien fintasun dotorea hartu ahal izateko. Hitz biok, dio hark, sinboloak baino ez dira, bion arteko aurkakotasunak baretzen dituen errealitate ezagu-  
tezin bat seinalatzen dutenak.

Kontrako arrazoi abstraktu baten aurka aski da erantzun abstraktu bat; eta materialismoarekiko aurkakotasuna materia-  
ren «zakartasunak» eragindako gutxiespenetik erretzen denez, Spencer jaunak oinarri guztia kentzen die: materia amaigabeki fina da, sinetsi ere ezin izateraino. Hildako haur edo guraso bati aurpegira begiratu dion nornahirentzat, materia aldi bate-  
rako forma hura hartzeko *gai izate* hutsak sakratu bihurtzen du betiko aurpegi hura. Ez dakar inolako alderik biziaren *printzi-  
pioa* materiala edo inmateriala izateak; materiak, edozein kasutan, bere burua eta lankidetzaren osoa eskaintzen ditu biza-  
ren xede guztietarako. Haragitze maitatu hura materiaren ahal-  
bideen artean zegoen nonbait.

Baina orain, printzipioei eutsita egon beharrean, ez atze-  
ra ez aurrera dagoen moda intelektualista honi jarrai, aplikatu diezaio-  
gun metodo pragmatikoa auziari. Zer *esan nahi dugu* materia-  
z? Zer alde praktikoa ekar lezake *orain* mundua mate-  
riak ala espirituak erabilia izateak? Uste dut horrela planteatu-  
rik izaeraz aldatzen dela arazoa.

Eta lehenik, gertakari bitxi bati erreparatzea eskatu nahi  
dizuet. Ez dago alde izpirik ere munduaren *iraganari* dagokio-  
nez, guk mundua materiaren lana izan dela pentsatzetik jainko-  
espiritu batek egin zuela uste izatera.

Imajina ezazue munduaren eduki guztia behin betiko  
emana, atzerazintasunez; eta imajina une hartantxe amaitu  
dela eta ez duela etorkizunik. Orduan utz diezaiegun teista bati

eta materialista bati munduaren historiaz elkarren aurkako azalpenak ematen. Teista Jainkoak egin zuela frogatzen saiatuko da; materialista, aldiz, arrakasta beraz, suposa dezakegunez, indar fisiko itsuetatik atera zela azaltzen saiatuko da. Orduan eska diezaiogun pragmatistari teoria bi horietatik bat aukera dezan. Nola aplikatu ahal izanen du bere irizpidea mundua jada oso-osorik egina badago. Pragmatistarentzat kontzeptuak eurekin esperientziara itzultzeko gauzak dira, diferentziak bilatzen jartzen gaituzten gauzak. Baina, hipotesiaren arabera, ez da izanen esperientzia gehiagorik eta orain ez daiteke alde-rik bila. Teoria biek erakutsi dituzte beren ondorio guztiak eta, onartzen ari garen hipotesiaren arabera, berberak dira. Pragmatistak, beraz, esan behar du teoria biok, hots desberdineko izenak ukan arren, gauza bera esan nahi dutela, eta ezta-baida berbazkoa baino ez dela. [Suposatzen ari naiz, jakina, existitzen dena azaltzeko teoria biak maila berean izan *direla* arrakastatsuak]

Zeren, azter ezazue auzia zintzotasunez, eta esan zer *balio* izanen lukeen bere lana bukatuta bere mundua aurrean gelditu daukala hor *egonean* legokeen Jainko batek. Ez luke balioko mundu horrek balio zuena baino izpirik ere gehiago. Jainko horren botere kreatzailea emaitza maila horrexetaraino, bere meritu eta akatsak nahasita, hel liteke, baina ez hortik gora. Eta etorkizunik izanen ez denez, munduaren balio eta esan-nahi guztia lortua eta gauzatua izan denez iragapenean lagun izan zituen sentimenduetan eta orain amaieran lagun dituenetan, etorkizun den zerbait prestatzeko zereginetik esan-nahi osagarriarik (gure mundu errealak ateratzen duen modukorik) ateratzen ez duenez gero, orduan mundu horrexen bidez hartzen dugu guk Jainkoaren neurria. *Hori* behin betiko egin ahal izan zuen Izakia da hura; eta geure esker ona erakutsi behar genioke, baina horrexegatik bakarrik, ez beste ezer gehiagorengatik. Baina orain, kontrako hipotesia onartuta, hau da, materia zatiek, beren legee jarrai, egin ahal izan dutela zer

eta mundu hau guztia, ez al genieke esker on bera erakutsi behar? Zer galera izanen genuke, orduan, baldin Jainkoaren hipotesia bertan behera utzi eta erantzule bakartzat materia hartuko bagenu? Nondik letorke moteltasun edo zakartasun berezirik? Eta, behin esperientzia dena betiko delarik, Jainkoa bertan egoteak nola bihurtuko luke biziago edo aberatsago esperientzia hori?

Garbi hitz eginda, ez dago galdera honi erantzuterik. Egiatzki esperimentatzen dugun mundua berbera da bere xehe-tasun guztietan hipotesi bata nahiz bestea onartuta, «berbera gure gorespen edo lotsagarritako», Browningek dioen modura. Hortxe dago ezeztaezin: itzuli ezin daitekeen oparia. Beronen kausatzat materia hartzeak ez du atzera botatzen berau osatzen duten elementuetako bat bera ere, kausatzat Jainkoa hartzeak elementuok gehitzen ez dituen moduan. Mundu honexen, eta ez beste baten, Jainkoa kasu batean edo atomoak bestean dira. Jainkoa, horretan izatera, atomoek egin lezaketen berbera egi-ten ari izan da —atomoen izaera berarekin agertuz, hala esate-arren— eta atomoek merezitako esker on berbera, ez gehiago, irabaziz. Haren presentziak aldaketa edo emaitza ezberdinik ez badakarkio burutzapenari, duintasun handiagorik ere ziur ez dakarkiola. Eta duintasunik ezik ere ez letorke, baldin hura han ez balitz eta eszenatokiko aktore bakarrak atomoak balira. Behin antzezlan aamaituta, oihala behera datorrenean, obraren autoretza jeinu argienari eratxikiz, ez duzu hura hobetzen, autorea idazle mertzenario arruntzat jota okerragotzen ez duzun bezalaxe.

Hartara, gure hipotesietatik geroko esperientzia edo por-taeraren xehetasunik ateratzerik ez badago, materialismoaren eta teismoaren arteko debatea antzua eta esan-nahi gabekoa da. Kasu horretan, materiak eta Jainkoak esan-nahi berbera dute: mundu hau oso-osorik egin ahal izan duen boterea, ez gehiago ez gutxiago. Eta, kasu horretan, jokabide burutsua hain sobe-ran dagoen eztabaidari bizkar ematea da. Ondorioz, gehienek

instintuz, eta positibistek eta zientzialariek deliberoz, bizkar ematen diete, eman, geroko ondorio zehatzekin zerikusia duen ezer ez dakarten eztabaida filosofikoei. Hitz hutsezko izaera filosofiari gehiegitan egozten zaion akatsa da. Pragmatismoa egiazkoa bada, akats hori oinarriduna da, teoriak suaren probapean jarrita emaitza alternatibo praktikoak dituztela erakutsi ezean, emaitzok meheenak eta urrunduenak izan arren. Gizaki arruntak eta zientzialariak biek diote eurek ez dituztela emaitza horiek inondik aurkitzen, eta, metafisikariak ere bat ere bereizi ezin badu, haiek berenari eusteko eskubidea dute honen kontra. Beronen zientzia axalkeria farfailtsua da eta zentzuga-bekeria litzateke horrelako bati katedrarik esleitzea.

Benetako debate metafisiko bakoitzaren barruan, beraz, arazo praktikoren bat dago, aieruzkoena eta urrunduen bada ere. Hau egiaztatzeko, zatozte neurekin geure auzira eta jar zaitezte orain gu bizi garen munduan, etorkizuna *duen* mundu honetan, hau da, mintzo garen une honetan osatu gabe dagoenean. Mundu bukagabe honetan «materialismoa ala teismoa» alternatiba sakonki praktikoa da, eta merezi du guk minutu batzuk edo ordu osoa ematea hau egiaztatzen.

Guretzako zer neurritan da diferentea programa, modu batera ala bestera pentsatuz gero, hau da, orain arteko esperimentziako gertakariak lege eternalen arabera higituriko atomo itsuen xederik gabeko konfigurazioak direla, ala, bestela, Jainkoaren probidentziaren ondorio direla uste izanez gero? Iragandako gertakariei dagokienez, ez dago, egon, alderik. Gertakari horiek untziratuta, harrapatuta daude, atzemanik, eta eurretan dagoen ona erdietsita dago, atomoak izan nahiz Jainkoa izan euren kausa. Horregatik, gaur egun materialista asko ditugu inguruan, auziaren geroaren eta alderdi praktikoen berririk ez jakitearren, materialismo hitzari datxekion gorrotoa kendu nahirik eta are hitza bera kendu nahirik ari direnak, horretarako agerian jarriz ezen, materiak onura horien guztien sorrera eragin ahal badu, orduan, materia, funtzionalki hartuta,

Jainkoa bezain jainkozko izakia dela, Jainkoarengandik bereiztezina izatez, hau da, Jainkoa diogunean esan nahi duguna. Horregatik, dioskute berauek, ez erabili hitz bata ez bestea gehiegizko aurkakotasunarekin. Erabili, alde batetik, konnotazio klerikaletatik libre dagoen termino bat, eta, bestetik, landugabetasun, zakartasun eta doilortasun iradokizunik gabeko hitz bat. Jainkoa edo materia aipatu beharrean, mintzo gaitezen jatorrizko misterioaz, energia ezagutezinaz, indar bakarraz. Horixe da Spencer jaunak gartsu aholkatzen digun bidea; eta filosofia lehenera begira dagoena balitz, pragmatista bikain agertuko luke Spencerrek bere burua.

Baina filosofia gerora begirakoa ere bada, eta, mundua zer izan den eta zer egin eta ekoiztu duen aurkitu ondoren, beste galdera bat ere egiten du: «zer *etorkizun* du munduak»? Eman diezagutela *arrakasta* agintzen duen materia, bere legeen eraginez gure mundua hobe zintasunetik ahalik hurbilen eramatera beharturik dagoena, eta arrazoidun orok materia hori gurtu egingen du, Spencer jaunak berak indar ezagutezin esaten diona gurtzen duen adinako gogo onez. Materiak zuzentasunaren alde egin du gaur arte, baina zuzentasunaren alde egingen du beti ere, eta horixe da behar dugun guztia. Praktikoki Jainkoak egiten duen guztia dagielarik, Jainkoaren baliokidea da, beraren funtzioa Jainkoarena da, eta Jainkoa soberan legokeen mundu batean burutua; mundu horretan ez litzateke inoiz nabarituko zilegitasunez Jainkoaren falta. «Hunkipen kosmiko» litzateke hor erlijioaren izen egokia.

Baina, eboluzio kosmikoaren prozesua burutzeko aipatzen duen materia ba al *da*, *izan*, aipaturikoa bezalako amaigabeko hobe zintasun printzipioa? Ziur ez dela, zeren garapen kosmikoaren mende dagoen gauza batek edo gauza-sistema batek gerora duen amaiera, zientziak esana duenez, heriotzaren tragedia baita; eta Spencer jaunak, eztabaidaren alderdi estetikora mugatuenez gero eta alderdi praktikoa bazter utzi, ez du ekarpen modurik egin auziaren konponbiderako. Baina

aplika dezagun orain emaitza praktikoen printzipioa, eta ikusiko dugu zein esangura garrantzitsua hartzen duen berehala materialismoaren eta teismoaren arteko dilemak.

Teismoa eta materialismoa hain berdinak direlarik bata zein beste lehenera begira ikusita, gerora begira ikusiz gero, ordea, esperientziaren ikuspegi zeharo ezberdinak seinalatzen dituzte. Izan ere, eboluzio mekanikoaren teoriaren arabera, materiaren eta higiduraren birbanaketaren legeak, berauekin esker oneko izan behar badugu ere dudarik gabe gure organismoek eman dizkiguten ordu eder guztiengatik eta gure adimenek orain taxutzen dituzten ideal guztiengatik, erremediorik gabe kondenatuak daude eurek egindako guztia ostera ere desegitera eta behiala garaturiko guztia atzera berriro deuseztatzen. Guztiok ezagutzen duzue zientzia eboluzionistak aurreikusten duen unibertsoaren azken egoeraren koadroa. Balfour jaunaren hitzez deskribatuko dut ongien: «Gure sistemen energiak gainbehera etorriko dira, eguzkiaren argia ilundu egingen da, eta Lurra, marearik gabe eta inerte, ezin dio eutsi une batez bere bakardadea asaldatu zuen espezieari. Gizakia trokan behera amilduko da, eta bere pentsamendu guztiak deuseztatu egingen dira. Bazter ilun honetan, aldi labur batez unibertsoaren isiltasun pozgarria apurtu duen kontzientziak atseden hartuko du. Materiak ez du sekula gehiago bere burua ezagutuko. ‘Betirako monumentuak’ eta ‘gertakari hilezkorak’, heriotza bera, eta heriotza baino indartsuagoa den maitasuna ere izan ez balira legez geldituko dira. Eta den ezer ere ez da hobeia ez txarragoa izanen, gizakiak belaunaldiz belaunaldi kontatu ezin ahala belaunalditan gauzak aurrera ateratzeko jarritako ahalegina, jeinua, dedikazioa eta sufrimendu guztia gorabehera».<sup>1</sup>

Hementxe datza auziaren koska, hots, denbora kosmikoaren jito zabaletan kostalde zoragarri asko agertu diren arren eta hodei-multzo xarmangarri asko airean flotari iraun eta iraun ibili diren arren ezabatu arte, oraintxe bertan gure poze-



rako gure munduak dirauen bezalaxe, hala ere, ekoizkin iragankorrok joanak direnean, ezerk, *ezertxok* ere, ez du iraunen, ekoizkin horiek erlikiak bailiran gorde zezaketen nolakotasun berezi horien, edertasun elementu horien testigantza emateko. Hil eta desagertu egingen dira, existentziaren esfera eta eremutik zeharo ezabatuta. Oihartzun batik ere gabe, oroitzapen batik ere gabe, antzeko idealen ardura bere gain hartzera geroago etor litekeen ezerengan eraginik izan gabe. Erabateko azken hondamendi eta tragedia hau materialismo zientifikoaren muina da, gaur egun berau ulertzen den moduan. Beherengo indarrak, eta ez gorengoak, dira betiereko indarrak, edo zehaztasunez ikusi ahal dugun eboluzio ziklo bakarrean bizirauten duten azken indarrak. Spencer jaunak beste edozeinek bezainbatean sinesten du honetan; eta, orduan, zergatik hasten da gurekin eztabaidaka bere filosofiaren printzipio diren «materia eta higiduraren» «landugabetasunari» eragozpen estetiko zozoak jarriko bagenizkie bezala, gu benetan adoregabetzen gaituena, ordea, haren filosofiaren ondoko emaitza praktikoen deskontsolamendua denean?

Ez, materialismoak duen egiazko eragozpena ez da positiboa, negatiboa baizik. Honaino helduta, izan ere barregarri litzateke materialismoaz berau *denagatik* kexu izatea, hau da, «landugabetasunagatik». Landugabetasuna landugabetasuna besterik *ez da*, orain *hori* badakigu. Hartaz, aitzitik, denagatik barik *ez* denagatik gara kexu: ez da gure interesik idealenak erdiesteko berme iraunkor, ez eta gure esperantzarik urrunenak betetzeko bide ere.

Jainkoaren nozioa, aldiz, filosofia mekanikoan hain ohi-koak diren nozio matematiko horiek bezain argia agian ez den arren, haiek baino praktikagoa da, iraunkorki zaindu behar den ordena ideal bat bermatzen duelako. Azken hitza esateko Jainkoa daukan mundu bat erre edo horma daiteke bai, baina hura hantxe ikus genezake beti ideal zaharren arduraz eta idealok beste edonora eraman eta han gauzatzeko zalantzarik

gabe; halatan, non hura dagoen tokian, tragedia beti ere behin-behinekoa eta partziala baino ez baita, eta hondamendia eta deuseztapena sekula ere ez erabat betirakoak. Betiereko ordena moral baten premia gure bihotzaren premiarik sakonenetakoa da. Eta Dante eta Wordsworth bezalako poetek, ordena horretaz konbentziturik bizi zirenek, horrixe zor diote euren bertsoaren indar bizkorgarri eta kontsolagarria. Orain bada, materialismoaren eta espiritualismoaren esan-nahi erreala apellazio emozional eta praktikoa ezberdin hauexetan, gure esperantza eta itzarobidezko jararren doiketa hauexetan eta euren arteko aldeek inplikatzeko dituzten ondorio mehe horiexetan datza, eta ez materiaren barne esentziari buruzko, edo Jainkoaren atributu metafisikoei buruzko abstrakzio kanpik horietan. Materialismoak ordena morala betierekoa dela ukatzea eta azken esperantza oro errotik moztea esan nahi du soilik. Espiritualismoak ordena moral betierekoa baieztatzea eta esperantza lokabe uztea esan nahi du. Bide honetan, dudarik ez, aterabide jator bat dute hala sentitzen dutenek, eta, gizakiak gizaki diren artean, eztabaida filosofiko sakon baterako gaia emanen du auzi honek.

Baina baliteke zuetako batzuek oraindik amorerik ez ematea eta defentsan segitzea. Espiritualismoak eta materialismoak munduaren etorkizunaz iragarpen ezberdinak egiten dituztela onartuta ere, uste izan dezakezue diferentziak hain direla egiantz modurik gabekoak, non pertsona zentzudun batentzat ez duten esangurarik. Pertsona zentzudun baten funtsa, erranen duzue, hurbilagora begiratzea da, eta munduaren azkena bezalako kimeren kezkarik ez edukitzea. Ongi, baina nik esan behar dizuet ezen, hori badiozue, giza izaerari injustizia egiten diozuela. Malenkonian erlijiosoa ez da kentzen buru-gaixotasuna dela esanda besterik gabe. Gauza absolutuak, azken gauzak, edozeren azpian ageri diren gauzak dira egiazko kezka filosofikoak; adimen jaso orok seriozki hartzen ditu eta ikuspegi laburreko adimenak gizaki axalekoak besterik ez dira.

Une honetan, egia da, nahikoa era lanbrotsuan bururatzten ditugu eztabaidan jokoan dauden arazoak. Baina fede espiritualista, bere era guztietan, *agintzarizko* mundu bati dagokio, materialismoaren eguzkia etsipenezko itsaspara sartzen den artean. Gogoan izan Absolutuaz nioena: opor moralak bermatzen dizkigu. Ikuspegi erlijioso orok egiten du hori. Unerik zailenak eragin ez ezik, pozgarrienak, kezka gabeenak eta konfiantzaz beteak ere berak ekartzen ditu, eta justifikatu egiten ditu. Justifikazioaren oinarriak zirriborratzen ditu aski lanbrotsuki, dudarik ez. Jainkoarengan dugun sinesmenak segurtatzen dizkigun geroko gertakari salbatzaileen ezaugarri zehatzak zientziaren amaigabeko metodoek dezifratu beharko dituzte: Jainkoa *ikertzeko* dugun bide bakarra bere kreazioa ikertzea da. Baina ikerlan hori guztia egin aurretik ere *goza* ahal izanen dugu geure Jainkoaz, Jainkorik badaukagu. Nik neuk uste dut Jainkoaren aldeko frogak lehenengo eta behin barne esperientzia pertsonaletan datzala. Behin hauek zeure Jainkoa eman dizutenean, haren izenak gutxienez ere jaiegunaren onura suposatzen du. Egiek elkar jo eta bata bestea «eraisten» saiatzen direla niotsuen atzo. «Jainkoaren» egiak gure beste egia guztien erronkari eutsi behar die. Hauek auzitan jarria dago hura eta hark auzitan jarriak daude hauek. Jainkoari buruzko gure *azken* iritzia egia guztiek elkarrekin mihiztatzea lortu ondoren soilik ezarriko da. Espero dezagun aurkituko dutela *modus vivendiren* bat!

Utz iezadazue orain aurrekoaren antz-antzekoa den arazo filosofiko batera pasatzen, *naturan ageri den planaren auzira*. Sekuladanik defendatu izan da zenbait gertakari naturalek frogatua dutela Jainkoaren existentzia. Gertakari asko beren beregi bata besteari begira planteaturik baleude bezala ageri dira. Horrela okila bere moko, mihi, oin, buztan, eta beste soinatalek ezin egokiago bihurtzen dute zuhaitzen munduan bizitzeko, azalpean ezkutaturik dituzten harrez elikatuta. Gure begiaren atalak ezin hobeto egokitzen dira argiaren lege-

etara, beronen izpiak gure erretinan irudi garbi-garbia eratzerat bideratuz. Jatorri ezberdineko gauzen elkarri egokitze horrek plana frogatzen du, aldezten zen; eta plangilea gizakiak maite dituen jainkotzat hartzen zen.

Argudio hauetan lehenengo urratsa plana *bazela* frogatzea zen. Natura arakatzen zuten, gauza diferenteetatik ateratako emaitzak elkarri egokitzen saiatuz. Gure begiak, adibidez, urtero barruko iluntasunean sortzen dira, eta argia, ordea, eguzkiaren baitan sortzen da; eta hala ere ikustekoa da nola dagozkion elkarri. Bata bestearentzat eginak dira, bistan dago. Ikustea da proiektaturiko xedea, eta begiak eta argia berau lortzeko diseinaturiko bitarteko ezberdinak.

Ikusirik gure aurrekoek, denek ia, sentitu zutela argudio honen indarra, harrigarri gertatzen da ikustea zein gutxi balio duen teoria darwindarra garaile atera zenez geroztik. Darwinek ikusarazi zigun kasualitatezko gertaerek «egokitzapen»-emaitzak lortzeko ahalmena dutela, beti ere bata besteari eransteko denbora izanez gero. Agerian jarri zuen zenbat eta zenbat lan alferrik galtzen duen naturak egokitzapenik ezagatik suntsiturik geratzen diren emaitzak sortzen. Seinalatu zituen, halaber, hainbat egokitzapen, proiektatuak izatera, plangile ona barik txarra suposatuko luketenak. *Honetan*, dena dago ikuspuntuaren mende. Zuhaitz-azalaren peko harrarentzat, okilaren organismoaren egokitasun bikainak, bera azalpetik ateratzeko egokitua hain zuzen, deabruzko plangilea suposatuko luke, dudarik gabe.

Gure garaiko teologoek zabaldu dituzte, zabaldu, euren adimenak gertakari darwindarrak hartzeko lain, baina jainko-xedea erakutsiko balute bezala interpretatuz hala ere. Aurkakotasun moduan planteatu ohi zen: xedea mekanismoaren kontra, bata *ala* bestea. Zera erranen balitz moduan zen: «zapata hauek, bistan dago, nire oinetara egokitzeko diseinaturik daude, eta, beraz, ezinezkoa da makina batek eginak izatea». Guk badakigu gauza biak gertatzen direla: zapatak oine-

tara egokitzeke diseinatua izan den makina batek eginak dira. Teologiak Jainkoaren xedeen interpretazioa antzera batean zabaltzea besterik ez du behar. Futbol talde baten helburua ez den bezala baloia helmuga batera eroate hutsa (horrela balitz gau ilunean ohetik jaiki eta baloia helmuga horretan ipintzea besterik ez lukete behar), baizik *baldintza-mekanismo* aldaezin batzuk beteta —joko legeak eta jokalaria kontrarioak hantxe izanda— hori egitea, halaxe Jainkoaren xedea ere ez da soil-soilik, esan dezagun, gizakiak egin eta salbatzea, baizik hau naturaren mekanismo eskergaren ekintza hutsez egitea. Naturaren lege harrigarriarik eta kontraindarrik gabe, suposa dezakegu gizakiaren kreazioa eta hobekuntza lorpen gazbako-egiak izanen zirela, Jainkoak proposatzeko.

Honek planaren argudioaren forma salbatzen du, bera-  
ren eduki gizatar errazaren lepotik. Plangilea ez da jada agure  
antzeko jainkoa. Haren planak gizakiok ulertzeko baino zaba-  
lagoak izatera heldu dira. Beraien *edukiak* halatan egiten digu  
gainez, non, honen aldean, beraien plangileak jarritako *zerta-  
rakoa* zehazteak ez duen garrantzi modurik. Zailtasunez ulertu  
ahal dugu mundu honetako xehetasunetan aurkitzen dugun on-  
gaitzen nahaste arraroak bere xedeak zeharo agerian jartzen  
dizkion adimen kosmikoaren *izaera*. Edo, hobeto agian, ez  
daukagu hura ulertzeko inolako ahalbiderik. «Plana» hitza  
bera ondorio gabekoa da berez, eta ez du ezer esplikatzen.  
Printzipiorik antzuen da. *Ea* planik dagoen galdera zaharra  
alferrekkoa da. Galdera erreala mundua *zer* den da, plangilea  
ukan nahiz ez ukan, eta hau naturaren partikularrak ikertuta  
bakarrik jar daiteke agerian.

Gogoan izan ezen, *dena delakoa* delarik ere naturak  
ekoitz zezakeena edo ekoizten ari izan daitekeena, bitartekoek  
ekoizpen horretarako egokiak izan behar izan dute, *horretara-  
ko egokituak* izan behar izan dute ezinbestez. Planera egoki-  
tzearen argudioa, beraz, beti aplikatuko litzateke, edozein iza-  
nik ere ekoizpenaren izaera. Mont-Peléén oraintsu izan den

erupzioak, esate baterako, aurretik historia oso bat behar izan du suntsituriko etxe, abere eta gizaki hilen gorpu, hondoraturiko untzi, errauts bolkaniko eta abarren konbinazio zehatza eragiteko, juxtu inguru guztiak hartu duen itxura izugarri hori agertzera. Frantziak nazio izan eta Martinika kolonizatu behar izan du. Gure herrialdeak existitu behar izan du eta itsasontziak bidali hara. Jainkoak juxtu emaitza hori lortzeko asmoa ukan *baldin* bazuen, mendeek euren eragina ezbehar horretara bideratzeko erabili zituzten bitartekoek adimen bikaina erakutsi zuten. Eta gauza bera esan daiteke naturan edo historian gauzatuta aurkitzen ditugun gauzen egoera oroz. Zeren gauzen atalek beti eragin behar dute emaitza zehatzen *bat*, dela kaotikoa dela harmoniatsua. Benetan gertatu dena kontuan hartzen dugunean, baldintzek gertatua segurtatzeko ezin hobeto diseinaturik agertu behar dute. Horregatik, beti esan ahal dugu, burura daitekeen zeinahi mundutan, burura daitekeen zeinahi izaerakoan, makineria kosmiko guztia berau sortzeko proiektatua izan *zitekeela*.

Pragmatikoki, orduan, «plan» hitz abstraktua balarik gabeko kartutxoa da. Ez dakar ondoriorik, ez du ezer gauzatzen. *Zein* plan eta *zein* plangile?: horiexek dira galdera serio bakanak; eta gertakarien ikerketa da erantzunak, hurbilduak bederen, jasotzeko bide bakarra. Bitartean, gertakariak astiro emandako erantzunaren mende daudenez, plangile bat *dagoela* eta plangile hori Jainkoa dela ziur dagoenak onura pragmatiko bat aterako du termino horretatik, hain zuzen ere Jainkoa, Espiritua eta Absolutua hitzek, arestian ikusi dugun modura, ematen diguten bera. «Plana», nahiz eta baliorik ez izan gure mirespenerako gauzen gainetik edo atzetik jarritako printzipio razionalista gisa, baldin gure fedea teistikoa den zerbaitetan zehazten badu, *agintzarizko* termino bihurtzen da. Esperientziara berarekin itzultzean, etorkizunera begiratzeko konfiantza handiagoko ikuspegia lortzen dugu. Baldin gauzak indaritsu batek barik ikusten duen indar batek badarabiltza, emaitza hobeak espero

genitzake arrazoiz. Etorkizunari begirako konfiantza hauxe da plan eta plangile hitzetan atzeman daitekeen esangura pragmatiko bakarra. Baina konfiantza kosmikoa oker barik zuzen dagoen kontua bada, txarragoa barik hobe, horrek esangura garrantzitsua du. Termino horiek daitekeen «egiatik» horrexenbeste bederen izanen dute beren baitan.

Utz iezadazue orain beste eztabaida mila bider erabili bati hel diezaiodan, nahimen librearen edo *hautamenaren arazoari* alegia. Hautamena deritzon sinesten duten ia pertsona guztiek modu razionalistara sinesten dute. Gizakiari eransetzen zaion printzipio bat, ahalmen edo bertute positibo bat da, misterioski duintasuna areagotzen diona. Arrazoi horrexegatik sinetsi behar du beronetan. Deterministek, ahalmen hau ukatzen dutenek, gizabanakoek ezer ez dutela sortzen eta iragandako kosmosaren —zeinaren adierazpen txiki bat baino ez diren eurak— bultzada etorkizunari transmititu besterik ez dutela egiten diotenek, deterministek, diot, beheratu egiten dute gizakia. Gizakia ez da hain miresgarria, printzipio sortzaile hau kenduz gero. Iruditzen zait zuetariko erdiek baino gehiagok hautamenean dugun instintuzko sineste hori duzuela, eta duintasun printzipio denez sortzen duen mirespenak zerikusi handia duela berari diozuen leialtasunarekin.

Baina hautamena pragmatikoki ere eztabaidatu izan da; eta harrigarria dirudien arren, interpretazio pragmatikoaz baliatu izan dira eztabaidako alde biak. Badakizue nolako garrantzia izan duen *erantzukizunaren* auziak eztabaida etikoan. Norbaitzuei entzunez, batek atera lezake etikak merezimendu eta desmerezimenduen kode bat izatea beste helbururik ez duela. Horretara antzinako legamia legal eta teologikoak, krimenarekiko, bekatuarekiko eta zigorrarekiko interesak, bizirik dirau gure baitan. «Nori egotzi behar zaio errua? nor zigor dezakegu? nor zigortuko du Jainkoak?» Arrangura hauek amesgaizto bat bezala daude gizakiaren historia erlijiosotik zintzilik.

Hartara, hautamena eta determinismoa biak izan dira laidoztatuak eta absurdutzat joak, batak zein besteak, beren etsaien begietarako, ukatzen dietelako, itxura denez, egintza onen edo txarren «egozgarritasuna» euron egileei. Antinomia arraroagorik! Hautamenak gauza berria esan nahi du, iraganean lehen bertan ez zegoen zerbait txertatzea. Gure egintzak predeterminatuak balira, iragan guztiaren bultzada transmititu besterik eginen ez bagenu, hautamenaren aldekoek diote, nola izan gaitezke zerbaitengatik goraipatuak edo gaitzetsiak? «Agente delegatuak» besterik ez ginateke, eta ez «zuzendaria», eta non leudeke orduan gure egozgarritasun eta erantzukizun preziatuak?

Baina non leudeke, hautamena *bageneuka*?, ihardesten dute deterministek. Egintza «askea» niregandik, alde aurretiko niregandik barik, *ex nihilo* datorren egiazko gauza berria bada, niri erantsi baino egiten ez zaidana, nola *demonstre* izan naiteke ni, alde aurretiko ni, egintza horren erantzulea? Nola eduki dezaket nik goraipamena edo gaitzespena jasotzeko behar bezain luzaro irauteko gauza den *izaera* iraunkorrik? Doktrina indeterminista zentzugabeak barne beharrezkotasunaren haria kendu bezain laster, nire egunen idunekoa garau solteen andana barreiatuan deseginen litzateke. Fullerton eta McTaggart jaunek liskarrean jardun dute jo eta su gai honen inguruan oraintsu.

Argudio hau *ad hominem* ona izan liteke, baina, beste alde batetik, penagarria da. Zeren, beste arrazoi batzuk alde batera utzita, galdetzen dut ea edozein gizon, emakume edo haurrek ez lukeen lotsatu behar duintasunaren edo egozgarritasunaren printzipioetara jotzeaz. Instintuari eta baliagarritasunari, besteak beste, eman dakieke segurtasunez zigorra eta goraipamena bideratzeko eginkizun soziala. Norbaitek egintza onak egiten baditu goraipatu eginen dugu, egintza gaiztoak burutzen baditu zigortu eginen dugu, edozein kasutan ere, teoriak teoria, egintzak norbait horrengan alde aurretik zegoene-



tik sortuak edo gauza berriak diren zeharo aparte utzita. Gure giza etika «merezimenduaren» jira-biran jartzea irrealitate deitoragarria da: Jainkoak bakarrik jakin dezake zer merezimen du daukagun, baldin badaukagu. Hautamena onartzeko oinarri erreala pragmatikoa da, izan; baina ez du inolako zerikusirik gai honi buruzko eztabaidetan iraganean hainbeste zalaparta atera duen zigortzeko eskubide mespretxagarriarekin.

Hautamenak, pragmatikoki, *munduan gauza berriak* sortzen direla suposatzen du, hau da, hala bere elementu sakonetan nola azaleko fenomenoetan etorkizunak ezinen duela iragana berdin-berdin errepikatu eta imitatu espero izateko eskubidea daukagula suposatzen du. Naturan imitazioa *en masse* baldin bada, nork uka dezake? «Naturaren uniformetasun» orokorra legerik txikienean ere auresuposaturik dago. Baina natura hurbilpenez soilik izan daiteke uniforme, eta munduaren iraganaren ezagutzak ezkortasuna eragin dien pertsonen (edo zalantzak munduaren izaera onaz, ziurtasun bihurtzen diren zalantzak, baldin izaera hori aldaezin eta betiko finkotzat jotzen bada) ongi etorria emanen diote hautamenari «*doktrina meliorista*» gisa. Doktrina honek aurreramendua posible behintzat badela onartzen du; determinismoak, oster, gure posibilitate nozio guztia giza ezjakintasunetik datorkigula baieztatzen du, eta beharrezkotasunak eta ezintasunak gobernatzen dituztela bien artean munduaren nondik norakoak.

Hautamena, hartara, agintzariaren teoria kosmologiko orokor bat da, Absolutua, Jainkoa, Espiritua edo Plana bezalaxe. Abstraktuan hartuta, termino horietako batek ere ez du barne edukirik, batek ere ez damaigu inolako deskripziorik, batek ere ez luke balio pragmatiko txikienik atxikiko, hasieratik begi-bistako izaera hobezina leukakeen mundu batean. Mundua jada zorionez beteriko paradisua baino ez balitz, iruditzen zait existitze hutsaren pozkariak, hunkipen eta plazer kosmiko garbiek, horrelako espekulazioarekiko interes guztia itoko luketela. Metafisika erlijiosoarekiko daukagun interesa geure etorkizun

enpirikoa seguru ez ikustean goragoko bermea behar dugulako sortzen da. Iragana eta oraina erabat onak balira, nork nahiko luke etorkizuna haien antzekoa ez izatea? Nork gurako luke hautamena eduki? Nork ez luke erranen Huxleyrekin batera: «eman diezadatela giltza egunero erloju bati bezala, halabeharrez zuzen ibil nadin, eta ez dut askatasun hoberik eskatuko». «Askatasunak» hobeazina litzatekeen mundu batean, «*txarrago izateko*» askatasuna baino ezin adieraz dezake, eta nor izan daiteke hori nahi izaterainoko eroa? Norbera dena ezinbestez izateak, bestelakoa inondik ere ezin izateak, azken hobeazintasun ukitua emanen lioke optimismoaren unibertsoari. Zalantzarik gabe, batek razionalki eska dezakeen *posibilitate* bakarra, gauzak *hobeak* izateko posibilitatea da. Posibilitate hau nahi izateko badugu motiborik —esan beharrik ere ez dut ia— gehiegi ere egungo mundua doan moduan.

Hautamenak, hartara, ez dauka zentzurik, *kontsolamenduzko* doktrina gisa izan ezean. Honela, bere lekua du beste doktrina erlijiosoen artean. Denen artean, galera zaharrak kitatu eta lehenagoko triskantzak konpontzen dituzte. Gure espiritua, esperientzia sentigarriaren esparruan preso, ekinean ari zaio beti dorrean dagoen endelguari: «Begirale, esaguzu gauak agintzari seinalerik agertzen duen», eta endelguak agintzari termino horiexetan erantzuten dio.

Esan-nahi praktiko horrez aparte, besterik ez dute Jainkoa, hautamena, plana eta horrelako hitzek. Berenez edo intelektualki hartuta ilunak badira ere, bizitzako abarrartera eramaten ditugunean, *hor* bai argitara datorriguna hitz horien iluntasuna. Hitz horien inguruan jardutean euren definizioan gelditzen bagara, xede intelektuala eduki behar dutela pentsatuz, zertan ari gara? Tentelen modura engainu arranditsu bati so! «*Deus est ens, a se, extra et supra omne genus, necessarium, unum, infinite perfectum, simplex, inmutabile, immensum, aeternum, intelligens*», etab., zertan ote da definizio hau benetan irakasgarria? Deusez baino gutxiago esan nahi du,

adjektibo farfailtsuz jantzita agertu arren. Pragmatismoak bakarrik irakur dezake horren baitan esan-nahi positiborik, eta horrexegatik ematen dio bizkar erabat ikuspuntu intelektualistari. «Jainkoa bere zeruan; eta dena doa ongi munduan!». *Horixe da* teologiaren muin guztia, eta horretarako ez da behar definizio razionalistarik.

Zergatik ez dugu guk denok, bai razionalistek eta bai pragmatistok, aitortzen hori? Pragmatismoak, leporatzen diotenetik urrun, hau da, bere begiak eremu praktikoko hurbilenean josita edukitzetik urrun, munduaren perspektiba urrunduene-tan ere aurrekoan adina interes jarrita dauka.

Ikus, bada, nola azken galdera hauek euren orpoen gainean, hala esatearren, jirabiratzten diren; eta nola, atzera begiratu beharrean, goitiar eta gertakarietatik goragokotzat harturiko printzipioetan, *erkenntnisstheoretische Ich* batean, Jainko batean, *Kausalitätsprinzip* batean, Plan batean, Hautamenenean oinarrituta, ikus —berriz diot— nola pragmatismoa enfasia aldatu eta aurrera begira, gertakariei eurei so, jartzen den. Benetan garrantzitsua den auzia guretzat haxe da: zer gertatuko zaio mundu honi, zer biziari luzera? Filosofiaren grabitate-zentroa, hargatik, lekuz aldatu behar da. Gauzen lurak, goietako loriek ilunpera jaurtikita luzaro egon denak, bere eskubideak berreskuratu behar ditu. Horrelako enfasi aldaketak esan nahi du gai filosofikoak oraingoak bezain abstraktuak izanen ez diren espirituek aztertuko dituztela, espiritu zientifikoagoak eta indibidualistagoak izanen direlarik jitez, erlijio-gabeak ez baina. Aldaketa izanen da «agintaritzaren aulkian», erreforma protestantean gertatu zena gogora dakarguna neurri handian. Eta buru papista dutenek protestantismoari anarkiaz eta anabasaz osaturiko nahaste bat iritzi dioten bezala, halaxe iritziko diote, dudarik gabe, ultrarrazionalistek pragmatismoari filosofian. Filosofikoki zarama hutsa iritziko diote. Baina hori gorabehera, bizitzak aurrera darrai eta bere xedeak erdies-ten ditu herrialde protestanteetan. Eta ni ausartzen naiz pen-

tsatzera protestantismo filosofikoak ere antzeko oparotasuna  
erdietsiko duela.

# LAUGARREN HITZALDIA

## BATA ETA ANITZA

Azken hitzaldian ikusi genuen metodo pragmatikoa, zenbait kontzeptuz ari denean, mirespenezko kontenplazioan amaitu beharrean, esperientziaren ibaian murgiltzen dela eta kontzeptuon bidez ikuspegia luzatzen duela. Plana, hautamena, adimen absolutua, espiritua materiaren ordeztu, kontzeptu horiek guztiak esan-nahi bakar bat dute: agintzari hobe mundu honen irtenbideari dagokionez. Egiazkoak direla edo faltsuak direla, euren esan-nahia meliorismo horixe da. Maiz pentsatu izan dut Optikan «guztizko islapena» deritzon fenomeno ideia abstraktuen eta errealtate konkretuen arteko erlazioaren —pragmatismoak ulertzen duen modura— sinbolo on bat dela. Jaso ezazue urez beteriko edontzi bat begiak baino goratxoago eta begira uretan zehar haren azalera, edo, hobeto, begira ezazue antzera batean akuario bateko horma lauan zehar. Orduan, ontziaren beste aldean kokaturiko, esate baterako, kandela baten sugarraren, edo beste edozein objektu argitsuren, irudi distiratsu-distiratsua ikusiko duzue islatuta. Zirkunstantzia horietan, izpi batik ere ez da pasatzen uraren azaleratik harago: izpi guztiak islatzen dira berriz hondorantz. Orain, demagun ura gertakari sentigarrien mundua dela, eta beraren gainean dagoen airea, ideia abstraktuak. Mundu biok

errealak dira, jakina, eta elkarri daragiotte, baina mugetan soilik, eta bizi den eta gertatzen zaigun guztiaren *locusa*, esperimentzia guztia heltzen den muturreraino, ura da. Sentsumenen itsasoan igeri dabiltzan arrainak gara, gainetik goragoko elementuak mugatuta, baina hura nahaste barik arnasteko edo bertan sartzeko ezgai. Hala ere, bertatik hartzen dugu geure oxigenoa, etengabe ukitzen dugu, orain hemen eta gero han, eta ukitzen dugun bakoitzean uretara itzultzen gara berriro geure biderako erabakia eta energia berretuta. Aireak irudikatzen dituen ideia abstraktuak nahitaezkoak dira bizitzarako, baina euren arnastezinezkoak, zelanbait esateko, eta euren funtzio birbideratzailean soilik eraginkorrak. Berdintza guztiak herrenak izan ohi dira; baina honek irudimena ukitzen dit. Agerian jartzen du bizitzarako berez nahikoa ez den zerbait, beste nonbaiten bizitzaren determinatzaile eraginkor izan daitekeela hala eta guztiz ere.

Hitzaldi honetan metodo pragmatikoa beste aplikazio baten bidez argitu nahi dut. Beronen argipean jarri nahi dut «bata eta anitzaren» arazo zaharra. Susmatzen dut zuetako bakarren bati baino ez diola arazo honek loa galarazi izan, eta ez nintzateke harrituko zuetako baten batek erranen balit bera sekula ez duela horrek mendrenik ere kezkatu. Hala ere, ni neu, arazoari buruan buelta asko eman ondoren, arazo filosofikorik garrantzitsuentzat hartzera heldu naiz, erdi-erdiko arazoa baita, esanguraz bete-beterik dagoelako. Honekin esan gura dut ezen, guk baldin badakigu gizon bat zer den, monista petoa ala pluralista petoa, orduan gehiago dakigula haren gainerako iritziez, -istan amaituriko beste edozein izen hari ezarrita baino. Batean edo anitzean sinestea ondoriorik gehien dakarren sailkapena da. Horregatik ordu betez jasan beharko nauzue, nik neuk arazo honetan daukadan interesa zuei helarazten saiatzen naizen bitartean.

Filosofia munduaren batasunaren bilaketa edo ikuspena dela esanez definitu izan da maiz. Inor gutxik aurkatu du defi-

nizio hau, izan ere neurri batean egiazkoa dena, zeren filoso-fiak beti agertu baitu gauza guztien gainetik batasunarekiko duen interesa. Baina, zer esan gauzen *barietateaz*? Garrantzirik gabeko gaia ote da? Filosofia terminoa erabili beharrean geure endelguaz orokorrean eta beronen premiez mintzo bagara, laster ohartzen gara batasuna premiotako bat besterik ez dela. Beti onartu da gertakarizko xehetasunen zuzeneko ezagutza, eurok sistemara biltzearekin batera, buru-bikaintasunaren ezaugarri beharrezkoa dela. Espiritu «eruditua», entziklopedikoa, filologi motakoa, funtsean *ikasía* dena, inoiz ez da egon laudorio faltan, filosofoa egon ez den bezalaxe. Gure endelguak erdietsi nahi duena ez da ez barietatea ez batasuna, *osotasuna* baizik<sup>1</sup>. Honetan, errealtatearen ezberdintasunak ezagutzea euren arteko lotura ulertzea bezain garrantzitsua da. Ikusmina sistematizatzeko grinarekin *pari passu* doa.

Gertakari hau begi-bistakoa izan arren, gauzen batasuna euren barietatea baino *goragokotzat*, erranen genuke, egon da beti. Mutil gazte batek mundu osoaren nozioa gertakari handi bat bezala lehenengoz bururatzen duenean, zati guztiak formazioan, erranen genuke, mugituta eta bata bestearekin lotuta, gazte horrek ikuspen handi batez gozatzen ari den sentipena dauka, eta harrokeriaz begiratzen dio ezagutza goitar horretara oraindik iristerik eduki ez duen orori. Abstraktuan hartuta, lehenengotan aurkezten zaigun moduan, ikuspen monista hain lanbrotsua da, non nekez ematen duen intelektualki defendatzea merezi dutenetakoa denik. Hala ere, ideia hori seguru asko zuek guztiok ederresten duzue, era batera edo bestera. Jende ikasiaren biltokietan hainbestearaino da nagusi halako monismo abstraktu bat, bat izatearekiko halako erantzun emozional bat, aniztasunarekin koordinatu gabeko, baina askoz bikainago eta gailenagoa den munduaren ezaugarri bat balitz legez, non zentzun filosofikoaren osagaitzat ukan genezakeen ia. Mundua, *jakina*, Bat da, esaten dugu. Nola, bestela, izan liteke mundu?

Enpiristak normalean mota abstraktu honetako monista hisia-  
tiak dira, razionalistak diren bezainbatekoak izan ere.

Bada aldea, hala ere, zeren enpiristak ez baitira hain lau-  
sotuta geratzen. Batasunak ez ditu beste guztirako itsututa  
uzten, ez die gertakari bereziekiko jakin-nahia itotzen; razio-  
nalista mota batek, oster, inolako zalantzarik gabe batasun  
abstraktua mistikoki interpretatu eta beste guztia ahanzi egi-  
ten du, zeren printzipio gisa hartu, miretsi eta gurtzen baitu  
ziurtasun osoz batasuna, ondorioz intelektualki zirkinik egin  
ezinik geratzen delarik.

«Mundua Bat da». Formula hau zenbaki-gurtza edo bila-  
ka daiteke. «Hirua» eta «zazpia», egia da, zenbaki sakratutzat  
zeuden; baina, abstraktuki hartuta, zergatik izan behar du  
«batak» «berrogeita hirua» edo «bi milioi eta hamarra» diren  
baino bikainagoa? Munduaren batasunaz daukagun lehen kon-  
bentzimendu lanbrotsu honetan hain gutxi daukagu baieztatze-  
ko, non zer esan nahi duen ere ia ez dakigun.

Nozio honekin aurrera egiteko modu bakarra pragmati-  
koki hartzea da. Batasuna badela emanda, zer aldatuko litzate-  
ke?, zein gertakari izanen litzateke ezberdina? Zer bezala eza-  
gutu behar da batasuna? Mundua bat da, bai, baina *nolako* bat?  
Zein da bat izateak *guretzat* duen balio praktikoa?

Galdera hauek eginez, lanbrotsutik zehatzera pasatzen  
gara, abstraktutik konkretura. Eta hainbat era ezberdin ager-  
tzen dira, unibertsoaz predikatzen dugun bat izateak benetako  
aldea eragin ahal izateko dituenak. Bidezkoenak seinalatuko  
ditut hurrenez hurren:

1. Lehenik, mundua gutxienez *diskurtsogai bat bakarra*  
*da*. Munduaren aniztasuna beraren zatien batze *oro* galarazte-  
ko modukoa balitz, gure adimenek ere ez lukete haren osota-  
sunaz batera «zentzuz aritzerik». Bata alde batera eta bestea  
bestera begiratzen saiatzen diren begiak bezalakoaxeak lirateke.  
Baina, de facto, guk «mundua» edo «unibertsoa» bezalako hitz



abstraktuak erabiliz haren osotasun guztia hartu nahi dugu, hauek espresuki zati bat bera ere kanpoan utzi nahi ez duten hitzak dira eta. Diskurtso batasun honek, bistan dago, ez du bere baitan zehazpen monista gehiagorik. Behiala «kaos» zertzonak kosmosak bezainbateko diskurtso batasuna du. Gauza bitxia da monista askok beren aldeko garaipentzat edukitzea pluralistak «unibertsoa anitza da» esaten entzutea. «Unibertsoa!» esaten dute hortzartean barreka; «beren hizkerak saltzen ditu. Beren ahotik aitortzen dute monismoa». Ongi, onar dezagun gauzak zentzu horretan bat direla! Ezar geniezaioke «uniberso» hitza gauzen bilduma osoari, eta zer? Oraindik ere ziurtatzeke gelditzen da beste zentzu baliozkoagoren batean gauzak bat direnentz.

2. Ba al dira gauzak, esate baterako, *jarraikiak*? Pasa al daiteke gauza batetik bestera, unibertso berean iraunez beti, bertatik kanpora jausteko arriskurik gabe? Bestela esanda: *elkarturik al daude* eta ez bereiz hondar garau solteak legez?

Hondar garauak eurak ere elkaturik daude sartuta dau-den espazioaren bidez, eta, nolabait espazio horretan zehar mugitzerik bagenu, lehenengo garautik bigarreneira era jarraikian iragan ahal izanen ginateke. Espazioa eta denbora, hartara, jarraikitasun garraiagailuak dira, munduaren zatiak elkartuta mantentzen dituztenak. Batzeko era hauetatik datorkigun alde praktikoa itzela da. Gure mugimenduzko bizitza guztia berauetan oinarrituta dago.

3. Gauzen arteko jarraikitasun praktikorako beste makinan bat bide dago. *Eragimen* lerroak traza daitezke gauzei elkaturik eusteko. Horrelako lerro bati jarrai gauza batetik bestera pasa zaitezke, unibertsoaren hedaduraren zati handi bat zeharkatzeraino. Grabitatea eta bero-eroapena dira eragimen orobatzaile horiek, mundu fisikoari dagokionez. Eragimen elektriko, argizko eta kimikoen ere antzeko eragimen lerroei jarrai dihardute. Baina gorputz opako eta inerteek jarraikitasuna eteten dute eremu honetan, halatan eten ere, non luza gabe harago

heltzeko, itzulinguruka pasa behar baitituzu edo aurrera egiteko modua aldatu. Praktikan, beraz, galdua izanen duzu unibertsoaren batasuna, *lehenengo eragimen-lerro hauek eratuta zegoen heinean*.

Kontatu ezin ahala lotura mota daude gauza berezi batzuen eta bestetzuen artean; eta lotura horietako batzuen kateamenduak halako *sistema* antzeko bat eratzen du, gauzei elkartuta eusten diena. Hartara, gizakiek *harreman (acquaintanceship)* sare zabal batek elkartuta daude. Brownek Jones ezagutzen du, Jonesek Robinson, etab., eta, horretara, *bitartekoak hurrenez hurren egokiro aukeratuz gero*, Jonesen mezu bat Txinako Enperatrizari, edo Pigmeo afrikarren Buruzagiari edo munduan nonahi bizi den edonori helaraz diezaiokezue. Baina esperientzia honetan okerreko bitartekoa aukeratzen baduzue, hantxe bertan geratuko zarete, elementu ez-eroalearekin topo eginda bezala. Maitasun-sistemak esan dakiekeenak harreman-sisteman txertatuta daude. Ak maite (edo gorroto) du B; Bk maite (edo gorroto) du C, etab. Baina sistema hauek auresuposatzen duten harreman-sistema handia baino txikiagoak dira.

Giza ahaleginak mundua bateratu eta bateratu ari dira, egunean baino egunean gehiago, modu sistematiko zehatzetan. Sistema kolonial, postal, kontsular eta komertzialak aurkitzen ditugu eta euron atal guztiak sistemaren baitan zabaltzen diren eragimen zehatzen mendean daude, baina ez sistemaz kanpoko gertakarien mendean. Honek, emaitza gisa, munduaren zatien hainbat eta hainbat elkarlotura txiki dakartza elkarlotura handiagoen barruan, diskurtso-munduak ez ezik, jarduketa munduak ere badiren mundu txikiak, unibertso zabalagoaren barruan. Sistema bakoitza batasun mota edo maila baten adibide da, bere zatiak harreman berezi haren bidez lotuta dauzkalarik eta zati bera sistema ezberdin askotan ager daitekeelarik, gizon batek zenbait lanbidetan jardun dezakeen edo zenbait elkarteko kide izan daitekeen bezalaxe. Ikuspuntu «siste-

matiko» honetatik, beraz, munduaren batasunaren balio pragmatikoa sare zehatz hauek errealki eta praktikoki existitzean datza. Batzuk garatuagoak eta hedadura handiagokoak dira, beste batzuk baino; elkarren gainean jarrita daude; eta guztien artean ez diote ihes egiten uzten unibertsoaren ezein zati indibidual edo elementali. Gauzen arteko deslotura itzela bada ere (eragimen sistematiko hauek bide zorrozki eksklusiboetatik jotzen baitute), existitzen den gauza bakoitzak besteren baten eragina hartzen du *nolabait*, bide egokia aukeratzerik egonez gero beti ere. Zentzu zabalean eta oro har hitz eginda, esan daiteke gauza guztiak elkarri lotzen zaizkiela eta datxezkiela nolabait, eta unibertsoa praktikoki zerbait jarraiki edo «integratu» bihurtzen duten forma erretikulatu edo elkarkateatuetan existitzen dela. Eragimen mota orok mundua bat egiten laguntzen du, eragimenari hurrengorik hurrengo jarraitzerik dagoen neurrian. Orduan «mundua Bat *dela*» esan dezakezu, honen edo horren arabera dela esan nahirik, jakina, eta horiek lortu ahal diren neurrian. Baina era berean inola ere *ez* da Bat izanen, lortu ezin diren neurrian; eta ez dago lotura motarik huts emanen ez duenik, baldin eroaleak aukeratu beharrean ez-eroaleak, aukeratzeko badira. Honek, izan ere, lehenengo pausoan geraraziko zintuzkete eta mundua *aniztasun* hustzat hartu beharko zenukete ikuspuntu partikular honetatik. Gure endelguak erlazio disjuntiboekiko lotzaileekiko duen adinako interesa izan balu, filosofiak arrakasta beraz ospatuko zukeen munduaren *batasunik eza*.

Puntu nagusia hemen bat izatea (*oneness*) eta aniztasuna (*manyness*) erabat koordinaturik daudela ohartzea da. Biotako bat ere ez da bestea baino beharrezkoago, funtsezkoago edo garrantzitsuagoa. Espazioarekin gertatzen den bezala, hau da, badirudiela beronek egindako gauzen banatzea parez pare doi-doi doala ematen dien batasunarekin, nahiz eta gu batzuetan funtzio batarekin eta besteetan bestearekin gehiago ohartu, halaxe gertatzen da eragimenen munduarekin ditugun harre-

manetan ere: batzuetan eroaleak behar ditugu eta beste batzuetan ez-eroaleak eta jakituria une egokian zein zein den jakitean datza.

4. Eragimen edo ez-eragimen sistema hauek guztiak munduaren *batasun* (*unity*) *kausalaren* arazoaren barruan sar daitezke. Baldin gauzen arteko eragimen kausal txiki guztiek iraganeko jatorri kausal berean, den guztiaren lehenengo kausa batean, bat eginen balute, orduan mintza gintezke munduaren erabateko batasun kausalaz. Jainkoaren *fiat* hura kreazio egunean, aipaturiko kausa eta jatorri absolutu gisa ageri da filosofia tradizionallean. Idealismo transzendentalak, kreazioa «pentsamenduaz» itzultzean (edo «pentsatzeko borondateaz») jainko-ekintzari «eternala» esaten dio, «lehenengoa» baino gehiago; baina anitzaren batasuna hemen absolutua da, gauza bera hain zuzen, anitza izanen ez balitz bezala, Batarentzat izan ezik. Gauza guztien jatorrizko batasunaren nozio honen kontra beti izan da betiereko aniztasunaren nozio pluralista, aniztasun hau berez dena delarik atomoen edo are nolabaiteko unitate espiritualen forman. Alternatiba honek esan-nahi pragmatikoa dauka, dudarik gabe; baina, hitzaldi hauei dagokienez, agian hobe dugu jatorrizko batasunaren auzi hau alde batera uztea.

5. Pragmatikoki hitz eginez, gauzen artean erdiesten den bat-egite motarik inportanteena euron *batasun generikoa* da. Gauzak generoetan (*kinds*) existitzen dira eta espezimen asko daude genero bakoitzean; eta «generoak» berauetako bakoitzarentzat inplikatzeko duena genero horretako beste edozein espezimenez ere inplikatzeko du. Aise pentsa genezake munduan gertatzen den gertakari bakoitza bakuna izan litekeela, hau da, beste ezein ez bezalakoa eta bakarra bere generoan. Baina bakuntasunen mundu horretan gure logikak ez luke ezertarako balioko, zeren logikak kasu bakun bakarraz beronen genero osoaz egiazkoa dena predikatuz dihardu eta. Munduan antzeko bi gauzarik izan ezean, ez ginateke gai izan iraganen ukaniko esperientzietatik etorkizunekoetarako

arrazoitzeko. Gauzetan batasun generiko hori izatea, hartara, «mundua Bat dela» baieztatzeak izan dezakeen esan-nahiaren zehazpen pragmatiko garrantzitsuena da. Batasun generiko *absolutua* erdietsi ahal izanzen litzateke, *summum genus* bat balitz, gauza guztiak, salbuespenik gabe, bere mendean hartzeko gai litzatekeena. «Izakiak», «pentsagarriak», «esperientziak» lirateke hor sartu beharrekoak. Termino horiek adierazitako alternatibek esangura pragmatikorik dutenentz beste kontu bat da, geroagorako utzi nahiago dudana.

6. «Mundua Bat da» esaldiak esan nahi duenaren beste zehazpen bat *xede batasuna* da. Munduan gauza asko eta asko, kopuru eskergan, xede komun baten zerbitzuan daude. Gizakiak egindako sistema guztiak, hala nola, administratiboa, industrial, militarra, eta zein ez, zein bere xede berezi eta zehatzerako existitzen dira. Izaki bizidun orok bere xedea bete nahi du. Izaki guztiek, zeinek bere garapen mailaren arabera, talde edo tribu xedeetan elkarlanean jarduten dute beste txikia-go batzuk mendean hartzen dituzten zertarako zabalagoetan, eta horrela, pentsa daitekeenez, erdiets liteke xede erabat bakarra, azkenekoa eta gorengoa, gauza guztiak, salbuespenik gabe, bere zerbitzuan litzatekeena. Esan beharrik ez dago itxurak ikuspegi honen kontra daudela. Eraitza guztiek, hirugarren hitzaldian nioen moduan, xede bat ukan *zezaketan* aldez aurretik, baina guk mundu honetan ezagutzen ditugun emaitzetariko bat bera ere ez da, izatez, aldez aurretik proiektatua izan bere xehetasun guztiekin. Gizakiak eta nazioak aberats, handi edo on izateko ideia lanbrotsuarekin abiatzen dira. Egindako pauso bakoitzak aurretik ikusi gabeko aukerak bistaratzen eta lehenagoko ikuspegiak ixten dizkiete, eta xede nagusiaren zehazpenak egunero aldatu behar izaten dira. Azkenean erdiesten dena proiektatu zena baino hobea edo txarragoa izan daiteke, baina konplexuagoa eta diferentea da beti.

Gure xede ezberdinak ere gerran ari dira bata bestearen kontra. Batak bestea azpiratu ezin duenean, konponketa bat-

egiten dute; eta emaitza batak eta besteak alde zurretik zehazki proiektatu zutenetik diferentea da. Zehaztu gabe eta oro har, proiektaturikotik asko erdiesten da; baina dena ageri da honako hau defendatzen duen iritzia indartsuki sendotzen, alegia, gure mundua teleologikoki ez-osoan baturik dagoela eta bere batasuna hobeto antolaturik egon dadin ahalegintzen ari dela beti.

Unibertsoaren xehetasun guztiek xede baten zerbitzuan daudela esanez batasun teleologiko *absolutuaren* alde dagoen nornahi dogmatizatzen ari da, bere kabuzko arriskupean ari ere. Horrela dogmatizatzen duten teologoei, elkarren kontra dauden munduaren atalen ezagutza zehatzagoa lortu ahala, gero eta zailago bihurtzen ari zaie iruditzea nolakoa izan daitekeen goren-go xede bakar hori. Ikus genezake, egia da, zenbait gaitzek gerora onak dakartzatela, mingotsak cocktaila hobetzen duela, eta arrisku edo estura pixka batek garaipenaz gehiago gozatzea dakarkigula. Hemendik abiatuta lanbrotsuki orokor genezake eta esan munduan dagoen gaitz guztia beronen perfekzio handiagorako tresna baino ez dela. Baina egiazki bistan daukagun gaitzaren eskala giza tolerantzia orori egindako desafioa da, eta Bradley baten edo Royce baten orrialdeek ez garamatzate Joben liburuak baino haratago: Jaunaren bideak ez dira gure bideak; itxi dezagun, beraz, eskuaz ahoa. Gainezkako izugarrikeria horietan plazer ukan lezakeen Jainkoa ez da gizakiok berarengana jotzeko moduko Jainkoa. Haren garra gehiegizkoa da. Beste hitz batzuetan, «Absolutua» bere xede bakarrarekin ez da jende arruntaren giza antzeko Jainkoa.

7. Gauzen arteko *bat-egite estetikoa* ere gertatzen da eta bat-egite teleologikoaren antz-antzekoa da. Gauzek historia bat kontatzen dute. Euren atalak elkartu egiten dira klimax bat sortzeko. Bata bestearekin jotatzen dute adierazkorki. Atzera begiratuta, ikus dezakegu gertaera-katea bat zuzentzen zuen xede zehatzik ez izan arren, hauek jazo egiten direla modu dramatikoan hasiera batekin, erdialde batekin eta amaiera batekin.

Izatez, historia guztiak amaitu egiten dira, eta zentzu honetan naturalena hemen ere aniztasunaren ikuspuntua hartzea da. Mundua bata bestearekin paraleloan doazen eta une ezberdinetan hasten eta amaitzen diren historia partzialez beterik dago. Elkarrekin kordatzten dira eta elkar interferitzen dute zenbait puntutan; baina guk ezin ditugu batu geure adimenetan. Zuen bizitzako historiari jarraitzen badiot, aldi batez apartatu egin behar dut arreta neuretik. Bikien biografo batek ere txandaka aurkeztu behar ditu irakurlearen arretara.

Ondorioz, mundu guztiak historia bakar bat kontatzen digula dioen nornahik nork bere kabuzko arriskupean sinetsi behar dituen dogma monista horietako bat adierazi besterik ez du egiten. Erraza da munduaren historia modu pluralistan ikustea, bakoitzak bere historia ezberdina kontatzen duen hari anitzez osaturiko soka bat balitz bezala; baina zailago da sokaren zeharrebakidura bakoitza gertakari absolutuki bakar gisa bururatzeta eta luzetarako serie guztia bizitza zatikagabea bizi duen izaki batean batzea. Enbriologiaren analogia daukagu, eduki, hau ulertzeko laguntza eskaintzen diguna. Mikroskopiolaria enbrioi baten ehun zeharrebakidura plano egiten ditu eta buruz multzo sendar bakarrean biltzen. Baina badirudi mundu handiaren osagaiak, izakiak direnez gero, sokaren hariak bezalaxe, zeharretara etenak direla eta luzetara bakarrik datxezkiola elkarri. Norabide horretan jarraitzen badiegu, anitzak dira. Enbriologoak berak ere, bere aztergaiaren *garapenari* jarraitzen dionean, organo bakoitzaren historia ere aztertu behar du. Batasun estetiko *absolutua*, beraz, beste ideal abstraktu huts bat da. Mundua dramatikoa baino gehiago epikoa den zerbait bezala ageri zaigu.

Honaino, bada, ikusten dugu mundua bere sistema, genero, xede eta drama ugarien bidez batuta dagoela. Egia da bide hauetan guztietan lehen ikusian ageri dena baino batasun handiagoa dagoela. Hipotesi legitimoa da pentsatzea xede, sistema, genero eta historia bakar bat izan *daitekeela*. Hemen dio-

dan guztia zera da, arinegi ibiltzea dela hau dogmatikoki baieztatzea orain arte daukagun baino froga hoberik eduki gabe.

8. Azken ehun urteotan *denkmittel*\* monista nagusia *Jakile bakarraren* nozioa izan da. Gertakari anitzak haren pentsamendurako soilik existitzen dira: haren ametsetan existituko balira bezala, eta *hark ezagutzen dituen heinean*, xede bat dute, sistema bat eratzen dute, historia bat kontatzen dute harentzat. Gauzen *batasun orohartzaille noetiko* baten nozio hau filosofia intelektualistaren lorpen gorena da. Absolutuarengan —izaki orojakileari esaten dioten modura— sinesten dutenek esan ohi dute arrazoi behartzaileen eraginez egiten dutela hori, pentsatzaile argiek ezin bazter utzi baitituzte arrazoioak. Absolutuak helmen handiko ondorio praktikoak ditu, eta bigarren hitzaldian jada jarri dut arreta euretako batzuetan. Mota askotako diferentziak, guretzako garrantzitsuak, etorriko lirateke, dudarik gabe, hura egiazki existitzetik. Ezin naiz hemen hasi aztertzen Izaki horren existentziaren froga logiko guztiak, baina bai esan behar dut beraietako bati ere ez deritzodala sendoa. Orojakilearen nozioa, beraz, hipotesi hustzat hartu behar dut, unibertsoaren eduki guzti-guztia batera ikusi ahal izateko ikuspuntutik ez informazio gunerik ez dagoela dioen ideia pluralistaren pare jarritz logikoki. «Jainkoaren kontzientziak», dio Royce irakasleak<sup>2</sup>, «bere osotasunean une kontziente argitsuki garden bat eratzen du». Horrelakoxea da razionalismoak gogorki eusten dion batasun noetikoa. Enpirismoa, bestalde, gizatasunez hurbilekoa den batasun noetikoarekin konformatzen da. Gauzak oro dakizki jakileren *batek* beste zerbaitekin batera; baina jakileek, azkenean, ezinbestez asko izan behar dute, eta guztion arteko jakilerik handienak ere baliteke gauza guzti-guztiak ez jakitea, eta are dakien guztia kolpe batez ez jakitea: ahanzturaren mendean egon daiteke. Erdiesten den tipoa bata zein bestea izanik ere, mundua noetikoki izanen litzateke unibertso bat. Haren atalak ezagumenak batuta ego-

\* endelgu-baliabide



nen lirateke, baina kasu batean ezagumena absolutuki bat egin da egonen litzateke eta, bestean, amarraturik eta gainkaturik.

Aldiuneko edo betiereko Jakile baten nozioa adjektibo biok hemen gauza bera esan nahi dute-, arestian nioen bezala, gure garaiko lorpen intelektualista handiena da. Izan ere, praktikoki lekua kendu dio filosofo zaharrek hain baliozkotzat zuten eta hainbeste bat-egite lan egiten lagundu zien «Substantziaren» ideia hari, existentzia bere baitan eta berez duen substantzia unibertsala bera, esperientziako partikular guztiak hark euskarria ematen dien beraren formak baino ez direlarik. Substantziarenak egin du jada eskola ingelesaren kritika pragmatikoaren eraginez. Orain beste izen bat bezala soilik agertzen da, hain zuzen ere fenomenoak, aurkeztu ahala, taldekaturik eta forma koherenteetan, guk jakile finituok fenomenook esperimentatu edo pentsatzeko erabiltzen ditugun forma beretan, aurkezturik daudela adierazten duen izen bezala hain zuzen. Elkartzeko forma hauek esperientziaren ehunaren zati dira, beraiek lotzen dituzten terminoak ere diren bezalaxe; eta lorpen itzela da oraintsuko idealismoarentzat zuzenean ordezkagarriak diren forma hauen bidez eman izana kohe-sioa munduari, beronen batasuna beronen zatiak eszenategia-ren atzeko printzipio irudiezin batean «atxikita» egotetik — dena delakoa dela honen esan-nahia— atera beharrean.

«Mundua Bat da», beraz, guk elkaturik dagoela esperi-mentatzen dugun heinean juxtu. Bat, ageri diren hainbeste elkarketen eraginez. Baina, orduan, baita ez-Bat ere, aurkitzen ditugun hainbeste *dis-juntzio* zehatzen eraginez. Munduaren batasuna eta aniztasuna, hartara, bereiz izenda daitezkeen for-metan sortzen dira. Ez da ez unibertso huts eta soil bat ez mul-tibertso huts eta soil bat. Eta bat izateko dituen era ezberdinek, eurok zehazki egiaztatzeko, beste hainbeste zientzia-lan pro-grama ezberdin iradokitzen dituzte. Hartara, batasuna zertzat ezagutzen den, zer diferentzia praktiko suposatzen duen plan-teatzen duen galdera pragmatikoak berau gorentasun printzi-

pio bezala hartzeak dakarren narritadura sukartsutik libratzen gaitu eta esperientziaren korrontean zehar buruhotz garamatza aurrera. Korronteak, egia da, guk orain susmatzen ditugunak baino lotura eta batasun handiagoak erakuts litzake; baina printzipio pragmatikoek ez digute eskubiderik ematen ezeri ere dagokionez alde zuretik batasun absolutua erreklamatzeko.

Hain zaila da zehazki ikustea zer esan-nahi ukan deza-keen batasun absolutuak, non badaitekeen zuetariko gehienok konforme egotea hartu dugun jarrera burutsuarekin. Hala ere, beharbada zuen artean badira espiritu erradikalki monistak, bata eta anitza parez pare uzteaz konforme ez daudenak. Gradu ezberdinen batasuna, mota diferenteen batasuna, ez-eroaleetan gelditzen den batasuna, hurrengorik hurrengora baino ez doan batasuna, eta kasu askotan kanpoko hurbiltasuna baino esan nahi ez duena, eta ez barne lokarria, horrelakoak, diot, agian pentsamenduaren erdibideko fasetzat daukazue. Pentsatuko duzue gauzen batasunak, aniztasuna baino handiagoa izanik, sakonkiago izan behar duela egiazkoa, munduaren alderdi errealena izan behar duela. Ikuspegi pragmatikoak, ziur zaudete, osoki razionala ez den unibertsoa ematen digu. Unibertso errealak baldintzarik gabeko izaki batasuna eratu behar du, erabat finkaturiko zerbait, bere zatiak buru belarri elkar inplikaturik. Orduantxe bakarrik har genezake gure egoera erabat razionalizat.

Zalantzarik gabe, pentsaera ultramonista honek esangurara sakona du adimen askorentzat. «Bizi Bat, Egia Bat, Maitasun Bat, Printzipio Bat, Ongi Bat, Jainko Bat» —egunero postan heldu zaidan *Christian Science*ko orri batetik hartuta aipatzen dut—; dudarik gabe, fede-aitormen horrek pragmatikoki balio emozionala du, eta, dudarik gabe, «bat» hitzak beste hitzek adina sustatzen du balio hori. Baina batasun asealdi horren bidez zer *esan nahi* ote dugun *intelektualki* egiaztatzen saiatzen bagara, berriro ere zehazpen pragmatikoetara zuzenean joan beharrean aurkituko gara. Horrek edo Bat izena

soilik, diskurtso unibertsoa alegia, esan nahi du; edo elkarketa eta kateamendu partikular egiaztagarri guztien orotarako batzura; edo, azkenez, orohartzaitzat hartzen den elkarketa eragile bat, hala nola, sorburu bat, xede bat, jakile bat. Izatez, gaur egun *jakile* bat da beti auzia intelektualki hartzen duten guztientzat. Jakile horrek, haien ustez, beste elkarketa era guztiak inplikatzeko ditu. Haren munduak bere atal guztiak elkar inplikaturik behar ditu jakile horren amets eternala den irudi logiko-estetiko-teleologiko unitarioan.

Baina guretzat hain da ezinezko jakile absolutu horren irudia argi irudikatzea, non arrazoiz suposa dezakegun monismo absolutuak pertsona batzuegan dudarik gabe daukan eta segurutzat beti ere edukiko duen autoritateak bere indarra oinarri intelektualetatik barik oinarri mistikoetatik ateratzen duela. Monismo absolutua behar bezala interpretatzeko mistikoa izan behar da. Historiak erakusten du maila orotako adimen-egoera mistikoak ikuspegi monistaren aldekoak izaten direla. Ez da hau une egokia mistizismoaren gai orokorrean sartzeko, baina aitormen mistiko baten adibidea aipatzeko dut esan nahi dudana zehazki adierazteko. Sistema monista guztien eredua

Hindostango Vedanta filosofia da, eta misiolari vedantisten eredua Swami Vivekananda zena izan zen, duela zenbait urte gure herrialdea bisitatu zuena. Vedantismoaren metodoa mistikoa da. Ez duzu arrazoitzen, baizik diziplina bati jarraituz *ikusi egiten duzu* eta, ikusi eta gero, egia horren berri eman dezakezu. Begira nola ematen duen egiaren berri Vivekanandak bere hitzaldietako batean:

«Non dago miseria handiagorik, unibertsoan Batasun hau, bizitzaren Batasun hau, gauza guztien Batasun hau ikusten duenarentzat... Gizona gizonarengandik, gizona emakumearengandik, gizona haurarengandik, nazioa nazioarengandik, lurra ilargiarengandik, ilargia eguzkiarengandik, atomoa atomotik bananduta egote haxe da miseria guztiaren benetako

kausa, eta vedantismoak dio banakuntza hau ez dela existitzen, ez dela erreala. Itxurazkoa baino ez da, azalekoa. Gauzen bihotzean batasuna dago nonbait. Barne-barnera bazoaz, aurkituko duzu batasun hori gizon baten eta bestearen, emakumeen eta haurren, arraza batzuen eta besteen, goikoaren eta behekoaren, aberatsaren eta pobrearen, jainkoen eta gizakien artean. Denak dira Bat, eta abereak ere bai, behar adina sakonduz gero; eta honaino heldu dena ez da sekula gehiago engainupean izan... Non izanen da harentzat engainurik? Zerk engaina dezake? Gauza guztien errealtatea ezagutzen du, gauza guztien sekretua. Non dagoke harentzat miseria gehiagorik? Zer desiratu du jada gehiago? Gauza guztien errealtateari jarraitu dio aztarna, harik eta zernahiren erdigunea, Batasuna, Betiereko Zoriona, Betiereko Ezagutza, Betiereko Existentzia den Jainkoarengana heldu arte. Harengan ez dago ez gaixotasunik, ez heriotzarik, ez penarik, ez miseriarik, ez deskontenturik... Erdigunean, errealtatean, ez dago zer deitoraturik, zertaz penaturik. Den orotan sartu da Bat Purua, Formagabea, Gorpuzgabea, Orbaingabea, Jakilea, Poeta handia, berez existitzen dena, bakoitzari merezi duena ematen dion Hura».

Beha ezazu zein erradikala den hemen monismoaren izaera. Gertatzen dena ez da Batak banakuntza gainditzen duela, banakuntza ukatu egiten dela baizik. Ez dago aniztasunik. Gu ez gara Bataren atal; hark ez du atalik; eta zentzu batean gu *bagarela* ukaezina denez, gutariko bakoitzak Bata *izan* behar du, zatiezinki eta guztiz izan ere. *Bat Absolutua, eta ni neu naiz Bat hori*: dudarik gabe hemen erlijio bat daukagu, emozionalki hartuta balio pragmatiko handia duena; luxuzko segurtasuna ematen du. Gure Swamiak beste leku batean dienez:

«Gizakiak bere burua unibertsoa den Izaki infinituarekin Batzat daukanean, banakuntza oro bukatu denean, gizon guztiek, emakume guztiek, aingeru guztiek, jainko guztiek, abere guztiek, landare guztiek, unibertso guztiak batasun ho-

rretan bat egiten duenean, orduan beldur oro ezabatzen da. Noren beldur izan? Egin al diezaioket kalterik neure buruari? Hil al dezaket neure burua? Irain al dezaket neure burua? Zeure buruaren beldur al zara? Tristura oro desagertuko da orduan. Zerk eragin liezadake tristura? Neu naiz unibertsoko Existentzia Bakarra. Orduan inbidia guztiak desagertuko dira; izan ere, noren inbidia ukan nezake? Neure buruarena? Neu beste inor ez dago unibertsoan...: suntsitu ezberdintze hori, suntsitu anitz daudelako sineskeria. ‘Aniztasunaren mundu honetan Bat hori ikusten duena, inkontzientzi masa honetan Izaki Bakar Kontziente hori ikusten duena, itzalen mundu honetan Errealitate hori atzematen duena, horixe da betiereko bakearen jabe, horixe besterik inor ez, inor besterik ez’.»

Guk denok jartzen diogu belarria musika monista honi: jaso egiten gaitu eta segurantza eman. Denok daukagu geure baitan mistizismoaren hozia bederen. Gure idealistek idealismoaren alde beren argudioak erreztatzen dituztenean esanez edonon onarturiko batasun txikienak logikaz Bat izate absolutua dakarrela, eta edonon onarturiko banakuntza txikienak erremediorik gabeko eta guztizko batasunik eza dakarrela, ezin izaten naiz gelditu susmatu gabe erabiltzen dituzten arrazonamendu intelektualen puntu nabariki ahulak sentimendu mistiko batek, alegia, Bat izate absolutua —logikoa izan nahiz ez izan— nola edo hala derrigor egiazkoa izan behar duelako sentimendu mistikoak babesturik daudela haien beraien kritikarik. Edonola ere, Bat izateak beti gainditzen du banaketa *moral*a. Maitasunaren pasioan bizitza kontziente guztiaren batasuna adieraz dezakeenaren hozi mistikoa daukagu. Hozi mistiko hau piztu egiten da gure baitan baieztapen monistak entzutean, eta , euron autoritatea onartuz, gogoramen intelektualei bigarren mailako lekua esleitzen die.

Hitzaldi honetan ez diet gehiago ekinen aztergai honen alderdi erlijioso eta moralei. Azken hitzaldira heltzean erranen dut zerbait gehiago.

Intuizio mistikoeek ukan lezaketen balizko autoritatea oraingoz gogoetatik kanpo utziz, azter dezagun era intelektual hutsean Bataren eta Anitzaren arazoa, eta nahikoa argi ikusiko dugu zertan datzan pragmatismoa. Pragmatismoaren irizpidez, teoriak dakartzaten aldean azalegia, ikusten dugu honek uko egin behar diela maila berean monismo erabatekoari eta pluralismo erabatekoari. Mundua Bat da, bere atalak lokarri zehatzen batez lotuta dituen heinean. Eta anitza da, lotura zehatzen bat lortzen ez duen heinean. Eta, azkenez gero eta batuago bihurtzen da, giza energia denbora iragan ahala asma-tuz doan lotura sistemen bidez bederen.

Ezagutzen duguna ez bezalako beste unibertso batzuk imajina daitezke, non askotariko batasun maila eta motak aurki daitezkeen. Hartara, mailarik beherenean *eransketa* (*withness*) hutsezko mundua legoke, non atalak «eta» juntagailuaren bidez elkarrekin kordan ipinita baino ez leudekeen. Une honetan, gure barne bizitza ezberdinen bilduma ere mota horretako unibertsoa da. Gure irudimeneko espazioak eta denborak, itzarrik amesten ditugun objektu eta gertaerak, *inter se* gutxi-asko inkoherenteak ez ezik, beste inoren adimeneko antzeko edukiekin inolako erlazio zehatzik gabekoak dira. Oraintxe hemen jesarrita gaudela ditugun burutazio ezberdinak ere hutsalki lotzen dira bata bestearekin, elkarrekiko eraginik ez interferentziarik gabe. Elkarrekin existitzen dira, baina ordenarik gabe eta inolako errezeptakulurik gabe, burura dezakegun «aniztasun» handienetik hurbilen egonik. Ezin dugu imajinatu gertakari anitz horiek denak batera ezagutu *behar* izateko arrazoirik ere; eta are gutxiago imajina dezakegu, batera ezagutzerik ego-nez gero, nola ezagut litezkeen osotasun sistematiko gisa.

Baina erantsi honi gure sentipenak eta gorputz ekintzak, eta batasuna askoz maila altuagora helduko da. Gure *audita et visa* eta gure ekintza guztiak denbora eta espazioaren errezeptakulu horietan erortzen dira, non gertaera bakoitzak bere data eta lekua aurkitzen duen. «Gauzak» eratzen dituzte, eta «gene-

roak» osatu ere bai; eta sailkatu egin daitezke. Areago, gauzen eta generoen mundu bat imajina dezakegu, non guk hain ohiko ditugun elkarreragin kausalak ez leudekeen. Han legokeen oro inerteza litzateke beste ororekiko eta bere eragina zabaltzeari uko egingen lioke. Edo eragin mekaniko nabarmenak batetik bestera pasa ahal izanen lirateke, baina eragin kimikorik ez. Mundu horiek gurea baino askoz gutxiago batuta egonen lirateke. Gainera erabateko elkarreragin fisiko-kimikoa izan liteke beraietan, baina gogamenik ez; edo gogamenak bai, baina pribatuak, gizarte bizitzarik gabe; edo gizarte bizitza harreman-dunarekin, baina maitasunik gabe; edo maitasunarekin, baina berau eratzeko ohitura edo erakunderik gabe. Maila ezberdinetako unibertsoetarik ezein ere ez litzateke erabat irrazionala edo desintegratua, goragoko mailetatik begiratuta apalena iruditu arren. Adibidez, gure gogamenak noizbait «telepatiaz» konektaturik egotera helduko balira, halatan non gutariko bakoitzak bitartekorik gabe zuzenean besteak zer pentsatzen duen jakinen lukeen, edo baldintza batzuetan jakin ahal izanen lukeen, orduan mundu hartako pentsatzaileek gu orain bizi garen munduari beheragoko mailakoa iritziko liokete.

Iragandako betikotasun guztia zabalik daukagularik aieruak egiteko, zilegi litzateke galdetzea ea bizi garen unibertsoan gauzatu diren batasun mota ezberdinak ez diren eboluzioz hurrenez hurren sorturikoak, giza sistemak ere giza premien arabera eboluzionatzen ikusten ditugun moduan. Hipotesi hau frogatzerik balego, erabateko batasuna gauzen sorreran barik amaieran agertuko litzateke. Bestela esanda, «Absolutuaren» nozioaren lekuan «Azkenarena» jarri beharko litzateke. Nozio biok eduki bera ukanen lukete, gertakari-eduki bateratu ahala bateratua alegia, baina euren denborazko erlazioak positiboki elkarren kontrakoak.<sup>3</sup>

Unibertsoaren batasuna era pragmatiko honetan eztabai-datu ondoren, ikusi beharko zenukete zergatik nioen bigarren hitzaldian, berba neure adiskide G. Papiniri maile gatuta, prag-

matismoak gure teoriak *zalutzeko* joera duela. Munduaren bat izatea, eskuarki, abstraktuan soilik baieztatu izan da, eta berau auzitan jartzen zuena ergeltzat hartu beharrekoztat eduki izan da. Monisten izaera hain suharra izan da, non batzuetan iskanbilatsua ere izan baita; eta euren doktrinari eusteko duten era ez da erraz uztartzen eztabaida arrazoituarekin eta bereizpenak egitearekin. Absolutuaren teoriak, bereziki, fede artikulua izan behar izan du, dogmatikoki eta beste oro baztertuta baieztatua. Bat eta Guztia denak, izateko eta jakiteko ordenan lehenengo dagoenak, logikoki beharrezkoa denak, eta gauza txikiago guztiak elkarrekiko beharrezanean batzen dituenak, nola utz liezaioke barne-zurruntasunari inola ere biguntzen? Aniztasunaren susmorik txikienak, bere atalek osotasunaren kontrolpetik irteteko egindako zirkinik txikienak, hondatu eginen luke. Ez, batasun absolutuak ez du onartzen gradurik, zeuek ere edontziko ura absolutuki garbia izatea galdatzen duzuen moduan, kolera-hozi txiki bakar bat daukalako. Atal txikienaren loka-betasuna, infinitesimala izan arren, Absolutuarentzat kolera-hozia bezain hondagarria da.

Pluralismoak, beste alde batetik, ez du izaera dogmatiko zurrun horren premiarik. Gauzen artean *nolabaiteko* banakuntza, lokabetasunezko zirkinen bat, atalen artean bata bestearekiko joko librearen bat, egiazko berrikuntza edo menturaren bat —txikiena bada ere— bermatuz gero, pluralismoa oso konforme geratzen da eta benetako batasuna nahi dugun neurrian, handienez ere, onartuko digu. Zein neurritako batasuna izan daitekeen, pluralismoarentzat hori enpirikoki bakarrik ebatz daitekeen auzia da. Neurria eskerga izan daiteke, sekulakoa; baina batasuna birrinduta geratuko da, baldin batasun guztia-rekin batera, «gainditu» ez den banakuntzaren baten izpirik txikiena, hasierarik hasi berriena edo aztarnarik susmagaitzena egiazkotzat hartu beharra badago.

Pragmatismoak, gauzen arteko batasunaren eta banakuntzaren arteko oreka zein izan daitekeen jakiteko azken



egiaztapen enpirikoaren zain dagoelarik, bere burua pluralismoaren aldean sailkatu beharra dauka. Egunen batean —pragmatikoak onartzen du— are erabateko batasuna, jakile bakar batekin, sorburu batekin eta era bururagarri guztietan bateraturiko unibertso bakar batekin, bilaka daiteke hipotesi guztietarik onargarriena. Bitartean, zintzotasunez, kontrako hipotesia aintzat hartu behar da, alegia, oraindik erabat batu gabe dagoen eta behar bada beti horrelaxe izanen den munduarena. Azken hipotesi hau pluralismoaren doktrina da. Monismo absolutuak hau seriozki hartzeko ere bide guztiak galarazten dituen bezala, hasieratik irrazionalismoaren markarekin agertuz, argi dago pragmatismoak bizkarra eman behar diola monismo absolutuari, eta pluralismoaren zidor enpirikoagoari jarraitu.

Honek zentzunaren munduan uzten gaitu, non gauzak aldez elkartuta eta aldez banatuta aurkitzen ditugun. «Gauzak», beraz, eta berauen «juntagailuak»; baina zer esan nahi dute hitzok pragmatikoki erabilia? Hurrengo hitzaldian Zentzuna deritzon filosofatzeko faseari aplikatuko diot metodo pragmatikoa.



# BOSGARREN HITZALDIA

## PRAGMATISMOA ETA ZENTZUNA

Aurreko hitzaldian, unibertsoaren bat izateaz ohiko eran jardun beharrean, hau da, bere hutsaltasunean printzipio goitartzat hartuta, unibertsoak bere baitan dituen batasun mota bereziak jorratu genituen. Eta aurkitu genuen hauetako asko era berean errealak diren banakuntza mota askorekin batera existitzen direla. «Zenbateraino naiz ni egiaztatua?» da batasun mota bakoitzak eta banakuntza mota bakoitzak hemen planteatzen digun galdera, eta guk, hartara, esperientziara, «gertakarietara» bideratu beharko dugu geure arreta.

Bat izate absolutuak zutik dirau, baina hipotesi moduan soilik; eta hipotesi hau, gaur egun, gauza guztiak salbuespenik gabe gertakari sistematiko bakar bat eratzen ikusten dituen jakile orojakitun bat onartzera mugatzen da. Baina jakile hau Absolutu gisa edo Azkeneko gisa burura daiteke; eta batera zein bestera ulertzen duen hipotesiaren kontra zilegitasunez sostenga daiteke kontrahipotesi bat, hauxe dioena: inoiz izan den edo izan daitekeen ezagutza eremurik zabalenean ere ezjakintzaren bat dagoela. Informazio zatitxo batzuek beti ere ihes egin diezagukete.

Hau *pluralismo noetikoaren* hipotesia da, monistak hain absurdutzat daukatena. Honi ere monismo noetikoari adina errespetu erakustera beharturik gaudenez harik eta gertakariak balantzari alde batera eragin arte, ikusten dugu ezen gure pragmatismoak, jatorriz metodo bat besterik ez den arren, ikuspegi pluralista begi onez ikustera eraman gaituela. *Baliteke* munduaren atal batzuk oso nasai lotuta egotea beste atal batzuekin, «*eta*» loturaz baizik itsatsita ez egotearaino. Are gehiago, bali-teke beste atal horiek inolako barne aldaketarik ukan gabe atzera eta aurrera ibiltzea. Ikuspegi pluralista hau, *eransketaz* eraturiko mundu batena alegia, pragmatismoak ezin du aintzat hartze seriotik kanpo utzi. Baina ikuspegi honek geroagoko beste hipotesi batera garamatza, alegia, mundu erreala, «beti-kotasun guztian» oso-osoa izan beharrean, monistek segurtatzen duten bezala, betikotasun guztian ezosoa eta beti ere eransketaren mende edo galtzeko arriskuan dagoena izan litekeela dioen hipotesira.

Edonola ere, *bada* ezosoa zentzu batean, nabarmenki izan ere. Guk arazo honen inguruan darabilgun eztabaidak berak ere argi uzten du *gure ezagutza* une honetan ezosoa eta gehigarria dela. Bere baitan daukan ezagutzari dagokionez, mundua egiazki aldatu eta hazten da. Gure ezagutzak osatzeko —osatzerik daukanean— duen erari buruzko ohar batzuek oso egokiro eramaneen gaituzte hitzaldi honetako gaira, «Zentzunaren» gaira alegia.

Hasteko, gure ezagutza *guneka* (*in spots*) hazten da. Guneak handiak edo txikiak izan daitezke, baina ezagutza ez da sekula hazten guztiz aldatzeraino; ezagutza zahar batzuk hantxe gelditzen dira lehen bezala. Zuen ezagutza pragmatismoari buruz, demagun, hazten ari da une honetan. Geroago, hazkunde horrek zuek aurretik egiazkotzat ukaniko iritzien aldaketa handi samarra inplika lezake. Baina aldaketa horiek mailakakoak izatera dute joera. Jar dezagun adibiderik hurbilena, ematen ari naizen hitzaldiotan erreparatuz. Ziur asko

euretatik lehenbizi hartuko duzuen informazio berri apur bat izanen da, definizio berri gutxi batzuk, edo bereizpen, edo ikuspuntu banaka batzuk. Baina ideia berezi hauek erantsiz doazen bitartean, zuen ezagutzaren gainerakoak hantxe segitzen du; eta alde zuretik iritziak mailaka baino ez dituzue «lerrokatuko» nik sartu nahi dizkizuedan berriekin, eta haien multzoa maila txikian baino ez duzue aldatuko.

Une honetan, segurutik, nire gaitasunarekiko aldeko jarreraz zaudete niri entzuten, eta honek eragina du zuek nik esandakoari egiten diozuen harreran; baina supituki hitzaldia eten eta baritono ahots ederraz «Goizaldera arte ez gara etxeratu» kantatzen hasiko banintz, gertakari berri honek zuen ezagutza gehitu ez ezik, ni oso bestela definitzera behartuko zintuzkete, filosofia pragmatikoaz duzuen iritzia aldatu eta, oro har, zuen ideia batzuen birdoitzea ekarri ahal izanen luke-elarik. Horrelako prozesuetan zuen gogamena presionaturik sentituko da, batzuetan atsekabez, sineste zaharren eta esperientziak ekarritako ideia berrien artean.

Gure adimenak, hartara, guneka hazten dira; eta koipe-guneak bezala, gune horiek ere hedatu egiten dira. Baina ahalik gutxien uzten diegu hedatzen, eta geure ezagutza zaharrari eta aurreiritzi eta sineste zaharrei aldagabe eusten diegu, ahal dugun hein guztian. Adabatu eta sorkitu egiten ditugu, berriztatu baino gehiago. Berriak multzo guztia blaitzen du, tindatu egiten du; baina bera ere xurgatzen duen gaiak ñabarturik gelditzen da. Gure iraganak hauteman eta kooperatu egiten du; eta ikasteko prozesuan aurrerapauso bakoitzak helmuga duen orok gertakari berria, erlatiboki esanda, inoiz edo behin baino ez da eransten *gordinik*. Eskuarki, sukaldean prestatuta, nola-bait esateko, edo antzinakoaren saltsan apailatuta finkatzen da buruan.

Egia berriak, hartara, esperientzia berrien eta batak beste aldatzen duten elkarrekin konbinaturiko egia zaharren emaitza dira. Eta horixe denez gaur egungo iritzi aldaketetan

gertatzen dena, ez dago arrazoirik garai guztietan ere halaxe izan dela ez uste izateko. Honen ondorioz, pentsatzeko era zahar-zaharrek hantxe iraun zezaketen gizakien iritzietan geroago izandako aldaketa guztietan zehar. Baliteke pentsatzekera primitiboena oraindik erabat ezabatu gabe egotea. Gure bost atzamarrak, belarrietako hezurtxoak, buztan-hondakin hasi-masikoa edo ezaugarri ditugun beste «aztarna» ezabaezin batzuk bezala, pentsatzeko era horiek ere gure espeziearen historiako gertaeren erakusgarri gelditzen dira. Baliteke gure arbasoek momentu batzuetan sekula topatzerik bururatuko ez zituzkeen pentsatzeko bideekin topo egin izana. Baina behin aurkitu zituztenean, eta gertaeraz geroztik, herentziak aurrera jarraitzen du. Musika piezaren bat klabe jakin batean hasten denean, azkenera arte eutsi behar izaten zaio klabeari. Guk *ad libitum* alda genezake geure etxea, baina lehenengo arkitektoaren oin-planoak hantxe dirau. Aldaketa handiak egin daitezke, baina eliza gotiko bat tenplu doriko bihurtzerik ez dago. Botila ekin eta ekin garbitu arren, ez diozu guztiz kenduko lehen ukaniko medizinarene edo whiskyaren zaporea.

Nire tesia orain hauxe da: *gauzei buruz ditugun pentsatzekera oinarritzakoak gure arbaso urrunenak buruturiko aurkikundeak direla, geroztiko aldietako esperientzietan barna irautea lortu dutenak*. Oreka fase handi bat osatzen dute giza gogamenaren garapenean, *zentzunaren* fasea. Honen gainean beste etapa batzuk txertatu dira, baina ez dute berau handik kanpora botatzerik lortu. Ikus dezagun lehenbizi zentzunaren fase hau, behin betikoa balitz bezala.

Eguneroko hizkeran, pertsona baten zentzunak zera esan nahi du: haren judizio ona, gehiegikeriatik libre egotea, *tentua*, herri-berba erabilita. Filosofian beste zerbait erabat diferentea esan nahi du; zenbait pentsamendu era edo kategoriaren erabilpena esan nahi du. Otiak edo erleak bagina, agian gure antolaketa esperientziak atzemateko era zeharo ezberdinak erabiltzera eramaten gintuzkeen. *Litekeena* da, halaber, (ezin baitu-

gu dogmatikoki ukatu) gaur egun imajinaezin ditugun kategoria horiek, gure esperientziak adimenean maneiatzeko, erabili darabiltzagunak bezain baliagarriak zirela erakutsi izana.

Norbaitek honi paradoxazkoa baderitzo, pentsa dezala geometria analitikoan. Euklidesek erlazio intrintsekoen bidez definitu zituen irudi berberak Descartesek berauen puntuek kanpoko koordinatuekin dituzten erlazioen bidez definitu zituen, honek kurbak maneiatzeko beste modu erabat ezberdin bat, askoz indartsuagoa, ekarri zuelarik. Gure pentsamolde guztiak alemanek *denkmittel* esaten diotena dira, guk gertakariak berauez pentsatuz erabiltzeko ditugun bitartekoak. Esperientzia, esperientzia bezala soilik, ez zaigu markaturik eta etiketaturik iristen, eta lehenbizi zer den deskubritu behar izaten dugu. Kantek dio ezen, bere lehenengo intentzioan, *gewühl der erscheinungen\** bat, *rhapsodie der wahrnehmungen\** bat dela, geure asmamenaz bateratu behar dugun saskinaski huts bat. Eskuarki egiten duguna zera izaten da, lehenik era intelektualen batean buruz sailkatu, ordenatu edo lotutako kontzeptuen sistemaren bat eratu, eta gero erregistro bat bailitzan erabili aurkezten diren inpresioen «kontrola eramateko». Haietako bakoitza kontzeptu-sistemako toki posibleren batean sartzean, «ulertu» egiten da. «Barietate» (*manifold*) paraleloen nozio hau, euron elementuek elkarrekin «banan-banako erlazioak» dituztelarik, gaur egun matematikan eta logikan hain dela egokia frogatu da, non gero eta gehiago ordeztzen dituen pentsamolde sailkatzaile zaharrak. Mota horretako kontzeptu-sistema asko daude, eta sentsumen-barietatea (*manifold*) ere horrelakoxea da. Kontzeptuen artean geure sentsumen-inpresioentzat *nolabait* banan-banako erlazioaren bat aurkitzen badugu, orduan neurri horrexetan razionalizatzen ditugu inpresioak. Baina, bidezko denez, kontzeptu-sistema diferenteak erabiliz razionaliza ditzakezu.

\* fenomenoen anabasa

\* pertzepzioen rapsodia

Zentzunak razionalizatzeko duen era zaharra kontzeptu mordo baten bidezkoa da, eurotatik inportanteenak hauexek direlarik:

Gauza

Berbera edo diferentea

Generoak

Gogamenak

Gorputzak

Aldi bat

Espazio bat

Subjektuak eta atributuak

Eragin kausalak

Iruditurikoa

Erreala

Hain ohiko dugu orain nozio hauek gure pertzepzioen aterrunerik gabeko eguraldiaren erdian ehundu diguten ordena, non zail egiten zaigun ohartzen zein eskas loturik dauden pertzepzioak, beren baitan ikusita, ohitura finkoren bati. Eguraldi hitza egokia da hemen erabiltzeko. Bostonen, adibidez, eguraldia ia inoiz ere ez dabil ohiturari jarrai eta arau bakarra da, egun bitan eguraldi mota bat egin badu, hirugarrenean segurutik baina ez ziur beste eguraldi mota bat egitea. Hartara, eguraldiaren esperientzia, Bostonen gertatzen dena kontuan hartuta, jarraitasunik gabea eta kaotikoa da. Temperatura, haizea, euria eta eguzkia egunean hirutan alda *daitezke*; baina Washingtongo eguraldi-behategiak intelektuallizatu egiten du desordena hau, Bostongo eguraldiaren tarte bakoitza *episodiko* bihurtuz. Zikloi kontinental batean duen posizio eta unearekin erlazioan jartzen du, haren historian tokian tokiko aldaketak kordatuta daudelarik edonon, garauak kordelean bezala.



Orain, ia gauza ziurra dela dirudi haur txikiek eta behe-abereek bostondar informatu gabeek eguraldia bezalaxe hartzen dutela euren esperientzia. Ez dakite gehiagorik denbora eta espazioaz, munduaren errezeptakuluak direnez, edo subjektu iraunkorrez eta predikatu aldakorrez, edo kausez, edo pentsamenduez, edo gauzez, jende arruntak zikloi kontinentalez dakien baino. Seintxoari txintxirrina eskutik jausi arren, haurtxoa ez da haren bila hasten. Seinarentzat «joan egin da», kandela argia doan moduan.; eta itzuli egiten da, berriro eskuan jartzen diozunean, argia berriro piztean itzultzen den moduan. Ez zaio bururatu, bistan da, txintxirrina «gauza» bat dela, berak haren agerkizunen artean ere berezko existentzia tarteka diezaiokeena. Gauza bera gertatzen zaie txakurrei ere. Gauzak haien bistatik kenduz gero, burutik ere kenduta. Oso begi-bistakoa da ez dutela «gauzak» interpolatzeko *joera orokorrik*. Utz iezadazue, honen inguruan, G. Santayana nire kidearen liburutik aipu bat egiten:

«Txakur batek, han eta hemen usnaka pozik dabilela, kanpotik luzaro izan den ugazaba berriro datorrela ikusten badu, ... abere koitaduak ez du arrazoi bila galdetuko zergatik alde egin zuen, zergatik datorren berriro, berak zergatik maite ukan behar duen, edo zergatik, orain haren oinetan etzanik dagoen bitartean, ugazaba, bera ahantzita, marmarka batean ehizaz amesten hasten den. Hau erabateko misterioa da, erabat oharkabe pasatzen zaion zerbait. Esperientzia hau ezberdina da, bere eszenatokia eta bizi-erritmoa ditu; eta beronen historia neurtitz ditiranbikoetan konta daiteke. Inspirazioak soilik mugitzen du; gertaera guztiak probidentzialak dira, ekintza guztiak alde aurretik pentsatu gabekoak. Erabateko askatasunak eta erabateko desbabesak egiten dute bat esperientzia honetan; Jainkoaren mesedearen mende zaude erabat, eragile (*agency*) aztergaitz hau norbere bizitzatik bereiztezina bada ere... [Baina] drama desordenatu honetako figurek ere beren irteerak eta beren sarrerak dituzte; eta euron gakoak mailaka

deskubri ditzake bere arreta tinkatu eta gertaeren ordena buruan atxikitzeko gai den izakiak... Ulertze honek aurrera egin ahala, esperientziaren une bakoitza gainerakoaren ondorio eta profezia bilakatzen da. Bizitzako une lasaiak indarrez betetzen dira eta beroaldiak baliabidez. Ez dago emoziorik gogamenaz jabe daitekeenik, zeren beraietako batek ere ez baitu bere oinarria edo zergatia guztiz estalduta; eta ezein gertaerak ezin aztora dezake erabat, beti ere haratago ikusten due-lako. Bitartekoak bila daitezke larrialdi estuenetik ihes egiteko; eta une bakoitzak lehenengotan bere abentura eta ezuste-koaren emozioa baino ukan ez badu ere, orain lekua uzten dio lehenago jazotakoaren lezioari, eta esperientzia osoaren bilbea zein izan daitekeen sumatzen du».<sup>1</sup>

Egungo zientzia eta filosofia ere lantsu ari dira oraindik gure esperientzian fantasiak errealitateetatik apartatu nahian; eta antzinako garaietan, hasiera-hasierako bereizpenak baino ez zituzten egin honetan. Gizakiek biziro pentsatzen zuten guztia sinesten zuten eta beren ametsak errealitatearekin bereiztezinki nahasten zituzten. «Pentsamendua» eta «gauzak» ezinbesteko kategoriak dira hemen: errealitateak izan beharrean, orain guk zenbait esperientziari «pentsamenduak» esaten diegu. Ez dago kategoriarik, zerrendaturikoen artean, bere erabilera historikoki sortutzat eta gero apurka-apurka zabaldutzat jo ezin genezakeenik.

Denok sinesten dugun Denbora bakar hori, non gertaera bakoitzak bere data zehatza duen, Espazio bakar hori, non gauza bakoitzak bere kokagunea duen, mundua era paregabe-an batzen duten nozio abstraktuak dira, baina kontzeptu bukatu gisa duten forman zein diferenteak diren gizaki primitiboen denbora-espazioen esperientzia sakabanatu eta desordenatuetatik! Gertatzen zaigun gauza bakoitzak bere iraupena eta hedadura dauzka, eta biok daude hurrengo datorren gauzaren iraupen eta hedadurara doan alboko «gehiago» batek lanbro-tsuki inguratuta. Baina, hala ere, laster galtzen ditugu geure

lotura zehatz guztiak; eta gure hurrek atzoko eta herenegun-  
go egunaren artean bereizpenik egiten ez badute, iragan guztia  
nahasiz, helduok ere gauza bera egiten dugu denbora tarte  
luzeagoetan. Gauza bera gertatzen da espazioei dagokienez  
ere. Mapa batean argi ikus dezaket Londres, Konstantinopla  
eta Pekinen erlazioa ni nagoen tokiarekin, nahiz eta erabat falta  
zaidan mapak sinbolizatzen dituen gertakariak «*sentitzea*».  
Norabideak eta distantziak zehaztugabeak, lanbrotsuak eta  
nahasiak dira. Espazio kosmikoa eta denbora kosmikoa Kantek  
esandako intuizioak izatetik urrun, zientziak erakuts dezakeen  
beste edozein eraiketa bezain nabariki artifizialak dira. Gizaki  
gehien-gehienek ez dituzte sekula erabiltzen nozio hauek, den-  
bora eta espazio anitzetan, elkarlotu eta *durcheinander*-etan\*,  
bizi baitira.

«Gauza» iraunkorrak berriro; gauza «bera» eta bere  
«itxura» eta «aldaketak», gauzaren «genero» ezberdinak,  
«generoa» azkenean «predikatu» moduan erabilia eta gauza  
beronen «subjektu» gisa geratuta; gure esperientziaren bereha-  
lako jarioaren eta barietate sentigarriaren a zelako atonketa ira-  
dokitzen duen berbon zerrendak! Eta bere esperientziaren  
jarioaren parterik txikiena baino ez da nornahik atontzen  
duena beroni tresna kontzeptualok aplikatuz. Beraietatik apar-  
te, gure arbaso beherenek seguru asko ez zuten «berbera berri-  
ro» adierazten duen nozioa besterik erabili, eta berau ere era  
zehaztugabe eta desagokian. Baina, orduan ere, galdetu izan  
balitzaie ea «berbera» beraiek ikusi gabeko tartean ere izaten  
iraundako «gauza» zen, noraezean aurkituko ziratekeen, eta  
segur aski inoiz ez ziotela euren buruari galdetu, ezta gaia  
ikuspuntu horretatik planteatu ere erantzunen zuketen.

Generoak, genero berberatasuna, zein *denkmittel* ezin  
baliagarriagoa, aniztasunaren artetik geure bidea aurkitzeko!  
Burugarria da aniztasuna absolutua izan zitekeela.  
Esperientziak singularrak izan zitezkeen, bakoitza birritan ezin

\* nahastekatuetan

gertatua. Horrelako munduan logikak ez zukeen aplikaziorik, zeren generoa eta genero berberatasuna logikaren tresnak besterik ez baitira. Behin jakinez gero genero batena dena genero horren generoarena ere badela, unibertso guztian zehar ibil gaitezke zazpi legoako botekin bezala. Abereek, ziur, ez dute sekula horrelako abstrakziorik erabiltzen eta gizaki zibilizatuek oso neurri ezberdinetan erabiltzen dituzte.

Berriro ere eragin kausala! Honexek bai dirudiena, ezerk badirudi, uholdeaurreko kontzepzioa; izan ere, gizaki primitiboen artean aurkitzen dugu uste dutela ia edozerk duela esanahia eta nolako edo halako eragina izan lezakeela. Eragin zehatzagoak bilatzen badirudi honako galdera honekin hasi izan dela: «Nori, edo zeri, egotzi behar zaio errua?», hau da, edozein gaixotasun, hondamendi edo ezbeharren errua. Erdigune honexetatik zabaldu da eragin kausalen bilaketa. Hume eta «Zientzia», biak batera, eraginaren nozioa erabat deuseztatzen ahalegindu dira, «legearen» *denkmittel* zeharo ezberdinaz ordeztuz. Baina legea asmakizun erlatiboki oraintsukoa dugu, eta eragina nagusi goren da zentzunaren erresuma zaharrean.

«Litekeena», erreala baino zerbait gutxiago eta erabat irrealia baino zerbait gehiago dena, zentzunaren nozio bikain horietako beste bat da. Erruki gabe kritikatu arren, nozio horiek iraun egiten dute; eta presio kritikoa laxatzean, berriro euretara jotzen dugu. «Norbera», «gorputza», zentzu substantzial edo metafisikoan; nozio horietako batek ere ez die ihes egiten pentsamendu era *horiei*. Praktikan zentzunaren *denkmittel*ak etengabe ateratzen dira garaile. Gizaki orok, eskolatua izan arren, oraindik ere zentzunaren eran pentsatzen du edozein «gauzaz», hau da, bere atributuak trukagarritasunez «sostengatzen» dituen unitate-subjektu iraunkor gisa. Inork ez du zintzo eta tinko erabiltzen lege baten bidez elkarturiko sentsumen-nolakotasunen multzo baten nozio kritikoagoa. Kategorioek eskuan, planak egiten ditugu eta asmaketan ibiltzen gara

era berean, eta esperientziaren zatirik urrunenak begien aurrean ditugunarekin lotzen ditugu. Gure azken filosofia kritikoenak moda eta fantasia hutsak besterik ez dira pentsamenduaren ama-hizkuntza honen aldean.

Zentzuna, hartara, gure gauzen ulertzean fase zehatz-zehatz bat legez agertzen da, pentsatzean ditugun xedeei sekulako arrakastaz erantzuten dien fasea delarik. «Gauzak» existitu egiten dira, ikusten ez ditugunean ere. Euron «generoak» ere existitu egiten dira. Euron «nolakotasunen» bidez hain zuzen jarduten dute, eta guk berauen gainean jarduten dugu; eta hauek ere existitu egiten dira. Areto honetako lanparek beren argi-nolakotasunak hedatzen dituzte bertan dauden objektu guztietara. Eta guk *hari* ez diogu pasatzen uzten pantaila opako bat tartean jartzen diogun bakoitzean. Nire ezpainen jaulkitzen duten soinua bera da zuen belarri barruetaraino bidaiari doana. Suaren berotasun sentigarria bera da uretara migrari doana, ur horretan arrautza egosten ari garenean; eta berotasuna hoztasun bihur genezake ur horretara izotz zati bat botata. Europatik kanpoko gizaki guztiek, salbuespenik gabe, filosofiaren fase honexetan iraun dute. Bizitzako xede praktikoa guztietarako nahikoa da; eta gure arrazakoen beren artean ere, tipo sofistikatuak bakarrik, —jakintzak okerturiko adimenak, Berkeleyk izendatzen dituen bezala— dira zentzuna erabat egiazkoa ez izateaz susmagarritzat jo dutenak.

Baina atzera begiratu eta zentzunaren kategoriek beren nagusitasun mirezgarria nola erdietsi duten pentsatzen jartzen garenean, ez da agertzen arrazoirik esateko ezin gerta zitekeela hori Demokrito, Berkeley edo Darwinen ikusmoldeek oraintsuagoko garaietan antzeko garaipenak lortzeko ukan zuten modu-moduko prozesu baten bidez. Bestela esanda, historiaurreko jeinuek arrakastaz *deskubriturikoak* izan zitezkeen, beraien izenak antzinateko gauak zeharo estali zituelarik; kategoriok lehenbizi moldatu zitzaizkien esperientziako gertakari gertukoek egiaztatuak izan zitezkeen; eta gero gertakaritik ger-

takarira eta pertsonarengandik pertsonarengana *heda* zitezkeen, harik eta hizkuntza guztia eurretan oinarritu arte, halatan, non orain gu ez garen gai beste termino batzuetan modu naturalean pentsatzeko. Ikuspegi honek beste kasu batzuetan hain emankor agertu den arauari jarraitu besterik ez lioke eginen, handia eta urrunekoa txikian eta hurbilekoan jarduten ikus ditzakegun eratze legeetara egokitzen direla onartzen duen arauari alegia.

Ikusmolde hauek aski dira sobera ere xede utilitario praktikoko guztietarako. Baina frogaturik dagoela dirudi, berauen aplikazioak gaur egun dituen mugak dudazkoegiak direlako, puntu partikularretan hasi zirela deskubrimenduak egiten eta gero poliki-poliki hedatu zirela gauza batetik bestera. Zenbait xedetarako, Denbora «objektiboa», zeina *aequabiliter fluit*, onartzen dugu, baina ez dugu biziki sinesten edo ez gara ohartzen jario uniformea duen denboraz. «Espazioa» ez da hain nozio lanbrotsua; baina «gauzak», zer ditugu? Gauza bat al da konstelazio bat, edo armada bat? Edo gauza bat al da justizia edo espazioa bezalako *ens rationis* bat? Labana «bera» al da asta eta ahoa aldatu dizkioguna? Giza «generokoa» ote da «ergela», Locke hain serioski eztabaidan jarri zuena? «Fantasia» ala «gertakaria» al da «telepatia»? Kategoria hauen erabilera praktikotik harago joanik (kasu berezi bakoitzaren zirkunstantziek behar bezainbatean iradoki ohi duten erabilera berau) jakin-minezko edo espekulaziozko pentsatzeko erara pasatzen garenean, konturatzen gara ezin esan dugula zein gertakari-muga barruan zehazki aplikatu behar den kategoria horietako edozein.

Filosofia peripatetikoa, joera razionalistei men eginda, zentzunaren kategoriak betikotzen saiatu da kategorioik oso era tekniko eta artikulatuan tratatuz. «Gauza», esate baterako, izaki bat, *ens* bat da. *Ens* bat nolakotasunak «datxezkion» subjektu bat da. Subjektu bat substantzia bat da. Substantziak generoeta-koak dira; eta generoak kopuruan mugatuak dira, eta diskretuak. Bereizpen hauek oinarrizkoak eta betierekoak dira. *Diskurtso*

termino gisa benetan ere ezin baliagarriagoak dira, baina, gure diskurtsoa probetxuzko emaitzak ateratzera bideratzetik aparte, ez zaie esan-nahirik aurkitzen. Filosofo eskolastiko bati galde-tzen badiogu substantzia bat bere baitan, atributuen euskarria izatez gain, zer izan daitekeen, gure adimenak badakiela berba horrek zer esan nahi duen besterik ez digu hark erantzunen.

Baina endelguak berba eta beronen funtzio bideratzailea besterik ez daki argi. Eta jazo dena da *sibi permissi* diren adimenek, ikusgura eta alferkeria baino ez duten adimenek zentzunaren maila utzi eta hitz orokorretan pentsamenduaren maila «kritikoa» esan dakiokena hartu dutela. Ez bakarrik *horrelako* enelegua dutenei —Hume, Berkeley eta Hegel bezalakoei-, baizik gertakari-behatzaile praktikoei —Galileo, Dalton, Faraday bezalakoei— ezinezko egin zaie zentzunaren sentsumen-termino *naifekin* azken batean erreala den zerbait bezala jokatzea. Zentzunak gure etenkako sentipenen artean bere «gauza» iraunkorrak interpolatzen dituen bezala, halaxe zientziak ere bere nolakotasun «primarioak», bere atomoak, bere eterra, bere eremu magnetikoa, eta horretarikoak, *estrapolatzen* ditu zentzunaren mundutik haratago. «Gauzak», hartara, gauza ikusgaitz eta ukiezin bihurtzen dira, eta suposatzen da zentzunaren gauza ikusgarri zaharrak ikusgaitz horien nahastearen emaitza direla. Edo bestela esanda, gauzaren ikusmolde *naif* guztia baliogabetu egiten da eta gauza baten izena gure zenbait sentipen eskuarki elkarren ondoren edo elkarrekin izatea egiten duen legea edo *regel der verbindung* [elkarketa araua] soilik denotatuz bezala interpretatzen da.

Zientziak eta filosofia kritikoak, horrela, goitik behera botatzen dituzte zentzunaren mugak. Zientziarekin errealismo *naifa* bukatu egiten da: nolakotasun «sekundarioak» irreal bihurtzen dira; primarioak bakarrik gelditzen dira. Filosofia kritikoaz triskantzak egiten dira alde guztietan. Zentzunaren kategoriek erabat uzten diote gauzak *izaki* gisa irudikatzeari; giza pentsamenduaren goi trikimailuak baino ez dira, sentipe-

nen jario geldiezinaren erdian nahasmenduari ihes egiteko ditugun bitartekoak.

Baina pentsamendu kritikoko joera zientifikoak, nahiz eta hasieran motibo intelektual hutsek bultzatua izan, baliabide praktikoaren eremu erabat susmagabea zabaldu die gure begi harrituei. Galileori erloju zehatzak eta artilleriaren praktikan doitasuna zor dizkiogu; kimikariek medizina berriz eta tindagaiz gainezka jartzen gaituzte; Ampère eta Faradayri New Yorkeko metroa zor diegu, eta Marconiri telegramak. Gizon hauek asmatu dituzten gauza hipotetikoak, eurek definitu dituzten moduan definituta, emankortasun miresgarria erakusten ari dira sentsumenek egiaztatzeko moduko ondorioetan. Gure logikak eurentatik ondorio egokia atera dezake zenbait baldintzaren pean; gero baldintza horiek sor ditzakegu, eta ondorio hori laster ukanen dugu begien aurrean. Bitarteko zientifikoek eskuetan jarri diguten naturaren kontrol praktikorearen helmena zentzunean oinarrituriko lehengo kontrolarena baino askoz handiagoa da. Beronen hazkunde erritmoa hainbestean azkartu da, non ez dagoen jakiterik muga non duen; areago, beldur izan gaitezke gizakiaren ahalmenek bere *existentzia* suntsi ez ote dezaketen, organismo gisa duen izaera ez ote den izanaren egokia bere adimenak maneiatzeko gero eta gaituago egin duen funtzio egunez egun itzelagoen, funtzio sortzaile ia jainkotiarren presioari eusteko. Bere aberastasunean itotzera ere hel liteke, bainuontziko txorrota ireki eta gero itxi ezin duen haurra bezala.

Kritizismoaren etapa filosofikoak, zientifikoa baino askoz zehatzagoa ukapenetan berau, ez digu eman gaur arte botere praktikoaren domeinu modu berririk. Locke, Hume, Berkeley Kant, Hegel erabat antzuak izan dira denak naturaren xehetasunei buruz argi izpiren bat ekartzeari dagokionez; eta ez dut ezagutzen asmakizun ez deskubrimendurik berauen pentsamenduko ezeri zuzenean egotz dakiokeenik, zeren ez Berkeleyren galipot-urak ez Kanten hipotesi nebularrak ez bai-



tute inolako zerikusirik beraien printzipio filosofikoekin. Jarraitzaileei eskaintzen dizkien poztasunak intelektualak dira, ez praktikoak; eta honetan ere, aitortu behar dugu badutela alderdi negatibo handi bat kontuak egin orduan.

Badira, bada, bizi garen munduari buruz hiru pentsamendu maila, fase edo tipo bederen, ongi bereiziak; eta fase bateko nozioek merezimendu mota bat dute eta bestekoek beste bat. Ez dago esaterik, hala ere, fase bat, gaur arte ikusita, beste edozein baino *egiazkoagoa* denik. Zentzuna faserik *finkatuena* da, lehenbiziko txanda egokitu zitzaiolako eta hizkuntza guztia bere alde jarri zuelako. Berau ala zientzia den faserik *gorena*, hori norberaren iritzira utz daiteke. Baina fin-kotasuna eta gorentasuna ez bata ez bestea ez dira egiaren ezaugarri erabakiorrak. Zentzuna egiazkoa balitz, zientziak zergatik jo behar izan zituen faltsutzat nolakotasun sekundarioak, zeintzuei gure munduak bere interes bizi guztia zor dien, eta berauen ordeztatu eta kurba eta ekuazio matematikodun mundu ikusezina asmatu? Zertarako bihurtu behar izan zituen kausak eta jarduerak «aldakuntza funtzionaleko» lege? Eskolastizismoa, zentzunaren anaia txiki eta eskolatua, alferrik saiatu zen giza familiak betitik erabili izan dituen mintzamoldeak estereotipatzen, zehatz eta finko bihurtu nahian denak betikotasun guztirako. Forma substantzialek (gure nolakotasun sekundarioak, bestela esanda) nekez iraun zuten gure Jaunaren 1600. urteaz geroztik. Jendea horiez nazkatuta zegoen; eta Galileok eta Descartesek, euren «filosofia berriaz», apurtxo bat geroxeago, euren *coup de grâce* eman zieten.

Baina, orain, baldin zientzi «gauza» mota berriak, mundu korpuskular eta eterrezkoa, esentzialki «egiazkoagoak» balira, zergatik sortarazi behar izan zuten hainbeste kritika zientzialarien euren elkartearen baitan? Logikari zientifikoak batean eta bestean esaten ari dira entitate horiek eta beraien determinazioak, zehazki bururatuak izan arren, ez direla hartu behar literal-ki errealtzat. Existituko *balira bezala* da; baina, izatez, koordi-

natuak edo logaritmoak bezalakoak dira; lasterbide artifizialak baino ez dira, esperientziaren jarioaren alde batetik bestera garamatzatenak. Beraiez baliaturik, emankorki kalkula genezake; sekulako emendioa egiten digute, baina ez gaitezke haien engainupean eror.

Ezin da *hots handiko* konklusiorik erdietsi pentsamendu mota hauek absolutuki egiazkoago eurotako zein den erabakitzeko ideiarekin alderatzen ditugunean. Beraien naturaltasuna, beraien ekonomia intelektuala, praktikarako duten emankortasuna, beraien egitasunaren proba argi gisa ezartzen da guztia, eta, ondorioz, nahasi egiten gara. Zentzuna da *hobea* bizitzako eremu batzuetarako, zientzia beste batzuetarako, kritika filosofikoa beste batzuetarako; baina absolutuki *egiazkoagoa* zein den, hori Goikoak bakarrik daki. Gaur egun hain zuzen, auzia ongi ulertzen badut, ikusten ari gara atzera goazela natura fisikoa begiratzeko zentzunak dituen eretara, Mach, Ostwald eta Duhem bezalako jendeak aldeztzen duten zientziaren filosofian. Irakasle hauen arabera, hipotesi bat ere ez da bestea baino egiazkoagoa errealitatearen kopia literalagoa izatearen zentzuan. Guztiak ere geure aldetik berba egiteko erak baino ez dira, beraien *erabileraren* ikuspuntutik soilik erkagarriak. Literalki egiazkoa den gauza bakarra *errealitatea* da; eta guk ezagutzen dugun errealitate bakarra, logikari hauen arabera, errealitate sentigarria da, geure sentipen eta emozioen jarioa iragan ahala. «Energia», Ostwalden arabera, sentipenei —aurkezten diren bezalaxe (higidura, berotasuna, bultzada magnetikoa, argia edo beste edozer)—, era jakin batean neurtzen direnean, ematen zaien izen kolektiboa da. Horrela neurtuta, gai gara erakusten dizkiguten aldaketa korrelatiboak deskribatzeko, sinpletasunagatik eta gizakion erabilerarako duten emankortasunagatik paregabeak diren formulen bidez. Pentsamenduaren ekonomiaren sekulako garaipenak dira izan ere.

Inork ere ezin du miretsi gabe utzi filosofia «energetikoa». Baina, beronen tira handia den arren, entitate hipersenti-

berek, korpuskuluek eta bibrazioek indarrean segitzen dute fisikari eta kimikari gehienentzat. Ekonomikoegia ematen du, denerako balio izateko. Ugaritasuna, eta ez ekonomia, izan daiteke, izan ere, azken batean errealitatearen giltzarria.

Oso gai teknikoez ari naiz hemen, herri-hitzaldi baterako egokiak ez gutxiagorik ere ez direnez, eta nire gaitasuna eurotan txikia delarik gainera. Askoz hobeto, hala ere, nire konklusiorako, hona helduta hauxe baita: guk era naturalean eta hausnarketarik gabe onartzen dugun egiaren nozio guztia, hots, egia errealitate jakin eta aurrefabrikatu baten bikoizketa hutsa dela baieztatzen duena, zaila dela argi ulertzen. Ez daukagu irizpide xumerik, egia berentzat galdatzen duten pentsamendu mota ezberdinen artean zeini eratxiki berehala erabakitzeko balio duenik. Zentzuna, zientzia komuna edo filosofia korpuskularra, zientzia ultrakritikoa edo energetikoa eta filosofia kritikoa edo idealista, horiek denek ematen dute behar bezain egiazkoak ez direla zenbait alderditan, eta ez gaituzte guztiz betetzen. Bistakoa da hain diferenteak diren sistema hauen arteko gatazkak egiaren ideia berraztertzer behartzen gaituela, zeren une honetan ez dakigu ideia zehatzez munduaren esan-nahia zein den. Hurrengo hitzaldian emanen diot branka zeregin honi eta, hargatik, orain hitz gutxi batzuk erranen ditut oraingoa amaitzeko.

Puntu bi soilik nahi nuke nik zuek hitzaldi honetatik gogoan atxikitzea. Lehenengoa zentzunari dagokio. Ikusi dugu badela arrazoirik susmatzeko ezen, nahiz eta hain beneragarria hain unibertsalki erabilia eta hizkuntzaren egituran bertan txertatua izan, balitekeela beronen kategoriak, azken batean, oso hipotesi emankorren (historikoki aurkituak edo gizabanako zenbaitek asmatuak, baina poliki-poliki denei komunikatu eta denek erabiliak) bilduma besterik ez izatea, zeintzuen bidez gure arbasoek, sekuladaniko garaietatik, gure gertuko esperientziaren jarraitasunik eza bateratu eta artikulatu baitute eta naturaren azalerarekin hain oreka onargarrian jarri baitira xede

arrunt praktikoetarako, non betiko iraunen zuketen, dudarik gabe, baldin Demokrito, Arkimedes, Galileo, Berkeley eta berauen etsenpluak suturiko beste jeinu aldrebes batzuen gehiegizko bizitasun intelektualagatik izan ez balitz. Atxiki, otoi, gogoan susmo hau zentzunari buruz.

Beste puntua honako hau da: aztertu ditugun bezalako pentsatzeko era ezberdinak izateak —bakoitza hain berebizikoa, gainera, xede jakin batzuetarako, baina denak gatazkakorak, hala ere, euretako bat ere gai izan gabe beretzat galdatzen duen egiazkotasuna justifikatzeko— ez ote luke sortu behar ikuspegi pragmatikoaren aldeko presuntzioa, hau da, gure teoria guztiek, errebelazioak edo jainko-eraginez eraturiko enigma kosmikoren bati emandako erantzun gnostikoak izan beharrean, izaera *instrumentala* dutela, errealitatera *egokitze*ko era mentalak direla dioen ikuspegiaren aldekoa? Ikuspegi hau bigarren hitzaldian adierazi nuen ahal bezain argi. Zalantzarik gabe, oraingo egoera teorikoaren egonezinak, pentsamendu maila bakoitzak zenbait xedetarako duen balioak eta, bestalde, besteak erabat kanpoan uzteko denek duten ezgaitasunak ikuspegi pragmatiko horixe seinalatzen dute, eta hurrengo hitzaldietan erabat konbentzigarri bihurtuko dela espero dut. Ez al da posible azken batean egiak bere baitan anbiguotasuna edukitzea?

# SEIGARREN HITZALDIA

## PRAGMATISMOAK EGIARI BURUZ

### DUEN IKUSMOLDEA

Clerk-Maxwellek, haurra zela, edozer azal ziezaioten eskatzeko mania omen zuen, eta norbaitek, fenomenoren bati buruz hitz lanbrotsuz ari zela, nekarazten zuenean, haren jarioa eten eta esaten omen zion: «Bai, baina nik *horrek* zehazki nora *garamatzan* esan diezadazun nahi dut!». Galdera hori egiari buruz egin izan balu, pragmatista batek bakarrik erantzun ahal izanen ziokeen zehazki nora *garamatzan*. Uste dut gaur egungo pragmatistek, bereziki Schiller eta Dewey jaunek, eman dutela gai honi buruz azalpen aldezgarri bakarra. Gai korapilatsua da oso, zokondo guztietatik zehar abartzen dena eta hitzaldi bati dagokion era eskematikoan jorratzeko zaila. Baina Schiller eta Deweyk egiaz duten ikuspegiak hain eraso basatiak jaso ditu filosofo razionalistengandik, eta hain nardagarriro gaizki ulertua izan da, non puntu honexen inguruan, inon egitekotan, egin beharko litzatekeen azalpen argi eta xume bat.

Esperantza osoa dut pragmatismoak egiari buruz duen ikuspegia edozein teoriaren ibilbidearen etapa klasiko guztiak egiten ikusteko. Hasieran, badakizue, teoria berria absurdutzat joz erasotzen da; gero egia dela onartzen da, baina egia bidezkoa eta esangurarik gabekoa; azkenean, inportantea dela ikus-

ten da, hainbestearaino, non etsaiek berek deskubritu dutela aldarrikatzen baitute. Egiari buruzko gure doktrina une hone-tan lehenengo etapan dago, giro batzuetan bigarreanean ere hasia ote den sintomekin. Hitzaldi honek, zuetariko askoren ikusirako, doktrina hau lehenengo etapatik harago jartzen laguntzea nahi nuke.

Egia, edozein hiztegik erranen dizuen moduan, gure zenbait ideiaren propietatea da. «Errealitatearekin» duen «adostasuna» esan nahi du, faltsutasunak harekiko «desadosta-suna» esan nahi duen legetxe. Hala pragmatistek nola intelek-tualistek onartzen dute definizio hau gauza arrunt bezala. Baina matrakan hasten dira honako galdera hau sortu bezain laster, alegia, ea zer esan nahi duen «adostasuna» terminoak eta zer «errealitatea» terminoak, errealitatea gure ideiak bera-rekin ados etorri beharreko elementutzat hartzen denean.

Galdera hauei erantzutean pragmatistak analitikoagoak eta arduratsuagoak dira; intelektualistak, ordea, zirta-zirta han-diagokoak eta arinagoak. Noziorik onartuena da egiazko ideiak bere errealitatea kopiatu behar duela. Beste ikuspegi onartu batzuek bezala, honek ere esperientziarik ohikoenaren analogiari jarraitzen dio. Gauza sentigarrien egiazko ideiek, dudarik gabe, haiek kopiatzen dituzte. Begiak itxi eta hango horma-erloju hartaz pentsatzen hasten bazarete, beraren esfe-raren egiazko irudia edo kopia doi-doia zeuenganatuko duzue. Baina haren «ibileraz» duzuen ideia (erlojugileak ez bazarete behintzat) kopia izatetik urrun dago, kopiatzat hartzen bada ere, errealitatearekin inola ere kontrastatzen ez delako. Eta «dabil» berba hutsarekiko uzkur izan arren, hitz honek benetan balioko lizueke; eta erlojuaren «ordu-markatzeko» zereginaz edo haren malgukien zalutasunaz mintzo zaretenean, zaila da zehazki ikustea zeren kopiak diren zuen ideiak.

Ohartzen zarete hemen dagoen arazoaz. Gure ideiek beren objektua zehazki kopiatu ezin dutenean, zer esan nahi du, orduan, objektu horrekiko adostasunak? Badirudi idealista

zenbaitek diotela gure ideiak egiazkoak direla Jainkoaren uste-tan guk objektu horri buruz pentsatu behar genuena direnean. Beste batzuek absolutuki eusten diote kopiaren teoriari, eta aditzera ematen dute gure ideiek egia Absolutuaren betiereko pentsatzeko erara hurbiltzen diren hein berean dutela egia.

Ikusmolde hauek, dakusazuenez, eztabaida pragmatista-ra gonbidatzen dute. Baina intelektualisten suposizio nagusia egia funtsean erlazio inerte estatiko batean datzala da. Hau da, haien arabera, zerbaiten egiazko ideia egitea lortzen dugunean, bukatu da kontua. Zerbaiten jabe gara, *badakigu*, bete dugu geure pentsamenduaren xedea. Mentalki egon behar ginen tokian gaude; geure agindu kategorikoari men egin diogu; eta ez dugu geure xede razionalaren burutzapenetik harago joan beharrik. Epistemologikoki oreka egonkorrean gaude.

Pragmatismoak, beste alde batetik, bere ohiko galdera egiten du. «Demagun ideia edo sineste bat egiazkoa dela» —dio— «zer alde zehatz suposatzen du gizabanako baten bizitza errealean hura egiazkoa izateak? Nola gauzatuko da egia? Zein esperientzia izanen dira sinestea faltsua balitz sortuko liratekeenetatik diferenteak? Labur esanda, zer balio efektibo du egia esperientzia terminoetan?».

Pragmatismoak galdera hau egiten duen une berean, badakusa erantzuna: *Egiazko ideiak asimila, baliozta, berro-nets eta egiazta ditzakegunak dira. Ideia faltsuak horiek egiteko modurik uzten ez digutenak dira*. Horixe da egiazko ideiak edukitzeak dakarkigun diferentzia praktikoa; horixe da, beraz, egiaren esan-nahia, zeren horrexekiko erlazioa baita egiaz eza-gutzen dugun guztia.

Hauxe da defendatu behar dudana tesia. Ideia baten egia ez da berari datzekion propietate geldia bat. Egia *gertatu* egiten zaio ideiari. Egiazko *bihurtzen* da, gertaerek egiazko *egiten* dute. Ideiaren egiatasuna gertaera bat, prozesu bat *da*, izatez: bere burua egiaztatzeko prozesua, bere egiaztapena. Ideiaren baliozkotasuna bere balioztatzearen prozesua da.

Baina zer esan nahi dute pragmatikoki egiaztapenak eta balioztatzeak? Lehengora goaz berriro: egiaztatu eta balioztatuturiko ideiaren zenbait ondoren praktiko esan nahi dute. Zaila da aurkitzen ondoren horiek karakterizatzeko esamolde egoikiagorik, ohiko adostasun formula baino, zeren ondoren horiek baitira gogoan ditugunak gure ideiak errealitatearekin «ados daudela» esaten dugunean. Ideiek, bultzatzen dituzten ekintzen eta beste ideien bidez, esperientziaren beste sektore batzuetarantz edo batzuetaraino gidatzen gaituzte, zeintzuekin jatorrizko ideiak adostasunean daudela sentitzen baitugu, geure ahalmenen artean dagoen sentimendua berau. Loturak eta iragapenak puntuz puntu heltzen zaizkigu, era hazkor, harmoniatsu eta onargarrian. Eta adostasunezko gidatze eginkizun haxe da ideiaren egiaztapena aipatzean esan nahi duguna. Azalpen hau lanbrotsua da eta lehenengotan erabat nabaria ematen du, baina hitzaldi honetan gelditzen zaidan denbora beharko dut beronen emaitzak azaltzeko.

Has nadin guztioi gogoraraziz egiazko pentsamenduak edukitzeak ekintza tresna estimagaitzak edukitzea esan nahi duela nonahi, eta egia erdiesteko daukagun eginbeharra, zeruaren agindu huts bat edo gure adimenak bere buruari inposaturiko «trikimailu» bat izatetik urrun, arrazoi praktiko bikainez azal daitekeela.

Gertakarizko arazoei buruz egiazko sinesteak ukateak giza bizitzarako duen garrantzia nabariegia da. Amaigabeki baliagarriak edo amaigabeki kaltegarriak izan daitezkeen errealitateen munduan bizi gara. Errealitate hauetako zein espero daitekeen dioskuten ideiak egiazko ideiatzat daude oinarritzko egiaztapen eremu honetan guztian, eta ideia horiei jarraitzea oinarritzko giza eginbeharra da. Egiaren jabe izatea, berez xede bat izatetik urrun kasu honetan, alde zurreko bitarteko bat da beste bizi-gozamen batzuetarako. Basoan galduta eta goseak hilda banago eta abelbide bat dirudiena topatzen badut, bide horren amaieran giza bizilekuren bat egon daitekeela pentsa-



tzea garrantzirik handieneko kontua izanen da niretzat, zeren horrela egin eta bide horri jarraitzen badiot, salbatu egingen naiz eta. Egiazko pentsamendua baliagarria da kasu honetan, beronen objektua den etxea baliagarria delako. Egiazko ideiei balio praktikoa, beraz, beraien objektuek guretzat duten garrantzi praktikotik datorkie nagusiki. Beraien objektuak, egia da, ez dira une orotan inportanteak. Beste egoera batean, baliteke etxeak niretzat inolako baliagarritasunik ez edukitzea; eta orduan hartaz dudana ideia, egiaztagarria izan arren, praktikarako garrantzirik gabea izanen da, eta estarian gelditzea komeniko da. Hala ere, ia objektu oro noizbait, hala gertatuz, garrantzitsu bilaka daitekeenez gero, bistakoa da egia «aparteko», edo egoera posible hutsetan egiazkoak izanen diren ideien hornidura orokor bat gordeta edukitzearen abantaila. Oroimenean gordetzen ditugu egia aparteko horiek, eta soberakinarekin geure kontsulta liburuak betetzen ditugu. Aparteko egia horietakoren bat, sortzen zaigun premiaren batean, praktikarako garrantzitsu bihurtzen denean, izozkailutik irten eta munduan jokatzeko hasten da eta berarengan dugun sinestea eraginkor bihurtzen da. Berdin esan daiteke, orduan, hari buruz «baliagarria dela egiazkoa delako» edo «egiazkoa dela baliagarria delako». Esaldi biok gauza berbera esan nahi dute, hots, betetzea lortzen duen eta egiazta daitekeen ideia dela. «Egiazkoa» egiaztapen prozesua abian jartzen duen edozein ideiari aplikatzen zaion izena da eta «baliagarria» esperientzian buruturiko haren funtzioari ematen zaion izena. Egiazko ideiak ez ziratekeen horrela bereiziko, ez zuketena klase-izenik inoiz lortuko, eta are gutxiago balioa adierazten duen izenik, baldin hasieratik era horretantxe baliagarriak izan ez balira.

Eredu sinple honexetatik hartzen du pragmatismoak egia-  
ren nozio orokorra, gure esperientziaren une batek gu eramanak  
izatea merezi duten beste une batzuetara eramateko duen  
moduarekin funtsean loturik dagoen elementutzat ulertuz..  
Lehenengo eta bat, eta zentzunaren eremuan, adimenaren egoe-

raren egiak *merezi duen bideratze bat* esan nahi du. Gure esperientziaren une batek, edozein motatakoak, egiazkoa den pentsamendu bat iradokitzen digunean, horrek esan nahi du, lehen-  
txoago edo gerotxoago, pentsamendu horrek bideratuta esperientziaren xehetasunetan murgiltzen garela berriro eta eurokin lotura onuragarriak egiten ditugula. Baieztapen aski lanbrotsua da hau; baina hartu, mesedez, gogoan funtsezkoa da eta.

Gure esperientzia, bitartean, erregulartasunez josita dago zeharo. Beronen zati batek beste baterako prest egoteko abisua eman diezaguke, urrunagoko objektu horretarantz «seinala» dezake edo «berorren adierazle» izan daiteke. Objektua-  
ren etorrera adierazpen horren egiaztapena da. Egia, horrelako kasuetan, egiaztapen posible batean baino ez datzanez, gure aldetiko egoskortasunarekin nabarmenki bateraezina da. Gaixoa, bere sinesteak bere esperientzian errealtateek segit-  
zen duten ordenarekin azkar eta zehaztasunik gabe jokatzen ari zaizkiona!; edo inora ere ez dute eramanen edo, bestela, lotura faltsuak egitera bultzatuko dute.

«Errealtatez» edo «objektuez» hemen, edo zentzuneko gauzak, era sentigarrian presente daudenak, zentzuneko erla-  
zioak esan nahi ditugu, hala nola, datak, tokiak, distantziak, generoak, jarduerak. Abelbidean zehar etxearen irudiari jarraitzean, etxea ikustera heltzen gara benetan.; irudiaren egiaztapena bete-betean lortzen dugu. *Bideratze soilki eta bete-betean egiaztatu hauek benetan ere egia-prozesuaren jatorrizkoak eta prototipoak dira.* Esperientziak, jakina, egia-prozesuaren beste era batzuk eskaintzen ditu, baina bata bestea atxikitako, biderkaturiko edo ordezkaturiko egiaztapen primariotzat uler daitezke guztiak.

Hartu, adibidez, hango hormako objektu hura. Zuek eta nik «erlojutzat» daukagu, gutariko inork ikusi ez badio ere erloju egiten duen ezkutuko mekanismoa. Egiazkotzat hartzen dugu geure nozioa, egiaztatzeko ahaleginik ere egin gabe. Egiek egiaztapen prozesua esan nahi badute funtsean, egiaztatu gabe-

ko egia hauei ez ote genieke huts eginikoak esan behar? Ez, zeren bizitzeko erabili behar ditugun egien kopuru amaigabea osatzen dutenak dira eta. Zeharkako egiaztapenak zuzenekoak bezain zinez onartzen dira. Ebidentzia zirkunstantziala nahikoa denean, ez da behar begizko lekukotasunik. Japonia existitzen dela bertan sekula izan gabe ere onartzen dugun bezalaxe, hori egiteak *funtzionatzen* duelako, dakigun guztia sineste horren alde izanik eta ezer ere ez kontra edo eragozpenak jartzen, hala xe onartzen dugu gauza hori erlojua dela. *Erabili* egiten dugu erloju moduan, hitzaldiaren luzera beraz neurtuz.. Suposizio horren egiaztapenak kasu honetan esan nahi du ez garamatzala inolako frustrazio edo kontraesanera. Gurpilen, pisuen eta penduluaren *egiaztagarritasunak* egiaztapenak adina balio du. Buruturiko egia-prozesu bakoitzeko, milioiak daude gure bizitzan jaioberritako egoera horrexetan funtzionatzen dutenak. Egiaztapen zuzenerantz *bideratzen* gaituzte; aurreikusten dituzten objektuen *ingurura* eramaten gaituzte; eta orduan, dena harmonian badabil, hain ziur dakigu egiaztapena egin daitekeela, non ez dugun egiten, eta normalean jazotzen den guztiak justifikatuta agertzen dira prozesu horiek.

Egia, izatez, kreditu sistema batek eutsita bizi da. Gure pentsamendu eta sinesteek «aurrera egiten dute», inork zalan-tzan jartzen ez dituen artean, banku-ordaindukoek inork errefusatzen ez dituen artean aurrera egiten duten moduan. Baina honek guztiak nonbait aurrez aurreko egiaztapenak egitea behar du, berauek gabe egiaren fabrikak lur joko luke eta, likidezi bermerik ez leukakeen finantza sistema batek bezala. Zuek nik egindako gauza baten egiaztapena onartzen duzue, eta nik zuek egindako beste batena. Elkarren egiak trukutzen ditugu. Baina *norbaitek* zehazki egiaztaturiko sinesteak dira azpiegitura osoaren zutoinak.

Beste arrazoi handi bat —denbora aurrezpenaz gain— bizimoduko ohiko zereginetan egiaztapen osoa albo batera uzteko hauxe da: gauza guztiak generoka, eta ez banaka, exis-

titzen direla. Gure munduak argi eta garbi erakusten du berea duela ezaugarri hau. Eta horregatik guk, behin genero bateko espezimenei bati buruz geure ideiak zuzenean egiaztatzen ditugunean, aske sentitzen gara ideia horiek beste espezimenei egiaztapenik gabe aplikatzeko. Aurrean duen gauzaren generoa bereizi eta berehala, egiaztatzeko gelditu gabe, generoaren legearen arabera jardun ohi duen gogamena «fidagarria» izanen da ehuneko laurogeita bederatzi kasu premiatsutan, bere portaera aurkezten zaion guztira egokitzeak eta inork ere errefusatu ezin izateak frogatzen duen moduan.

*Hartara, bada, zeharka edo potentzialki soilik buruturiko egiaztatze prozesuak erabat osaturiko egiaztapen prozesuak bezain egiazkoak izan daitezke.* Benetako prozesuek bezalaxe jarduten dute, abantaila berberak ematen dizkigute eta aintzatespena arrazoi berengatik galdatzen digute. Hau guztia gertakarizko arazoetan zentzunaren arabera, orain horixe bakarrik aztertzen ari gara eta.

Baina gertakarizko arazoak ez dira gure trukagai bakarra. *Idea mental hutsen arteko erlazioek* beste eremu bat osatzen dute, non sineste egiazkoak eta faltsuak nagusi diren, eta hemen sinesteak absolutuak edo baldintzarik gabeak dira. Egiazkoak direnean, definizioak edo printzipioak esaten diegu. Printzipioa edo definizioa da 1 eta 1 bi direla, 2 eta 1 hiru direla, etab.; zuriak alde gutxiago duela grisetik, beltzetik baino; kausa ekintzan hasten denean efektua ere hartantxe hasten dela. Proposizio hauek «bat» posible guztientzat, burura daitezkeen «zuri» eta «gris» eta «kausa» guztientzat balio dute. Objektuak, eremu honetan, objektu mentalak dira. Euren arteko erlazioak bistakoak eta lehen ikusian hautematekoak dira, eta ez dute sentsumenezko egiaztapenik behar. Areago, behin egia dena, egia izanen da beti, objektu mental berei dagokienez. Egiak hemen «betiereko» izaera dauka. Nonahi ere «bat» edo «zuria» edo «grisa» edo «efektua» den gauza konkretu bat aurkitu ahal baduzue, orduan printzipio hauek beti eta beti

aplikatuko zaizkio gauza horri. Kontua generoa ziurtatzea eta gero genero horren legea objektu konkretuari aplikatzea besterik ez da. Egia lortu dugun ziurtasun osoa ukanen dugu generoa ongi izendatzeko gai bagara besterik gabe, zeren gure erlazio mentalek genero horretakoa den orori aplikatzen baitzaizkio salbuespenik gabe. Orduan, kasu konkretu batean, hala ere, egia erdiestea lortzen ez badugu, objektu errealak oker sailkatu ditugula esan beharko dugu.

Erlazio mentalen erreinu honetan ere egia bideratze kontua da. Ideia abstraktu batzuk beste batzuekin erlazionatuz, azkenean egia logiko eta matematikoko sistema handiak osatzen ditugu, eta berauen terminoen pean esperientziako gertakari sentigarriak eratzen dira azkenean, halatan, non gure betiereko egiak errealitateei ere aplikatzen baitzaizkie. Gertakari eta teoriaren arteko uztartze hau amaigabeki emanorra da. *Geure objektuak dagokien motan sailkatu baditugu*, jada baieztatzen duguna egia izanen da egiaztapen berezirik egin aurretik. Litezkeen objektu mota guztiei aplikatzen diegun molde ideala geure pentsamenduaren egituratik eratorria da. Erlazio abstraktuekin ezin ibili gara axolagabe eta arinki, sentsumen-esperientziarekin horrela ibil gaitezkeen baino lasaiago. Hertsatu egiten gaituzte, eta koherentziaz jokatu behar dugu eurekin, emaitzak gogoko izan edo ez. Baturaren arauak gure zorrei ere aplikatzen zaizkie, gure aktiboari bezain zorrozki aplikatu ere.  $p$ -ren —zirkunferentziaren ratioa bere diametroarekiko—ehungarren hamarrena, idealki aurrezarrita dago dagoeneko, inork ere kalkulatu ezin izan badu ere. Inoiz, zirkulu errealen batekin ari garela, zifra hori behar izanen bagenu, zuzen atera beharko genuke zifra hori zein den, ohiko arauen bidez kalkulatzuz, egia mota bera baita arau horiek beste leku batzuetan kalkulatzuten dutena.

Ordena sentigarriaren eta ordena idealaren hertsapenen artean, hartara, gure adimena gogor estuturik aurkitzen da. Gure ideiek errealitateekin bat etorri behar dute, errealitate

horiek konkretuak nahiz abstraktuak izan, gertakariak nahiz printzipioak izan, amaigabeko inkoherentzia eta frustrazioaren zigorraren pean.

Honaino, intelektualistek ez dute zertan protestaturik. Gehien ere, arazoaren azala baino ez dugula ukitu esan ahal izanen dute.

Errealitateek, bada, gertakari konkretuak edo gauza mota abstraktuak eta euren artean intuizioz hautemandako erlazioak esan nahi dituzte. Gainera eta hirugarrenik, gure ideia berriek kontuan hartu gabe utzi ezin dituzten gauzak direnez, jada dauzkagun egien multzo guztia ere esan nahi dute. Baina orduan, berriro egiaren ohiko definizioa erabiltzeko, zer esan nahi du hiru aldeko errealitate honekiko «adostasunak»?

Hementxe hasten dira pragmatismoa eta intelektualismoa zein bere aldetik jotzen. Lehenengo eta behin, adostasunak edo bat etortzeak kopiatzea esan nahi du; baina ikusi genuen «erlojua» berba hutsak beronen funtzionamenduaren irudi mentala ordeztuko lukeela eta gure ideiak errealitate askoren sinboloak besterik ezin direla izan. «Iragana», «bote-rea», «berezkotasuna», nolatan kopia ditzake gure adimenak horrelako errealitateak?

Errealitate batekin «bat etortzeak» zentzurik zabalenean haxe besterik ezin esan dezake, alegia, *zuzenean berarengana edo beraren ingurura bideratzea, edo berarekin harreman eraginkorrean jartzea eta, horrela, hura edo harekin lotura duen zerbait ados ez bageunde baino hobeto erabiltzeko gai izatea*. Hobeto, intelektualki edo praktikoki! Eta maiz adostasunak gertakari negatibo bat besterik ez du esan nahiko, alegia, errealitate horren ingurutik etorritako kontraesankorra den ezerk ez duela oztopatuko gure ideiek gu beste alde batzuetara gidatzeko duten modua. Errealitate bat kopiatzea, jakina, harekin ados egoteko modu inportante bat da, baina ez da funtsezkoa, hurrik eman ere. Funtsezkoa bideratzeko prozesua da. Errealitatea-

rekin edo beroni dagokionarekin, praktikoki edo intelektualki, *harremanak izaten* laguntzen digun ideia oro, gure aurreramen-  
dua frustrazioetan kateatuta uzten ez duen edozein ideia, gure  
bizitza errealitatearen testuinguru guztira de facto *doitu* eta  
moldatzen duena, errealitatearekin ados egonen da betekizunei  
erantzuteko moduan. Egiatzkoa izanen da errealitate horrekiko.

*Izenak*, orduan, irudikapen mental zehatzak bezain  
«egiazkoak» edo «faltsuak» dira hauen neurri berberean. An-  
tzeko egiaztapen-prozesua sortarazten dute eta emaitza prakti-  
ko berberetara eramaten.

Giza pentsamendu guztia era diskurtsiboan gauzatzen  
da; ideiak trukutzen ditugu, egiaztapenak maileguz eman eta  
hartzen ditugu, gizarte-harremanen bidez elkarrengandik har-  
tzen ditugu. Hartara, egia oro berbaz lantzen da, biltegitratzen  
da eta edonorentzat eskuragarri gelditzen da. Horregatik, guk  
kontsistentziaz *hitz egin* behar dugu, kontsistentziaz *pentsatu*  
behar dugun bezalaxe, hala hitz egitean nola pentsatzean gene-  
roekin ari garelako. Izenak arbitrario hutsak dira, baina behin  
ulertuz gero, eutsi egin behar zaie. Orain ez diogu esan behar  
Abeli «Kain» edo Kaini «Abel». Hori egiten badugu, zeharo  
aldentzen gara Hasiera liburutik eta hizkuntzaren eta gertaka-  
rien unibertsoarekin gaur arte dauzkan lotura guztietatik.  
Hizkuntza eta gertakarizko sistema horrek bere baitan ukan  
dezakeen egia orotatik kanpo uzten dugu geure burua.

Gure ideiarik gehien-gehienek ez dute onartzen zuzeneko  
edo aurrez aurreko egiaztapenik, adibidez, Kain eta Abel beza-  
lako iraganeko historiakoek. Denboraren korrontea berbaz soi-  
lik gaindi daiteke, edo zeharka baino ezin da egiaztatu iragana-  
ren gaur egunera arteko luzapenen bidez edo bere baitan izan  
zuenaren efektuen bitartez. Hala ere, iraganari buruz ditugun  
ideiak hizkuntz formulazio eta efektu horiekin ados badaude,  
jakin dezakegu egiazkoak direla. *Iragana izan zela bezain*  
*egiazkoa* da Julio Zesar izan zela, edo uholde aurreko munstro-  
ak izan zirela, zein bere une eta testuinguruan. Iragana izan zela

orain daukagun guztiarekin duen koherentziak bermatzen du. Oraina *badela* bezain egiazkoa da iragana *izan zela*.

Adostasuna, horrela, funtsean bideratze kontu bihurtzen da, baliagarria den bideratzea berau, garrantzizkoak diren objektuak dauden eremuetan burutzen delako. Egiazko ideiek berba eta kontzeptuzko eremu baliagarrietara bideratzen gaituzte, baita zuzenean termino sentigarri baliagarrietara ere. Koherentziara, egonkortasunera eta giza truke jariakorrera bideratzen gaituzte. Nabarmenkeriatik eta isolamendutik aldentzen gaituzte, pentsamendu zapuztu eta antzutik. Bideratze-prozesuaren etengabeko jarioa, talka eta kontrastearen aurrez aurre duen askatasun orokorra, bere zeharkako egiaztapenetik iragaten da; baina bide guztiek daramate Erromara; azken batean egiazko prozesu guztiek *non edo han* zuzenean egiaztatuko diren esperientzia sentigarrien aurrera, norbaiten ideiek kopia-turikoetara eraman behar dute.

Era zabal eta nasai honexetan interpretatzen du pragmatistak adostasun hitza. Praktikoki darabil. Oraingo ideia batek geroko termino baterako eroate-prozesu oro betetzen uzten dio, emankorki jardunez gero, hori bai. Horrelaxe bakarrik esan daiteke ideia «zientifikoak», zentzunetik harago hegaz egin arren egiten duten moduan, ados daudela euren errealtateekin. Esan dudan bezala, errealtatea eterrez, atomoz edo elektroiz egina *balitz bezalakoa* da, baina ez genuke hau horrela hain literalki pentsatu behar. «Energia» hitzaz inoiz ez da nahi izan ere ezer «objektiborik» adierazi. Fenomenoen azala neurtzeko era bat besterik ez da, euren aldaketak formula sinple batean kordan ipintzeko modu bat.

Baina gizakiak egindako formula hauen hautaketan ezin gara zigorrik gabe apatatsuagoak izan, zentzun praktikoaren eremuan izan gaitezkeen baino. *Funtzionatuko duen* teoria bat ediren behar dugu; eta hau izugarri zaila da, zeren teoria horrek bitartekari izan behar baitu alde zuzeneko egia guztien eta zenbait esperientzia berriren artean. Zentzuna eta aurreko



sinesteak ahalik gutxien aldrebestu behar ditu eta doi-doi egiaztatu daitekeen helmuga sentigarriren batera eraman behar du. «Funtzionatzeak» gauza bi horiek esan nahi ditu; eta presioa hain da estua, non ia ez dagoen edozein hipotesirekin jolasan arinki ibiltzerik. Gure teoriak beste ezer baino hertsatua go eta kontrolatuago daude. Hala ere, batzuetan formula teoriako alternatiboak ezagutzen ditugun egia guztiekin bateragarriak dira maila berean, eta orduan euren artean arrazoi subjektiboengatik egiten dugu aukera. Ordurako jada begiko genuen teoria aukeratzen dugu; «dotoretasunari» edo «ekonomiari» jarrai. Clerk-Maxwellek dio nonbait «gustu zientifiko eskasa» edukitzea litzatekeela ebidentzian paretsu oinarrituriko bi ikusmoldeetik korapilotsuena aukeratzea; eta uste dut zuek guztiok bat zatozketela berarekin. Zientzian, egia da poztasun gehien eta atsegin gehien ere ematen diguna, baina bai aurreko egiekiko eta bai gertakari berriekiko kontsistentzia izaten da erreklamaziorik indartsuena.

Oso basamortu hareatsuan barna eraman zaituztet; baina orain, esakune herritar batez esaten uzten badidazue, koko barruko esnea ahogozatzen hasiko gara. Kritiko ditugun razionalistak euren bateriak gure kontra desarratzen hasiko dira eta eurei erantzuteak lehortasun honetatik alternatiba filosofiko inportante baten ikuspegi zabalera eramanez gaitu.

Egiari buruzko gure azalpena, nonbait ere, egiei —pluralean— buruzko azalpena da, bideratze prozesuei buruzkoa, *in rebus* egina, nolakotasun bakar bat daukatelarik egiok guztiei dagokiena: *ordaindu* egiten dutela. Ordaindu egiten dute gu hainbat puntutan sentsumen-pertzepzioetan murgiltzen den sistema baten barrura edo alderen batera gidatuz; pertzepzio horiek mentalki kopiaitu edo kopiaitu barik utz genitzake, baina edonola ere orain lanbrotsuki egiaztapena deritzon truke motan ari gara eurekin. Gure iritzirako, egia egiaztapen prozesuentzako izen kolektibo bat baino ez da, osasuna, aberastasuna, indarra, etab., bizitzarekin loturiko beste prozesu batzuen-

tzako izenak eta izen bilatuak diren bezalaxe, bilaketak ordaindu egiten duelako. Egia esperientzian zehar *egiten* da, osasuna, aberastasuna eta indarra bezalaxe.

Puntu honetan razionalismoa armaz altxatzen da bat-batean gure kontra. Pentsatzen dut razionalista batek jarraian datorrena bezalako zerbait erranen ligukeela:

«Egia ez da egiten», erranen luke; «egia absolutuki dago indarrean, eta, ezein prozesuren mende egon barik, esperientziaren buruaren gainetik tiro egin eta bete-betean beronen errealitatean jotzen duen erlazio unibokoa da. Han horman dagoena erlojua dela dioskun gure sinestea egiazkoa da jada, munduaren historia guztian inork ere egiaztatuko ez balu ere. Erlazio transzendente horretan egotea den nolakotasun hutsa da bera daukan edozein pentsamendu egiazko bihurtzen duena, egiaztapena burutu edo ez. Zuek, pragmatistok, zaldiaren aurrean ipintzen duzue gurdia, egia izatea egiaztapen-prozesuetan jartzean. Hauek egia izatearen seinaleak baino ez dira, gertakariaren ostean nolakotasun miragarria gure ideietako zeinek daukan ziurtatzeko era herrenak besterik ez. Nolakotasuna berez denboratik atekoa da esentzia eta izaera guztiak bezala. Pentsamenduek nolakotasunetik zerbait daukate, faltsutasunetik eta garrantzigabetasunetik zerbait daukaten bezalaxe. Ezin da aztertu bere ondorio pragmatikoen arabera».

Erretolika razionalista honi txalogarritasunetik daukan guztia hainbesteko arretaz aztertu dugun zerbaitetik datorkio. Hau da, gure munduan, ugaria delarik antzeko motako eta antzera elkarturiko gauzetan, egiaztapen batek bere motako beste batzuentzat balio du; eta gauzak ezagutzearen baliagarritasunik handienetako bat da gu, ezagutza horrek eramanda, gauzotara baino gehiago berauek elkarturik dituztenetara, bereziki gizakiek gauzoi buruz duten diskurtsora bideratzea. *Ante rem* erdietsitako egiaren nolakotasunak, orduan, pragmatikoki esan nahi du mundu horretan hainbat eta hainbat ideiak hobeto dihardutela beren zeharkako egiaztapen posiblearen

bidez, zuzeneko egiaztapen erreala bidez baino. *Ante rem* egia egiaztagarritasuna besterik ez du esan nahi; eta, bestela, razionalisten trikimailu tipikoetako bat da, hau da, errealtate fenomeniko konkretu baten *izena* alde aurreko entitate independente gisa erabiltzea eta errealtatearen atzean jartzea beronen azalpen moduan. Mach irakasleak Lessingen epigrama baten aipua egiten du nonbait:

*Sagt Hänschen Schlaw zu Vetter Fritz*

*«Wie kommt es, Vetter Fritzen,*

*Dass grad' die Reichsten in der Welt,*

*Das meiste Geld besitzen?»\**

«Hänschen Schlaw» honek «aberastasuna» printzipioa gizon aberatsa izateak adierazten dituen gertakarietatik diferentia balitz bezala darabil. Gertakari horien aurrekoa da; gertakariak gizon aberatsaren izaera esentzialarekin bat etortze sekundario huts bilakatzen dira.

«Aberastasuren» kasuan inori ez zaio ezkutatu falazia. Badakigu aberastasuna gizaki batzuen bizitzetan funtzio bat betetzen duten zenbait prozesu konkreturi ematen zaion izena dena, eta ez Rockefeller edo Carnegie jaunengan — baina ez gainerakoengan — aurkitzen den bikaintasun bat.

Aberastasuna bezala, osasuna ere *in rebus* bizi da. Prozesuak adierazteko izena da, hala nola, digestioa, zirkulazioa, loa, etab., atseginez burutzen direnak, nahiz eta kasu honetan horiek printzipiotzat hartzea eta gizakiak osasuntsua *delako* ongi digeritzen edo lo egiten duela esatera dugun joera.

«Indarraren» kasuan are razionalistagoak garela uste dut, eta gizakiarengan aurretik existitzen den eta beronen muskuluen balentria herikulearrak esplikatu dituen bikaintasuntzat hartzea erabat jarriak.

\* «Joantxo azkarrak zera dio Fritz bere lehengusuari: «nola liteke, lehengusu Fritz, munduko aberatsenak izatea hain zuzen ere diru gehienaren jabe?»»

«Egiari» dagokionez, jenderik gehienak erabat gainditzten ditu mugak, eta azalpen razionalista berez begi-bistakotzat hartzen du. Baina hitz hauek guztiak (aberastasuna, osasuna, egia) antz-antzekoak dira. Egia *ante rem* beste gauza guztiak bezainbeste existitzen da, ez gehiago ez gutxiago.

Eskolastikoek, Aristotelesi jarrai, garrantzi handia ematen zioten aztura eta egintzaren arteko bereizpenari. Osasunak *in actu*, besteak beste, ongi lo egitea eta ongi digeritzea esan nahi du. Baina gizon osasuntsuak ez du beti lotan egon beharrik, edo beti digeritzen jardun beharrik, gizon aberatsak beti dirua erabiltzen ibili beharrik ez duen moduan edo gizon indartsuak beti gauza astunak jasotzen. Nolakotasun hauek guztiak «aztura» egoeran murgiltzen dira jarduketan arteko tarteetan, eta, era berean, egia ere gure ideien eta sinesteen aztura bihurtzen da egiaztapen jardueren arteko atsedenaldietan. Baina jarduerok auzi guztiaren sustraia dira, eta tarteetan aztura izateko baldintza.

«Egiazkoa», *labur-labur esateko*, gure pentsamenduari-kiko egokia dena besterik ez da, «ona» gure portaerarekiko egokia dena baino ez den bezalaxe. Egokia ia era guztietan, eta egokia, jakina, epe luzera eta prozedura osoan; zeren bistan duen esperientzia guztiari egokiro aurre egiten dionak ez baitio nahitaez egokiro aurre egingen gero etorriko diren esperientzia guztiei. Esperientziak, dakigunez, *gainez egiteko* eta gure oraingo formulak aldarazteko moduak ditu.

«Absolutuki» egiazkoa, geroko ezein esperientziak sekula aldatuko ez duena esan nahirik, begi-puntu ideal bat da, nora egunen batean, iruditzen dugunez, gure mundu honetako egia guztiak bilduko diren. Bat dator osoro gizaki erabat jakintsuarekin eta esperientzia erabat osoarekin; eta ideal hauek egunen batean gauzatzen badira, denak batera gauzatuko dira. Bitartean gaurko egunean gaur erdiets dezakegun egiaren arabera bizi behar dugu, eta bihar prest egon faltsua dela esateko. Ptolomeoren astronomia, Euklidesen espazioa, Aristotelesen logika, esko-

lastikoen metafisika, egokiak izan ziren mendeetan, baina giza esperientziak gainez egin die muga horiei; eta egun horiek erlatiboki egiazkoak direla esaten dugu, edo egiazkoa orduko esperientzia-mugen barruan. «Absolutuki», faltsuak dira, badakigu-eta muga haiek kasualak zirela, eta gaindi zitzaketela garai hartako teorilariek, egungo pentsalariek gainditu dituzten bezalaxe.

Esperientzia berriek, aditza iraganaldian erabiliz, atzera begirako judizioetara eramaten dutenean, judizio horiek baieztatzen dutena egiazkoa *izan zen*, iraganeko ezein pentsalari horretaraino eramana ez izan arren. Aurrerantz bizi gara —esan du pentsalari daniar batek—, baina atzerantz ulertzen dugu. Orainak atzera begirako argi bat botatzen du munduaren lehenagoko prozesuetara.. Egia-prozesuak izan zitezkeen beraietan jardun zutenentzat. Ez dira horrelakoak gai horren inguruko azken aurkikundeak ezagutzen dituenarentzat.

Geroago ezarri beharreko hobia izan daitekeen egiaren nozio erregulatzailer hau, agian egunen batean absolutuki ezarriko dena atzeraeraginezko legeria-ahalmen eta guzti, nozio pragmatista guztiak bezala, gertakariaren konkretutasunera eta etorkizunera begira jartzen da. Erdi-egiak bezalaxe, egia absolutua ere *egin* egin beharko da, egiaztapen-esperientzia multzo baten hazkundearekiko erlazio intzidental gisa egin ere, berau egiteko erdi-egia guztiek dakartelarik euren kuota.

Esan dut jada behin baino gehiagotan egia, zati handi batean, aldez aurreko egiek egina dela. Gizakien sinesteak esperientzian *fundatuak* dira beti. Baina sinesteak eurak munduko esperientziaren guztirakoaren zati dira, eta, horregatik, biharamuneko fundatze eragiketen gai bihurtzen dira. Errealitateak errealitate esperimentera esan nahi duen neurrian, hala bera nola gizakiak beraren bidez erdiesten dituen egia etengabeko mutazio prozesuan aurkitzen dira, helmuga zehatz bateranzko mutazioan, baina mutazioan hala ere.

Matematikariek aldagai biko problemak ebatz ditzakete. Newtonen teorian, adibidez, azelerazioa aldatu egiten da distan-

tziarekin, baina distantzia ere aldatu egiten da azelerazioarekin. Egia-prozesuen erreinuan gertakariak beren kabuz datoz eta gure sinesteak determinatzen dituzte behin-behinean. Baina sineste horiek jardunean jartzen gaituzte, eta hori egin bezain laster, gertakari berriak ekartzen dituzte bistara edo existentziara, eta, ondorioz, berriro determinatzen dituzte sinesteak. Hartara egiaren mataza eta bola guztia, bildu ahala, eragin bikoitzaren sorkari da. Egiak gertakarietatik azaleratzen dira, baina euron baitan murgiltzen dira berriro eta euroi eransten zaizkie; eta gertakariok egia berriak sortzen edo erakusten dituzte (berdin dio hitza) eta horrelaxe amaigabe. «Gertakariak» berak, berriz, ez dira *egiazkoak*. *Badira* besterik gabe. Egia gertakarietan hasi eta amaitzen diren sinesteen funtzioa da.

Elur-bolaren handitzearen antzeko kasua da, bi eragilek dakartelarik handitze hori, alegia, elurraren banaketak, alde batetik, eta mutikoen bultzadek, bestetik, eragileok etengabe elkar determinatzen dutelarik.

Oraintxe ageri zaigu argi eta garbi razionalista edo pragmatista baten artean dagoen aldea. Razionalismoak onartuko digu esperientzia mutazioan ari dela, eta egiaz ziur egoteko ditugun bitarteko psikologikoak ere mutazioan ari direla; baina inoiz ez du onartuko errealtatea bera edo egia bera mutagarriak direnik. Errealtateak osorik eta aurrefabrikatu dirau betikotasun guztitik hona, errepikatzen du razionalismoak; eta gure ideiek harekin duten adostasuna beraien baitan duten bertute bakar eta analizagaitza da, razionalismoak jada aipatu diguna. Haien egiak, bikaintasun intrintseko hau denez, ez du inolako zerikusirik gure esperientziekin. Ez dio ezer gehitzen esperientziaren edukiari.. Ez dakarkio alderik errealtateari berari.; gainera etorria (*supervenient*) da, inerteza, estatikoa, gogoeta hutsa. Ez da *existitzen*, egiak *balio du* edo *indarra dauka*, gertakariena eta gertakarien erlazioarena ez den beste dimentsio batekoa da, labur esanda, dimentsio epistemologikokoa da, eta hitz potolo honekin razionalismoak itxita uzten du eztabaida.

Hartara, pragmatismoa aurrera, etorkizunera begira jartzen den bezalaxe, razionalismoa atzera, iragandako betikotasunera begira dago. Bere aspaldiko azturari tinko eutsiz, razionalismoak «printzipioetara» jotzen du eta, behin abstrakzio bati izena ipiniz gero, orakuluzko soluzioa daukagula pentsatzen du.

Ikuspegi bion arteko alde erradikal honek bizitzarako ondorioei dagokienez duen emankortasun itzela azken hitzaldietan bakarrik ikusiko da argi. Bitartean, razionalismoaren goitasunak ez duela ahuleziatik salbatzen azalduz amaitu nahi dut hitzaldi hau.

Razionalistei zehazki eskatzen badiezue, pragmatismoa egiaaren nozioa profanatzeaz akusatu beharrean, egiaz *beraiek* zer ulertzen duten zehazki esanez defini dezaten, lor ditzaketen erantzun bakarrak hauexek dirateke ene ustez:

1. «Baliozkotzat hartuak izateko baldintzarik gabeko galdapena duten proposizioen sistema da egia».<sup>1</sup>

2. «Halako aginduzko betebeharrak batek bultzatuta egin beharrean aurkitzen garen judizioen izena da egia».<sup>2</sup>

Definizio hauetan lehenbizi harritzen zaituena hutsaltasuna da, adierazi ahal izateko baino hutsagoak baitira. Definizioak erabat egiazkoak dira, noski, baina erabat esangurarik gabekoak pragmatikoki erabiltzen hasi arte. Zer esan nahi dute hemen «galdapena» diotenean edo «betebeharra» diotenean? Behar bezalako bideak erabiliz pentsatzea gizaki hilkorrenzat arraskomenigarri eta ona dela uste izateko dauden arrazoientzako izen motz gisa, oso ongi dago esatea errealitateak berarekin ados egotea galdatzen duela edo guk ados egoteko betebeharra daukagula. Hala galdapenak nola betebeharrak sentitzen ditugu, eta arrazoi horiexengatik sentitzen ditugu.

Baina galdapen eta betebeharrez mintzo diren razionalistek *espresuki diote horiek ez dutela inolako zerikusirik gure interes praktikoekin edo arrazoi pertsonalekin*. Guk ados ego-

teko ditugun arrazoiak gertakari psikologikoak omen dira, pentsatzaile bakoitzari eta beraren bizitzako gorabeherei dagozkienak. Pentsatzaile horren ebidentzia dira, ez egia-  
ren beraren bizitzaren zati. Honen bizitza dimentsio logiko edo epistemologiko hutsean, dimentsio psikologikotik diferentean, gauzatzen da eta beronen galdapenak motibazio pertsonal ororen aurrekoak eta gainetikoak dira. Gizakia ez Jainkoa egia ziurtatzera inoiz helduko ez balira ere, egia hitza, hala ere, ziurtatua eta ezagutua izan *behar* duena dela esanez definitu beharko litzateke.

Inoiz ez da izan, esperientziako gauza konkretuetatik abstraitua izan ondoren, gero bere abstrakzio-  
gune izan denaren aurka jartzeko eta ukatzeko erabilia izan den ideia-  
ren adibide dotoreagorik.

Filosofia eta bizimodu arrunta ugaria da horrelako adibideetan. Justizia, eskuzabaltasun, edertasun eta horretarikoei buruz negar malkoak isurtzea, baina, kalean topatzen dituzte-  
nean, nolakotasun horiez sekula ez ohartzea, hango zirkuns-  
tantziek arrunt bihurtzen dituztelako, hori «falazia sentimenta-  
lista» da. Ildo honetatik, pribatuan argitaraturiko goi mailako razionalista baten biografian irakurtzen dut: «Harritzekoa zen edertasunarekiko abstraktuan hainbesteko mirespena izan ondoren, nire anaiak arkitektura dotorearekiko, pintura ederra-  
rekiko, edo lorekiko berotasunik ez agertzea». Eta irakurri  
dudan ia azken lan filosofikoan, hurrengo bezalako pasarteak topatu ditut: «Justizia ideala da, ideala soilik». Arrazoimenak izan behar duela bururatzen du, baina esperientziak ezin dela izan jartzen du agerian. ... Egia, izan behar lukeena, ezin da izan. ... Arrazoimena esperientziak itxuragabeturik dago. Arrazoimena esperientzian sartu bezain laster, esperientzia kontra jartzen zaio».

Razionalistaren falazia, honetan, sentimentalistarena bezalakoxea da. Biek ateratzen dute nolakotasun bat esperien-  
tzia-  
ren xehetasun lohitsu-  
tik, eta, behin ateraz gero, hain garbi



ikusten dute, non hango gauza konkretu lohitsu bakoitzarekin eta guztiekin kontrastatzen baitute, haien kontrako eta goragoko izaeraduna balitz bezala. Hala ere, horixe da *haien* izaera, balioz-kotu eta egiaztatu beharra duten egien izaera. Gure ideiak balioz-kotzeagatik ordaina ematen digu. Egia bilatzeko daukagun bete-beharra ordaina ematen duena egiteko daukagun betebeharrak orokorraren zati da. Egiazko ideiek dakarkiguten ordaina beraiei jarrai ibiltzeko daukagun eginbeharraren zergati bakarra da. Zergati berak daude aberastasunaren eta osasunaren kasuan ere.

Egiak ez du egiten osasunak eta aberastasunak ez bezalako galdapenik, ezta haiek ez bezalako pentsamendurik inposatzen ere. Galdapen hauek guztiak baldintzapekoak dira; erdiesten ditugun onura zehatzak dira aditzera eman nahi ditugunak gure bilaketari betebeharrak esaten diogunean. Egiaren kasuan, egiazkoak ez diren sinesteek, epe luzera, kaltegarriro jokutzen dute, egiazko sinesteek onuragarriro jokutzen duten bezalaxe hain zuzen. Abstraktuki hitz eginda, esan daiteke «egiazkoa» nolakotasuna erabat baliotsu bihurtzen dela eta «egiazkoa ez den» nolakotasuna, erabat gaitzesgarri; bata ontzat jo daiteke, bestea txartzat, baldintzarik gabe. Egiazkoa pentsatu behar dugu, faltsua baztertu egin behar dugu, beharrezkotasunez.

Baina abstrakzio hau guztia literalki hartzen badugu eta beronen ama-lurraren aurka jartzen badugu esperientzian, ikus nolako egoera absurduan jartzen garen.

Kasu horretan, pauso bat ere ezin dugu aurrera egin geure pentsamendu errealean. Noiz onartuko dut egia hau eta noiz hura? Onarpen hori goraki ala isilean egingen dut? Batzuetan goraki eta beste batzuetan isilik bada, *orain* nola? Noiz joanen da egia bat entziklopediako gordeleku hotzera eta noiz aterako da borrokara? Etengabe errepikatzen jardun ote behar dut «bi bider bi lau dira» egia, bere betiereko onartze-galdapenagatik, ala batzuetan garrantzirik gabekoa da? Neure bekatu eta akatsetan pentsatzen jardun behar ote dut gau eta

egun, eduki dauzkadalako? Ala estal eta ahantz ote ditzaket, malenkonía eta desenkusa morbosoz beteriko ontzi bat barik, behar bezalako gizarte kide bat izateko?

Begi-bistan dago egia onartzeko daukagun betebeharra, baldintzarik gabekoa izatetik lekutan, arrunt baldintzatua dela. Egiak, singularrean eta maiuskulaz, abstraktuan onartua izatea galdatzen du; baina egia konkretuek, pluralean, euren onarpena komenigarria denean baino ez dute onartuak izan beharrik. Egia eta faltsutasunaren artean egia hobetsi behar da beti, biak egoerarekin erlazionaturik daudenean; baina ez bata ez bestea erlazionaturik ez daudenean, egiak faltsutasunak adina dauka eginbeharretik. Zer ordu den galdetzen badidazu eta Irving kaleko 95 zenbakian bizi naizela erantzuten badizut, nire erantzuna erabat egiazkoa izan daiteke, baina ez duzu ikusten zergatik daukadan erantzun hori emateko eginbeharra. Helbide faltsua ere berdin litzateke kasu horretan.

Agindu abstraktuaren aplikazioa mugatzen duten baldintzak daudela onartuz gero, egiaren *tratamendu pragmatikoa bete-betean hedatzen da*. Errealitatearekin ados egoteko daukagun eginbeharra komenentzia konkretuen katramila oso batean oinarritzen dela ikusten da.

Berkeleyk jendeak materialiaz zer ulertzen zuen azaldu zuenean, jendeak pentsatu zuen hark materialaren existentzia ukatzen zuela. Schiller eta Dewey jaunek orain jendeak egiaz zer ulertzen duen azaltzen dutenean, *egiaren* existentzia ukatzeaz akusatzen dituzte. Pragmatista hauek, diote kritikariek, arau objektibo guztiak suntsitzen dituzte eta ergelkeria eta jakituria maila berean jartzen. Schiller jaunaren eta nire doktrinak deskribatzeko gogokoen duten formula hauxe baieztatzea da, alegia, gustatzen zaiguna esan eta horri egia deituz eskakizun pragmatiko guztiak betetzen ditugula uste dugun pertsonak garela.

Zeuek erabakitzekeko uzten dut ea ez den hau kalumnia zikin bat. Pragmatistak bere burua inor baino harrapatuago

ikusten duelarik iraganetik pilaturiko egia kreditatuen multzo guztiaren eta sentsumenen munduak eragiten dizkion hertsaduren artean, nork sentitzen du hark bezainbestean gure adimenak bere eragiketak burutzean gainean daukan kontrol objektiboaren presio ikaragarria? Baten batek uste badu lege hau biguna dela, jar dadila egun batez beronen agindupean, dio Emersonek. Azken aldian maiz entzun dugu jendea zientzian irudimena erabiltzeaz hitz egiten. Filosofian ere irudimen apur bat erabiltzea eskatzeko sasoia ere badugu. Gure kritikarietako batzuek gure baieztapenetan esan-nahirik ergelenetik kanpo besteren bat aurkitzeko jarrerarik ez erakusteak filosofiaren oraintsuko historian nik ezagutzen dudan beste ezerk baino leku txarragoan uzten du haien irudimena. Schillerrek dio egiazkoa «funtzionatzen» duena dela. Beraz, egiaztapena baliagarritasun material baxuenetara mugatzen duen autoretzat hartzen dute. Deweyk egia «atsegina» ematen duena dela dio. Horregatik, egia izanez gero atsegingarria litzatekeen orori egiazkoa dei dakiokela sinesten duen autoretzat hartzen dute.

Gure kritikariek, zalantzarik gabe, irudimen handiagoa behar dute errealtateekiko. Nik ahalegin zintzo bat egin dut neure irudimena zabaltzeko eta razionalisten ikusmoldeari ahalik esan-nahirik onena emateko, baina aitortu behar dut hala ere erabat nahastuta uzten nauela ikusmolde horrek. Berarekin «ados» jartzeko, bere galdapena «baldintzarik gabekoa» edo «transzendentea» delako beste arrazoirik gabe deika daukagun errealtatearen nozioak ez du astarik ez buztanik. Neure burua munduko errealtate bakar gisa iruditzen saiatzen naiz, eta gero zer gehiago «galdatuko» nukeen iruditzen, galdatzerik banu. Iradokitzen bazait zera galda nezakeela, alegia, huts hutsaletik gogamen bat izaten hastea eta gero ni *kopiatzea*, orduan kopiatzeko ekintzak zer esan nahi duen imajina dezaket; baina zergatia ezin dut bururatu. Ezin dut asmatu zer onura lekarkidakeen kopiatua izateak edo zer onura lekarkiokeen adimen horri ni kopiatzeak, baldin galdapen horretarako

motibo gisa ekintza horren ondorioak espresuki eta printzipioz deskartatuta geratzen badira (autoritate razionalistek egiten duten bezala). Harako hartan miresleek irlandar bat oturuntza-ko mahira besodun aulki batean, baina ipurdirik gabekoan, eraman zutenean, esan zien: «Alafede, den ohoreagatik ez balitz, oinez ere honela bezain ongi etor nintekeen». Nire kasuan ere antzera: ohoreagatik ez balitz, berdin litzaidake kopiatu gabe gelditzea. Ezagutzeko benetako modu bat da kopiatzea (transzendentalista garaikideak arrazoi ezezagunen batengatik ukatzeko lehian dabiltzan baieztapena berau); baina kopiatzetik harago joan eta ados egoteko, bideratzeko edo egokitze prozesu gisa edo beste edozein prozesu pragmatikoki definigarri gisa espresuki ukatzen diren izengabeko adostasun eretara jotzen dugunean, galdaturiko «adostasunaren» *edukia* beraren *zergatia* bezain ulertezin bihurtzen da. Ez dago horrentzat edukirik ez motiborik aurkitzerik. Inolako esan-nahirik gabeko abstrakzioa da.<sup>3</sup>

Egiaren eremu honetan, zalantzarik gabe, pragmatistak dira, eta ez razionalistak, unibertsoaren razionaltasunaren defendatzaileak benetakoenak.

# ZAZPIGARREN HITZALDIA

## PRAGMATISMOA ETA HUMANISMOA

Azken hitzaldian zirrimarratu nuen egiaren ikuspegiarekin hurbiltzen natzaien guztien bihotza gogortzen duena tribuko idolo tipiko hori da, hau da, *Egiaren* nozioa, munduak ustez planteatzen duen enigma bakar finkatuari emandako erantzun bakar, zehatz eta guztizko moduan bururatuta.

Herri tradizioarentzat askoz hobe da erantzuna orakuluzkoa izatea, bigarren mailako enigmak bezala harridura pizten duten horietakoa, barru-barruan daukala uste dena estaliz desestaliz baino gehiago. Munduaren igarkizunari emandako hitz bakarreko erantzun handi guztiek —Jainkoa, Bata, Arrazoimena, Legea, Espiritua, Materia, Natura, Polaritatea, Prozesu Dialektikoa, Ideia, Nia, Supraespiritua— beren zeregin orakuluzkotik ateratzen dute gizakiek eurrez eskaini izan dieten mirespen guztia. Filosofiako hala zaleek nola profesionalek uni-bertsoa halako harri bihurturiko esfinge arraro baten modura irudikatzen dute, beronen erakargarritasuna gizakientzat iragarpen-ahalmenen erronka monotonoa delarik. *Egia*: adimen razionalistentzat zein idolo hobezina! Antzinako eskutitz batean —gazteegi hil zen talentu handiko lagun batek idatzia— hitz hauexek irakurtzen ditut: «Denean, zientzian, artean, moral eta

erlijioan, sistema batek zuzena izan *behar* du eta beste *guztiek* okerrekoak». Gaztaroko aldi batzuetako garra zer den! Hogeita bat urterekin eutsi egiten diogu erronka horri, eta sistema hori topatzea espero izaten dugu. Gutariko gehienoi ez zaigu burura etortzen, geroago ere, *zer den egia* galdera ez dela galdera erre-ala (ezein baldintzarekin ere loturik ez dagoelako) eta *egiaren* nozio guztia egien —pluralean— gertakaritik ateratako abstrakzioa dela, esaldi laburgarri bat, Latina edo Legea diren bezala.

Ohitura-zuzenbideko epaileak legeaz eta maisu-maistrak latinaz mintzatzean, entzuleari erabakien edo hitzen eta sintaxiaren aurretik existitzen diren entitateez ari direla pentsarazteko moduan hitz egiten dute, gaiok garbiro determinatuz eta obediencia behartuz. Baina gogoeta laburrena aski dugu agerian jartzeko bai legea eta bai latina, mota horretako printzipioak barik, emaitzak direla. Portaerari dagokionez legezkoren eta legezkontrakoaren arteko bereizpena, edo mintzairan zuzen eta oker dagoenaren artekoa, gizakien arteko esperientzia zehatzen arteko elkarreraginen artean sortuak dira. Eta sinesteei dagokienez egiazkoa eta faltsua denaren arteko bereizpenak ere ez dira bestela sortuak. Egia aurreko egia batean txertatzen da, hura aldaraziz prozesuan, hizkera ere aurreko hizkeran txertatzen den bezalaxe, eta legea aurreko legean. Aurreko lege bat eta kasu berri bat edukiz gero, epaileak lege berri batean txirikordatuko ditu. Alde batetik, aurretiko hizkera bat; bestetik, jendearen gustua sentiberatzen duen argot, metafora edo bitxikeria bat, eta berehala hizkera berri bat egiten da. Alde batetik aurretiko egia, bestetik gertakari gertatu berriak eta gure gogamenak egia berria aurkitzen du.

Hala eta guztiz ere, betierekoa inoiz garatuko ez balitz bezala pentsatzen dugu beti, alde aurretiko justizia, gramatika edo egia bakarrek berez argi egiten dutela eta ez direla eginez doazen gaiak. Baina imajina ezazue gazte bat epaitegian bere *legearen* nozio abstraktu horrekin kasuak defenditzen, edo hizkuntza-zentsuratzailer bat antzokietan zehar bere kontu-

ra utzita bere ama-hizkuntzaren ideia horrekin, edo irakasle bat unibertso errealarari buruz hitzaldia ematen hasteko prest bere «Egiaren» —E maiuskularekin— nozio razionalistarekin. Zertan eginen lukete aurrera? Egia, legea eta hizkuntza lurrundu eginen litzaizkieke egia berriarekin ukitu txikiena ukan bezain laster. Horrelako gauzak *eginez joaten dira* erabili ahala. Gure zuzen eginak, oker eginak, debekuak, zigorrak, hitzak, formak, hizkerak, sinesteak, beste hainbeste sorkuntza dira, bata besteari erantsiz doazenak historiak aurrera egin bezain azkar. Prozesua pizten duten aurretiko printzipioak izatetik urrun, legea, hizkuntza, egia, beren emaitzei jartzeko izen abstraktuak besterik ez dira.

Legeak eta hizkuntzak, bada, edonola ere, gizakiak egingako gauzatzen eduki behar ditugu. Schiller jaunak analogia hau sinesteei aplikatzen dizkie, eta gure egiak ere puntu bateraino gizakiak eginak direla dioen doktrinarentzat «Humanismoa» izena proposatzen du. Giza motiboek zorrotzen dituzte gure galderra guztiak; gizakiaren gogobetetze nahiak daude ezkutaturik gure erantzun guztietan, gure formulazio guztiek halako giza gurpil bat dute. Elementu hau hain dago korapilatua ekoizkintan, non badirudien Schiller jaunak zabalik uzten duela beste ezer ote dagoen galdetzea. «Mundua», dio hark, ulh da esentziaz, geuk egiten duguna *da*. Alferrekoa da mundua jatorrian zenaren edo gugandik at denaren arabera definitzea; mundua geuk egiten duguna *da*. Ondorioz ... mundua plastikoa da». <sup>1</sup> Eta gehitzen du plastikotasunaren mugak proba eginez bakarrik irakur ditzakegula, eta erabat plastikoa balitz legez hasi behar dugula, eta hipotesi horren arabera metodikoki jardun, harik eta ezezko argia jaso arte.

Horixe da Schiller jaunak jarrera humanistari buruz egingen duen baieztapen ertzekoena, eta eraso gogorren mendean jarri duena. Hitzaldi honetan jarrera humanista defendatu nahi dut, eta, horregatik, ohar batzuk iradoki nahi ditut puntu honi buruz.

Schiller jaunak beste edonork adinako garrantzia eman da onartzen du aurkako faktoreen presentzia egia eraikitzeko esperientzia erreal orotan, egia egin berri bereziak kontuan hartu behar dituelarik eta berauekin «ados» jarri ezinbestez. Gure egia guztiak «Errealitateari» buruzko sinesteak dira. Eta edozein sineste konkretutan errealitateak aske den zerbaiten modura jarduten du, *topaturiko*, eta ez eskuz landutako, gauza baten modura. Utz iezadazue hemen nire azken hitzaldiko zertxobait gogoratzen.

«*Errealitatea*», oro har, *egiek kontuan hartu beharreko zerbait da*<sup>2</sup>; eta errealitatearen *lehenengo* partea, ikuspuntu honetatik, gure sentipenen jarioa da». Sentipenak nahitaez ezartzen zaizkigu, nondik datozen ez dakigula. Euren izaera, ordena eta kantitateari buruz inolako kontrolik ez daukagu. *Haiek* ez dira ez egiazkoak ez faltsuak, izan *dira*, besterik gabe. Geuk haietaz dioguna, jartzen dizkiegun izenak, haien sorburu, izaera eta urruneko erlazioei buruz egiten ditugun teoriak dira egiazkoak izan daitezkeen edo ez daitezkeen bakarrak.

Errealitatearen *bigarren* partea, gure sinesteek obedienez kontuan hartu beharrekoa hau ere, gure sentipenen edo berauen kopien artean gure gogamenetan sortzen diren *erlazioek* osatzen dute. Parte honek bi azpiatal ditu 1) aldagarri eta akzidentalak diren erlazioak, hala nola data eta tokia; eta 2) finkoak eta esentzialak direnak, beren zehaztapenen barne izaeretan oinarritzen direlako. Erlazio mota biok dira berehalako haitemangaia. Biok dira «gertakariak». Baina azken gertakari motak osatzen du errealitatearen azpiatal garrantzitsua gure ezagutzaren teorietarako. Barne erlazioak, bereziki, «betierekoak» dira, beren zehaztapen sentigarriak alderatzen diren guztian haitematen dira; eta gure pentsamenduak —pentsamendu matematiko eta logikoa deritzonak— beti hartu behar ditu kontuan.

Errealitatearen hirugarren partea, pertzepzio hauei gehitzen zaiena (nahiz eta berauengan oinarrituta egon neurri han-



dian), ikerketa berri orok kontuan hartzen dituen *aurretiko egiek* osatzen dute. Hirugarren parte hau gogortasun askoz txikiagoa duen faktore jarkilea da: amore emanez amaitzen du maiz. Errealitatearen hiru zatior gure sinesteen eratzea une orotan kontrolatzen duten elementu gisa mintzatzean, azken hitzaldian esandakoa gogoratzen baino ez naiz ari.

Orain, errealitatearen elementu hauek finkoenak izanda ere, guk oraindik neurri bateko askatasuna daukagu eurekiko harremanetan. Har ditzagun geure sentipenak. Sentipenak *izatea*, hori gure kontrolpetik kanpo dago dudarik gabe; baina arreta *zeri* jartzen diogun, zertaz ohartzen garen eta geure konklusioetan zer nabarmentzen dugun, hau geure interesen mende dago; eta enfasia han edo hemen non jartzen dugun, egiaren formulazio oso ezberdinak ateratzen dira. Gertakari berak ezberdin irakurtzen ditugu. «Waterloo», bere xehetasun finkoekin, «garaipenaz» mintzo da ingeles batentzat; frantses batentzat, ordea, «porrotaz» mintzo den artean. Era berean, filosofo optimista batentzat unibertsoa garaipenaz mintzo da; pesimista batentzat, ordea, porrotaz.

Errealitateari buruz dioguna hari begiratzeko dugun ikuspegiaren mende dago. Errealitatea *izatea* bere kontua da; baina *zer* den, *zeinen* mende dago; eta zein hori geuri dagokigu. Errealitatearen hala sentipen-parteia nola erlazio-parteia mutuak dira; ez dioskute ezertxo ere beren buruez. Geuk hitz egin behar dugu haien orde. Sentipenen mututasun honexek eraman ditu T.H. Green eta Edward Caird bezalako intelektua-listak sentipenak aintzatespen filosofikotik ia kanpo jartzera, baina pragmatistek ez dute horraino joan nahi. Sentipena, bere kasua abokatu bati eman dion bezeroaren antzekoa da: gero epaigelan abokatuak bere aferei buruz adieraztea egoki ikusitako azalpenak, gustatu edo ez, pasiboki entzun beharra dauka.

Hemendik ateratzen da sentipenen eremuan ere gure adimenek neurri bateko aukera arbitrarioa egiten dutela. Geure barne sartze eta kanpo uzteen bidez eremuaren hedadura zeda-

rritzen dugu; geure enfasiar haren lehen plano eta atzealdea markatzen ditugu; geure ordenaren bidez norabide batean edo bestean irakurtzen dugu. Labur esanda, marmol blokea hartu egiten dugu, baina guk geuk zizelkatzen dugu estatua.

Hau errealtatearen «betiereko» parteari ere aplikatzen zaio: erlazio intrintsekoen ditugun pertzepzioak nahasi eta askatasunez antolatzen ditugu. Ordena serial batean edo bestean irakurtzen ditugu, era batean edo bestean sailkatzen ditugu, bat edo bestea funtsekoagotzat hartzen dugu, harik eta beraietaz ditugun sinesteak logika, geometria edo aritmetika izenaz ezagutzen diren egia-multzo horiek eratu arte, eurotako bakoitzean eta guztietan osotasuna modelatzeko forma eta ordena nabarmenki direlarik gizakiak eginak.

Horrela, errealtatearen materiari gizakiek beren bizitzako ekintzez eransten dizkioten *gertakari* berriak aparte utzita, beren forma mentalak inprimatu dituzte nik «aurretiko egiak» izenaz aurkeztu dudan errealtatearen hirugarren parte horretan. Ordu bakoitzak bere hautemangaiak, bere sentipen eta erlazio-gertakariak dakartza, benetan kontuan hartu behar direnak; baina gertakari horiekin *iraganean* izan ditugun harreman guztiak aurretiko egietan oinarrituta daude jada. Lehen parte bien zatirik txikien eta oraintsukoena da, beraz, giza ukiturik gabe datorkiguna, eta zati honek berehala gizatartu behar du, hau da, lehendik dagoen multzo gizatartura doitu, parekatu edo nolabait egokitu behar du. Egia esateko, nekez har genezake inpresiorik, inpresioak zer izan daitezkeen dioskun aurretiko ikusmolderen bat eduki ezean.

Pentsamendutik aske den errealtateaz mintzo garenean, aurkitzen zaila den zerbait begitantzen zaigu. Esperientziara orduantxe sartzen ari denaren eta oraindik izendatzeke dagoen noziora mugatzen da, edo bestela esperientzian irudituriko jatorrizko presentzia batera, presentzia horri buruzko inolako sinisterik sortu aurretik, inolako giza ikusmolderik aplikatu aurretik. Erabat mutu eta ezabakorra dena da gure adimenen

muga ideal hutsa. Begizta genezake, baina ez atzeman, sekula ere; atzematen duguna haren ordezeko bat da beti, aurretiko giza pentsamenduak peptonizatu eta egosi duena gure kontsumorako. Hain esakune arrunta zilegi balitzaigu, erranen genuke, nonahi aurkitzen dugularik, jada *faltsifikatuta* aurkitzen dugula. Horixe da Schiller jaunak buruan duena errealtate independenteari jarkierarik gabeko ulh hutsa, geuk berregiteko baino ez dagoena, deitzen dionean.

Hauxe da Schiller jaunak duen sinestea errealtatearen muin sentigarriari buruz. Berarekin *topo* egiten dugu (Bradley jaunaren hitzetan), baina ez gara beraren jabe egiten. Azaletik begiratuta hau Kanten ikuspegiaren antzekoa da; baina natura hasi aurretik birrindutako kategorien eta naturaren presentzian mailaka eratuz doazen kategorien artean razionalismoaren eta enpirismoaren arteko troka guztia zabaltzen da. «Kantianer» benetako batentzat Schiller Kantekiko, satiro bat Hiperionekiko dena izanen da beti.

Beste pragmatista batzuk hel daitezke sineste positiboak edukitzera errealtatearen muin sentigarriari buruz. Pentsa dezakete errealtatea bere natura askean aurkituko dutela, gizakiak egindako bilgarriak hurrenez hurren kenduz. Egin dezakete teoriak guri azaltzeko nondik datozen eta hori guztia; eta *teoria horiek behar bezala funtzionatuz gero, egiazkoak izanen dira*. Idealista transzendatalek ez dagoela muinik diote, azken osaturiko bilgarria errealtatea eta egia bat eginda delarik. Eskolastizismoak muina «materia» dela irakasten du oraindik. Bergson, Heymans, Strong irakasleek eta beste batzuek sinesten dute muinean, eta adorez saiatzzen dira definitzen. Dewey eta Schiller jaunek «muga» legez hartzen dute. Zein izan liteke azalpen ezberdin hauetatik, edo berauekin aldera daitezkeen beste batzuetatik, egiazkoena, azken batean egokiena dela frogatzen duena ez bada? Alde batean errealtatea egonen da, bestean ezin dela hobetu ez aldatu frogatuko duen beronen azalpen bat. Ezintasun hau iraunkorra bada, azalpenaren egia absolutua izanen da. Hau

ez den egiaren beste edukirik ezin dut inon ere aurkitu. Antipragmatistek beste esan-nahirik badute, ager dezatela Jainkoaren amodioarren, segurta diezagutela bertarako sarbidea!

Errealitaterik ez *denez*, errealitateari *buruz* geuk dauka-gun sinestea baizik, ukanen ditu giza elementuak bere baitan, baina hauek elementu ez-gizatarra *ezagutuko dute*, zerbaiten ezagutza izan daitekeen zentzu bakarrean. Ibaiak egiten ote ditu ibaiertzak, ala ibaiertzek ibaia? Gizakiak ibiltzeko eskuin hanka ala ezker hanka ote du funtsezkoagoa? Maila berean izan daiteke ezinezkoa faktore erreala giza faktoreetatik banatzea gure esperientzia kognitiboaren garapenean.

Bego hori jarrera humanistaren adierazpen labur gisa. Paradoxikoa al dirudi? Hala bada, onargarri bihurtzen saiatuko naiz, zenbait adibide jarrita, gai honi buruz ezagutza beteagoa hartzen lagunduko digutenak.

Ohiko objektu askotan mundu guztiak atzemanen du giza elementua. Errealitate konkretu bat modu batera edo bestera bururatzen dugu, geure helburura egokitzeko, eta errealitatea, pasiboki, ikusmoldearen mende jartzen da. 27 zenbakia era askotara har genezake: 3ren kubo gisa, 3 bider 9 gisa, 26 gehi bat legez, edo 100 ken 73 legez, edo beste mila modutara, eurotako bakoitza besteak bezain egiazkoa delarik. Xake-aula bat lauki beltzak azpialde zuri baten gainean edo lauki zuriak azpialde beltz baten gainean dituen taulatzat har genezake; eta ikusmolde bata ez bestea da faltsua.

Alboko irudia ere modu askotara ikus genezake: izar gisa, elkargurutzaturiko triangelu handi bi legez, angeluetan hankak jarri zaizkion hexagono moduan, euren oinarrietatik elkarturiko sei triangelu berdin legez, etab. Ikuskerak hauek guztiak egiazko ikuskerak dira: paperean marrazturiko *hori* sentigarriak ez du bata ere arbuiazen. Lerro batez ekialderantz dagoela edo mendebalderantz dagoela esan genezake, eta lerroak *per se* deskripzio biak onartzen ditu inkoherentziaren aurrean gora-goraka jarri barik.

Zeruan izar-taldeak zizelkatzen ditugu eta konstelazioak esaten diegu, eta izarrek pazientziaz jasaten dute guk hori egitea, nahiz eta, baldin zer egiten ari garen balekitez, haietako asko harriturik geldituko lirakekeen esleitu dizkiegun kideak ikusita. Konstelazio berari izen ezberdinak jartzen dizkiogu, hala nola, Karlomagnoren gurdia, Hartz Nagusia, edo Burruntzalia. Izenotako bata ere ez dateke faltsua, eta bakoitza besteak bezain egiazkoa izanen da, guztiak direlako aplikagarriak.

Kasu horietan guztietan, giza eran, *eransketa* bat egiten diogu errealtate sentigarriren bati, eta errealtate horrek jasan egiten du eransketa hori. Eransketa guztiak «ados» daude errealtatearekin, egokitu egiten zaizkio, berau eraikitzen duten aldi berean. Haietako bat ere ez da faltsua. Zein hartu behar den egiazkoentzat, gizakiak beraietaz nola baliatzen den ikusita erabakitzen da. 27 bada 28 dolar utzi nituen tiraderan aurkitu dudana dolar kopurua, orduan 28 ken bat da. Baldin 26 hatz zabal den arasa batean apala gisa ipini nahi dudana oholaren hatz kopurua bada, orduan 26 gehi bat da. Zerua goretsi nahi badut bertan ikusten ditudan konstelazioez baliatuz, «Karlomagno» litzateke «Burruntzalia» baino egiazkoagoa. Frederick Myers nire adiskidea, haserre agertzen zen humorez, izar-talde miresgarri horrek amerikarroi sukalde-tresna bat dakarkigulako burura.

Zeri esan diezaiokegu, orduan, *gauza*? Erabat arbitrarioa dirudi, zeren oro zizelkatzen dugu, konstelazioak zizelkatzen ditugun bezalaxe, geure giza helburuei jarrai. Niretzat «entzuleria» hau guztia, gauza bakar bat da, oraintxe geraka eta oraintxe adi ikusten dudana. Une honetan, zuen unitate indibidualak ez zaizkit baliagarri, eta, hargatik, ez ditut aintzat hartzen. Gauza bera esan daiteke «armada» batez edo «nazio» batez ere. Baina zuen begien aurrean, jaun-andreok, zuei «entzuleria» deitzea zuek modu akzidentalean kontuan hartzea da. Zuentzat beti errealak diren gauzak zeuen pertsona indibidualak dira. Anatomista batentzat, ordea, pertsona horiek ez dira organis-

moak baino, eta gauza errealak organoak dira. Histologoak, oster, organoak barik zelulak direla erranen du; kimikariak, aldiz, zelulak barik molekulak direla.

Errealitate sentigarriaren jarioa gauzetan zatitzen dugu, beraz, nahierara. Geure proposizio egiazko eta faltsuen subjektuak geuk sortzen ditugu.

Geuk sortzen ditugu predikatuak ere. Gauzen predikatu askok gauzek gurekin eta gure sentimenduekin dituzten erlazioak besterik ez dituzte adierazten. Predikatu horiek, jakina, giza eransketak dira. Zesarrek Rubikon ibaia zeharkatu zuen, eta Erromaren askatasunaren aurkako mehatxu bat izan zen. Baina Amerikako ikasgeletan alamen galanta da Zesar, gure ikasleek haren idatzien aurrean duten erreakzioetik. Erantsitako predikatua aurreko besteak bezain egiazkoa da hari buruz.

Ikusten duzue nolako naturaltasunaz heltzen den bat printzipio humanistikoetara: ez dago giza ekarpena erauzterik. Gure substantibo eta adjektibo guztiak erlikia gizartuak ditugu, eta, eurok eraikitzeke erabiltzen ditugun teorietan barne ordena eta atonketa giza ikuskerek —besteak beste koherentzia intelektualak— diktatuak dira erabat. Matematika eta logika berak ere giza berratonketez hartzituta daude; fisika, astronomia eta biologia ere hobespenezko arau globalei jarrai dabil-tza. Esperientzia berrien uretara, gure arbasoek eta guk jada eginda ditugun sinesteekin must egiten dugu; berauek erabakitzen dute zeri erreparatzen diogun; erreparatzen diogunak erabakitzen du egiten duguna; egiten dugunak, aldiz, erabakitzen du esperimentatzen duguna; eta horrelaxe gauza batetik bestera, jario sentigarria hantxe *dagoela* adierazten duen gertakariak egoskor dirauen arren, *hari buruz egia* dena badirudi hasieratik azkenera geure sorketa kontua dela hein handian.

Geuk sortzen dugu ezinbestez jarioa. Galdera nagusia da: gure *eransketekin gora ala behera egiten du balioan*. Eransketak *baliozkoak* ala *baliogabeak* dira? Demagun zazpi izarrek osaturiko unibertsoa, eta hiru lekuko eta berauen kritikari bat baino ez.

Lekuko batek «Hartz Nagusia» jartzen die izena izarrei; beste batek «Karlomagnoaren gurdia»; eta hirugarrenak «Burruntzalia». Zein giza eransketak egin ote du unibertsoari onena emandako izar-material horrekin? Kritikaria Frederick Myers balitz, ez luke zalantzarik lekuko amerikarra «ezesteko».

Lotzek iradokizun sakon bat egin du zenbait lekutan. Lañoki onartzen dugu, dio hark, errealitatearen eta gure adimenaren artean erlazio bat, egiazkoaren juxtu kontrakoa izan daitekeena. Errealitatea, naturaltasunez pentsatzen dugu, aurretiaz egina eta erabat osorik ageri da, eta gure endelguak gero datoz (*supervene*) hura jada den bezalaxe deskribatzeko eginkizun bakarrarekin. Baina ez ote dira gure deskripzioak berak ere, galdetzen du Lotzek, errealitateari egindako eransketa inportanteak? Eta aurretiko errealitatea ez ote dago han, gure ezagumenean aldagabe berragertzeko barik, hain zuzen ere gure gogamenak unibertsorearen guztizko balioa areagotuko duten eransketetarantz akuilatzeke? «*Die erhöhung des vorgefundenen daseins*»\*. Eucken irakasleak nonbait erabilitako esaldi bat da, Lotze handiaren iradokizuna gogorarazten duena.

Gure ikusmolde pragmatista ere aurreko berbera da. Gure bizitza ala kognitiboan nola aktiboan sortzaileak gara. Guk subjektuei eta predikatuei, biei, errealitatearen zati bat *eransten* diegu. Mundua xaflakor dago, gure eskuen azken ukituak hartzeko zain. Zeruetake erreinuak bezala, bortizkeria jasaten du nahita. Gizakiak egiak *sortzen* ditu haren baitan.

Ez dago dudarik eginkizun honek izaki pentsatzaile moduan daukagun duintasuna eta erantzukizuna, biak handiagotzen dituela. Gutariko batzuentzat noziorik inspiratzaileenetarikoa dela erakusten du. *Signore* Papini, italiar pragmatisten burua, ditiranbiko jartzearaino heltzen da nozio honek zabalitzen duen gizakiaren zeregin jainkotiar sortzaileen ikuspegia dela eta.

\* Izatezko izakien goralpena.

Orain bai bistaratzen da bere hedadura guztian zehar pragmatismoaren eta razionalismoaren arteko diferentziaren garrantzia. Funtsezko kontrastea hauxe da: *razionalismoarentzat errealitatea aurretiaz eta oso-osorik egina (ready-made) da betierekotasun guztitik; pragmatismoarentzat, ordea, beti eginez doana eta bere izaeraren zati bat etorkizunetik espero duena*. Alde razionalistan, unibertsoa erabat seguru dago; pragmatistan, oraindik bere abenturetan segitzen du.

Zingo handiko uretan sartu gara ikuspegi humanista honekin, eta ez da harritzekoa beronen ingurura txarto ulertuak biltzea. Apetaren doktrina izateaz akusatzen dute. Bradley jaunak, esate baterako, dio humanista batek bere doktrina ulertuko balu, onartu beharko lukeela «edozein xede, dongeena izanik ere, razionala dela, nik neuk ontzat hartua bada, eta edozein ideia, zoroena izanda ere, egia izanen dela, nork edo nork egia izan dadin erabakiez gero besterik gabe». Humanistak «errealitateaz» duen ikuspegia, hau da, errealitatea jarkigarria baina xaflakorra den eta gure pentsamendua etengabe kontuan hartu beharreko (nahiz eta ez nahitaez *kopiatu* beharreko) energia bezala kontrolatzen duen zerbait legeaz aurkezten duena, ez da ikuspegi erraza hasi berriei aurkezteko. Egoera honek niri neuri gertaturiko gauza bat dakarkit burura. Behinola saiakera bat idatzi nuen sinesteko daukagun eskubideari buruz eta «*The Will to Believe*» [«Sinesteko borondatea»] jarri nion zoritxarrez izenburu. Kritikari guztiek, saiakera albo batera utzita, izenburura jo zuten erasoka. Psikologikoki ezi-nezkoa omen zen; moralki, berriz, dongea. «Engainatzeko borondatea», «Sinestarazteko borondatea» eta horrelakoak proposatu ziren txantxetan nire izenburuaren ordeaz.

*Pragmatismoaren eta razionalismoaren arteko aukerabidea, orain aurrean daukagun moldean, ez da jada ezagutzaren teoriarik kokatzen den auzia, baizik unibertsoaren beraren egiturari dagokiona.*



Pragmatismoaren aldean, unibertsoaren edizio bakar bat daukagu, amaitu gabea, mota guztietako tokietan hazten ari dena, batez ere izaki pentsatzaileak lanean ari diren tokietan.

Razionalismoaren aldean, edizio askoko unibertsoa daukagu, baina bat bakarrik da erreala, «folio infinitua» edo *luxuzko edizioa*, betidanik oso-oso dena; eta gero hainbat edizio finitu daude, irakurketa faltsuz josita, zein bere erara aldrebestu eta moztuta.

Hartara, elkarren kontrakoak diren pluralismoaren eta monismoaren hipotesi metafisikoak berriro ageri zaizkigu. Berauek aztertzeari ekinen diot hitzaldi honetan gelditzen zaigun zatitxoan.

Eta lehenbizi esan dezadan ezinezkoa dela alde bataren edo bestearen aukera egitean izaerazko diferentzia bat jardunean ez ikustea. Espiritu razionalista, erradikalki hartuta, taxukera doktrinario eta autoritariokoa da: «behar da» esamoldea beti dago haien ezpainenetan. Haien unibertsoaren zingilak estu-estu egon behar du. Pragmatista erradikala, ordea, andafandango dabilen anarkista antzeko bat da. Diogenesen moduan upa baten barruan bizi beharra balu, bost axola hari zirrindolak lasaierekin edo upa-oholak eguzkia barrura sartzeko moduan edukitzeak.

Orain, horrelako unibertso laxo baten ideiak razionalista petoari «prentsa askatasunak» Errusiako zentsura bulegoko funtzionario beteranoari bezalatsu eragiten dio, edo «ortografia laburtuak» maistra nagusi bati bezalatsu. Behatzaile papista bati protestanteen sekta mordoak egiten dion eragin bera egiten dio. Politikan legitimista frantses zaharkituari, edo herriaren eskubide jainkotiarrean sinesten duen fanatikoari, «oportunismoa» bezain ornorik eta printzipiorik gabeko gertatzen zaio.

Pragmatismo pluralistaren aburuz, egia esperientzia finitu guztien baitan hazten da. Bata bestea dute euskarri, baina

guztien multzoak, horrelakorik izatera, ez du inon euskarririk «Etxe» guztiak esperientzia finituan daude; baina esperientzia finituak berez ez dauka etxerik. Jarriotik kanpo dagoen ezerk ere ez du segurtatzen haren irtenbidea. Bere agintzari eta ahalmen intrintsekoetatik bakarrik espero dezake salbazioa.

Razionalisten iritziz, mundu herratu eta arlote bat deskribatzen du horrek, espazioan zehar noraezean dabilen mundua, elefanterik ez dortokarik ez duena hankak finkatzeko. Zerura jaurtiriko izar mordo bat baino ez da, erakarriko duen grabitate-zentrorik ere ez duena. Egia da bizitzako beste eremu batzuetan segurtasun-gabezia erlatiboko egoeran bizitzen ohitu garela. «Estatuaren» aginpidea eta «lege moral» absolutuarena gauza baliagarri bihurtu dira, eta eliza santua «batzar-leku» bihurtu da. Baina filosofiako ikasgeletan oraindik ez da horrelakorik gertatu. *Gu* bezalako izakiak bere egia sortzen laguntzen ari zaizkion unibertso bat, *geure* oportunismoetara eta *geure* judizio pribatueta entregaturiko mundu bat! Honen aldean Irlandarentzako autonomia urrezko aroa litzateke. *Gu* ez gara gai honetarako, filipinarrak «auto-gobernurako gai» diren baino gehiago. Horrelako mundua ez litzateke filosofikoki *itzalgarria*. Filosofiako irakasle gehienen ikusirako etiketarik gabeko kutxa litzateke, lepokorik gabeko txakurra.

Zerk, orduan, lotzen du estu unibertso laxo hau, irakasle horien ustez?

Bada, aniztasun finituari eutsiko dion zerbaitek, aniztasun hori estu-estu lotu, bat egin eta ainguratuta edukiko duen zerbaitek. Ezbeharren arriskurik *ez* duen zerbaitek, betierekoa eta aldaezina den zerbaitek. Esperientzian aldagarria denak aldaezintasunean oinarrituta egon behar du. *De factoko* gure munduaren, aktuan den gure munduaren atzean, *de jureko* kopia bat, finkoa eta alde z aurretikoa, izan beharra dago, hemen jazotzen den guztia jada *in posse* daukana: odol tanta bakoitza, xehetasun txikiena, seinlatu eta segurtaturik, markatu eta zigilaturik daukana, aldatzeko modurik gabe. Hemen

behean gure idealak mehatxatzen dituzten ezezekoek ukatuak behar dute izan absolutuki Errealaren erreinuan. Honexek bakarrik bihurtzen du sendar unibertsoa. Sakonalde barea da. Azal ekaiztsuan bizi gara gu; baina, hala ere, gure aingurak sakonaldeari eusten dio, hondoko haitzei heltzen dielako. Hau, Wordsworthen hitzetan, «amairik gabeko asalduraren bihotzean bizi den bakea» da. Aipatu dizuedan Vivekanandaren Bat mistikoa da. Errealitatea, E maiuskulaz da, denboraz ateko oihua dagien errealitatea, porrotik gerta ezin dakiokkeen errealitatea. Printzipiodun gizakiek eta, oro har, lehenengo hitzaldian gogo samurrekotzat sailkatu ditudan guztiek postulatzer behartuta sentitzen diren errealitatea da.

Eta hauxe da, hauxe hain zuzen ere, hitzaldi berean aipaturiko gogo bortitzekoek, horretarako bultzada sentituta, abstrakzio-gurtzaren adibidetzat dutena. Gogo bortitzekoak beren alfa eta omega *gertakariak* dituztenak dira. Gertakari fenomeniko hutsen atzean, gogo bortitzeko Chauncey Wright nire lagunak, nire gaztarako Harvardeko enpirista handiak, esan ohi zuen bezala, ez dago *ezer*. Razionalista batek behin eta berriz esaten duenean gertakarien atzean gertakarien *oinarria* dagoela, gertakarien *ahalbidea* dagoela, enpirista bortitzagoek gertakari baten izena eta izaera hutsa hartu eta gertakari horren atzean, posible egiteko, entitate bikoiztua balitz bezala astintzeaz akusatzen dute. Ezaguna da oinarri faltsu horiek maiz aipatzen dituztela arrazoitzat. Ebakuntza batean albotik medikuari galdetzen entzun nion bati ea zergatik zeukan gai-xoak hain arnasa sakona. «Eterra arnas bizkorgarria delako», erantzun zion medikuak. «A!», esan zuen galdetzaileak, entzundakoa azalpen ona izan balitz legez. Baina hau potasio zianuroak «pozoia» delako hiltzen duela esatea legez da, edo gaur gauean hain hotz «negua delako» egiten duela edo bost hatz «pentadaktiloak» garelako dauzkagula esatea legez. Hauek gertakarienezako izenak baino ez dira, gertakarietatik hartuak eta gero aurretiko eta argitzaile gisa erabiliak. Gogo

samurrekoen errealtate absolutuaren nozioa, gogo bortitzeko erradikalen aburuz, txantilo horrexen arabera doi-doi eraikita dago. Fenomenoen multzo barreiatu eta kordatu osoa laburbiltzen duen izena besterik ez da, entitate ezberdina, aldi berean bat bakarra eta aurretikoa, balitz legez erabilia.

Ikusten duzue zein era diferentean hartzen dituen jendeak gauzak. Gu bizi garen mundua hedaturik eta banaturik existitzen da, *bakoitz* askoko sorta bat eginez, era eta maila guztietan koherentea den sorta bat; eta gogo bortitzeko jendea erabat prest dago balorazio honi eusteko. *Jasan* dezakete mota horretako mundua, berorren segurtasunik ezera ongi egokituriko izaera baitaukate. Ez hala gogo samurrekoen alderdiak. Ez, jende horrek gu jaio ginen mundua beste mundu «diferente eta hobe» batez «sendotu» beharra dauka, non *bakoitz* anitzek Osoa eratzen baitute eta Osoak *bakoitz* guztiak salbuespenik gabe auresuposatzen, elkar inplikatzan eta segurtatzen dituen Bat bat eratzen baitu.

Pragmatista gisa guk erradikalki adimen bortitzekoak izan behar ote dugu, ala munduaren edizio absolutua bidezko hipotesizat hartu behar ote dugu? Bidezkoa da nonbait ere, zeren pentsagarria baita, konkretuan nahiz abstraktuan hartu.

Abstraktuan hartzeaz hipotesi hori geure bizitza finitua-  
ren atzean jartzea esan nahi dut, gaur gaueko eguraldi hotzaren atzean «negua» hitza jartzen dugun moduan. «Negua» eskuarki eguraldi hotza ezaugarri izaten duten egun kopuru bati ipintzen diogun izena baino ez da; baina ez du ezer bermatzen zentzu horretan, zeren gure termometroa bihar 70era igo daiteke. Hala ere, hitz hau baliagarria dugu berarekin geure esperientziaren korrontera must egiteko. Probabilitate batzuk kanpo utzi eta beste batzuk ezarri egiten ditu. Lastozko kapela etxean utzi eta berokia armairutik atera dezakegu. Espero behar diren gauzen laburpen bat da. Naturaren azturen zati bati izena ipintzen dio eta euren jarraitasunerako prest jartzen gaitu. Esperientziatik abstraituriko tresna zehatz bat da, kontuan

hartu behar dugun kontzeptuzko errealitate bat, berriro errealitate sentigarriera erabat igortzen gaituena. Pragmatista horrelako abstrakzioen errealitatea ukatuko duen azken pertsona da. Horiek ere iraganiko esperientzia bermatuak dira.

Baina konkretuan hartuta, munduaren edizio absolutuak beste hipotesi ezberdin bat esan nahi du. Razionalistek konkretuan hartzen dute eta munduaren edizio finituen *aurka* jarzen dute. Izaera berezia ezartzen diote. Ezin hobea da, erabat amaitua. Hor ezagutzen den guztia beste guztiarekin batera ezagutzen da; hemen, ezjakintasuna nagusi den tokian, oso bestela gertatzen da. Mundu horretan premiarik sortuz gero, erantzuna emana dago. Hemen dena da prozesua; horko mundua denborarik gabea da. Gure munduan posibilitateak lortzen dira; mundu absolutuan, non *ez* den guztia betierekotasun guztitik ezinezkoa baita eta *den* guztia beharrezkoa baita, posibilitatearen kategoriak ez du aplikaziorik. Mundu honetan krimenak eta lazturak deitoragarriak dira. Beste mundu bateratu horretan, ordea, nahigabeak ez du lekurik, zeren «gaizkiaren existentzia mundu honetan hain zuzen ere betiereko munduko hobeizintasunaren baldintza baita».

Beste behin ere, hipotesi biok bidezkoak dira pragmatistaren ikusirako, biek baitituzte beren erabilerak. Abstraktuan, edo negua hitza bezala hartuta, hau da, etorkizunerantz bideratzen gaituen iraganiko esperientziaren memorandum gisa, mundu absolutuaren nozioa ezinbestekoa da. Konkretuan hartuta ere ezinbestekoa da, gogamen batzuentzat behintzat, erlijioz determinatzen dituelako, honek maiz bizitzaz aldatzea eragiten dielarik, eta, bizitzaz aldatuta, kanpoko bizitzan ere euren mende dagoena aldatu egiten delarik.

Pragmatistok, beraz, ezin dugu bat egin gogo bortitzekoekin gure esperientziatik haraindiko munduaren nozio oro ukatze horretan. Pragmatismoa gaizki ulertze bat gogo bortitzasun positibistarekin identifikatzea da, uste izatea nozio razionalista oro hitz-jario eta imintzio huts gisa erdeinatzen duela, edo anar-

kia intelektuala bere horretan maite duela eta nahiago duela otso-mundu erabat jaregina eta basatia, edozein filosofi produktu akademikora lotuko duen ugazabarik ez lepokorik gabe-koa. Hain asko hitz egin dut hitzaldiotan razionalismoaren era gainsamurren aurka, non prest nagoen gaizki ulertze batzuk aditzeko, baina aitor dut hemen entzuleria honen artean hainbeste gaizki ulertze aurkitzeak harritu egiten nauela, zeren hipotesi razionalistak ere defendatu ditut aldi berean, esperien-ziara emankortasunez birbidera gaitzaketen heinean.

Esate baterako, gaur goizean galdera hauxe hartu dut posta-txartel batean: «Pragmatista erabateko materialista eta agnostikoa al da ezinbestez?». Nire lagun zaharrenetako batek, hobeto ezagutu behar nindukeenak, eskutitz batean ni gomen-datzen ari naizen pragmatismoa ikuspegi metafisiko zabalago guztiak zeharo ixteaz eta gu naturalismorik *terre à terre*-enera kondentatzeaz akusatzen du. Utz iezadazue eskutitzaren zen-bait pasarte irakurtzen.

«Iruditzen zait», diost nire adiskideak, «pragmatismoari jar dakiokkeen objekzio pragmatikoa gogo hertsien hertsitasuna areagotzeko dukeen ahalean datzala.

Txepelkeriak eta gatzgabekeriak arbuiatzera egiten duzun deia adoregarria da nonbait ere. Baina, osasungarria eta bizkorgarria den arren zugandik entzutea norberak bere hitz eta pentsamenduen berehalako emaitzen eta ondorioen eran-tzule izan behar lukeela, ez diet uko egin nahi urrunagoko ondorio eta emaitzei buruz hausnartzeko plazer eta abantaila-ri, pragmatismoaren *joera* pribilegio hau arbuiatzea den arren.

Labur esanda, iruditzen zait joera pragmatistaren mugak edo, hobeto esanda, arriskuak ‘natur zientzien’ jarraitzaile sineskorrek inguruan dituztenen antzekoak direla. Kimika eta fisika pragmatikoak dira mailarik garaienean; eta euronganako jaieradunek, eurok luzatzen dizkieten pisu eta neurrien datue-kin pozik eta harroputz, neurrigabeko errukia eta erdeinua era-kusten diete filosofia eta metafisika aztertzaile guztiei, dire-

nak direla. Eta, jakina edozer adieraz daiteke —maila bateraino eta «teoriaz»— kimika eta fisikako terminoetan, hau da, *edozer, osoaren ezinbesteko printzipioa izan ezik*, eta hau adierazten saiatzeak ez du baliagarritasun pragmatikorik; ez du ondoriorik... *haientzat*. Nik neuk ez dut nahi inork sinestaraz diezadan ezin dugula naturalisten eta pragmatisten begi-bistako pluralismotik harago begiratu eurak inola ere arduratzen ez dituen batasun logiko batera».

Nolakoa da lehenengo eta bigarren hitzaldiaz geroztik daitekeentzat defendatzen ari naizen pragmatismoaren ikuspegia? Lehenengo unetik, berariaz, gogo bortiztasunaren eta gogo samurtasunaren arteko bitartekari moduan aurkeztu dut. Baldin *ante rem* den mundu baten nozioa, edo abstraktuan hartuta negua hitza bezala, edo konkretuan Absolutuaren hipotesia bezala, gure bizitzarako ondorioren bat baduela frogatzerik badago, orduan esan-nahia dauka. Esan-nahiak funtzionatzen badu, orduan pragmatismoarentzat ukanen du *egiaren bat*, ahal diren birformulazio guztien bidez eutsi beharrekoa.

Perfekzioa betierekoa, jatorrizkoa eta denik errealena dela dioen hipotesi absolutistak esan-nahi erabat zehatza dauka eta erlijio mailan dihardu. Hau nola gertatzen den aztertzea nire hurrengo eta azkeneko hitzaldiaren gaia izanen da.





# ZORTZIGARREN HITZALDIA

## PRAGMATISMOA ETA ERLIJIOA

Azken hitzaldiaren amaieran lehenengoa oroitarazi nizuen, non gogo bortiztasuna gogo samurtasunaren aurrez aurre jarri eta pragmatismoa gomendatu nuen bion arteko bitartekaritzat. Gogo bortiztasunak errefusatu egiten du gogo samurtasunaren hipotesia, unibertsoaren betiereko edizio hobeazina gure esperientzia finituarekin batera existitzen jartzeko duena alegia.

Printzipio pragmatikoetan oinarrituta ezin dugu inongo hipotesirik errefusatu, baldin bertatik bizitzarako baliagarriak diren ondorioak badatoz. Ikusmolde unibertsalak, kontuan hartu beharreko legez, sentipen konkretoak bezain errealak izan daitezke pragmatismoarentzat. Ez daukate, eduki, inolako esan-nahirik ez errealitatez, erabilgarritasunik ez badute. Baina erabilgarritasuna ukanez gero, haren tamainako esan-nahia ukanen dute. Eta esan-nahia egiazkoa izanen da, baldin erabilgarritasun hori bizitzako beste erabakigarritasunei ongi egokitzen bazaie.

Orain, Absolutuaren erabilgarritasuna gizakien historia erlijiosoaren ibilbide guztiak ongi frogaturik utzi du. Betiereko besoak behetik dabilta. Gogoratu Vivekanandak nola erabil-

tzen duen Atman, erabilpen hau zientifikoa ez den arren, ezin dugulako dedukziorik atera bertatik. Erabilpen emozional eta espirituala da erabat.

Beti ere hobe izaten da gauzak adibideen laguntzaz ezta-baidatzea. Utz iezadazue, beraz, «Zeuri» izeneko Walt Whitmanen poemako neurtitz batzuk irakurtzen. «Zeu» hori, jakina, poemaren irakurle edo entzulea da, nornahi delarik ere.

*Nornahi zarela, zure gainean jartzen dut oraintxe eskua,  
zeu izan zaitezene nire poema;  
nire ezpainak zure belarrira, xuxurlatzen dizut:  
gizon eta emakume asko maite izan ditut, baina inor ere ez  
zu bezain biziki.*

*Ai ene, zein uzkur eta isil egon naizen;  
aspaldi behar nuen egina zuganainoko bidea;  
zutaz bakarrik hitz egin behar nuen, zuri bakarrik kantatu.  
Dena utziko dut, zugana heldu eta zure himnoak kantatuko ditut;  
inork ez zaitu ulertu, baina nik ulertzen zaitut;  
inork ere ez dizu merezi duzuna eman, zuk zeuk ere ez  
zeure buruari;  
ez dago inor akastun aurkitu ez zaituenik: zuga akatsik aurkitzen ez  
duen  
bakarra neu nauzu.*

*Oi, zer nolako omen eta handitasunak kanta nitzakeen zutaz!  
Sekula ez duzu jakin zer zaren: bizi osoa zeure buruaren gainean lo  
igaro duzu;*

*egin duzunaren ordainetan burlak jaso dituzu.*

*Baina zu ez zaitugu burlak;  
burla horien azpian eta euren barruan, ezkutaturik ikusten zaitut;  
bila nabilkizu, beste inork bilatu ez zaituen tokietan bila.  
Isiltasuna, lana, haserre aurpegia, gaua, betiko ohikeria, heriotza  
goiztiarra ...  
horiek besteengandik, edo zeure buruarengandik, estaltzen bazaituz-  
te, nigandik  
ez zaituzte estaltzen;  
bizarra mozturiko aurpegia, begirada galdua, azal akasduna ...  
horiek besteak atzera botatzen badiutuzte, ni ez naute atzera botatzen.  
Janzkera arlotea, itxura motza, hordikeria, sabelkeria ...horiek guz-  
tiek*

*bost axola niri.*

*Ez dago dohainik gizonaren edo emakumearen baitan, zuri ez dago-  
kizunik;*

*ez dago bertuterik ez edertasunik, gizonarengan edo emakumearen-  
gan, zuga parekorik ez duenik;*

*ez dago adorerik ez iraunkortasunik inorengan, zugaran parekorik ez duenik;  
 ez dago plazerrik inoren zain, zure zain ere ez dagoenik.  
 Zarena zarela! Erreklama zeurea duzuna kosta ahala kosta!  
 Sortalde eta sartaldeko argi-erakustaldiak hitsak dira, zure aldean;  
 larre neurrigabeak, amairik gabeko ibaiak bai, baina zu haiek  
 bezain neurrigabea eta amairik gabekoa zara;  
 Zeu, emakume edo gizon, zeu zara haien ugazaba edo ugazabandre,  
 ugazaba edo ugazabandre, zeurea duzun eskubidez, Naturaren, ele-  
 mentuen, minaren, pasioaren, heriotzaren gainean.  
 Girgiluak orkatiletatik behera jausi zaizkizu: lasaitasun hutsezina  
 aurkitu duzu;  
 Zaharra edo gaztea, arra edo emea, zakarra, behe-mailakoa, besteek  
 arbuiatua, zu zarenak bere burua aldarrikatzen du;  
 jaiotzaren, bizitzaren, heriotzaren, ehorzketaren bidez, baliabideak  
 ematen zaizkizu, ezer ez zaizu urri ematen;  
 suminaren, galeren, anbizioaren, ezjakintasunaren, abilduraren  
 bidez,  
 zu zarenak bere bidea topatzen du.*

Poema ederra eta hunkigarria da benetan, edonola ere; baina era bitara har daiteke eta biak dira baliagarriak.

Era monistikoa da bata, emozio kosmiko garbiaren era mistikoa. Aintza eta handitasunak erabat zeuenak dituzue zeuen erdiratzeen erdian ere. Edozer gertatzen zaizuela ere, edonola agertzen zaretela ere, barrutik onik zarete. Begira eza-zue atzera, *har oinarri* zeuen izatearen egiazko printzipioan! Hauxe da kietismoaren, aihergatasunaren, bide ospetsua. Beronen etsaiek opio espiritualarekin alderatzen dute. Hala ere, pragmatismoak errespetatu egin behar du bide hau, erre-bindikazio historiko zabalak eusten diolako.

Baina pragmatismoak beste bide bat ere errespetatu behar dela ikusten du, poema interpretatzeko era pluralista. Horrela goretsitako zu horrek, himnoa kantatzen zaion horrek, baliteke norberaren ahalbideak fenomeno gisa hartuta esan nahi izatea, edo norbere huts egiteek ere norberaren baitan edo besteen baitan dituzten ondorio askatzaileak. Baliteke norberak maite eta miresten dituen beste batzueganako leialtasuna esan nahi izatea, edo baita zure bizitza pobrea onartzeko prest

zaudela, aintza horretan partaide delako. Gutariko bakoitzak mundu oso hain zoragarria prezia eta txalo dezake, baita beronen aldeko kide izan ere. Ahantz dezagun, beraz, geure baitan daukagun makurra eta pentsa dezagun jasoan soilik; orduan, suminduraren, galeren, ezjakintasunaren, asperkizunaren bidez, nork bere buruaz egiten duenak, gu sakonkien garenak, bere bidea topatuko du.

Batera zein bestera hartu poema, geure buruarekiko leialtasunera bultzatzen gaitu. Poema irakurtzeko era biek uzten dute pozik hartzailea; biek santutzen dute giza ibilbidea. Biek pintatzen dute urrezko atzealdearekin *zuaren* erretratua. Baina lehen eraren atzealdea Bat estatikoa da; bigarren erak, ordea, litezkeenak, pluralean, benetako litezkeenak, esan nahi ditu, eta ikusmolde horren ezinegon guztia dauka.

Poema irakurtzeko era bata zein bestea noblea da egiazki; baina , argi esanda, irakurketa pluralista hobeto uztartzen da izaera pragmatikoarekin, gure gogamenari geroko esperientziaren mila xehetasun gehiago iradokitzen dizkiolako berehala. Bigarren era honek, lehenengoaren aldean, prosaikoa eta mundu honetakoa ematen duen arren, inork ezin du akusatu gogo bortiztasunaz terminoaren zentzu zakarrean. Hala ere, baldin zuek, pragmatista moduan, bigarren era lehenengoaren *kontra* jarri behar bazenute positiboki, gaizki ulertuak izanen zinatekete seguruenik. Ikusmolde nobleagoak ukatzeaz akusatuko zintuztekete, eta gogo bortiztasunaren, zentzurik txarrean, aliatu izateaz.

Gogoratzen dituzue, nonbait, aurreko bileran irakurri nizkizuen entzuleon arteko batek idatzitako eskutitzaren zati batzuk. Utz iezadazue orain zati bat gehiago irakurtzen. Argi ageri da pasarte honetan nolako zehaztasun faltaz ikusten diren aztergai ditugun alternatibak, oso zabaldurik dagoen hutsa berau, nire ustez.

«Nik sinesten dut pluralismoan», idazten dit nire lagun honek bere gutunean; «nik sinesten dut egiaren bilaketan amai-

rik gabeko itsasoan flotari ageri diren izotz-pusketan batetik bestera jauzika ari garela, eta burutzen dugun ekintza bakoitzean egia berriak posible eta zaharrak ezinezko bihurtzen ditugula; sinesten dut gizaki bakoitzak mundua hobetzeko ardura duela bere gain, eta, erantzukizun hau betetzen ez badu, hobetu gabe geldituko dela.

Baina aldi berean, prest nago onartzeko nire seme-alabak gaixotasun sendaezinak jota eta oinazez egotea (ez daude zorionez horrela) eta ni neu ergela izatea, gainera neure ergeltasunaz ohartzeko adina buru ukanik, baina baldintza bakar batekin, alegia, nik, neure irudimenaz eta arrazoimenaz *gauza guztien batasun razionala* eraikiz bururatu ahal izatea nire ekintzak eta pentsamenduak eta kezkak *munduko beste fenomeno guztiek osatzen dituztela eta, horrela osatuak direnean, ontzat hartzen eta neure egiten dudan eskema bat eratzen dutela*; eta nik neuk ez dut nahi inork niri sinestarazterik ezin dugula begiratu naturalistaren eta pragmatistaren begi-bistako pluralismoaz haraindi, haiei bost axola dien eta inolako kasurik egiten ez dien batasun logikoa ikusteko».

Sinesmen pertsonalaren hain adierazpen eder horrek berotu egiten du entzulearen bihotza. Baina zenbateraino argitzen ote du haren buru filosofikoa? Zein interpretazioren alde ote dago koherentziaz gutun-idazlea: munduaren poemaren interpretazio monistaren ala pluralistaren alde? Bere kezkak garbituta geratzen dira *horrela osatuak direnean*, dio hark, hau da, *beste fenomenoek* ekar ditzaketen erremedioek garbituta. Bistan da nire adiskidea hemen aurrera begira dagoela esperientziaren xehetasunetara, esperientzia era pluralista eta melioristan interpretatuz.

Baina hark uste du bera atzera begira dagoela. Berak gauzen *batasun* razionala esaten dionaz mintzo da, une orotan esan nahi duena, ordea, haien *bat-egite* enpiriko posiblea denean. Aldi berean uste du ezen pragmatistak, razionalismoaren Bat abstraktua kritikatzeko duelako, anitz konkretuen ahalbide

salbatzaileetan sinestearen kontsolamendurako biderik ez duela. Hitz bitan, ez dela gai bereizteko munduaren hobeizintasuna nahitaezko printzipiotzat hartzea, *terminus ad quem* posibletzat hartzetik.

Eskutitz hau idatzi duena benetako pragmatistatzat daukat, baina *sans le savoir*. Lehenengo hitzaldian aipatu nituen filosofi zaletu ugarietariko bat iruditzen zait, gauza on guztiak abian eduki nahian beti ere, baina ados nola dauden edo ez dauden gehiegirik arduratu gabe. «Gauza guztien batasun razionala» hain formula bizkorgarria da, non pentsatu gabe baitarabil eta pluralismoa, abstraktuan, harekin tupust egiteaz akusatzen baitu (izenak, bai, tupust egiten dute eta), nahiz eta konkretuan horrekin pragmatikoki bat eginiko eta hobeturiko mundua esan nahi duen. Gutariko gehienok lausotasun funtsezko horrexetan gelditzen gara, eta ongi dago hori gertatzea; baina buru-argitasunaren alde on da gutariko norbaitek aurre-ago jotzea, eta, horregatik, erlijio-puntu konkretu hau zehazkiago bideratzen saiatuko naiz.

Nola orduan hartu behar dugu zu guztien zu hau, mundu absolutuki erreal hau, adore morala dakarren eta balio erlijio-soa duen batasun hau: era monistan ala pluralistan? *Ante rem* ala *in rebus* ote da? Printzipioa ala xedea ote da, absolutua ala funtsezkoa, lehenengoa ala azkena? Aurrera begira jarri ala etzanarazi egiten ote gaitu? Benetan merezi du gauza biok ez nahastea, zeren, bereiz jarritz gero, oso esan-nahi diferenteak baitituzte bizitzarako.

Ohartu, mesedez, dilema guztia, pragmatikoki, munduaren posibilitateen nozioaren inguruan jirabiraka dabilela. Intelektualki, razionalismoak bere batasun printzipio absolutua aipatzen du gertakari anitzen posibilitateen oinarri gisa. Emozionalki, posibilitateen edukitzaile eta mugatzaile gisa ikusten du, emaitza ona izan den berme gisa. Horrela hartuta, absolutuak gauza on guztiak bermatu eta gauza txar guztiak ezinezko bihurtzen ditu (betierekoan, jakina), eta esan daiteke

posibilitatearen kategoria osoa kategoria seguruago bihurtzen duela. Puntu honexetan ikusten da mundua *salbatu behar dela eta salbatuko dela* esaka dabiltzanen eta mundua *salba daitekeela* sinestearekin konformatzen direnen artean dagoen alde erlijioso itzela. Erlijio razionalista eta enpiristaren arteko talka guztia posibilitatearen baliozkotasunean datza. Beraz, hitz hau ongi aztertzen hasi beharra dago. Zer esan-nahi ukan dezake zehazki «litekeena» (*possible*) hitzak. Hausnarketa handirik egiten ez dutenentzat izakiaren hirugarren egoera bat edo esan nahi du, existentzia baino errealitate gutxiagokoa, ez-existentzia baino errealagoa, ilunabarreko erresuma bat, egoera hibrido bat, lantzean behin errealitateak bertatik, barrutik eta kanpotik, pasarazteko dagoen linbo bat.

Ikusmolde hau, jakina, lanbrotsuegia eta deskribagaitzegia da gu konforme uzteko. Hemen ere, beste askotan bezalaxe, hitz bati bere esan-nahia ateratzeko biderik onena berarekin metodo pragmatikoa erabiltzea da. Zerbait litekeena dela esaten duzuenean, zer alde suposatzen du horrek? Alde hauxe behintzat suposatzen du, alegia, norbaitek gauza bat ezinezkoa dela diotsuenean, kontrakoa esan diezaiokezuela eta, norbaitek erreala dela badiotsue, *honi* ere kontrakoa esan diezaiokezuela, eta norbaitek beharrezko dela esanez gero ere berdin.

Baina kontrakoa esateko pribilegio hauek ez dute garrantzi modurik. Zerbait litekeena dela esaten duzuenean, ez al dakar horrek geroagoko diferentziaren bat gertakari errealetan?

Diferentzia negatibo hauxe bederen suposatzen du, alegia, baieztapena egia izanez gero, izan litekeen gauza hori eragozteko *gai den ezer ez dagoela*. Interferentzia errealerako oinarriarik ez egoteak gauzak *ez-ezinezkoak*, litezkeenak, beraz, zentzu *bakun* edo *abstraktuan*, izatea dakarrela esan daiteke.

Baina litezkeen gehienak ez dira bakunak, konkretuki oinarrituak dira, ongi oinarrituak, esan ohi den bezala. Zer esan nahi du honek pragmatikoki? Bada, baldintza eragozlerik ez egoteaz gain, gauza posible hori sortzeko behar diren zenbait

baldintza hantxe daudela benetan. Horrela konkretuki litekeen oilasko batek esan nahi du: 1) oilaskoaren ideiak ez duela barne kontraesan funtsezkorik; 2) mutikorik, mofetarik edo beste etsairik ez dabilela inguruan; eta 3) gutxienez arrautza erreala bat badela. Litekeen oilaskoak arrautza erreala esan nahi du; gehi oilaloka edo inkubagailua, edo dena delakoa. Baldintza errealak bete ahala, oilaskoa gero eta hobeto oinarrituriko posibilitate bihurtzen da. Baldintza guztiak betetzean, posibilitatea izateari utzi eta gertakari erreala bihurtzen da.

Aplika diezaiogun orain nozio hau munduaren salbazio-ari. Zer esan nahi du pragmatikoki mundua litekeena izateak? Bada, munduaren askapenerako baldintza batzuk jada errealki existitzen direla. Eta zenbat eta berauetariko gehiago existitu, orduan eta baldintza eragozle gutxiago aurkituko dituzu, salbazioaren posibilitateak oinarri hobea dauka eta *probableago* bihurtzen da askapenaren gertakaria.

Aski bedi hau posibilitateari lehen begiratu gisa.

Orain, bizitzaren espirituaren kontrakoa litzateke esatea gure adimenak aiherga eta neutrala izan behar duela munduaren salbazioa bezalako auzietan. Bere burua puntu honetan neutralizatzen daukan oro zoro edo faltsu baten mailara jaisten da. Denok nahi dugu minimizatu, hobe ez, munduaren segurtasun-gabezia; atsekabeturik gaude eta egon behar dugu mundua edozertariko etsaien mende eta edozertariko haize-bolada bizi-suntsigarrien aurrean babesik gabe ikusten dugunean. Hala ere, bada jende atsekabetua, munduaren salbazioa ezinezkoa dela uste duena. Hauen doktrina pesimismo izenaz ezagutzen da.

Optimismoa, oster, munduaren salbazioa ezinbestekoa dela uste duen doktrina da.

Bion arteko erdibidean meliorismoaren doktrina esan dakioket dago, nahiz eta gaur arte doktrina gisa baino gehiago giza arazoetan harturiko jarrera gisa agertu den. Optimismoa izan da beti Europako filosofian nagusi izan den *doktrina*. Pesimismoa Schopenhauerrek oraintsu sartutakoa da eta defen-



datzaile sistematiko gutxi ditu oraindik. Meliorismoak ez dauka salbazioa ez nahitaezkoztat ez ezinezkoztat. Posibilitatetzat dauka., baina zenbat eta gehiago izan salbaziorako baldintza errealak, probableago bihurtzen den posibilitatetzat.

Argi dago pragmatismoak meliorismoaren aldera duela makurdura. Munduaren salbaziorako baldintza batzuk errealki existitzen dira, eta hark ezin ditu begiak itxi gertakari honen aurrean; eta gainerako baldintzak sortuko balira, salbazioa errealitate beteak litzateke. Nik hemen darabiltzadan terminoak, jakina, eskematikoegiak dira. «Salbazioa» berba norberak nahi duen erara interpreta daiteke, eta fenomeno nahi bezain zehaztugabe eta hedatu edo erabakigarri eta integral bihur.

Har dezagun adibidetzat gela honetako edozein, maite dituen idealen alde bizi eta lan egiteko prest dagoena. Ideal horietako bakoitza gauzatzea une bat izanen da munduaren salbazioan. Baina ideal konkretu horiek ez dira posibilitate abstraktu huts. Oinarridunak dira, posibilitate *biziak* dira, geu garelako haien defendatzaile eta abal; eta baldintza osagarriak sortu eta haiei erantsiz gero, orduan gure idealak gauza erreal bilakatuko dira. Orain, zer dira baldintza osagarriak une jakin batean? Lehenengo eta behin gauzen nahaste bat dira, sasoi betean aukera bat, bitarte bat eskainiko diguna barrura jauzi egin eta, azkenerako, *geure ekintza* bihurtzeko.

Gure ekintza al da, orduan, munduaren salbazioa *sortzen* duena, beretzako adina leku egin eta bitarte horretatik jauzi egiten duen heinean? Ez al du sortzen, ez, jakina, mundu osoaren salbazioa, baina bai berak munduaren hedaduran har dezakeen zatia adinako salbazioa?

Hemen zezenari adarretatik heldu nahi diot, eta edozein markatako razionalista eta monistek osaturiko koadrila guztia gorabehera, galdetzen dut: *zergatik ez?* Gure ekintzak, gure krisialdiak, zeinetan badirudien geure burua geuk egiten dugula eta hazi egiten garela, hurbilen ditugun munduaren osagaiak dira, barru-barrutik eta ongien ezagutzen ditugun osagaiak.

Zergatik ez onartu euren balio nominalean? Zergatik ezin dira krisialdi eta hazkunde erreal horiek iruditu diruditea izan, hau da, munduaren krisialdi eta hazkundeak? Zergatik ezin dira izakiaren lantegiak izan, non gertakaria egitean atzematen dugun, halatan non mundua ezin den horrelaxe besterik hazi?

Horixe irrazionalkeria! dioskute. Nola sor daiteke izaki berririk puntuan puntuan edo, gainerakoarekin loturarik gabe, ausaz elkarki eransten zaizkien edo bereiz dirauten unadetan? Gure ekintzetarako arrazoiren batek izan behar du nonbait; eta non, azken batean, bila daiteke arrazoi hori, munduaren izaera osoaren presio materialean edo bultzada logikoan ez bada? Hazkunderen, edo itxurazko hazkunderen, eragile bat baino ezin da izan nonahi ere, eta eragile hori mundu osoa bera da. Hazkunderik izatera, mundua osorik hazten da; baina osagai horiek banaka *per se* haztea irrazionala da.

Baina razionaltasuna eta gauzentzako arrazoiak aipatzen badituzte, eta behin eta berriz badioskute ezin direla unadetan sortu; zer arrazoi *mota* izan daiteke, azken batean, zer edo zer sor dadin? Nahi dutena aipa ditzakete arrazoitzat: logika, beharra, kategoriak, absolutua, edo lantegi filosofiko osoaren edukia; baina zerbait sor dadin burura etor dakidakeen arrazoi *erreal* bakarra *nork edo nork gauza hori hemen izan dadin nahi izatea da*. Hau da, horixe *galdatzea*, agian mundu masaren zatirik txikienari ere garrantzia emateko. *Arrazoi bizia* da hau eta, beronen aldean kausa materialak eta behar logikoak mamu antzeko gauzak dira.

Laburbilduta, mundu osoro razional bakarra makila magikoen mundua, telepatiaren mundua, litzateke, non desio bakoitza bat-batean betetzen den, inguruko edo bitarteko boteerik aintzat hartu edo baretu beharrik gabe. Absolutuari dago-kion mundua da hau. Berak deitzen dio mundu fenomenikoari izatera, eta izan ere berak galdatu bezalakoxea *da*, beste baldintzarik behar izan gabe. Gure munduan, ordea, banakoaren desioak baldintza bat baino ez dira. Beste banako batzuk ere

hantxe dira beren desioekin, eta haiek lasaitu beharra dago lehenbizi. Hartara, edozertariko erresistentzien eraginpean hazten da Izakia anitzen mundu honetan, eta, konpromisotik konpromisora, mailaka baino ez da eratzen bigarren mailako forma razionala esan dakiokenean. Makila magiko motako eraketara bizitzako atal batzuetan bakarrik hurbiltzen gara. Ura nahi dugu eta txorrota irekitzen dugu. Argazkia nahi dugu eta makinaren botoiari sakatzen diogu. Informazioa behar dugu eta telefonoz hots egiten dugu. Bidaian joan nahi dugu eta txartela erosten dugu. Hauen moduko eta antzeko kasuetan ez dugu nahi izatea baino ia ezer gehiagorik behar: mundua gainerako guztia egiteko moduan razionalki eratuta dago.

Baina razionaltasunari buruzko berriketa hau parentesi bat eta digresio bat da. Eztabaidatzen ari ginena, osoan barik piezaka, bere atal guztien ekarpenez, hazten ari zen munduaren ideia zen. Har dezagun seriocki eta aukera bizi legez hipotesia. Demagun munduaren egileak kreazio aurretik kasua honelaxe aurkeztu zigula: «Salbatua izanen dela ziur ez daukan mundu bat egitera noa, hobe zintasuna baldintzaturik ukanen duen mundu bat, baldintza izanik eragile ezberdin bakoitzak bere ‘maila ahalik ondoen’ lantzea. Horrelako mundua egiten parte hartzeko aukera eskaintzen dizuet. Segurtasuna, ikusten duzue, bermatu barik dauka. Abentura erreala da, eta arrisku erreala dauka, baina gaindi daitekeena. Elkarlanerako plan sozial bat da, benetan burutu behar dena. Batuko al zarete ibilketara? Jarriko al duzue zeuen buruengan eta beste eragileengan arriskuari aurre egiteko adina konfiantza?».

Mundu horretan parte hartzea seriocki proposatuko bali-tzaizue, behar adina segurtasunik ez duelako ezezkoa ematera beharturik sentituko al zinatekete? Zalantza modurik gabe erranen al zenukete ezen, horrelako unibertso arras pluralista eta irrazionalaren parte eta txatal izan baino nahiago zenukete-la tentatzailearen ahotsak une baterako utzarazitako ezerezaren lotara berriro erori?

Izaera normala baduzue, ez duzue, jakina, horrelako ezer eginen. Gutariko gehienok barne optimismo osasungarri bat daukagu, unibertso horrekin bete-betean bat datorrena. Onartu eginen genuke, beraz, eskaintza: «Top! Und Schlag auf Schlag!»\*. Bizi garen mundua bezalakoxea litzateke praktikan; eta gure haurtzaroko zaintzaileari zor diogun leialtasunak galaraziko liguke ezetz esatea. Proposaturiko munduari arras «razionala» iritziko genioke biziki.

Gutariko gehienok, beraz, nik uste behintzat, gustura onartuko genuke proposizioa eta kreatzailearen *fiat*-ari geure *fiat*-a erantsiko genioke. Hala ere, agian batzuek ez lukete onartuko, zeren giza talde orotan hantxe izaten dira beti gogoz belaxkak direnak, eta horientzat borroka bidezko salbazio aukera bakarra eskaintzen duen unibertso baten perspektibak ez du erakarmen modurik. Denok ditugu adoregabetasun uneak, geure buruarekin goraino eta alferreko ahaleginetan nekatuta gaudenean. Apurtu egiten zaigu gure geure bizitza eta seme iriolearen jarrean erortzen gara. Mesfidati jartzen gara gauzek eskaintzen dizkiguten aukerekiko. Unibertso bat nahi dugu, amore eman eta aitaren besoetara erori ahal izateko modukoa, bizi absolutuak xurgatuta bizitzeko, ibaian edo itsasoan nahasita desagertzen den ur tanta bezala.

Bakea eta atsedena, une horietan desio dugun segurtasuna hain esperientzia finituko ustekabeko ezbeharren aurka. Nirvanak segurtasuna suposatzen du sentsumenen munduaren muin den etengabeko abentura mordo horren aurrean. Hindua eta budista, funtsean jarrera hau hartzen baitute, beldur dira, esperientzia gehiagoren beldur, bizitzaren beldur.

Eta horrelako izaera duten pertsonen monismo erlijiosoa bere hitz kontsolagarriekin doakie: «Dena da beharrezko eta funtsezko, zeu ere bai, zeure arima eta bihotz gaixo eta guzti. Gauza guztiak dira bat Jainkoarekin, eta Jainkoarekin dena da ongi. Haren besoak betikotasun guztian zabalik daude, itxura

\* Ados! Eta orain arlora!

finituko munduan zu itxuraz garaile nahiz galtzaile izan». Ez dago dudarik, gizakiak estuasunaren azken muturreraino eramaten direnean, absolutismoa dela plan salbatzaile bakarra. Moralismo pluralistak hagin-karraska jartzen ditu, bihotza izozten die bular barruan.

Bi erlijio mota konkretuki ikusten ditugu, bada, kontraste nabarmenean. Lehengo geure konparazio terminoak erabilita, esan genezake eredu absolutistak gogo samurrekoa erakartzen duela, pluralistak, ordea, gogo bortitzekoa erakartzen duen artean. Askok ez lukete onartuko eredu pluralista ezelan ere erlijiosotzat hartzea. Moralista dela erranen lukete, eta eredu monistari bakarrik aplikatuko liokete erlijioso hitza. Erlijioa norbere buruaren errendizio gisa eta moralismoa norbere burua aski izate gisa, elkarren kontra bateraezin izan dira maiztxo giza pentsamenduaren historian.

Hemen filosofiaren azken galderaren aurrean aurkitzen gara. Laugarren hitzaldian nioen uste nuela alternatiba monista-pluralista gure adimenek era dezaketen sakonen eta eman-korrena dela. Izan al daiteke disjuntzioak irtenbiderik ez edukitzea, hau da, alde bat bakarrik egiazkoa izatea? Bateraezinak al dira benetako pluralismoa eta monismoa? Baina, baldin mundua egiazki era pluralistan eraturik balego, benetan ere era banakarian existituko balitz eta bakoitz pilo batez osaturik balego, salba ote liteke piezaka eta *de facto* soilik haien portararen ondorioz, eta gerta ote liteke batasun esentzialen batek, non desberdintasun hori aldeaz aurretik «bildua» eta betiko «gainditua» legokeen, mundu horren historia epikoa inola ere ez moztea? Hau horrela balitz, filosofia bata edo bestea aukeratu behar genuke. Ezinen genieke esan «bai, bai» alternatiba biei. «Ez» batek izan beharko luke posiblearekin dugun erlazioan. Etsipena ere aitortu beharko genuke: ezin gara egon geure senean eta senetik kanpo ekintza zatikaezin berean.

Gizakiak garenez gero, egun batean, jakina, geure senean eta biharamunean burutik egon gaitezke; eta filosofian azaletik

interesaturik gauden zale gisa, ukanen dugu agian esaterik pluralista monistak, hautamenaren aldeko deterministak garela, edo otu dakigukeen eduki adiskidetzailako beste edozer garela. Baina argitasuna eta koherentzia helburu ditugun eta pragmatismoak egia egiari egokitu beharra daukala sentitzen dugun filosofoak garenez, pentsamendu mota bietatik bat argi eta garbi hartu beharrean aurkitzen gara, samurra edo sendoa. Bereziki beti izan dut neure baitan zalantza *hauxe*: ez ote doaz urrunegi gogo samurrekoen galdapenak? Jada *in toto* salbaturik dagoen munduaren nozio hori ez ote da melengegia zutik eusteko? Optimismo erlijiosoa ez ote da idilikoegia? *Dena* salbatu behar al da? Ez ote da *inolako* preziorik ordaindu behar salbazioko lanean? Eztia ote da azken hitza? «Bai, bai» ote da dena unibertsoan? Ez al dago «eza» bizitzaren muin-muinean? Bizitzari egozten diogun «seriotasunak» berak ez ote du esan nahi ez horiek eta galera saihestezin horiek bizitzaren osagai direla, beti ere benetako sakrifizioak direla nonbait, eta zerbait gogorra eta mingotsa gelditzen dela betiko bizitzaren kopa ipurdian?

Ezin dut hitz egin hemen pragmatista ofizial gisa; esan nezakeen guztia zera da, neure pragmatismoak ez didala eragozpenik jartzen ikuspegi moral honen alde egoteko eta guztizko adiskidetzearen galdapenari uko egiteko. Ukan daitekeen jarrera da hau, zeren pragmatismoa prest baitago pluralismoa hipotesi seriotzat hartzeko. Azken batean, geure fedea da, eta ez logika, horrelako auziak erabakitzen dituen eta ustezko logika orori ukatzen diot nire fedeari betoa ipintzeko eskubidea. Prest sentitzen naiz unibertsoa leku benetan arriskutsu eta menturazkoa dela onartzeko, horregatik atzera egin gabe eta «ni jolas horretan ez nabil» deiadarka hasi gabe. Joera dut pentsatzera seme iriolearen jarrera, hainbat kinkatan hurbil sentitzen duguna, ez dela jarrera zuzena eta erabakigarria bizitza osoarekiko. Prest nago onartzeko galera errealek eta galtzaile errealek izan behar dutela, eta ez dela izan behar den guztiaren salbazio osorik. Sinets dezaket idealean azken gisa, ez hasiera

gisa, eta laburpen gisa, ez osotasun gisa. Kopa husten denean, hondarrak uzten dira betiko; baina nahikoa da onartzea handik ateratzen dena gozoa izan daitekeela.

Egia esateko, kontatu ezin ahala giza irudimen bizi dira tankera epiko eta moraleko unibertso honetan, beren arrakasta barreiatu eta kordatuak nahikotzat dituztenak euren behar razionalak asetzeko. Bada epigrama bat antologia grekoan gogo-aldarte hau, erremediorik gabeko galeren onarpen hau, miresgarriro adierazten duena, galdurikoa norbera denean ere:

*Itsasoan galdutako marinel batek, kostalde honetantxe ehortzita dagoenak,*

*nabigatzera animatzen zaitu.*

*Belaontzi ausart asko, gu galdu ginenean,*

*onik atera ziren ekaitzetik.*

«Prest al zeundeke Jainkoaren aintzagatik kondenatua izatera» galderari «baietz» erantzun zioten puritano haiek gogo-aldarte objektibo eta eskuzabal horixe zeukaten. Sistema honetan gaizkitik ihes egiteko bide bakarra *ez* da osotasunean, funtsezko baina «gaindituriko» elementu gisa, «*aufgehoben*» edo salbaturik uztea. Bidea, *oso-osoan erortzen uztea, karele-tik behera botatzea, atzean uztea eta haren lekua eta izena ere ahanztziko duen unibertsoa egiten laguntzea da.*

Arras daitekeena da, beraz, onartzea tankera erradikaleko unibertso bat, «seriotasun» elementua aldetik kendu beharrik ez duena. Horrela egiten duen oro, nire ikusiz, benetako pragmatista da. Horrelakoa prest dago bermatu gabeko posibilitatez osaturiko plan baten barruan bizitzeko; prest dago bere buruaz ordaintzeko, hala behar izanez gero, buruan dituen idealen gauzatzea.

Orain, zein *dira*, izan, mota horretako unibertso batean berarekin elkarlanean jardunen dutela espero duen indar horiek? Bada, gure unibertsoak gaur egun erdietsi duen izate-fasean, bere lagun hurkoak bai bederen. Baina ez ote dira giza neurrikoez gaindiko indarrak ere, hala nola aipatu ditugun

mota pluralistako gizon erlijiosoek beti sinetsi izan dutenak? Haien hitzak monista antza ukan zezaketen «Jainkoa beste Jainkorik ez da» esaten zutenean; baina gizateriaren jatorrizko politeismoa perfekzioz ez zehaztasunik gabe sublimatu da monoteismoan; eta monoteismoa berak, metafisikarientzako eskola-jakintza eredu bat barik, erlijiosoa izan den heinean, beti ikusi izan du Jainkoa lankide bat bezala, *primus inter pares*, munduaren patu handiaren modelatzaile guztien erdian.

Beldur naiz nire aurreko hitzaldiek, giza alderdietara eta arlo humanistetara mugaturik egon direnez, ez ote duten utzi zuetariko askorengan pragmatismoak gizakiaz gaindikoa den guztia, metodoz, kanpoan uzten duen inpresioa. Begirune eskasa, egia da, erakutsi dut Absolutuarekiko, eta une honetaino gizakiaz gaindiko hipotesi hauxe besterik ez dut hizpide izan. Baina uste osoz espero dut ikusiko duzuela Absolutuak Jainko teistarekin komunean gizakiaz gaindikoa izatea beste ezaugarririk ez duela. Printzipio pragmatistetan oinarrituta, Jainkoaren hipotesiak egokiro funtzionatzen baldin badu hitzaren zentzurik zabalenean, egiazkoa da. Orain, ukan ditzakeen hondar-zailtasunak zailtasun, esperientziak erakusten du funtzionatzen duela, eta arazoa hipotesi hori funtzionatzen duten beste egia guztiekin egokiro konbinatzeko moduan eraiki eta zehaztean datzala. Ezin dut teologia oso bat azaltzen hasi azken hitzaldiaren amaieran, baina baldin gizakien esperientzia erlijiosoari buruzko liburu bat idatzi dudala eta, oro har, Jainkoaren errealitatearen aldekotzat hartua izan dela badiotsuet, orduan agian nire pragmatismoa sistema ateoak izateaz akusatzetik salbu utziko duzue. Nik neuk inola ere ez dut sinesten gure giza esperientzia unibertsoan diren esperientzia mota guztietan gorena denik. Nik gehiago ere sinesten dut gu unibertso osoarekiko gure txakurrek eta katuek giza bizitza osoarekiko duten erlazio bertsuan gaudela. Gure egongela eta liburutegietan zehar ibiltzen dira. Inondik ere ulertzen ez dituzten eszenetan parte hartzen dute. Historiaren kurbekiko



ukitzaile hutsak dira, beronen hasiera-amaierak eta formak haien ulermenaz haraindi daudelarik Gu ere, antzera batean, gauzen bizitza zabalagoarekiko ukitzaileak gara. Baina txakurraren eta katuaren idealik asko gureekin bat datozen bezala, txakurrek eta katuek horren froga bizia egunero dutelarik, halaxe guk ere arrazoiz sinets dezakegu, esperientzia erlijiosoa dakarzkigun frogetan oinarrituta, badirela goragoko botereak, eta lanean ari direla mundua salbatzeko gure geureen antzeko ildo idealen arabera.

Ikusten duzuen moduan, pragmatismoa har daiteke erlijiosotzat, erlijioa, motari dagokionez, pluralista edo behintzat meliorista izan daitekeela onartuz gero. Baina zuek erlijio mota honekin azken batean konforme gelditzea ala ez, hori zeuek bakarrik ebatz dezakezuen arazoa da. Pragmatismoak geroko utzi behar du erantzun dogmatikoa, oraindik ez dabilgulako ziurtasunez zein erlijio motak funtzionatuko duen ondoen epe luzera. Jendearen gainsineste ezberdinak, fede-abentura ezberdinak dira, izan, benetan behar direnak ebidentzia ekartzeko. Zuek nork bere erara eratuko dituzue nonbait zeuen abenturak. Arras bortitzak bazarete, nahikoa izanen duzue naturako gertakari sentigarrien zalaparta, eta ez duzue erlijiorik beharko. Arras samurrak bazarete, ordea, erlijio erarik monistena hartuko duzue: era pluralistak, beharrak ez diren posibilitateei dien atxikimenduarekin, behar adina segurtasun ez dakarkizuela uste izanen duzue.

Baina, ertzeko zentzu erradikalean, ez bortitzak ez samurrak ez bazarete, baizik bietarikoak, gehienok garen bezala, orduan baliteke eskaini dizkizuedan mota pluralista eta moraleko erlijioari beste edonon topa zenezaketena bezain erlijio-sintesi ona iriztea. Mutur bien artean, hau da, alde batetik naturalismo gordinaren eta bestetik absolutismo transzendentalaren artean, agian erabakiko duzue hemen nik mota pragmatista edo melioristako teismo gisa azaldu dudana dela egin-eginean zuek behar duzuen.



## GAUR EGUNGO DILEMA FILOSOFIAN

<sup>1</sup> Morrison I. Swift, *Human Submission*, Bigarren Partea, Filadelfia, Liberty Press, 1905, 4-10 orr.

## PRAGMATISMOAK ZER ESAN NAHI DUEN

<sup>1</sup> 1879ko urtarrileko *Revue Philosophique*-n itzulia (VII. lib.).

<sup>2</sup> «Theorie und Praxis», *Zeitsch. des Oesterreichischen Ingenieur u. Architekten-Vereines*, 195, 4 eta 6 zenbakiak. Ostwaldena baino pragmatismo are erradikalagoa aurkitzen dut W.S. Franklin irakaslearen hitzaldi batean: «Fisikaren noziorik zurbilena, ikasleak ulertzen duen arren, honako hau dela uste dut, alegia, fisika 'masen, molekulen eta eterraren zientzia' dela. Eta pentsatzen dut nozio egokiena, ikasleak guztiz atzematen ez badu ere, honako hau dela, alegia, fisika gorputzei heldu eta bultzatzeko moduen zientzia dela!». (*Science*, 1903, urtarri-la, 2).

## ZENBAIT ARAZO METAFISI- KO PRAGMATIKOKI IKUSITA

<sup>1</sup> *The Foundations of Belief*, 30 orr.

## BATA ETA ANITZA

<sup>1</sup> Ikus. A. Bellanger: *Les concepts de Cause, et l'activité intentionnelle de l'Esprit*, Paris, Alcan, 1905, 79 h. orr.

<sup>2</sup> *The Conception of God*, New York, 1897, 292 orr.

<sup>3</sup> Azkenaren noziorako, ikus Schiller jaunaren saiakera: «Activity and Substance», bere *Humanism* liburuan, 204 orr.

## PRAGMATISMOA ETA ZENTZUNA

<sup>1</sup> *The Life of Reason: Reason in Common Sense*, 1905, 59 orr.

## PRAGMATISMOAK EGIARI BURUZ DUEN IKUSMOLDEA

<sup>1</sup> A. E. Taylor, *Philosophical Review*, XIV. Lib., 288 orr.

<sup>2</sup> H. Rickert, *Der Gegenstand der Erkenntnis*, «Die Urtheilsnothwendigkeit» kapituluan.

<sup>3</sup> Ez dut ahanztita Rickert irakasleak aspaldi egin ziola uko errealitatearekiko adostasunean oinarrituriko egia-  
ren nozio osoari. Hark dioenez, errealitatea egia-ekin ados dagoena da, eta egia gure betebeharrak nagusi batean oinarritzen da. Ihesbide fantasiatsua

honek, Joachim jaunak bere *The Nature of Truth* liburuan lañoki aitortzen duen porrotarekin batera, agerian jartzen du, nire ustez, razionalismoa, gai honi buruz ari denean, zeharo krak eginda dagoela. Rickertek jarrera pragmatistaren zati bat berak «Relativismus» deitzen duenaren pean lantzen du. Ezin dut hemen eztabaidatu haren testua. Aski bedi esatea kapitulu honetako arrazoibidea

hain ahula dela, non lanak ematen dituen oro har hain idazle iaioa denak idatzia dela sinesteak.

## **PRAGMATISMOA ETA HUMANISMOA**

<sup>1</sup> *Personal Idealism*, 60 orr.

<sup>2</sup> Taylor jaunak darabil definizio pragmatiko bikain hau bere *Elements of Metaphysics* liburuan.

# *Aurkibidea*

HITZAURREA .....	7
BIBLIOGRAFIA .....	31
AUTOREAREN ESKAINTZA .....	33
EGILEAREN HITZAURREA .....	35
LEHENENGO HITZALDIA: Gaur egungo dilema filosofian .....	37
BIGARREN HITZALDIA: Pragmatismoak zer esan nahi duen .....	61
HIRUGARREN HITZALDIA: Zenbait arazo metafisiko pragmatikoki ikusita .....	85
LAUGARREN HITZALDIA: Bata eta anitza .....	109
BOSGARREN HITZALDIA: Pragmatismoa eta zentzuna .....	131
SEIGARREN HITZALDIA: Pragmatismoak egiari buruz duen ikusmoldea .....	149
ZAZPIGARREN HITZALDIA: Pragmatismoa eta humanismoa .....	173

ZORTZIGARREN HITZALDIA:	
Pragmatismoa eta erlijioa . . . . .	193
OHARRAK . . . . .	211